J.AGIRRE KOLEKTIBOA

∞ ∞ ∞ ∞ ∞ ∞ ∞ ∞ ∞ ∞ ∞

IDAZLANAK
BILDUMA
-1-
LAN AKADEMIKOAK
IRITZI ARTIKULUAK
KOLABORAZIOAK



Antton Azkargorta, Alain Badiou eta Niko Xamardo Paris 1987

Alain Badiou eta Laura Mintegi Paris 1987

Alain Badiou eta Niko Xamardo Paris 1987

GERTARAZTEN
argitalpenak
2026
https://badiouetagu.eus
https://gertarazten.net

AURKIBIDEA

Aurkezpena: J. Agirre Kolektiboa: gertakizuna, azterketa sintomatikoa eta askapen nazionalaren politika berria **3**

J. AGIRRE KOLEKTIBOA
Analisi sintomatikoa eta politika nazionala **11**
Infinituaren erronka **38**
Publikoa, Pribatua eta Herritarra **60**
Aurkezpena – J Agirre **68**
Errepresioaren porrota **71**
Impassetik nola irten **74**
Pluralismoa, batasuna eta integrazioa **76**
Errealak moztutako amets zapuztuak **81**

J.AGIRRE KOLEKTIBO-ko BURKIDEAK et al.

Antton Azkargorta, Nikolas Xamardo
"Egia eta egiantzekotasuna. Prentsa Euskadin. Zenbait adibide" **85**
"Herri mugimenduak eta komunikazio prozesua" **94**

Anton Azkargorta Arexabala
Hitzaurrea**"** in Alain Badiou: *Etika: Gaizkiaren kontzientziari buruzko saioa* **104**
Kazetarien tipologiarako zenbait ohar **108**

Jesus Mari Zalakain Garaikoetxea, Nikolas Xamardo Gonzalez,
Citizen Kane, Hedabideak, botereak eta beren mugak **119**

Laura Mintegi Lakarra
"Euskal kulturaren izenaz eta izanaz" **168**
"*Ertza* kandidaturako errektore-hautagaia" **173**

Nicolas Xamardo, Xabier Rodriguez)
"Iruña-Veleia, gaizki ikusia, gaizki esana" **176**
"Teoria konspiranoikoak" **178**
"Indultuek ezkutatzen dutena" **180**
"Alfonso Sastre, erreferente etiko unibertsala" **181**
"Ignacio Sánchez Galán arratoia" **182**
"ETA edo hiltzeko plazera" **183**
"Pablo Torquemada" **183**
"Amaiur: haren adoreak interpelatzen gaitu" **184**
"Irulegik gure identitatea argitzen du" **185**
"Identitatearen dilatazioa ala purifikazioa" **187**
"EH Bildu, lehen indarra Araban" **188**

Nikolas Xamardo Gonzalez
"Guernica" Gernikara **190**
Elkarrizketa: **"***J.Agirre Kolektiboa Euskal Herriko egoera politikoa eta ENAM interpretatzeko modu berri bat izan zen***"** **192**

Antton Azkargorta, Jose Luis Herrero
"Jon Etxeandia eta elkartasuna" **203**
"Lege unibertsitario propioaren proposamena" **207**
"Gure kaleratzearen XXII. Urteurrenean" **209**
"Gure kaleratzearen 30. Urteurrenean" **210**
"UPVk gure kaleratzearen 33. Urteurrenean" **212**

Aurkezpena

J. Agirre Kolektiboa: gertakizuna, azterketa sintomatikoa eta askapen nazionalaren politika berria (*IGM – 2026ko Maiatza)*

J. Agirre Kolektiboa (JAK) 1990ko hamarkadaren zehar Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) giro akademikoan sortutako talde intelektual eta militantea izan zen, bereziki Kazetaritza eta Filosofia sailen inguruan. Taldearen izena Laura Mintegik proposatu zuen, eta kide nagusien artean Nikolas Xamardo, Antton Azkargorta, Jesus Mari Zalakain eta Jose Luis Herrero daude.

Taldearen helburu nagusia Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduaren (ENAM) eta Euskal Herriko egoera politikoaren interpretazio kualitatiboa eta sakona eskaintzea izan zen.

JAKek ekoiztutako lan akademikoen, iritzi artikuluen eta kolaborazioen bilduma esanguratsu honek euskaraz idatzitako idazlanez osatua dago. Aurrerago, beste bilduma bat etorriko da haien gaztelaniazko lanekin; eta hirugarren bat kokektiboaren lanei eskeinitako kritikekin, batzuk, ganorazkoak maila intelektualean, beste asko, aldiz, iraina, difamazioa, manipulazioa eta gezurra oinarri.

Dena dela, lehen bilduma honek euskal talde intelektual eta militante bikain baten euskaraz idatzitako ekoizpena batzen du. Filosofia, matematika eta politika nazionalaren arteko elkargunean oinarritzen den bilduma honen garrantzia hainbat gai historikoen tratamendu Aber atzean oinarritzen da: Teoria eta praktika, Analisi sintomatikoa, Gertakizuna, Infinitua, Hedabideak, Kultura eta identitatea, Irakaskego propioaren aldeko borroka.

Teoria frantsesa eta egiaren etika

J. Agirre Kolektiboaren pentsamenduaren oinarri teoriko nagusiak, batez ere, Alain Badiou (Gertakizunaren Teoria) eta Jacques Lacan (Subjektuaren Teoria) gehi Louis Althusser (Interpelazioaren Teoria) pentsalari frantziarren obretan sustraitzen dira. Lacaniar psikoanalisia eta Badiouren ontologia bereziki funtsezkoak dira euskal gatazkari aplikatzeko orduan datu kuantitatiboetatik haratago analisi sintomatikoa deritzana egiteko. Izan ere, oinarri teoriko horiek borrokaren subjektibotasuna ulertzeko marko indartsua izaten jarraitzen dute,

gizabanakoak gertakizun fundstzsile bati " fideltasunaren bidez subjektu politiko nola bihurtzen diren erakusten duen neurrian.

Honetaz gainera Badiouren *Etika* , erdi-erdikoa da JAKaren ENAMekiko fideltasuna ulertzeko. Etika honek giza-eskubideetan eta *Beste*an zentratua dagoen moral humanitario liberal garaikidea arbuiatzen du Egien etika baten alde egiteko. Etika hau, bada, Etika militantea da, ezarritako ordena hausten duen gertakizun eraldatzaile eta ustekabeko bati (politikan, artean, zientzian edo maitasunean) fideltasunean errotuta dagoena.

Badiourentzat, gertakizun horren egiarekin konprometituz baten interes berekoi eta pribatuetatik haratago subjektu berri bat sortzen da. Gaizkia, horrela, ez da arau moralen urraketa, fideltasun horren traizioa baizik, gertakizunaren ondorioak ez betetzea.

Analisi Sintomatikoa, metodo kualitatiboa eta Estatuaren logika

J. Agirre Kokektiboak proposatutako azterketarako tresna nagusia analisi sintomatikoa da. Metodo honek psikoanalisiaren printzipioak aplikatzen dizkio politikari eta hedabideei. Gatazka-egoeratan metodo koantitatiboak (datuak, inkestak, espazioen neurketak) ez dira nahikoak egia ulertzeko. Sintoma bat, Lacanen arabera, lerroartean zerbait esaten duen adierazlea da, diskurtso ofizialak ezkutatu nahi duen egia bat azaleratzen duena.

Politikan, analisi honek Estatuaren diskurtsoan (bere *Enziklopedian*) sortzen diren arrakalak edo zirrikituak bilatzen ditu. Idazlan hauetan, horrela, hainbat adibide historiko aztertzen dira Estatuaren garaik “osasun politikoa" neurtzeko, bertsio ofizialen zein isiluneei erreparatuz.

Sintoma politikoak aztertuz —GALen eskandaluaren inguruan dauden gobernu ofizialen isiluneak, esaterako—, Espainiako Estatuaren eta botere egituren baitan ezkutuko egiak azalera daitezke. Baita Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduaren (ENAM) barnean bertan, kuantifikazioaren joerari ematen zaion nagusitasuna ere, errealitatearen egia modu objektiboago batean antzematen delakoan-edo.

ENAMen beraren interpretaziorako, baina, JAKek esku-hartze intelektual kualitatiboa egokiagoa dela baieztatzen du, hedabideek pribilegiatzen dituzten metodo kuantitatibo estandarrak ez direlako nahikoak euskal gatazkaren egia sakona ulertzeko. Bestela esanda, Alain Badiou eta Jacques Lacan bezalako pentsalarien teoria konplexuak aplikatuz, kolektiboak Espainiako Estatuaren logikatik kanpo ENAMen izaera hobe ulertzeko aukera gehiago dago.

Gertakizunaren Teoria eta ENAM

J. Agirre Kokektiboaren pentsamenduaren ardatza Badiouren Gertakizuna (*Événement, Event, Acontecimiento*) kontzeptua da. Gertakizun bat egoera baten barruan sortzen den berritasun erradikal bat da, aurretik zegoen logikarekin (Estatuaren logikarekin) apurtzen duena. Euskal testuinguruan, ENAMen eta ETAren sorrera gertakizun fundatzaileak dira eta gertakizun horiekiko fideltasuna da subjektu politikoa sortzen duena. Horregatik, are gehiago, Politika (gertakizun bati lotutako berritasuna) eta Politikoa (dagoenaren kudeaketa administatiboa edo parlamentarioa) bereiztu behar dira. Benetako emantzipazio-politika ezinezkoa litzateke gertakizun horiek sortutako egia generikoari eutsiko dioten militante eta herri-mugimendurik gabe.

Testuinguru honetan, JAKkoek gertakizunari buruz zehaztapen argigarria eskaintzen digute, hemen, bere luzaeran aipatzea merezi duena:

> *Oso komenigarria deritzogu gertakizuna kontzeptuari buruzko ondoko puntuak argitzeari: gertakizun fundatzailea, bere baitaren barnekoa den anizkuna [multiploa] litzateke, fidelak zaizkion beste anizkunen sorrera ere izanik. Euskal Herrian, subiranotasunaren galeraren kontzientzia hartzea eta haren berreskurapen aldeko burruka litzateke. Hau ez da. inolaz ere, gertaera historiko objetibagarria (jai dute, beraz, gertaera horren bila jotake aritzen diren historialariek), interbentzio-apostu, interpretazio eta izendapen emaitza baizik. Ez gara, ondorioz, historiari buruz mintzatzen ari, historizitateaz (historia politikaren ikuspegitik ikusita) baizik; historiaren interpretazio zehatz bat defendatzen dugu beraz, historia unibertsala eta objetibagarria, marxismo zaharkituak hedaturiko falazia besterik ez delako*."Publikoa, Pribatua eta Herritarra", *(1991).*

Herri mugimenduak, matematika, eta infinitua

Anizkuna edo multiploa aipatu ondoren, inportantea da azpimarratzea, baita ere, J Agirre Kolektibokoek infinitu kontzeptuaren esplorazio filosofiko zorrotza eskaintzen digute. Horrela, greziar finitismotik eta infinitu teologikotik multzoen teoria modernorainoko bilakaera azalduz gain axioma matematiko zein politikoen bidez beste interpretazio-esparru erradikal baterako aukera irekitzen dute.

Georg Cantoren multzoen teorian eta Alain Badiouren gertakizunaren teorian oinarrituta, infinitua abstrakzio hutsa baino errealitate ontologiko bat da,

are, ondorioz, politikarako metafora gisa erabilgarria. Izan ere, aktibismo politikoa eta infinitu matematikoa biak ala biak batera baitira ezarritako ezagutza sozial eta intelektual zaharra hausteko tresnak baldintza politiko berriak sortze aldera.

Euskal testuinguru politiko zehatzean, ondorioz, Euskal Nazio Askapenerako Mugimendua (ENAM) anitz (anizkun) edo multiplo infinitu gisa definitu daiteke. Izendapen honek adierazten du bere hedapen- eta erresistentzia-gaitasuna mugagabea dela, Estatuaren kanpoko legeei baino barne-printzipio axiomatikoei men egiten dielako.

Honek sektore txiki batek (Ezker Abertzalea) Estatu ahalguztidun bati zergatik aurre egin diezaiokeen argitzen du: indarra ez dago kantitatean (boto-kopurua), kualitatean baizik, hots, gertakizunaren egiarekiko fideltasunean.

Testuinguru honetan, are gehiago, herri-mugimenduak (Lemoiz, Ikastolak, intsumisioa, Lurraldea…) egia horren metatze-puntuak dira: puntu horietan ENAMen egia infinituaren indar kualitatiboa kontzentratzen da, gertakizunaren potentzia osoa ageraraziz.

Azkenik, baina, infinituaren erronka ez da bakarrik askapen borrokak gertakizunaren egia hori errealitatera behartu edo forzatu egin behar duela fideltasun militantearen bidez; da, are gehiago, behartze edo forzatze lan hori hondamendiaren (totalizazioa) eta utopiaren (desira eragingabea) tranpa historikoak saihestuz egin behar direla!

Hedabideak: Albistea vs. Gertakizuna eta *Citizen Kane*

J. Agirre Kolektiboaren beste ezaugarri nagusienetarikoa egiten duten masa-komunikabideen kritika zorrotza da. Besteak beste, bereizketa oinarrizko bat proposatzen dute Albistea eta Gertakizunaren artean eta Antton Azkargortak kazetariek lau kategorietan banatzen dituen tipología intetesgarria eskaintzen digu.

Bereizketa dela eta, albistea dagoen egoeraren barruan txertatzen da, datu metagarria da eta behin-behinekoa. Hedabideek jendea integratzeko eta Estatuaren iritzi publikoa sortzeko erabiltzen dute. Gertakizuna, aitzitik, ustekabeko haustura dakar eta ez da erraz komunikagarria. Politikaren egia ez da albisteen bidez transmititzen, arestian aipatu interpelazioaren bidez baizik, subjektuz subjektu.

Kazetarien tipología dela eta, eskribaua, estatuarena, ausarta, aparatuarena, oportunista eta Egia/gertakizunarena dira Antton Azkargortaren sailkapenean sartzen direnak. Kazetarien tipo finkoak izan gabe edozein

subjektuen eraikuntzan parte hartzen duten lau konzeptuekin, angustia, kuraia, superegoa eta justiziarekin, nolabaiteko harreman edo harreman-eza erakusten dute.

Bestalde, Orson Wellesen *Citizen Kane* filmaren analisiaren bidez, Nikolas Xamardok, Jesus Mari Zalakainekin batera, erakusten digute hedabideek norbaitek egin zuena kontatu dezaketela, baina ezin dutela sekula jakin nor zen benetan (subjektuaren egia sakona). Kane, prentsaren handiki gisa, boterearen irudia da, baina bere bakardadeak eta *Rosebud* enigmak erakusten dute botere mediatikoak ez duela gaitasunik gizakiaren barne-muinera iristeko.

Kultura eta identitatea

Izan ere, identitatearen gaia erdi-etikoa da Nikolas Xamardorentzat. Horrela, Xabier Roidriguezerekin batera identitateen purifikazioa baino dilatazioa proposatzen dute, identitateen izaera irekia, hain zuzen. Horrela, inmigrazioaren (proletario nomadak) aurrean, ez dute integrazio behartua defendatzen (horrek Estatu zapaltzailearen asimilazioa dakarrelako), baizik eta gure identitatea zabaltzea, elkar-ezagutzaren bidez herri berri bat eraikitzeko.

Kulturari buruz, Laura Mintegik euskal kulturaren inguruko pentsarazteko hausnarketa azaltzen digu. Bere ustez, euskal kultura ez da soilik hizkuntzak definitzen duen zerbait (diglosia eta menderapen kulturala dela eta, erdaraz ere euskal mentalitatea adieraz daitekeelako, eta alderantziz, erdal mentalitatea euskaraz). Euskal kultura, ondorioz, ez dago aldez aurretik finkatua eta guk nahi duguna da: proposamen eta aukera ezberdinen artean kolektibitateak onartzen duen erabaki dialektiko eta dinamikoa, hain zuzen.

Honetaz gainera, *Ertza* kandidaturako erretore-hautagaia gisa, Mintegik intelektualen, zientzialarien eta artisten zein literaturgileen jarrera zein izan beharko litzatekeen azpimarratzen du: aurretik esan edo egin gabekoa bilatu behar dute, bide berriak jorratuz eta arriskatuz.

Are gehiago, garaian (1994) erdi-erdikoa izan zen borroka baten inguruan, Euskal Herriko Unibertsitatearen izaerari buruzkoa, gaur egun gauzatzen ari diren zenbait irizpide aurreratzen ditu.

,

Irakaslego Propioaren aldeko borroka

Oinarrizko hezkuntzaren inguruko borroken artean Ikastolen aldekoaz gain, bereziki, euskal unibertsitateko irakaslego propioaren aldeko borroka luzea da azpimarratu behar dena, Izan ere, EHUn irakaslego propioaren aldekoa

taldearen historia eta kideen bizitza markatuko duen borroka nagusia izan baitzen.

Lacanen Subjektuaren Teoriari jarraituz, borroka hori Justiziaren lortzeko bidetzat hartu zuten, eta uko egin zioten administrazioak eskainitako edo hobe esanda, inposatutako kontratuen onartzeari, horrek amore ematea eta subjektu gisa traizio egitea suposatzen zuelako.

Borroka horrek hamarkadak iraungo ditu, unibertsitateko atarian pankarta baten atzean egondako makinabat irakasleen eta babes taldeen bidez. Tartean kide askok kaleratzeak eta zigorrak jasan zituzten, gehi gose-grebak egin eta abar. Xamardo, Etxebarria eta Zalakain 2007an itzuli ziren 20 urtezko borrokaren ondoren. Azkargortak eta Herrerok pankartaren atzean jarraitzen dute gaur egun, azken aldian, EHU-ko errektoretza berriaren aldeko iritzi artikulua argitaratu badute ere (*Algunas notas sobre el rectorado de Bengoetxea,* GARA/NAIZ, 2025/03/10)

Oro har, J. Agirre Kokektiboko kideen lan intelektual eta militantearen gorazarrearekin batera. irakaslego propioaren aldeko borrokaren garrantzia azpimarratu behar da. Euskal herritarren hezkuntza eta gizarte beharrei bereziki erantzungo dien unibertsitate nazionala eraikitzeko xedea zuten oinarrizko ekitaldiak ez dira emaitzik gabe geratu!

Laburbilduz: atzo, gaur eta bihar

Bukatzeko, J. Agirre Kolektiboarena interbentzio intelektual eta militante ezin interesgarriago izan zen. 1990. hamarkadako testuinguru politiko zailean, (post)-estrukturalismoa eta psikoanalisia erabili zuten euskal askapen borrokari eduki teoriko sakona eta kualitatiboa emateko; betiere herri-mugimenduen eta subjektibotasun matxinatuaren aldeko apustua eginez.

Bilduma honek, bada, euskal erresistentzia intelektualaren erregistro historiko kritiko gisa balio du, unibertsitateko irakasleen hamarkadetako borroka eta kolonizazio kulturalaren kontrako subertsioa dokumentatuz. JAKkoek identitate nazionalaren aldarrikapena Euskal Herriaren kolonizazio kulturalaren kontra oinarrizko erresistentzia ekintza gisa ulertuko baitzuten.

Bilduma hau, horrela, saiakera eta idazlan multzo bat baino gehiago, ahalegin intelektual militante batetik sortzen den gorputz teoriko bat da, analisi kualitatibo sintomatikoa aldarrikatuz goi-mailako diskurtso politiko, filosofiko, kultural eta sozialen bitartez.

Zalantzarik gabe, bilduma honek gaur egun oraindik garrantzitsuak diren gaiak lantzeko balio du. Irakurleei tresna kualitatibo paregabeak eskaintzen dizkie nola orduko hala gaurko Estatu eta komunikabide ofizialen

diskurtso nagusiak edo *Entziklopedia* deseraikitzeko. Analisi sintomatikoa aplikatuz, irakurleek kontakizun politiko ofizialetan pitzadurak identifikatu ditzakete, datu kuantitatiboen edo isilune ofizialen atzean ezkutatzen diren gatazkaren egia azaltze eta argitze aldera.

Zentzu honetan, ez da kasualidadea JAKeko orduko kideek gaur egun ildo teoriko eta politiko berdinen bidez militatzen eta idazten jarraitzen badute, momentuan momentuzkoko egoera eta gertakariak aztertuz (Iruña-Veleia eta Irulegiko Eskua; Araba, Toki Eder ikastola eta EH Bildu;,*Guernica* Gernikara, Proletario nomadak…). 2020ko hamarkadako atalean sartutako azken artikuluek interpretaziorako marko orokor berdinaren ahalmen iraunkorra erakusten dute, gaur egungo testuinguruko gertakariek interpretatzeko.

Azken finean, bildumak irakurleek *Albiste*etatik haratago *Gertakizun* politikora begiratzera animatzen ditu. Asmoa euskal askapen muginendua den gertakizun gaizki ikusia eta gaizki esanaren oinarriko Egiaren berritasuna komunikagarri egiten jarraitzea da — betiere, etorkizunera begira, zapalkuntzaren aurkako jarrera intelektual intsumisoa bultzatuz.

-I-

J. AGIRRE KOKEKTIBOA

∞ ∞ ∞ ∞ ∞ ∞∞ ∞ ∞ ∞ ∞

J. AGIRRE KOKEKTIBOA

Kazetaritza

“Analisi sintomatikoa eta politika nazionala”

(***UZTARO***, 23 – 1997: 65-86).

Laburpena

Artikulu honetan analisi-metodo koalitatiboen premia aldarrikatzen da, gatazka-egoeratan metodo koantitatiboek ez baitute asko balio politika informatiboa aztertzeko. Sintomak medikuntzan eta psikoanalisian dituen esangura desberdinak errepasatu eta tipologia sintomatikoa aipaturik, egoki deritzo autoreak politika-alorrean zein horren isla diren hedabideetan ere prozedura psikoanalitikoa aplikatzeari. Analisi-metodo honi analisi sintomatikoa deritzo. Proposatzen den analisi hau egiteko puntu pribilegiatuak krisi-une larriak izaten direla dio autoreak, eta eguneroko politika-girotik hartutako adibide piloa eskaintzen du analisi sintomatikoa nola egin daitekeen azalduz.

Abstract

This paper opts for the qualitative method of analysis as quantitative methods are not useful in analysing the politics of information in conflict situations. After presenting the different meanings of symptoms in medicine and in psychoanalysis, the authors think it is suitable to apply psychoanalitic processes into politics and the mass media (where politics are reflected). They name this method of analysis symptomatic analysis. The paper claims that the most favourable moments for applying the proposed method are the moments of serious crisis, and many examples of every day political atmosphere are given to explain how symptomatic analysis can be made.

Euskal Nazioaren Askapen Mugmenduaren (ENAM) eta Estatu espainiarraren arteko gatazka-egoerak –zeinean mass-mediek, honen borroka politiko- ideologikoaren oinarrizko euskarri diren aldetik, leku zentrala betetzen duten–, gure iritziz, metodo koalitatiboak eskatzen ditu, politika eta honen tratamendu informatiboa aztertu eta ebaluatzeko.

Ohi denez, Ezker Abertzaleko (E.Ab.) adituek eta hedabideek Estatu espainiarraren orbitan aritzen diren hedabideen estrategia kontrainsurgenteen aurrean izaten duten jarrera guztiz defentsiboa izaten

da; are gehiago, kexatia. Hauetako azterketa asko, ia soilik, aipatutako hedabideek egiten duten manipulazioa salatu eta deitoratzera mugatzen dira. Lan hauek ondoko irizpide hauek dituzte oinarri: zenbait informazioren presentzia/ausentzia, kokalekua, luze-zabalera, iraupena, berauen testu-edo irudi-tratamendua, etab.; nozio hauek guztiak, ordea, metodo koantitatiboei dagozkie eta parafrasi edo iruzkin deritze. Azterketa hauek duten interesa kendu gabe, eta ENAMen kontra erabiltzen diren manipulazio-kasu eta moduen salaketa oinarrituek duten garrantzia baztertu barik, halere, uste dugu, alde koalitatiboa gehiago azpimarratu behar dela, berezko edo propioa alegia. Hots, ENAMen inguruan sortzen diren aipatutako jokaera militanteetatik isuritako aldea hain zuzen ere.

Beste era batera esanda: aipatutako gogoeta koantitatiboak bertan behera utzi gabe, Euskal Herriaren nazio- eta gizarte-askapenerako prozesuak duen alde koalitatiboari egoki doazkion ebaluazio-prozedurak erabili behar ditugu. Zeren, Estatuarekiko aurkakotasunean kantitatea balitz erabakigarria, nola eutsi ahal izango ziokeen bultzada txikienari boz eta baliabidez hain urria den sektore batek –E.Ab.k– baliabidez eta bozez ahal-guztidun den –koantitatiboki ahalguztidun, jakina– Estatuaren aurrean? Eta, halaber, zenbakitan oinarritzen diren teoria guztien gainetik, E.Ab. ez bakarrik eutsi eta eusten jarraitzeko, baizik eta metatu, aurrera egin eta Estatuak eta enparauek diseinatzen dituzten estrategiak porrotera eramateko gai da; eta hauek bai daudela kantitate-irizpideetan oinarrituta.

Demokratiko autodeituriko sistema espainiar hau, E.Ab.ren kontrako politika informatiboa diseinatzerakoan, berak duen propaganda-banderarik garrantzitsuenetarikoa hautsi beharrean egoteak –hedabideen *aniztasun-independentzia-objektibitate* hirukote sekretua hain zuzen– ENAMen nazio- eta gizarte-askapenerako prozesuaren alde koalitatiboaren indarra erakusten digu. Alde koalitatibo honexek ematen digu aditzera *jokaera (interbentzio)-jabeldura (interpelazio)-bihurdura-etena* sailean oinarrituriko politika informatiboaren nagusitasuna; hau da, subjektuan zentraturikoa. Nagusi den komunikazio-politikarekin kontrajarria hain zuzen, izan ere, hau Igorle-hartzaile eskeman jasota eta medioan zentratuta baitago.

Disimetria koalitatiboa dago gertakzunetik **1** sortzen den informazio-estrategiaren eta albistetik («egia etendako komunikazioa da») sortutakoaren («jakitea etenik gabeko komunikazioa Da» **2**) artean. Hau da, erabakian (etorkizuneko euskal nazioaren berezkoa eraiki) zentraturiko informazio-moduaren eta Estatuak eskaintzen dituen aukeretan artikulaturiko informazio-politika baten artean. Kontrainsurgentziako estrategiek berek

adierazten dute –beren ikuspegitik, jakina– ENAMek informazio-alorrean duen ahalmen hau. Beraz, nabarmen geratzen da, ENAMen proiektu politikoaren alde koalitatiboa zein berorrek Estatuaren egituretan eta E.Ab.renetan dituen efektuak ezingo direla inoiz ebaluatu aipaturiko metodo koalitatiboen bidez. Hori dela eta, guk analisi sintomatikoa proposatzen dugu, gisa honetako ikerketak egiteko ezin aproposagoa baiteritzogu.

1. Sintomaren nozioa

Sintoma termino grekoa da eta 'gertaturiko edo gertatzear dagoen seinale edo indizioa' esan nahi du. Bai eta ezusteko gertakaria edo zorigaiztokoa ere. Nozio honek medikuntza-alorrarekin zerikusi estua du. Mediku edo terapeutarentzat, (osasunaren) harmonia asaldatzen duena da sintoma. Terapeutarentzat, funtsezkoena organismoak bere osotasunean ondo funtzionatzea baldin bada, sintoma, funtzionamendu on hori nahasten duen heinean, elementu asaldagarritzat jotzen da. Alabaina, normaltasun organikoa lortzeko konpondu behar den alterazio somatikora eraman dezakeen aldetik–sendaketa, medikuaren eginkizun nagusia–, sintoma funtsezkoa da medikuarentzat. Medikuntzaren eremu honetan, beraz, sintoma funtzio bikoitza eta kontrajarria duen zeinua da.

Linguistikan, zeinuak bi osagarri ditu: adierazlea –berbazko irudi akustiko edo grafikoa– eta adierazia –gauzari dagokion kontzeptua–; bien artean harreman arbitrarioa dago. Ezerk ez du behartzen, adibidez, abere jakin bati *zaldi*, *caballo*, *horse* edo *pferd* deitzera, salbu elkarte baten erabilpen linguistikoak.

Psikoanalisiaren ikuspegitik begiratuta, sintoma esanguraz aldatzen da subjektuaren orekaren funtsezko alterazio bati lotuta eta horri mugatuta agertzen baita, inkontzientean konpondu gabeko gatazkek sortua. Era berean, psikoanalisian, nola objektuak –inkontzientea– hala izaerak –adierazleen arteko harremana eta ez zeinua, hau adierazlearen eta adieraziaren arteko lotura zuzena den aldetik– osagarri bereziak ezartzen dizkiote sintomari. Lacanek –sintoma psikoanalitikoaren eta organikoaren arteko diferentziak aipatzean– dio medikuek zeinutzat hartzen dituztela sintomak; beraz, oker.

Freudentzat oinarrizkoa da ideia hau, hots, sintoma psikoanalitikoa eraikuntza bat dela non zerbait desbideratzen edo deformatzen den, eta, gainera, uste du, ezkutatze horretan, zerbait aurkitu eta salatu egiten dela. Sinbolo, indize, seinale, indikatzaile edo dena delakoa, hizkuntza-modu bat bezala egituratuta dago sinboloa, beste zerbaitekiko harremana sortarazten duen diskurtso bat bezala, hain zuzen.

Neurosi obsesiboaren mekanismoa aztertu ondoren gauzatu zuen Freudek ideia hau, hots, sintomek sorkari duten gatazka defentsiboen aztarnak daramatzatela. Horrela, autore honen arabera, edozein elementu erreprimitu edonon agertzeko prest dago; baina ez da horrelakorik gertatuko, agerpen horri baldintza bereziek ez badiote laguntzen. Psikoanalisiaren sortzaileak paziente osasuntsuengan nahiz neurotikoengan aztertu zituen sintomak, biek esangura berdina baitute bere iritziz.

J.A. Millerrek egokiro erakusten digu hau egoera generiko bat azalduz, paziente batek, alegia, dena primeran doala esaterakoan, psikoanalista konturatzen denean zerbait gaizki doala. Hara hortxe sintoma!

Freudek, sintoma neurotikoak soluzionatzeko erabiltzen den metodo honi buruz, diosku, sarri atera behar izaten diela pazienteei barruan duten eduki psikikoa, hauen diskurtso eta ateraldi arruntetan sakonduz. Eduki psikiko hori ezkutatu nahi den arren, salaturik geratzen da; nahi gabe, baina, era askotara agertzen omen da.

Lacani zor diogu, ordea, sintomak gaur egun duen sakontasuna eta kontzeptu-hedadura. Horrela, sintomak egitura metaforikoa duela dio; hau da, sintoma interpretatu behar den adierazle berri bat dela. Deszifraketa hau egiteko, hautsi egin behar da ikusgarria dena, ebidentea dena, ausente dagoen egia berregiteko. Lacanek dioenez, sintoma adierazle bat da, zeinaren bitartez, egia-mota bat agerian jartzen den: inkontzienteko subjektuaren egia bat. Eta metafora da egia horrekiko agerpen-, azalpen- eta hurbilpen-modua. Horrela, adibidez, paziente baten ametsetako kapela, ernaltze--organoaren metafora da. Lacanen ustez –berari zor dizkiogu egia eta jakintza kontzeptuen birkokapena ere– sintomak adierazten du egia, egia den aldetik, jakintza zehatz baten hutsuneen tartetik datorrela. Sintoma metafora bat dela esatea, subjektuaren gaitasun kreatzaileaz mintzatzea da, zeinak, adierazle berezi baten bitartez, azaldu nahi digun, hau, bere formaren bidez, guri ezkutatzen saiatzen dena.

2. Psikoanalistaren zeregina

Freudek zein Lacanek uste dute sendaketan agertzen diren sintomen interpretazioa (psiko)analisten zeregina dela. Freuden iritziz, ordea, gizaki ohartua –bere mailan analista berori ere– gauza da sintometan ikusteko, hasieran ikusi nahi duena baino gehiago. Hori posible izatea, uste dugu, sintomen natura desberdinari zor zaiola. Freuden beraren hitzetan, badaude kasu arrunten sintomak, eta kasu larrien sintomak edo, beste era batera esateko, egituraren sintomak –jakintzarenak– eta egiaren sintomak –

gertakizunarenak–. Horrela, bada, oso egokia da analista eta gizaki ohartuaren arteko diferentzia. Freuden *Bizitza arruntaren psikopatologia* obra ezaguna adierazpen sintomatikoz josita dago, hala egituraren (jakintzaren) desegokitasunak erakusten dituzten kasuei dagozkien sintomak nola sendaketa psikoanalitikoaren (egiaren bilaketaren) pean dauden pazienteei dagozkienak. Psikoanalistak aztertzen duen diskurtsoa diskurtso indibiduala da; ez da guztiek onarturiko kodea.

2.1. Sendaketa psikoanalitikoa omen dena

Kontzientziatik azterturik izan diren edo bertan inoiz egon ez diren errepresentazio edo pentsamenduak kontzientziaren eskura jartzen saiatzen da sendaketa psikoanalitikoa. Freuden iritziz, subjektuak bereganatu egin behar du sintomaren esangura: zatiturik dagoen testu bat irakurri, eta suntsitu diren elementuak birkonpondu beharko bailituen jokatu beharra du subjektuak, esangura berregin eta horren aurrean jarrera hartu ahal izateko.

Sintomak lerroartean zerbait esateko bidea ematen du. Zerbait esatea, bai, baina beste gauza bati buruz mintzatuz; baliabide bat, zentsura erabiliz zentsura desbideratzeko. Sintomak, berez, ez dio inori ezer esaten, eta ez du interpretaziorik eskatzen. Psikoanalisia, berriz, sintoma horri mintzarazten saiatzen da. «Sintomaz mintzatu ez, sintoma bera mintza dadila», dio Lacanek. Edo beste hau: «Sintoma, lehenik eta behin, mintzalari zela uste zuen subjektuaren isiltasuna da».

Ohiko mediku-sendaketan ez bezala, psikoanalisian, kontuan hartu behar da lehen aipaturiko desberdintasuna, jakintzaren eta egiaren artekoa alegia. Freudek inplizituki aitortu du hau, egia jakin bati bide ematen dion analisi mugarik gabea (infinitua) aipatzen duen heinean, egia horrek berak abiatu duen denboran bertan sortua.

Jacques Lacanek dio –berari zor dizkiogu nozio hauek, Freudekiko leialtasunaren elementu zentralak izaki, berreskuratu eta sakondu izana– psikoanalisia ez dela ezagupena, pentsamendua baizik. Gertakizun batetik sortutako egia –psikoanalisian, gertakizuna da inkontzientearen nukleoa– pentsatu gabea, oinarri-oinarrian ezezaguna da, eta zulo bat eragiten du ezagun diren jakintzetan.

Praktika analitikoan, adibidez, ezaugarri edo sintoma histerikoak, fobikoak edo obsesiboak ezagunak izan daitezke hizkuntzari dagozkion kontzeptuen bitartez, eta, horrela, Alain Badiouk adierazten duen legez, egoeraren edo jakinduriaren Entziklopedia osatzera datoz. Alabaina, egiak –psikoanalista frantziarrak dioenez, beti erdi esanak izan ohi dira egiak–

ihes egiten dio edozein ezaugarri predikatzaileri, ezaguera jakin baten aurkezpen-modu zehatzari; izan ere, horrela ez balitz, egia Entziklopediaren sailen baten parte izango litzateke, hau jakinduria finkatuen bilgunea delako. Egia amaigabea izanik, inkontzientearen subjektuak (analista eta analizatua) gerora izango duen jokaerak baldintzatuta baitago.

Sendaketa psikoanalitikoan –non egia batek jokatzen duen– pultsio afektiboen laguntzaz (gozamena edo oinazea) datozen gurari erreprimituen errepresentazio partzialak, aldi berean, ondoko bi gauza hauek dira: egia honek, zatika –jakintza eraikitzaile modura– liberatzen duena, eta komunikagarria denetik at, esangarria denetik kanpo geratzen den guztia. Analisian jokoan dagoen egia ez da hainbeste subjektuaren egia bat, egoera analitikoaren egia propioa baizik, zeinarekin analistak aritu beharko duen.

2.2. Sintoma eta gatazka

Nabarmena da gatazka-egoera subjektiboei lotuta agertzen dela sintoma. Ikus ditzagun, argibide modura, Freudek, sintomak sortarazten dituzten egoera batzuk aipatzeko, erabiltzen dituen terminoak: barne-kontraesana, barne-gatazka, autokritika, nahigabea, antagonismoa, errepresioa, azaluskeria, eragin asaldagarria, egia esateko bultzada, barne-erresistentziak, disarmonia, etab.

2.3. Tipologia sintomatikoa

Sintomari dagokion kasuistika amaigabea izan arren, badira egoera edo une bereziak, psikoanalistek zerrendatuak, zeinetan sintoma agertzen den. Hona hemen batzuk, Jacques Lacanen *Idazkiak* liburutik hartuak: ahanzturak, okerrak, lapsusak, omisioak, hutsegiteak, akatsak, etendurak, zalantzak, ausentzia kalkulatuak, entzukiak, atzerapenak saioaldietan, haserrealdi emozionalak, beldurtze-tankerako adierazpenak.

3. Sintoma eta politika

Ikusi berri dugunez, analisi sintomatikoak hedadura eta sakontasun handia izan du psikoanalisi-alorrean. Guk egoki ikusten dugu –ezinbestekoa ere bai– psikoanalisi-alorreko nozio eta prozedurak politika-alorrean aplikatzea eta, hauen isla modura, hedabideetan jakin (albistea), egia (gertakizuna), sintoma, analista (jokatzailea), etab.

Gure iritziz, hauek eta antzeko beste nozio batzuk ezinbestekoak dira Estatu espainiarrak, fase desberdinetan, Euskal Herriaren kontra duen aurkakotasunaren barneko egia sakona ulertzeko. Hurbilpen-prozesu honek,

nahitaez, agente desberdinengan eta hauen adierazpenetan agertzen diren sintomen azterketa eskatzen du.

Analisi sintomatikoa –psikoanalisiaren kasuan– sendaketa-prozesuan zehar praktikatzen da; krisi-une larriak dira, ordea, ikerketarako puntu pribilegiatuak. Era berean, politika-alorrean ere, krisi-une larriak dira sintomatikoki emankorrenak eta orduan du prozedura analitiko honek bere benetako eragina eta hedadura; hala eta guztiz ere, aurkakotasun-prozesuaren edozein unetan agertzen dira adierazpen sintomatikoak. Krisi-une politikoak funtsezkoak direla diogu agente politiko-sozialek euren defentsak –zeinen azpian ezkutatzen diren, ohi denez–jaitsi eta adierazle ugari eskaintzen dituztelako: berba-, idatzi-, portaera-,jarrera-, adierazpen-, keinu-adierazleak eta abar. Hain zuzen, hauek guztiek euskarri eta azalpen duten egiaren zeinu modura jokatzen dute; geroago ikusiko dugu hau.

Gizartearen edozein disarmonia-egoera sintoma-ekoizle da (egoeraren sintomak). Hauek denak ez ditugu kontuan hartuko hemen. Interesatzen zaizkigun sintomak gertakizun politiko baten sorrerak eragiten dituen antagonismo-prozesuetatik datozenak dira.

Esan beharra dago aipaturiko agerpen sintomatiko horietako gehienak, “bestearen” egituran sortzen direla, gertakizunaren subjektuaren jokaerak behartuta. Ez dezagun ahantz alde menperatzailean agertzen direla agerpen horiek, Estatu espainiarraren eta frantziarraren egitura politiko-komunikatiboan hain zuzen ere.

Aldi berean, jokatzaile-analista bera da bere jabeldura edo interpelazio ekintzaileek dituzten efektuak –Euskal Herriaren askapen nazional eta sozialaren egia-prozesuaren efektuak– ebalua ditzakeen bakarra; adierazpen sintomatikoen analisiaren bitartez, zeini esker, egia hori gertakizun fundatzailearekiko –Euskadi Ta Askatasunarekiko– leialtasun subjektiboaren garapenean sortzen doan. Jokatzaileak analizatzen dituen diskurtsoaren sintomek, natura politikoa dutenez, erreferente kolektiboa dute. Euskal Herri Langilea deritzona (EHL) –Euskal Herriaren askapen nazional zein sozialaren funtsezko irudia, ordezkaezin sozial baten designazio generikoa– kolektibo desberdinen bitartez agertzen da historikoki. Gure egunotan, kolektibo horri –gertakizun fundatzaile batean abiatu eta nazio-eraikuntzan parte hartzen duten ekintzailez eta kolektiboz boz osaturiko horri, hedapen-ahalmenean ia mugarik gabea den anizkoitz horri– Euskal Naziorako Askapen-Mugimendua deritzo (ENAM).

ENAMen, egoeraren beste edozein anizkoitzetan bezalaxe, askaezinik loturik dauden bi dimentsio edo izari agertzen dira: egitura-partea

eta mugimendu-partea. Hots, herri-mugimenduen bitartez egituran aurkezturiko aldea (ENAM Estatuak ordezkatzerik ez duen aldetik, berriaren, singularraren sorkuntza-potentzia gisa) eta partzialki ordezkaturiko aldea (ENAM egitura den aldetik, inklusio- eta normaltasun-gradua duena).

Jokatzaile-analistak ENAMek –mugimendua, prozesu subjektiboa den aldetik– eragiten dituen efektuak aztertu eta ebaluatu egin behar ditu, zein Estatuaren egoeran zein berezkoak dituen egitura eratzaileetan (KAS, HB eta gainerakoak); bai eta ENAMen barruan ere (herri-mugimenduak). Analisi sintomatikoak argitara dakarrena ez da Euskal Herriaren askapen nazional eta sozialaren prozesu etengabearen egia osoa, beraren zati bat baizik, apostu ekintzaileei esker jakintza bihurturik geratzen dena. Edozein gertakizunek erditzen duen egiaren koalitatibotasunak analizatua denaren naturarekin bat datorren metodoa eskatzen du, derrigorrez. Horregatik diogu analisi sintomatikoa analisirako metodo koalitatiboa dela. Horren laguntzaz soma ditzakegu bihurdura ekintzaileek Estatuaren estrategian zein ENAMen barruan ekoizten dituzten efektuak, oraintxe aditzera eman dugun legez. Kontu egin dezagun, ENAMek aurreratzen duen berritasuna suntsitzeko grinaz, Estatuak beti faltsutu, desitxuratu eta ezkutatu egiten dituela aipaturiko jabeldura edo interpelazio ekintzaileetatik datozen elementu politiko-informatiboak –ulermen ezagatik eta aurkariarentzat kaltegarriak izan daitezen–. Edonola ere, Euskal Herriaren askapen nazional eta sozialaren askapen-egiak zulatu egiten du egitura hori eta, Estatua den entziklopedia arauemaile eta kontserbatzailean egindako arrakaletatik, zuladura horren aztarnak irtenarazi egiten ditu sintoma modura.

Modu analitiko honen bidez, informazio hirukoitza lor daiteke: Estatuaren sekretuak ezagutu, estrategiak aurkitu eta osasuna ebaluatzea, fase politiko bakoitza zuzen karakterizatzeko eta horren arabera jokatzeko; jokaera horien faltan, ezkutuan eta ezezagun geratuko liratekeen estatu-logikaren alderdiak argitara ekartzea (Estatuaren izaera injustua, arbitrarioa, ustela, gezurtia, integratzailea, bortxazkoa, despotikoa eta zaurgarria) eta, azkenik, proiektu propioa ebaluatzea, prozesuaren eskakizun berrietara egokitzeko.

Zein ezaugarri eduki behar dira aipaturikoaren gisako analisia egiteko? Lehen aurreratu dugunaren izenean bertan dago erantzuna (jokatzaile-analista): soilik nazio-eraikuntzarekin sentibera eta hitzeko (subjektibizatu) diren lagunek egin dezakete analisi sintomatikoa. Beste inor ez baita gauza horretarako. Edozein jokatzailek (intuitiboki eta, oro har, ez-sistematikoki) egiten du antzeko ebaluaketarik, ekintzaileak jakin beharra

baitauka bere bihurdurak egitura estatalean zein mugimendu propioan eragiten dituen efektuak zein diren; hau da, ezagutu beharra dauka zeintzuk diren gertakizun fundatzailearekiko anizkoitz leialarekin konektaturik dauden elementuak.

Hortaz, esan beharra dago analisia ez dela interpretazio hutsa, bilatzen dena ez baita bakarrik esangura–egoeraren ezagupenaren sintomen jakintzari dagokio hori–, egia baizik, jakingabea eta mugarik gabea. Jokatzaileak eten egiten du, behartu–aurreratu– egiten du egia generiko bat (irakaskuntza-sistema berri baten premia, adibidez). Honek jakintza berri bat abia dezan (ikastola, adibidez). Garrantzia duena ez da ezagupen berri horren esangura interpretatzea (ikastolak, hezkuntza-egitura modura), baizik eta, funtsean, Ikastolaren egiara zabaltzea, inkonsistentea den aldetik, ordezkaezina eta nazio-errealitate hezitzaile berrien ekoizle etengabe eta mugaezina den aldetik.

Ezagupen-modu honen arriskuak bi dira: edozein zeinu sintoma izan daitekeela uste izatea, bata; edozein izan daitekeela analista uste izatea, bestea.

Une sintomatikoak, praktikan, mugarik gabeak izan arren, batzuk aipatuko ditugu, goian esandako irizpideen arabera bilduz; sintomak egitura menderatzailean, sintomak ENAMen egitura-izarian eta ENAMen bertan, mugimendua den aldetik.

3.1. Sintomak egitura menderatzailean

Sintoma-modu ugarienak egitura menderatzailean gertatzen direnak dira. Estatu-egiturak, bere erara, aditzera emango du Euskal Herriaren nazio- zein gizarte-askapenaren egiak sortzen dizkion arrakalak. Lacanen hitzetan esateko, «sintomaren mintza-izaera» izango da.

• Beraz, J.L.Corcuera barne-ministroak, Irunberriko arroilean zenbait guardia zibil eta ETAkide hil ondoren (1990), azken hauek beren buruez beste egin zutelako bertsioa zabaldu zuenean, Euskal Herriko sektore bizienek mobilizatuz erakutsi zuten bertsioarekiko arbuioa. Bertsio ofizialak ez zuen izan nazionalismo kontserbadorearen onespena ere. Sinisgarritasun-hutsuneak eta horrek eragindako tentsioak ondorengo adierazpen hau egitera behartu zuten Corcuera: «Suizidioa zalantzan jartzen duenak bere burua deskalifikatzen du». Edo berdina dena: bertsio ofiziala zalantzan jartzen duenak deskalifikatu egiten du bere burua Estatuaren aurrean, berau baita –ahalmen arauemaile eta orojakileaduelarik– egiazkoa zer den eta zer ez den, zer dagoen ondo eta zer ez, onargarria edo ez, esateko gai den bakarra.

Barne-ministroak, hasierako bertsio ofiziala (izatez ukaezin eta zalantza gabekoa izanik) indartzeko, bere burua behartu izanak –esanean mehatxu-doinuzko puntu bat erantsi eta onespenera behartzeko– adierazten digu, bere erara, bestearen indarra dela informazio sinesgarria, egiantzekoa zabaltzera bultzatzen duena, antagonismoaren subjektuari kalte egiteko asmoz.

Alabaina, gertakizunaren subjektuek aurreratzen duten nazio- eta gizarte-askapenaren egia mugagabeak (konpromisoa, eskuzabaltasuna, norberaren burueskaintza, kemena,elkartasuna, sakrifizioa, erabakia, garra, koherentzia, justizia, berdinkidetasuna, etab.) bertsio ofizialaren komunikazioa (faltsua, egiantzekoa) hausten du eta,arrakala edo zirrikitu horretatik, sintoma modura, bertsio ofizialaren akatsa sartzen da, esaneko gehikuntza modura.

Gehikuntza hark, gehiegikeria deklaratibo hark, hizkuntzaren ohiko adierazpen baten adierazle modura funtzionatzen du, guri metaforikoki esateko, bertsio ofizialean “zerbait” ez dabilela ondo eta sendotu egin behar dela.

Lehenago esan dugunez, adierazpen sintomatiko hau gatazka-egoeran gertatzen da. Barne-ministroak bizi duen desatsegintasun-egoerak bultzatzen du azaluts izatera, goitik behera zeharkatzen duen barne-kontraesanak eraginda. J. L. Corcuerak –kontrol- eta defentsa-mekanismoak oro gainditurik– nahi baino dexente gehiago esan zuen bere adierazpenetan, esatea gustatuko zitzaiokeena baino gehiago alegia. Nahi gabe, bertsio ofizialaren euskarri zen egia iradoki zuen.

• F. Buesa Euskal Gobernuko Hezkuntza-sailburuak ikastolen sare transferiturako baterakuntza-prozesuaren ondoren (1993), honako hau esan zuen:«Hemendik aurrera, bi sare baizik ez dago: publikoa eta pribatua». Esaldi honen irakurketa linealetik, oso logikoa eta ulergarria gaztelera, ezer berezirik ezin ondoriozta daiteke. Bigarren irakurketa- eta interpretazio-mailan, badago zerbait harrigarririk: adierazpenaren biribiltasuna eta tinkotasuna? Horregatik hauxe da bat-batean bururatzen zaigun galdera: zer zegoen lehengo egoera horretan, bada, egoeran eten bat eskatzeko eta ustezko hastapen berriaren formulazio biribilaegiteko? UCDren garaitik, Estatuak zentru publiko ez-estatalak deitzen zituen ikastolak. Hau da, ikastolak ente bitxia ziren, zinez. Ez ziren publikoak (eskola transferitu gehienak ziren bitartean) ez pribatuak (ikastetxeak bezala). Ikastolak ziren, beraz, zirkuluaren koadratura: soilik Euskal Herrian dauden heziketa-zentruak; aurrekoak ez bezala Estatuaren logikan integratubakoak. Nolabait esateko, euskarazko hezkuntza-zentru propioak ziren; zentru singularrak. Horregatik, F. Buesak, bere esaldiaren bidez, hezkuntzaren gainezkadura hori –formalki, juridikoki eta politikoki– ikastola-sarea suntsitzeko asmoa adierazten digu. Behin Hezkuntza-Sailak “baterakuntzarako” emandako

epea amaiturik, galdu egin al dute ikastolek beren izaera dauden bi sari horietako batean integratuz, aipaturiko formulazio horren arabera? Ezezkoa da erantzuna. Ikastolen gehiengoa, publiko izateko bokazioa eduki arren, ez da sare publikoa deitzen den horretan –transferitutako eskola espainiarrean– integratu. Zentru pribatuekin ere ez dira homogenotu, legeak formalki horiekin parekatu arren. Beraz, ikastolek, –bokazioz, publikoak baina, indarrez, status legal pribatukoak– inklusio-saio honetatik ihes egiten jarraitzen duten hezkuntza-zentruak dira. Ondorioz, gure iritziz, ikastolen gehikuntza hau, berezitasun hau da Hezkuntza-sailburua behartzen duena halako baieztapen biribil huraegitera, bera baita espainiar estatuaren logikan integratzeko eragilea.

F. Buesak nahi zuena zen egia (ikastola) jakintza (euskara irakasten den eskola estatala) bihurtzea; justizia, lege; propioa, inorena. Araudi horren bitartez, ikastolen kolektiboan halako presioa (hutsune-sentsazioa) sortu nahi zuen, amore eman ondoren, baterakuntzaraino, asimilazioraino bultzatuko zituena.

Beraz, ikastolaren gainezkadurak ulertarazten digu kontseilari sozialistak –sintoma gisa arituz– duen “plusa”, eta ez alderantziz. Honela ulertuta, ikastola gertakizun bat da hezkuntza-eremuan (Euskal Herriaren irakaskuntza--sistema propioaren oinarri), gertakizun fundatzaile zabalago bati loturik. Gertakizun hau herri-apustu batetik sortzen da, eskola espainiarretik, publiko zein pribatutik at. Bere ibilbidean, gertakizun honekin leial diren subjektuen jokaeren bidez –jaiak, motibazio--kanpainak, irakasle ez-funtzionarioak, pedagogia motibatzaile eta eskuhartzailea, etab.–, etorkizuneko euskal eskola nazionalaren berezkotasuna diseinatzen da. Ibilbide luze bezain arriskutsu honetan, ikastolak eskuzabaltasuna, garra, autoantolaketa, konpromezua, jai-giroko eredu errebindikatzaileak, nazio-kontzientzia sortzen du, lurraldetasun-zentzua eta euskararen maitasun zabala. Partikularraren, euskarazko irakaskuntzaren, bitartez, ikastolak herri-sentiberatasunaren unibertsaltasuna erakusten du, zeina irakaskuntza-modu eskuhartzaile, motibatzaile eta nazio zapaldu baten hizkuntz berreskurapenean konprometiturikoan sortu eta hazi baita. Ikastola, azken batez, zenbait buru kolonizatuk uste duenaren kontra, propioa, partikularra delako da, hain zuzen, unibertsala. Izatez partikularra dena soilik, propioa esango genuke guk, izan baitaiteke unibertsal. Unibertsaltasuna eta propiotasuna, partikulartasuna, dira edozein egiaren bi izari edo dimentsioak.

F. Buesaren adierazpenaren integrazio-asmoa ikastola guztiak sare publiko transferituan bateratu izan balira bakarrik litzateke eragile. Ezaugarri hauetako elementu bakar baten ez inklusioak –Estatuaren logikatik at ikastola

bakar bat geratu izan balitz, adibidez– metaketa-puntu bat integraziotik kanpo uztea esan nahi du.

Eta ondotxo dakigunez, integratu ez ziren ikastolen gehiengoa izan zen buruzagi sozialistaren kanporatzearen eragile, aipaturiko adierazpen hura egin eta berehala. Horrek egiaztatzen du ikastola izaten jarraitzen dutela eta barnean daramaten gehikuntza horretatik abiatuz bakarrik uler daitekeela esamolde sintomatiko haren ustezko biribiltasuna: «Hemendik aurrera, bi sare baizik ez dago: publikoa eta pribatua».

• «Jose Ramon Etxebarriaren gose--grebak bortxatu egiten nau», esan zuen Chamorro jaunak, UPVko Zientzia-Fakultateko katedradunak (1993). Paradoxikoa irudiko luke gose-greba bezalako borroka-mota baketsu batek inor bortxatzeak, are gehiago ustezko bortxatuak Gandizaletzat badu bere burua. Kontraesan antzeko horrek, ustezko paradoxa horrek, egia sakon (irakasleria propioa) baten adierazpen sintomatiko, metaforiko gisa funtzionatzen du guretzat, funtzionario espainiar haren adierazpenaren azpian dagoena J.R. Etxebarria egiten ari zen baraualdiak sorturiko tentsio une larrian eginikoa izan baitzen, hain zuzen ere. Esaldi horrek adierazten digu, aldi berean, Ghandiren jarraitzaile autoizendatuaren izaera ez-bakezalea. Chamorro jaunak Joserra Sailetik botatzeko zenbait neurri hartu zituen, honek funtzionariotzarekiko intsumiso aitortu baitzuen bere burua eta ez baitzuen sinatu UPVk “eskainitako” kontratu administratiboa; gehi irakasle intsumiso honen kontra harturiko beste neurri errepresiboak. Joserrak, gose-grebaz, bere buruarekiko egiten duen bortxazj abetzen da Chamorro irakaslea intsumisoaren kontra harturiko neurri legalen izaera errepresibo eta injustuaz. Bere kontra abiatutako errepresioa salatzeko, gose-greba eginez, galde egiten dionak beraren buruaz ematen dion irudiaren bidez jabetzen da Chamorro irakaslea berak duen bortxazko izaeraz. «Jose Ramón Etxebarriaren gose-grebak bortxatu egiten nau». Hots, “bortxatzen” nauena da, “bestearen” bidez, nire izaeraren bortxazko esentzia aurkitzea. Edo berdina dena: bortxazkoa izateak bortxatu egiten nau; nire-neure bortxak bortxatzen nau. Bortxazkoa naiz. Arrazoi hau ulertzeko ezinean, Chamorro jaunak efektua –Joserraren greba– kausatzat hartzen du –bortxatzen nau–; ulertu gabe, ordea, bere barruan dagoela bai kausa –nire jokabide injustu eta bortxazkoa– bai efektua –bortxatzen nau–, bere izpirituaren egoera. Egoera berdintsuan egongo ziren, noski, bai Joserraren kontrako “jarduketan” parte hartu zutenak bai eta, gose-greba garaian sentitu zutenak ez zela beren portaera uste bezain ona.

Unibertsitateko egoeraren behardurak, jokaerak, Joserraren gose-grebaren bitartez, UPVren izaera argitzen digu (Baskongadetan kokaturiko

Unibertsitate espainiarra), bai irakasleria funtzionarioarena (Estatuaren mende) eta prozesu berri bat nabarmentzen du (irakasleria propioa), bere buruaren jabe den Euskal Herriari dagokion irakaskuntza-sistemaren oinarrizko zutoina, zeinetik, etorkizunean, jakintza berri bat sortuko den (kontratu laborala). Bihurdura hauek –eta kontrako errai-erreakzioa– irakasleria propioaren eta funtzionariotzaren arteko harreman antagonikoa erakusten digute; aldi berean, jakintza menderatzailea (funtzionaritza, hezkuntza-sistema transferitua) eteteko premia, prozesu berria mamitzeko, gauzatzeko jakintza berriak (kontratazio-modu berriak) egoera konkretu bakoitzean lekutuz, egia generikotik abiatuz (hezkuntza-sistema berriaren premia; hezkuntza-alorrean, nazioaren eta gizartearen askapen-prozesuaren adierazpenetik). Modu berean, Unibertsitate honen autonomia ezaren berri ematen digu, zeinak ez baitu Estatu espainiarrak inposatzen dituenez beste irakakaskuntza- eta kontratu-motarik sortzeko eskumenik.

Beraz, UPVko irakasleria propioaren aldeko borroka –zeharka eta ez modu nabarmenean– gertakizun fundatzailearekin loturik sortu den gertakizuna da, zeinak eduki generikoa (Euskal Herriaren askapen nazional eta soziala) irakaskuntza-alorrean zehaztea nahi baitu. Mamitze honek, une hartan,irakasle kaleratuen borrokaren bidez(Jose Ramon Etxebarriaren eta Enrike Lópezen gose-grebak) kontratu laboraldun irakasleria propioaren figura sortzea eskatzen zuen, irakasleen lotura egonkor bakarra funtzionario espainiarra izatea den unibertsitate-gunean hain zuzen ere.

• Batzuetan, isiltasuna kontrakoa bezain eleder izan daiteke, gehikuntza bat esanean. Gure iritziz, badira isiltasun sintomatikoak. Duela urte batzuk, Kinito –artean, LABeko kidea– poliziaren mandatari zela aurkitu zenean, partidu politiko zein hedabideek haren egoeraz eta bizitokiaz era guztietako espekulazioak egiten jardun zuten; ETAk bahitu eta akatu egin zuela esateraino iritsi ziren. Kinito bera epailearen aurrean, honek deituta, etengabeko zurrumurru eta asmakerialdien ondoren, agertu izanak hankaz gora utzi zuen desinformazio- eta toxikazio-kanpaina hura guztia. “Satorraren” agerpenak eta adierazpenek harriturik, ordura-arte hain berritsu izan ziren hedabideak mutu gelditu ziren egun batzuetan.

El País izan zen, nola ez!, kontraerasoari lehenik ekin ziona, adieraziz, HBk –Kinitoren kasuan ustez nahasturik egongo zelakoan– ez zuela inongo legitimitaterik salaketak egiteko, ordura-arte egina zuen bezala, militanteren baten bahiketa posiblea salatzeko.

Zergatik isiltasun hura? Estatuak, momentu desegokian harrapaturik, “kolpe” haren aurrean nola erantzun ez zuenez jakin, egun batzuk behar izan

zituen hedabideei norabide egokia erakusteko, egin ohi duenaren kontra. Gutxiena da Estatuko agenteek esaten dutena sinisten duten ala ez; esakunearen premiak du benetako garrantzia. Hots, bertsio ofiziala egotea, Estatua ez dadila isilik gera. Isiltasun hauek, egituraren hutsuneak, oso arriskutsuak dira egoerarentzat eta oso adierazgarriak jokatzailearentzat. Mututasun hauek gaien agenda deiturikoaren eraketa-moduaren edo iritzi-eraketaren adierazgarri dira (hedabide bakoitzak,bere irakurleria Estatuan kokatzeko,egunero egiten duen ahaleginaren testigu).

Informazioak Estatuaren politika informatzailearekin antagonikoak ez direnean, kazetariak inklusio-eragile pribilegiatu diren aldetik baloratu eta komentatzen dituzte albisteak, beren ohiko gogarazpen-moldeak erabiliz. Estatuaren eskakizunen interpretatzaile fidagarri direnez, ez dute Estatuaren oharkizun berezirik behar. Iritzia albiste-isuri etengabeak sortzen dituen diferentzien homegeneizazio gisa azaltzen da egituraren legea birkokatze aldera, konta-banatzaile gisa: ezinbesteko kontsentsu intersubjektibo egunerokoa; hots, hartzaile guztiak integratugisa –aurkezturik eta ordezkaturik– birkokatzea. Hau da, egiatan, komentagileek duten eginkizuna. Orduantxe agertzen da, bere distira osoan, pluraltasun informatiboa; oposizio eta diferentzien jokoa.

Sisifo moderno hauek beren behatzaile-lan nekaezin, birziurtatzaile eta berdintzailean erakusten duten tinkotasuna eta iraunkortasuna da harrigarriena. Non ote dago zergatiaren zergatia? Gure ustez –beti bezala– beste nonbait; hutsunean, egitura ororen izulekuan, alegia. Hutsune hori –berria sortzeko gaitasuna- edozein ordezkatzeguneren oreka betirako arriskuan jartzen duen etsaia da. Hutsunearen sortzaileak abiaturiko gertakizunak eraginda, norbanakoek ihesegin ahal diote egoeran inkluditzeari eta ordezkatuak izatetik (geldi, desubjektibatu, paralizatu, meneko, konta-banaturik egotetik) aurkeztuak izatera pasa daitezke (singular, subjektibatu, jokatzaile izatera). Horregatik, editorialista edo inklusio-eragileak, hutsune somaezinaren beldur, egunero berregiten du norbanako-hartzaileen birziurtatze-operazioa gogarazpen edo pertsuasio integratzailearen bidez.

Alabaina, gertakizunaren eraginez, kontraesan antagonikoa sortzen denean, aldatu egiten dira iritzi-eraketaren mekanismoak. Egoera somaezinedo berrien aurrean, iruzkingileak, kazetariak, ebaluatzeko erreferentzia faltan daude eta jakintza berri horiei aurre egiteko beste oharkizun batzuk behar dituzte. Oharkizun horiek, or-duan, Estatuaren aparatu ideologikoetatik etortzen dira. Begira dezagun zenbat denbora behar izan zuten aparatu hauek kazetariak terrorismoaren kontrako politika informatiboa deiturikoan sartzeko.

Desorientazio-une horiek, bada, garrantzi handikoak dira informazioaren eta iritzi-eraketaren balioeztapen-prozeduren izaera ezagutzeko. Batzuetan, isiltasun adierazgarriaren bidez agertzen da desorientazioa, isiltasun sintomatikoa deitzen dugun horren bidez, eskuartean daukagun kasuan gertatu zen bezala. Isiltasuna da, orduan, adierazi berri baten adierazlea, metafora, (gertakizunaren subjektuak Estatuaren mezu eta medioekiko duen nagusitasuna) eta jakintza ezkutu baten agerpena (azken batean, Estatua da, zuzenean edo zeharka, iritzia mamitzen duena). Biak ENAMen militanteen jokaeraren eraginez gertatu dira.

Ez da kasualitate bat *El País* –gobernu sozialistaren BOE informatiboa– izatea, aditzera eman gabe, bertsio ofiziala hedatu zuena. Honela birkonpondu zen kontsentsu informatiboa aipaturiko mezu eta orientabidea hartuz. Halaber, egitura informatiboan agerian geratu zen hutsune sintomatikoa.

3.2. Sintomak ENAMen erakunde--egituran

Ezker Abertzalearen (E.Ab.) egitura-izarian azaltzen diren sintomak Estatuaren jardunak –hauek, berriz, lehen esan bezala, ENAMen subjektu jokatzaileen jokaerak markatuak– E.Ab.ren aparatu-aldean (KAS, HB, AABB, etab.) duen eragin gisa agertzen dira.

Honela, *Egin*-eko titular batean irakurtzen dugunean «Polonia berriro ezkertiar» (eta horrelakoak behin eta berriro azaldu izan dira egunkari horretan sozialismo errealeko deituriko estatuetan alderdi komunistek hauteskunde-garaipen bat edo beste lortu duten bakoitzean) izaera sintomatikoko kasu berri bat daukagu begien aurrean, zeinak E.Ab.ren zenbait egituratan indarrean segitzen duen pentsamendua erakusten digun.

Esaldi horretan, gazteleraz erabat ulergarria izan arren, badago informazio-gehikuntzarik (galduriko “ondasun”bat berriro eskuratzeko gogoa edo) zeinak erakusten digun E.Ab.ko buruzagii askok ez dutela oraindik burua jaso sozialismo errealeko deituriko herriak hondoratu zirenetik, eta, beraz, nola politikak –baita informatiboa ere– hala erakundeak partidu leninistaren eskemen arabera pentsatzen jarraitzen dutela. Baliagarritzat jotzen dituzte oraindik ezker-eskuin parametro zaharkitu, iraungikor eta eraginik gabekoak; horrek adierazten du kanpokoari inoiz izan ez duen garrantzia ematen jarduten dutela. Herri-demokrazia deiturikoen hondamendiak ez du aldatu Euskal Herriaren nazio askapen-prozesuaren aurrerakuntza. Kontuan har dezagun ENAM aitzindari izan dela –bere praktikaren bidez– gauregungo kontraesan nagusiaren (Herria/Estatua) aitzinerapen-formulazioan eta, orainarte egindako ibilbidean,

presente daudela garai berrietarako politika berria pentsatu eta formulatzeko elementuak.

Ezkertiar izendapena erabiltzea–aurrerakuntza adierazi nahirik– eufemistikoki “merkatu-ekonomia” deitzen den doktrinara aldatu direnen berri emateko, hauek mendebaldearen eta kapitalismoaren zale porrokatu direla ahaztea da, edo ahazten saiatzea.

3.3. Sintomak ENAMen barruan bertan

Analista-jokatzaileak ere analisi sintomatikoa erabiltzen du bere jabeldurak eta bihurdura militanteek Estatuarekiko aurkakotasun-eremu desberdinetan duten eraginak ebaluatzeko. Herri-mugimenduen eta gertakizun (ETAren sorrera) fundatzailearen artean dagoen lotura gehienetan ikustezina denez, analista-jokatzaileak hipotesiak formulatu behar ditu, ebidentzia guztien kontra anizkoitz horiek guztiak (intsumisoak, gaztetxeak, euskararen berreskurapenaren inguruko mugimenduak, ekologia, etab.) gertakizun fundatzailearekin lotura ezorganikoz loturik daudela apustu egin. Kasu bakoitzak, bere berritasun espezifikoa dela eta, ardura berezia eskatzen duen arren, badira agerpen batzuk, zeintzuek, sintoma diren aldetik, analistaren atentzioa erakartzen duten. Adibidez: egituretatik at eta kanpora –E.Ab.renetatik ere bai, batzuetan– dauden herri-mugimendu berrien sorrera; izan ere, balediko euskal nazioaren berezkotasunaren edozein sortze-alorri baitagokio antzeko sorrera. Herri-gune txiki eta oso subjektibatu baten mamikuntza, bere apustu propioa hedatzeko gaidena; gune hauen konexio-ahalmena ENAMen inguruekin eta ENAMekoak izan gabe jokatzaile direnen aldaketa--gaitasuna, zeren era askotara ukituko baitituzte herri-mugimendu hauetako subjektuen jabeldura militanteen efektu aldatzaileek; Estatuaren zein honen sateliteen eta herri-mugimenduen arteko antagonismoaren adierazpen zehatzak; herri-mugimenduen iraunkortasuna, hasierako leialtasunaren seinale; demokrazia zuzenari eta funtzionamendu asanblearioari dagozkion metodoen erabilera; jokatzeko eta sortzeko ahalmen mugagabe eta jatorra; bakoitzaren mugen barruan, justizia, demokrazia partehartzaile eta elkartasunaren zehaztapena, ideal horiek Euskal Herriaren nazio eta gizarte askapen-prozesuaren oinarrietan egonik, gertakizun fundatzaileak aurreratu egin baititu, etab. etab.

Kolektibo hauekin lotura positiborik dagoen edo ez egiaztatzea garrantzi handikoa da Euskal Herriaren nazio eta gizarte askapen-prozesuaren aurrerakuntza eta garapenerako, honek, esan dugunez, aurreratzeko, ondoko hiru elementuok elkar loturik egotea eskatzen baitu: ENAMen kolektiboen prozesu subjektiboa, horiek baitute euskal nazio berriaren egia historikoaren

prozesua mamitzeko ardura –mugimendu berriak, jakintza berriak sortuz–; subjektibazio militantea, izen propioz Euskadi Ta Askatasuna deituriko nazio--kontzientziarekin asoziatua; herri--leialtasunezko erakundeak (ENAMen erakunde politiko eta sozialak).

Adibidez, intsumisioaren egiak (kasu honetan armadarekikoak) jakintza--modura uzten duena, Estatuak berak ere intuitzen du. Zentzu honetan, adierazgarriak dira oso Julian Arévalo Administrazio Militarreko Estatu-Idazkariak 1993ko urriaren 26an esandakoak, hots, Espainiako Defentsa-saila konbentziturik dagoela Hego Euskal Herriko lau herrialdeetako intsumisioa ENAMek eragindakoa dela.

Azkenik, –eta ondorio gisara– ezin dugu aipatu gabe utzi herri uruguaiarrak (1994) Montevideon bizi ziren euskal errefuxiatu politikoekin izan zuen jarrera. Guretzat, herri amerikar honek Euskal Herriaren borrokarekin izandako elkartasuna –eta sakrifizioa– nazioarte mailan herri eta nazio zapalduen nazioartezaletasunaren egia-prozesua dei genezakeen atal fundatzaileari –aurreratuz eta behartuz– hasiera eman zion sintoma da. Nazioartezaletasun-atal hau aipatzen dugu, egoki iritziz, berari, Lacanen ustez Marxek politika berria formulatzeko (*Manifestua*) erabiltzen zuen abiapuntu berbera aplikatzea, hots, bere garaiko langileen matxinada etengabeko “histerien” sintomen azterketa, alegia.

Iratzarrek, artikulu eder batean **3**, sintomen arabera aztertu zituen Egibarrek egindako adierazpen batzuk, zeinetan nabarmen geratzen baitziren gertakizun haren efektuak Estatuaren eta honen satelite baskongadoaren egituretan.

4. Estatu espainiarraren krisiaren analisi sintomatikoa GAL kasutik abiatuz.

Gure ustez, ondoren jaso eta aztertuko ditugun adierazpenek, agerpen modura oso diferenteak izan arren, zeharkatu, erakutsi eta argitzen dituen izendatzaile komuna dute. Hari-gidari hau (hedabideen ustearen kontra) ez dago, bereziki, adierazpen hori egiten duen inplikazio-graduaren edo/eta zuritze-ahaleginaren (konprensioa) errebelazioan –hori ere badagoen arren–; baizik eta “beste” hartan, zeinari, guztien begibistan egon arren, inork erreparatu nahi ez dion; horixe bera gertatzen zen errege biluziaren ipuin ezagunean.

Hau da, hedabideek bilatzen dutena da –bai eta analista askok ere– adierazpenak egin dituztenek GAL sarean duten inplikazio-gradua. Eta baztertzen dutena da, kontzienteki zein ez, egia itsugarrI horren gainazal distiratsura jotzea –onartezina baita–, zeinak, autoinkulpazio-katearen bitartez,

Estatuak eta sistema politiko espainiar osoak ETAren kontrako borroka likitsean duten inplikazioa erakusten bai-tigu. Bazterketa horretan, hain zuzen, desbideraketa horretan, prezeski, aurkitzen dugu guk, funtsean, sintoma, haiek ez bezala.

Kasu hauek, beraz, ez dira usnatu behar egitura sakonean soilik, pentsamendu erreprimituaren (sintoma) azaleratzeak eragiten duen esanguraren ustezko haustura batean bakarrik; baizik eta, bereziki, azaleko egituran, zeinak, terrorean eta izuan, “espainiar demokrazia gaztea” jota duen gaixotasun sendaezinari buruz oihuka hitzegiten digun. Horregatik, oso gutxik du espainiar gehienen kontzientzia atsekabeturik duen egia beldurgarri hori desestaltzeko benetako interesa.

Hauxe da, bereziki, interesatzen zaigun sintoma. Hartara, zenbait esateko modu bitxik («Azkeneraino isiltzeko prest nago», adibidez) gehiago zor diote demokrazia formalak inposatzen duen euste-premiari (formak minimoki gordetzeko premiari), horietan dauden motibazio sintomatikoei baino.

4.1. Kasuistika

«Ez dago frogarik eta ez da egongo ere». Esaldi ezagun hau –hedabideek asetu arte esandakoa– Felipe Gonzálezek esana da, GALen sorreran, bai PSOEri bai berari, erantzukizun zuzenak eskatzen zizkietenen kontra zuzendua.

Espainiako gobernu buruaren “zorigaiztoko” esaldi hau, esan zuenaren kontrako berbazko froga nabarientzat hartua izan da, itxuraz nahi gabe, autosalatzailea. Eta egia da, noski, esaldi bitxi honetan –“esaldia”, esango genuke guk– GAL arazoko egia guztia kondentsaturik aurkitzen dela, afera hau beste ezerk baino hobeto ulertzen laguntzen duelako. Esaten dugunaren ebidentzia esangura-gehikuntza horretan datza («ez da egongo ere»), zeinaren bitartez, dirudienez ardura handirik jarri gabe, gogaikarri bilakatzen ari zitzaion arazoa baztertu nahi izan baitzuen, kontuan harturik askotxo zirela ordurako PSOE eta bera GAL-sarearen arduradun egiten zituzten errebelazioak.

Goiko hori esateko, Moncloako maizter ohiak erakusten duen prepotentzia –harropuzkeria– gehiago da mehatxu eta abisu, defentsa eta errugabetasun-deklarazio baino, bere kontra jaurtitako salaketa ezin larriagoei ihardespena baino –hau espero arren–.

«Ez dago frogarik eta ez da egongo ere» esamoldea ez da ulertu behar Estatuko instantziek erabili ohi duten zentzu formalean ere; hauek, froga materialak ezabatu ondoren, ez dute fomalki jabetu nahi “Estatu arrazoiaren” izenean egindako gaiztakerien erruduntasunaz. Hau da, Felipe Gonzálezek ez du esandakoa esaten, soilik gobernuburu izateak ematen dion botere

ikaragarria baliatzeko, edozein froga material salatzaile ezkutatzerik baduelako uste soilez, nahiz eta hori ere egin duen (ikus Amedo eta Domínguez, Planchuelo, San Cristóbal, Vera, etab.en kasuak), horrela legearen zama saihestuz. Ez.

Erakusten duen harrotasuna –esaldiaren egia– soilik esplika daiteke Felipe Gonzálezek jakin badakielako, eta frogak dituelako sistema monarkiko-parlamentario osoa dagoela ETAren kontrako gerra likitsean inplikaturik. Esaldi horren bidez "Isidorok" isiltzera behartu nahi ditu, zeren eta bere kontrako salaketak baldin badaude (eta hori bilatzen da), berak ere erakuts dezake gainerakoen kontrako salaketarik. Beraz, denak ukituta egonik, inori ez zaio isiltasuna haustea komeni, haritik tiratzea. Hots, frogak badaude, baina guztiok gaudenez ETAren kontrako gerra likitsean nahasturik, ez da komeni egoterik.

Beraz, mafiakoen artean indarrean dagoen isiltasun-legearen aurrean geundeke. Paradoxikoa da intuitzea González –artxiezaguna den esaldi ziztrin horren bidez– formulatzen duenaren kontrako zerbait esaten ari zaigula egiaztatzea ("Hainbeste dira gu guztiok inkulpatzeko frogak, ezen hobe dugun egon ez daitezen"); honela, bere eta sistema osoaren erruduntasuna–erantzun ezina benetakotasun etikoaren arabera– eskainiz.

GAL zuritzeko erregistro honen beronen barruan –ikusiko dugunez, kontestuaren teoria deituriko horren barruan– aurkitzen da beste esaldi bat, hau ere oso ezaguna: «Ezinezkoa da, erabat, inork erakuts dezan Gobernuak zerikusirik duenik GALekin, eta, beraz, hori horrela den edo ez eztabaidatzea hipotesi absurdua da, guztiz.»

Ukapen bikoitzaren erabilerak («ezinezkoa da, erabat, inork erakuts dezan...») **4**, esateko modua leuntzen duen arren, aurreko ideiaren edukia gordetzen du. Zuzenketa formala da («ez dago frogarik ez eta egon ere») haren birformulazioa.

Felipe Gonzálezek, esaldia esateko orduan bizi zuen kontestuak berak uste ez bezala "erantzun" zuela oharturik, forma aldatu zuen, mamia gordez. Hau da, gobernuburua, aurreko esaldiak sortutako kontrako erreakzioak ikusirik, berbideratzen saiatzen da, birformulatzen, ezaguna egin duen estilo pseudoideologoan kokatuz. Horregatik bigarren esaldi hau lehenengoa baino gogoetatsuagoa da, pentsatuagoa, berezkotasun txikiagokoa.

«Zuzenbide-estatua estoldetako urminduetan ere defenditu behar da». Moncloako maizter ohiaren errebelazio gordin honek ez du zalantzarik uzten esaten ari garenaz: gobernuak –eta Estatuak bere osotasunean– gerra likitsean duen inplikazioaren onarpenaz. Biolentziaren monopolioa duenak Estatuarena

defentsakotzat erakutsi nahi du, erantzunekotza, ETAren biolentzia-planteamenduekin simetrizatzeko ahaleginetan.

4.2. Kontestuaren teoria delakoa

“Kontestuaren teoria” delakoak Felipe Gonzálezek aipaturiko adierazpenen benetako esangurari buruzko tesiak baiesten ditu. Hau da, ondoren aipatuko ditugun adierazpenek zuritu egin nahi dute –ez ukatu– GALen inplikazioak eta jardunak kontestu jakin batean gertatu zirela, zeinean Estatuak ez duen beste erremediorik izan ETAren kontra jotzea baizik, oso hazita baitzegoen erakundea eta espainiar demokrazia sakrosantua arriskutan jartzeko gai baitzen. Espainiako biztanle gehienek ustez egindako eskari bat aipatzen da (kontestuaren emanazio irudizkoa) ETA hazi horren kontrako salbuespenezko erantzun baten aldera.

Unearen egokitasunaren arabera, presentearen neurrira eginiko iraganera jotzen da, zeinean esplizitu egiten diren gerra likitsa abiatzeko Estatu espainiarrak dituen arrazoiak. Lehen, gaur bezalaxe, dena jasaten duen balizko konstrukto horren –iritzi publiko espainiarra– erabilpen gehiegizkoa egon da; inklusio-operatzaile estatalen sorkuntza, ordea, iritzi publiko hori bere interesei komeni zaiena zuritzeko (kondenatuz edo azalduz) sortua izan da.

Demokrazia formalean parlamentuari dagozkion erabakitze-arauen kontra, Estatuko politikariek imaginario sozial horren –espainiar herriaren ustezko nahi orokor baten– interpretearena egiten dute, bertan oinarritzeko guda likitsaren legitimazioa. Hau benetako politikaren itxura baino ez da: erabaki kolektibo handietan jendoldearen presentzia zuzena enuntziatzen duena; Euskal Herrian ENAMek egiten duen moduan. Ondorioz, kontestuaren teoria eta iritzi publikoa GALen sorrera eta jardunaren azalpen zuritzaileen azpian daude, horren euskarri dira.

Badira batzuk, “arrazoi” horietan oinarriturik, bereizketa balioemaileak egiten dituztenak terrorismoaren (ETA) eta erantzun-terrorismoaren artean (GAL). Horietako gehienek gainditzen zaila den zinismo eta lotsagabekeria erakusten dute; harria bota (GALen existentzia justifikatuz) eta eskua gordetzeko teknika erabiltzen dute («Honetaz dakidan bakarra prentsatik dakit»), bidezko defentsa, irain alderagarria eta horrelakoak aipatuz («GALena bezalako fenomenoak legezkoak dira beste herrialdeetan»), beste taldeetako buruzagiak ere estatu-terrorismoan inplikaturik daudela salatuz.

Azkenik,gardentasun paregabea erakusten dutenak daude, gainerakoek pentsatu eta isiltzen dutena adierazten dutenak: GAL lardaskeria dela ETA menderatu ez duelako. 1982. urteraino jo behar da atzera, SUPeko Fornet

idazkariaren hitzetan esateko: «Egoera oso delikatua zen ETAren terrorismoaren erruz, eta demokrazia arriskuan zegoen».

> *Terroristarik onena –eta ez da nik esana– terrorista hila da. Ez da batere beharrezkoa GAL kasua berrirekitzea. Ez dut antzematen zein den onura soziala sumarioa berrikusten bada. Egiten dudan erantzukirik bakarra da, egin zuenak –ez dakit nork egin zuen, dakidan bakarra prentsatik baitakit– hain lardaskatsu egitea. Besterik ez, horren garbi eta biribil mintzatu nahi dut.*

Salvador Fernández Moreda, A Coruñako Diputazioko presidente, PSOEko erakunde-idazkari Galizian eta partidu horren federazioko exekutibako kideak esandako hau adierazi dugunaren laburpen ezin hobea da. Berez komentatzen da.

Fragak esan eta zoritxarrez ospetsu egindako hura hona ekarriz («Terroristarik onena terrorista hila da»), Galiziako Xuntako presidenteak GALen jaiotzean duen inplikazioa adierazi nahi da (PPrena, alegia). Hau da, Estatu-arazozikin honetan sistemaren inplikazioa agerian uzten du, hain zuzen.

1983an, GAL izan zen «ETAren kontra borroka egiteko modu bakarra. Bidezko defentsa-modu bat izan zen». J.L. López Aranguren Etikako (?) irakasle zenaren adierazpen hauek erakusten digute printzipio moral batzukezin direla zutik mantendu proiektu politiko askatzailerik gabe. Azkenean, kapitalaren eta Estatuaren eskakizunen presiopean, ideologia etikoa sistemari berari egokituriko moral bihurtzen da; inmoralitatea, alegia. Zeren eta Estatuaren hasiera eta amaiera mantentzea baita, irautea kosta ahala kosta eta ez printzipio baieslerik gordetzea. Ustezko baloreen etika Estatu-arrazoi deiturikoaren moral orokorrera mugatzen da, pragmatismo utilitaristarik murritzenean babestuz. Zapaltzaile/zapaldu binomioa atzekoz aurrera jartzen du eta zapaltzailearen bidezko defentsa aipatzen du, biolentziaren monopolioa duenarena hain zuzen. Beraz, gaitz ktxikienaren printzipioaren aitzakietan (GALen gauzatzea) ustezko ondasun handiagoa (sistema monarkiko-parlamentarioa) defendatze aldera, Estatuaren terrorismoa zuritzen du, Euskal Herriak bere etorkizuna libreki defenditzeko duen eskubidea defenditu beharrean.

Era berean, agerpen hauek datozenengandik datozelako, babes morala eman zieten gerra likitsa legitimatzen zuten beste politikari batzuei: Solanari, adibidez. NATOko idazkari nagusiak, GALi buruz, 1983an esan zuen espainiarrek «Nahikoa da!» edo horrelako zerbait nahi zutela ETArekin bukatzeko. Ikus erabilitako modu agintzaile eta erreaktibo estatal hori: «Nahikoa da!»; formula hau matxinatuen «Bada nahikoa!» formularekin kontrajarrita dago.

• Javier Otano Nafarroako presidente ohi eta PSN-PSOEko idazkariohiak Salvador Fernándezek esandakoaren aldean bertsio leundua eman zuen:

> *Dakidan bakarra prentsan agertu dena da. Esan ahal dudana da, gaur epaitzen diren gauzak duela zortzi edo hamar urte egindakoak direla. Jende hau ETAren basakerien kontra borrokatu zen, biztanleen mehatxu diren hauen kontra... Ez litzaidake, ordea, gustatuko akatsen bat egin duen pertsona batek, eta horregatik ordaindu behar duen batek, espainiarren seguritate-laguntzan egindako lan osoa negatiboki epaitzea. Akatsen bat egin izan badute, kontuan hartu beharko da garai hartan espainiar asko hil zirela ETAren eskuetan.*

Otanok, gainera, etorkizuneko "puntu eta kitto" baten aldera jotzen du, GALen inplikatuentzako erruduntasun minimizatua onartuz.

• Marcos Merino, Europa Press-i egindako adierazpenetan, Alvarez Miranda *ararteko* espainiarrarekin bat azaldu zen, honek «ETA eta GALen arteko diferentzia moralak bazirela» aipatu zuenean. Honela mintzatu zen Marcos Merino:

> *Terrorismoa zuritzen dugula esaten da; baina kontua ez da zuritzea, batzuen eta besteen helburuak bereiztea baizik, biak ilegalak direla gora-behera.*

Kautela konparatibo hauek Estatuaren kontraterrorismo deiturikoaren aldeko iritzia neurtu eta sortzeko asmoz eginda daude. Ikus Marcos Merino bitxiak zuritu eta bereizturen artean egiten duen saio nahasia. Bistakoa da bereizketa beti dela baloratzailea, bereizia dena bakarrik ebalua baitaiteke (berdina dena da bereizgarri bakarra). Bereizketa-modurik txikienean (posiziokoa) ebaluazioaren oinarria dagoeta, ondorioz, zuritzearen sustraia. Beraz, ETAren eta GALen arteko bereizketa hutsa bigarrenaren zuriketa bilakatzen da, nahitaez.

• Felipe Gonzálezek erabat ukatu zuen Danborenearekin inoiz "terrorismoaz eta antiterrorismoaz" mintzatu izana, honek kontrakoa aitortu arren. Ederra egin zion memoriak monklobita "ahanzkorrari" "terrorismoa eta antiterrorismoa"ren kontrajartze baloratiboa eginik. *Anti* aurrizkiak zuritze-gainezkadura bat ematen dio GALen terrorismoari. Nolabait esateko, gerra likitsaren bortxa eta ETArena alderatzeko ahaleginaren aurrean gaude, GALek beti definitu baitu bere bortxa ETAren kontrako erantzun gisa.

• Logika berbera dute Benegasen hitzok: «ETArik gabe ez zegokeen GALik». Fernando Buesak, Gasteizko Legebiltzarrean, zioen: «GAL sare te... kontraterrorista izan zen». Hezkuntza-sailburu ohiaren lapsusak aurreko

adibideen esanahia argitzen digu, horixe da haren balioa. Buesaren zuzenketa azkarrak aipatutako terrorismo eta kontraterrorismoaren arteko bereizketa nahita eginda dagoela adierazten du. Buesa gasteiztar erasokorrari *anti* aurrizki intentsiboaren ordez *kontra* erasotzaileagoren erabilpena hobestea zor diogu.

• «GAL bezalako fenomenoak legalak dira beste herrialdeetan», aitortu zuen Rafael Verak espetxetik irtetean. Hemen, seguritaterako idazkari ohiak,GALen sorreran Estatuak duen inplikazioa onartu ondoren, gerra likitsa legitimatzea du helburu, honela sare galoso horretan dituen inplikazio pertsonalak alboratuz. Horretarako, ez du arazorik estatu-terrorismoari buruz dagoen ustezko kasuistika internazionala aipatzeko, horrela, berak eta sistemak ETAren kontrako gerra likitsa eratu eta finantziatzean dituzten erantzukizunak alboratuz.

• «Prest nago azkeneraino isilik egoteko». Hanka bat kartzelan zeukan Rafael Veraren errebelazio bitxi honek (isilik hitz egite honek), isiltzeko (azkeneraino, gainera) gogo horren azpian gordetzen den gainezkadura, hitz egite berbatsua argitzen du. Inplizituki onartua bere eta erregimenaren erruduntasuna, Verak, Estatuaren aitorrezinezko sekretuen zaindari, estatu-terrorismoan inplikaturik dauden guztiengana honako mezu lasaigarria bidaltzen die: fidatu nire isiltasunean. Ni ez naiz berritsua, Amedo eta enparauak diren bezala. Gerta ahala gerta, frogarik egon ez dadin lagunduko dut Felipe Gonzálezen ildotik. Hauxe da, *grosso modo*, isiltasunak dioena. Honela, Vera, kondenatua izanez gero, Estatuak konfidantzako pertsonei eman ohi dizkien *compensazione* zain geratzen da.

• Rodolfo Martín Villak, GALen sorrera UCDren garaietara (zeinean bera ministroa izan baitzen) eramateko PSOEk hartu zuen taktikari aurre egiteko asmoz, ondoko hau adierazi zuen: «Pertsona eta seguritate-indar batzuek ihes egin ahal dute; niri oso gutxik egin zidan ihes; zerbaitek bai, ordea». Martín Villa gaur egun PPko buruzagiak PSOEk GALen sorreran duen erantzukizun zuzena saihestu nahi du, bere gaurko partidua duen inplikaziotik babestuz. Horretarako, bera barne--ministerioan egon zen garaia eta sozialisten lehen gobernukoa parekatu nahi ditu. Alabaina, bi-biak salbatu nahirik (PP/PSOE), paradoxikoki, biak kondenatzen ditu. Erantzukizunak urtu nahirik, kontzentratu egiten ditu eta libratu ordez, kondenatu. Ondoko honetan ados gaude leondar politikari honekin: ihes egin ziola... uste baino gehiagok.

• «Borroka kontraterroristan, badira egin behar ez diren gauzak. Egiten badira, ordea, ez dira esan behar. Eta esaten badira, berriz, ukatu». Hara hemen Sáenz de Santamaría jeneralaren (Telesforo Monzonek «jeneral poeta» esaten zion) adierazpen agiemaileak (basatiak direlako); hau bai dela Estatu-

arrazoiaren benetako ABCa, zeinaren printzipioak enuntziatzen dituen. Printzipio horietan ez dago zalantzarik orain arte esandakoari buruz: GALen izaera eta sorrerak sistema osoaren inplikazioa du. Hedabideek, sinets zitekeenaren kontra, isildu egin dituzte tamaina horretako adierazpenak. Onartezina iruditzen zitzaien Estatuaren inplikazioa (eta, ondorioz, sistema osoarena) GALen sorreran, eta hauen izaera hiltzailea aitortu beharra jasanezina. Horregatik saiatu dira, indar osoz, sintoma desbideratzen eta beste zerbait zegoen lekuan bilatzen, erakutsi dugun bezala.

4. 3. Sintoma euskal politikoen adierazpenetan

• Honela zioen José Antonio Ardanza lehendakariak ETAk Aldaia bahiturik zeukan garaian: «Lapurtzeko modurik txarrena da». Lehendakariak bahiketa, bahitzaileak eta hauen zergatia formalki kondenatzen dituen bitartean gisa bereko delituen mailakatze bategiten du –"txarrena" konparatiboa erabiliz–. Paradoxikoa da adierazpen hori, zeren eta, lehendakaria izanik, bahiketa salatzea baino ez baitzegokion –legea urratzen duen neurrian–.

Beraz, gure analisia egiteko moduaren arabera, uste dugu Ardanzak komunikatu nahi izan zuena baino gehiagotxo esaten duela. Inplizituki dioena da, hori bada lapurretan egiteko modurik txarrena, logikoki eta deduktiboki, badirela hobeak. Hau da, lapurreta batzuk –segun eta nork egiten dituen– beste batzuk baino hobeak direla.

Gure iritziz, hizkuntz adierazpen honetan, argitara dator lehendakaria harrapaturik daukan kontraesana; hots, bere funtzioaren arabera, esatera behartuta dagoena (Aldaiaren bahiketa kondenatzea) eta nola bizi duen sistema politiko espainiar osoa zeharkatzen duen ustelkeria orokorra, zeinean, bestalde, haren partidua den PNVk parte duen.

Nolabait esateko, bahiketa salatzerakoan bere barnean sentitzen duen deslegitimazio sakonak esanguraren arrakala horretatik egiten dio ihes ("txarrena" konparazio intentsiboan mamitua), lehendakariaren burutik benetan pasatzen ari dena nabarmenduz: ETAk egin duen Aldaiaren bahiketa ahultasun nabarmenean oinarritzen dela, deskalifikazioaren itxurazko biribiltasuna alde batera. Hau da, hemen ere, bereizteko, esanguraren azaleko maila gainditu behar da; komunikazio-maila hautsi, Hegelek zioen modura.

• Honela zioen Atutxak Lasa eta Zabalaren gorpuzkinak ekarri eta hobiratzeko egunean Ertzaintzak jokabide basatia erakutsi ondoren: «Neurtuegiak izan ginen». Esaldi honetan, bereziki, bi adierazpen-maila agertzen dira. Azaleko maila, hartuemanetarakoa, komunikazioari dagokiona, erabat ulergarria –sinesgarria– bertsio ofizial hutsa izango duenarentzat edota

sistema honetan sinesten duenarentzat. Ertzaintzaren jokabidea eta portaera ezagutu zuenak, ordea, faltsutzat eta zinikotzat hartuko ditu Atuxaren adierazpenak.

Gure analisia ezarriz, halako esangura indartzailearen (neurria) beharrik ez duen zerbait adierazteko gradu maximoan indartu beharrak (neurtuegiak), beste gainezkadura baten berri ematen digu, polizia autonomoaren jokabide basatiaren berri hain zuzen ere. Kuriosoa da guztiz, ikusi berri dugunez, Atutxak aukeratutako balioespen-esaldia, hain zuzen, horixe izatea (*neurtuegiak*).

Sailburuaren bertsioa kontrastatu ezinik ere –ez da hori kasua–, guk proposaturiko ikerketa-moduaren bidez, posible da haren faltsukeriaz ohartzea. Atutxak, proposatu ohi duenaren kontrako zerbait aitortzean, Ertzantzak eta kontseilariak ENAMen kontra duten erasokortasun-maila adierazten du; izan ere, «neurtuegiak izan ginen» horretan beste hau gordetzen baita: «Oraindik neurri gutxiagoko izan gintezke eta gutxiagorekin joka genezake gerora».

Azkenik, aipatu beharra daukagu barne-kontseilua –bertsio ofizialetako estilo-zuzentasunaren kontra– ez duela ez eta formarik ere gordetzen. J.M. Atutxa, aipatutako “izan ginen” horretan, inplikatu egiten da Ertzaintzaren jokabidean; honela balioetsiz Euskal Herrian dagoen herri-sentikera, hau da, PNVk bere polizia propiotzat duela Ertzaintza.

• PNVk esan zuen Belloch «barne--ministerioa suntsitzen ari dela». Beste behin, Euskal Herrian eta Estatu espainiarrean bizi izandako egoera larriak –GALi buruzko errebelazioak, Intxaurrondoko koartelaren gora-beherak, gorputz polizialen arteko liskarrak, Estatuaren amaigabeko krisia, etab. –hankaz gora jartzen ditu agente politiko-sozialen defentsa-mekanismoak eta esatea dagokionari buruzko diskurtsoetan arrakalak irekitzen ditu. Komunikazio-prozesuan ageri diren arrakala hauen bitartez, ohiz erreprimituta dagoena agertzen da, ordura-arte ezezaguna zen agente igorleen egia osatzen duen hura hain zuzen.

Adierazpen honek argitan jartzen du, beste ezerk baino gehiago, PNV noraino dagoen Estatuan integratuta, noraino PNV Estatu barneko partidua den. PNVk propiotzat bizi du Estatu espainiarrak duen krisi sakona. Talde politiko hau barne-ministerioan biltzen den Estatuaren zatirik zaharkitu, usteldu eta kriminalenari atxikirik dago. Badirudi onetsi egiten duela Bellochek egindako aldaketa formalak (fondo berezietako ordainketa batzuk erretiratu, ETAren kontrako borrokan goardia zibilaren ordez polizia hobetsi) beharrezkoak direla barne-ministerioaren aurpegi makurra makilatu eta –estrategia errepresibo-hiltzailea porrotean– euskal disidentziaren aurka polizi eragin handiagoa lortzeko.

Hortik, lehen esan bezala, daukagun konbentzimendu moral eta politikoa jakiteko noraino egon den eta dagoen inplikaturik partidu hau barne--ministerio espainarraren estrategia hiltzailean ENAMen kontra (GALen kasua, sakabanaketa, estradizioak, konfinamenduak, torturak, jipoiak,etab.). Aldi berean nabarmen gelditzen da PNVren faltsutasuna GAL kondenatu, Intxaurrondo ikertu edo Rodríguez Galindo ez promozionatzeko eskatzen duenean.

Ardanza jauna, “nahi gabe” esan duzu! Txikitan, adierazpen bitxi honen bitartez –itxuraz inozoa eta zorrotza, ume-jokoen antzekoa– “gibeljokoren” bat egin zuenari jakinarazten genion, inozentzi aitorpenaren ondoren («Nahigabe egin dut», «Ez naiz konturatu»,«Ez zintudan ikusi»), benetako intentzioaz jabeturik geundela. Eta esanguraren kontraesan hori adierazteko –hori esaten genuen bitartean beste hura esateko modua– «nahi gabe» esaten genuen, logikaren eta gramatikaren arauetatik kanpo dagoen esaldi bitxia. Horixe bera gertatu zitzaion Ardanza jaunari GALi buruz ondoko hau esatean: «Zoritxarrez, hildakoak geuk ipini genituen». GALek asesinatuak euskaldunak zirela esan nahirik, esan zuena beste hau da, alegia, PNVk Estatu espainarrarekin kolaboratu duela euskal disidentziaren aurka. Adierazpenaren aukeraketak berak –negozio-munduan eta tratularitzan oso erabilia, bestalde («Zuk dirua jarri eta nik lan-eskua», «Zuk lokala, nik andrak», «Zuk armak eta mertzenarioakj arri eta nik biktimak»)– esaten digu, alarma baten gisa, zerbait ez doala zuzenegi lehendakariaren esamolde horretan. Esanguraren arrakala horretan, PNVren eta GALen arteko harremanen egia, erriprimitua, agertzen da. Kontua da, Ardanza jauna, egia esan ordez, beti... esaten dela dena.

Oharrak

1. Albistea eta gertakizunaren arteko desberdintasuna Antton Azkargortaren doktorego-tesian (1988) dago ondoen eta luzeen arrazoituta. Beste bi artikulu hauek ere kontsulta daitezke: Azkargorta & Xamardo 1990 eta 1991.

2. Formulazio hau Badiou 1985-n aurki daiteke. Badiouk, bestalde, Hegel 1968-tik hartu du.

3. Iratzar, (1994): “Uruguay y la tesis”, Egin, VIII-29.

4. Euskaraz ez dago ikusterik gazteleraren ukapen bikoitza: «Es imposible que nadie pueda...».

Bibliografia

Askoren Artean (1989): *La envoltura formal del síntoma*, Ed. Manantial, Buenos Aires.

Azkargorta, A. eta Xamardo, N., (1990): “Egia eta egiantzekotasuna: prentsa Euskadin”, *Uztaro* 3, 77-85.

——————, (1991): “Medios de difusión y lucha ideológica”, 118, 6-11.

Badiou, A., (1985): *Theórie du sujet,* Ed. du Seuil, Paris.

——————, (1988): *L’être et l’événement,* Ed. du Seuil, Paris.

Freud, S., (1960): *Psicopatología de la vida cotidiana,* Alianza Editorial.

Hegel, F., (1968): *Ciencia de la lógica,* Buenos Aires.

Lacan, J., (1966): *Écrits*, Ed. du Seuil, Paris.Ornicar, 6. zb. (1976); 8. zb. (1976-77); 9. zb. (1998); 11. zb. (1979).

Rabinovich, D.S., (1993): *La angustia y el deseo del otro*, Ed. Manantial, Buenos Aires,172-178.

Nasio, J.D., (1995): *Cinco lecciones sobre la teoría de Jacques Lacan*, Ed. Gedisa,Bartzelona.

J. Agirre Kolektiboa

Filosofia

“Infinituaren erronka” (*UZTARO*, 27–1998:3-21)

Laburpena

Descartes, Leibniz, Spinoza eta Kantenganaino iritsita, matematikak eta filosofiak bide luze eta kordatua egin dute elkarrekin. Kantek berak matematika eta ezagutza orokorraren jatorriak Talesen izen mitikoaren pean lotu zituen. Filosofo hauentzat guztientzat argi dago matematikak ahalbidetu zuela ezjakite eta sineskeria ororekiko jatorrizko haustura. Matematikak mitoaren nagusitasuna apurtu zuen. Pentsamendu erromantikoak bestalde -eta Hegelek batez ere-, urte gutxiren buruan, bien banaketa ia erabatekoa gauzatu zuen. Artikulu honetan, klasikoen bideari jarraitu nahi izan diogu. Dena dela, filosofiak berak egiarik sortzen ez duela eta. azken atalean politikaren alorrera jo dugu ondorio interesgarririk aterako zelakoan. Zelangura ere, politika askatzailea aldizkakoa da beti, eta ez da inoiz denboraren gainetik dagoen kategoria filosofiko baten gauzatze edo mamitze historikoa.

Abstract

From Descartes, Leibniz, Spinoza and Kant, mathematics and philosophy have made a long and difficult journey together. Kant linked the origins of mathematics and general knowledge under the mythical name of Tales. To all these philosophers it is clear that mathematics made it possible to break away from ignorance and superstition. Mathematics ended the supremacy of myths. On the other hand, romantic thought, and principally, Hegel, achieved the definitive separation of the two in a short period of just a few years. In this paper we have followed the way of the classics. At the end we have take on the subject of politics, hoping to reach to some interesting conclusion. In any case, liberatory politics are always temporal, and it is never the result of an historical actualización of a philosophical category.

> "La clarification définitive de la nature de l'infini est devenue nécessaire, non seulement pour les intérêts spécifiques des sciences particulières mais plutôt pour l'honneur de l'entendement humain lui-même." David Hilbert (1862-1943)

Greziar klasikoen ontologia, eta bereziki Aristotelesena, funtsean finitua zen (eta hala ere, jainkoen infinitutasunarekin bateragarri egiten zuten). Aristoteles, Eleako Zenonek planteaturiko higiduraren kontrako argudioak aztertu eta errefusatzen saiatu zen (Fisikaren VI. liburuan). Zenonen argudioek garrantzi handiko arazoa agerian utzi zuten: espazio eta denboraren infinitu aktuala **1** kontsideratuz, ezinezkoa gertatzen da edozein distantzia edo denbora zeharkatzea. Aristotelesek infinituak edozein errealitate izan zezakeenik ukatu

zuen, edo materia potentzialaren negatibitate hutsarekin identifikatu zuen, balizko hutsarekin, hots, forma duen eta pentsatua izan daitekeen edozeren antitesia bailitzan.

Zenonen lau argudioek dilemaren itxura dute. Lehengo biak (Akiles eta dortoka, eta Dikotomia) jarraipenaren eta denbora zein espazioaren jarraikortasunaren eta infiniturainoko zatigarritasunaren kontra doaz; beste biak (gezia eta estadioa) espazioa eta denbora elementu zatiezinez osatuta daudela dioen hipotesi finitistaren kontra. Gogora ditzagun, banan-banan, laburki:

a) Dikotomia

Higidura ezinezkoa da zeren eta objektu mugikorrak bere ibilbidearen helmugara heldu baino lehen, distantziaren erdia bete behar izan du, eta lehenago laurdena... eta horrela infinituraino; hots, beste hitz batzuekin esanda, higidurak elementu infinituen sintesia edo batuketa inplikatzen du.

b) Akiles eta dortoka

Higidura ezinezkoa da zeren eta korrikalari arinago batek ezin izango du inoiz geldoagoa harrapatu. Izan ere, dortokak -aurretik joanez- higiduraren hasieran zatitxo bat aurreratzen baldin badu, Akiles, hura harrapatu baino lehen, besteak higiduraren hasieran ibilitako puntura iritsi beharko da. Dortokaren abantaila, egia da, gutxituz joango da, baina ez da inoiz deuseztatuko. Gaurko terminologian honela itzul daiteke: 1. Gorputz bakoitzak puntu-kopuru infinitua zeharkatu behar du; 2. Akilesen ibilbidearen puntu bakoitzari apur bat aurretik doan dortokaren ibilbidearen puntu bat dagokion legez eta alderantziz, puntuen kopurua nahitaez berdina izan behar da. Beraz, ezinezkoa da denbora berean Akilesek egindako bidea Dortokak egindakoa baino handiagoa izatea.

c) Gezia

Hegaz doan gezia, bere ibilbidearen puntu eta une bakoitzean, geldi dago. Izan ere, hipotesi finitistaren arabera, denbora edo espazio-tarte oro elementu zatiezinez osatuta dagoela onartzen badugu, gezia, denbora eta tarte osoan, geldi dago. Beraz , denbora eta espazioaren instante eta puntu zatiezinetan ezin da higidurarik egon. Edo bestela esanda: puntu geldi guztiak batuta ere ezin da higadura lortu.

d) Estadioa

Hiru lagun -*a*,*b* eta *c*- estadiora doaz. Bertara helduta, *a*-k ez du korrika egiteko gogorik eta tribunan jartzen da; *b* eta *c* berriz korrika hasten dir estadioari

bueltaka, baina *b* eskuinaldera eta *c* ezkerraldera. Buelta osoa ematel puntura iristen direnean *b*-k daraman abiadura *c*-ri bi aldiz arinagoa iruditzen zaio *a*-ri iruditzen zaiona baino. Beraz, higidura desberdina da, ikusten duenare ikuspuntuaren arabera: ondorioz, ez da existitzen.
Gure ustez, Zenonen argumentazioa zehatza da. Laugarrena da, gaur egun, agian azaltzeko errazena. Erlatibitateak ongi erakutsi digu ez duela zentzu handirik zerbait mugitu egin dela esateak, "zeren arabera" egin duen gehitzen ez bazaio. Zenonen argudioek geometriaren oinarrizko planteamendu guztiak ukitzen dituzte; aritmetikan ere gauza bera gertatzen da, eta matematikan ezin da ezer egin paradoxa ospetsuekin topo egin gabe **2**. Eta hau guztia argudio horiek infinituaren beraren barne-korapiloetan errotuta daudelako gertatzen da. Izan ere, infinitua agertzen zaigun bakoitzean, berriro agertzen zaizkigu arazook, eta bereziki matematikan. Zeren eta infinituaren kontraesana konponezina dela onartuko bagenu, matematika guztiak gaitzetsi eta errefusatu beharrean egongo ginateke, eta ez soilik funtzioen teoria eta kalkulu infinitesimala, baita geometria euklidearra eta aritmetika osoa ere.

Erdi Arora etorrita, sarritan pentsatu izan da monoteismo kristauak finitismo greziarrarekin hautsi zuela. Aristotelesek infinituari egozten zion izaera negatiboa gaindituz eta neoplatonismoak eraginda, batez ere maila metafisiko eta teologikoan, Plotino eta Proklok, Jainkoaren Batean, infinitu eta finituaren aldibereko presentzia onartu zuten. Humanismoaren hasieran, XV. mendean, Nikolaus Krebs-ek (gaztelaniaz Nicolás de Cusa izenarekin ezaguna) infinitu matematikoaren kontzeptu abstraktua eta Jainkoaren infinitutasun erreala bildu zituen. Krebs-en ideia hauek eragin handia izan zuten gero Giordano Brunorengan. Krebs-ek sinbolo ospetsua erabiltzen zuen giza adimenak ezagutzaren bila egin behar duen lan infinitua sinbolizatzeko: **π** zenbakiarena hain zuzen ere. Giza adimena poligono batekin konpara daiteke, eta honen aldeen kopurua etengabeki handituta zirkulu baten antza hartuz doa, baina sekula lortu gabe **3**. Giordano Brunok, bere aldetik, asko zor dio Krebs-en neoplatonismoari eta baita Kopernikori ere, eta bere ustez finitua da unibertso osoaren oinarria, eta Jainkoaren lan sortzaileak eraba eharkatzen du. Infinituan kontrakoek bat egiten dute (*concidentia oppositorun*) zentroak eta periferiak, osoak eta parteek.

Monoteismo kristauan, nolabait behintzat, nahiz eta Jainkoari egotzi zaion infinituaren izena, ez dago finitismo grekoarekiko haustura berehalako eta erradikalik **4**. Mundu naturaletik harantzago hierarkikoki errepresentagarria den traszendentziak ez du sakonki ukitu izakiari buruzko pentsamendua. Diskurtso ontologikoaren antolakuntza jarraitu honen posibilitatearen oinarria

pentsamenduaren aro metafisikoan egiten zen horretan dago, hots, izakiaren arazoa izaki gorenari lotuz, infinitua izaki-Jainkoa izanik, azpitik segitu duen izakiaren beraren pentsamenduak, funtsean, finitua izaten segi dezake. Jainkoaren infinitutasunak soilik izendatzen du izakia-bere-osotasunaren "eskualde" traszendente hori, non ez dakigun ere zein zentzutan garatzen den izakiaren funtsezko finitutasuna.

Heidegger-ek ontoteologia deitzen duen eremuan, hots izatearen pentsamenduak izaki **5** gorenarekiko duen menpekotasun metafisikoan, finitu eta infinituaren arteko diferentziak -izakian dagoen diferentzia, edo "diferentzia ontikoa" izanik- ez du, egia esan, ezertxo ere adierazten izakiaren beraren gainean, eta arazorik gabe manten daiteke Aristotelesen dispositibo finitua. Azkenik, infinitu/finitu bikoteak diferentzia ontologikoaren espazioan pertinentziarik ez izateak infinituaren teologia eta finituaren ontologia bateragarriak direla adierazten digu.

Beraz, Erdi Aroko Jainko infinitua, izakia den aldetik, guztiz finitua da. Horregatik hain zuzen ere, ez dago inongo labar gaindiezinik Bera eta sorturiko naturaren artean eta, ondorioz, bigarrenaren behaketa arrazoituak Haren existentziaren froga etengabea hornitzen digu. Bestalde, froga honen benetako eragilea -existentzia naturalarekin erabat lotuta dagoena-, higidura (finituak deitzen diren substantzia naturalei dagokiena) eta higiezintasunaren (Jainkoa den motore gorena aldaezina da) arteko diferentzian dago.

Infinituaren kontzeptu erabat modernoa, behin betiko eta erradikalki Aristotelesekin eta judu-kristauenarekin hautsi zuena, Galileo Galileiren interbentzioari zor diogu. Galileok infinitua naturan bertan dagoela ezarri zuenean, Descartesek berak Jainkoaren existentziaren froga aldatu behar izan zuen. Izatearen infinitutasunaren tesia filosofo kristauen geroztikoa da, edo nahi bada Galileoren ondorengoa, Galileo inflexio-puntua markatzen duen gertakizuna delarik. Galileoren infinituaren matematikak **6** eta Descartesen zientziaren subjektu berriak -*Cogito*-aren hutsunetik sortutakoa- biak barnetik lotuta egonik, pentsamendu grekoa behin betirako zapuztu eta deslerrokatu zuten infinitutasunaren beraren esentzia ontologiko finitua zen, eta Jainko gisa ezagutzen zen izakiaren nagusitasuna.

Honen guztiaren ondorioz, infinituari buruzko tesi erradikal oro ez da izango jadanik Jainkoari buruzkoa, naturari buruzkoa baizik. Pentsalari modernoen ausardia ez da izan infinituaren kontzeptua ezartzea, hori judu eta kristauek aspalditik baitzeukaten pentsamendu grekoarekin itsatsita. Modernoen meritua kontzeptuaren erabilera deserdiratzean datza: natura infinitua da.

Edozelan ere, naturaren infinitutasunaren tesia soilik da azaletik munduari -edo unibertsoari- buruzko tesia; zeren eta "mundua" oraindik izan baitaiteke pentsatua -Kantek "antinomia ontologikoarekin" **7** frogatu zuen bezala- bataren-izakia bailitzan eta itxurazko *impassea* baino ez izan. Naturaren infinitutasunak munduaren infinitutasuna baino ez badu izendatzen, (Koyrék (1971) haustura modernoa ikusten duen "unibertso infinitua") oraindik da posible, hala ere, unibertso hori jainko deserdiratua, alde guztietatik banatua baino ez izatea, ontologiaren azpiegitura finitista tinko mantentzea, eta infinitutasun ontikoa bere estatutu traszendente eta pertsonaletik jaistea, espazio kosmologikoaren mesedetan. Baina horrela saihestu egiten da izakiaren funtsezko infinitutasunari buruzko enuntziatu erradikala. Ulertu beharra dago naturaren infinitutasunak soilik imajinarioki izendatzen duela Bat-munduaren infinitutasuna. Bere egiazko zentzua soilik doakio, bata ez baita, multiple edo anitz hutsari, presentazioari alegia.

Beraz, infinituaren kontzeptua ez da iraultzailea izan pentsamenduan, harik eta naturari zegokiola deklaratu zen arte, mundu guztiak somatu baitzuen hartan ordurarteko dispositibo ontoteologikoa bera kolokan jarri zuela. Astinketa honen ondorio zuzena arazo ontologikoaren berrirekitzea izan zen, Descartesengandik Kantenganaino ikus daitekeenez, egonezin guztiz berriak jo baitzion konbentzi-mendu finitistari. Infinitua naturala baldin bada, izaki gorenaren izen negatiboa ez bada, ezin pentsa ote genezake predikatu hori izakia-izaki-den-aldetik delakoari dagokiola? Eta beraz, anitzari edo multipleari berari? XVI. eta XVII. mendeetako iraultza intelektualak -hipotesiaren norabidetik abiatuta, ez izaki infinitutik, zenbaki infinituen multipletik baizik- izakiari buruzko galdera arriskugarria berrireki zuen, eta muntaia grekoaren uzte itzulezinezkoa prestatu.

Modurik abstraktuenean, ezer baino lehen, izakiaren infinitutasunaren ezagu-tzak egoerak infinituak direlako ezagutza ekarri zuen **8**. Hala eta guztiz ere, zer da multiple infinitu bat?

Nola edo hala, galdera honen erantzuna ez dago gaur oraindik argi. Bestetik, arazo intrintsekoki ontologikoaren —hots, matematikoaren- adibidea dugu berau.

Ez dago infinituaren kontzeptu inframatematikorik; "oso handia"ren irudi lanbrotsuak **9** daude soilik. Gauzak horrela, ez dugu izakia infinitua dela esango, *bera soilik* dela infinitua baizik. Edo areago, infinitua soilik izakia-izaki-den-aldetik delakoari dagokion predikatua dela. Orduan, infinituaren kontzeptu unibokoak soilik matematikan aurkitzen baditugu, kontzeptu hori soilik erabil dezakegu matematikak darabilen horretan, izakia-izaki-den-aldetik delakoari

dagokionean. Puntu honetara helduta, ongi ulertzen dugu, Cantorren **10** lanak zein puntutaraino itxi zuen Galileoren keinu historikoa.

Infinituaren existentzi estatutua bikoitza da. Beharrezkoa dira jadanik hor-dagoen hasierako anitza, eta Bestearen izakia; azken hau ezin da inoiz arautik inferitu. Infinituaren existentzi marka bikoitz hau funtsezkoa da infinitu erreala infinitu-bat den imajinariotik bereizteko.

Azkenik, esan behar dugu infinituak izakiaren puntu baten, errepikapen-automatismoaren eta bigarren existentziaren markaren arteko lotura gauzatzen duela. Infinituan lotzen dira jatorria, bestea eta Bestea. Bigarren existentzi markak infinitua finitutik imajinatzea debekatzen du. "Finitua" arau batek goitik behera zeharkatzen duen izate modura definitzen baldin badugu, puntu batean Bestea bestea bailitzan tratatzen baldin badu, argi dago infinitua ezin dela hortik inferitu, infinituak Bestea beste alde batetik etortzea eskatzen baitu, besteak antolatzen dituen arauetatik kanpo.

Hemendik berebiziko garrantzia duen enuntziatua ondorioztatzen dugu: izakiaren infinitutasunaren tesia erabaki ontologikoa da nahitaez, axioma bat alegia. Erabaki hau saihesten badugu, beti izango da posible izakia finitua izatea.

Egia biribila da XVI. eta XVII. mendeetako pentsalariek erabaki hori hartu zutela, natura infinitua dela erabaki zutenean. Hori ez zen posible izan behaketari esker, lente astronomiko berrien hobekuntzari esker... Beharrezkoa izan zen pentsamenduaren kuraiaren egintza garbi bat, beti defendagarria den finitutasun ontologikoaren dispositiboan eten halanahitakoa egitea. **11**

Historikoki mugatua izanik, izakiaren infinitutasunari dagokion enuntziatuaren era efektiboki ateologiko bakarrak naturarekin zerikusia duela ontologiak ere adierazi behar du.

Anitz, multiple edo multzo *naturalak* barnekotasunaren (banakako zenbaketa) eta partekotasunaren (estatuaren araubidea) arteko oreka maximoa burutzen dutenak dira. Infinituari dagokion erabaki ontologikoa, beraz, honela esango dugu: *anitz natural infinitua existitu egiten da*.

Azpimarratu behar dugu enuntziatu honek arretaz saihesten duela Natura aipatzea, oso nabaria delako oraindik bertan bat kosmologikoaren ordezko eremua, bat infinitu teologikoaren pean hainbeste mende egon ondoren. Jainkoa ez da existitzen. Naturak ere ez. Aipatutako enuntziatuak soilik postulatzen du gutxienez anitz natural bat, anitz iragankorren anitz bat alegia, infinitua dela.

Eta hala ere, enuntziatu horrek okerrera eraman gaitzake, "infinitu" adjektiboa oraindik zehaztu ez dugulako. Honako hau hobets dezakegu: anitz

natural bat existitzen da, horri arau bat dagokiolarik; eta arau honen arabera bere ariketaren edozein unetan, beti existituko da oraindik-beste-batek, baina bera ez da inoiz horietariko bat izango, nahiz eta horiek guztiak barnean dituen.

Enuntziatu honek zuhurregia dirudi, egiazta daitekeen edozein egoera multiple infinitu bakarra aurreikusten duelako. Ontologiari dagokio erabakitzea ea soilik bakarra dagoen, besterik egon daitekeen, besteen Bestea, eta abar.

Enuntziatu honek arriskutsua eta murriztailea dirudi, infinituaren kontzeptu bakarra baino ekoizten ez duelako. Ontologiari dagokio, berriz ere, multiple edo anitz infinitu bat existitzen baldin bada, beste batzuk ere existitzen direla frogatzea; eta horiek, arau zehatz baten arabera, neurtezinak dira.

Horrela aurkitzen dugu egituratuta izakiaren infinitutasun posiblea mantentzearen aldeko erabaki historikoa. Infinitutasun hori, bataren esparrutik, eta, beraz, Presentziaren edozein ontologiatatik kendua izan zenetik, ugalduz doa nonahi, ordezkatzeak toleratzen duena sobera gaindituz. Eta pentsamenduaren garai zaharra atzekoz aurrera modu ikusgarrian jarriz, finitua salbuespen gisa mantentzen du, bere haurridearteko behin-behinekotasuna gugandik hurbil soil-soilik behaketaren txirotasunak mantentzen duelarik.

Gizakia zeinutzat heriotza duen bere burua finitutasunean irudikatzea nahiago duen izakia da, infinituaren nonahitasunak inguratuta eta alderik alde zeharkatuta ikustea baino gehiago.

Gutxienez, ezerk ez duela hori aurkitzera behartzen jakinik kontsola dadila, gai honetan bederen, pentsamendua erabakiaren esparruan egon baitaiteke soilik.

1. "Anitz naturaletan infinitua dago" delako erabaki ontologikoa

Anitz naturalen eskema ontologikoa *ordinalaren* kontzeptua izanik, eta infinituaren izaerari buruzko erabakiaren historikotasuna "natura infinitua da" delako tesian markatuta dagoenez, orduan infinituaren axioma horrela idatzi behar da: "ordinal infinitua existitzen da". Axioma honek, nolanahi ere, ez du inolako zentzurik, eta zirkularra da. Infinitua bere izaeraren posizioan inplikatu du, baina ez du infinituaren ideia multzoen teoriaren hizkuntzan idatzi, eta horrela, anitzari buruz ditugun ideiekin bateragarria izan daitekeen formula predikatibo bihurtu du.

Bide bati behintzat ezin diogu jarraitu, infinitutasun naturala ordinalen osotasun bezala definitzen duenari alegia.**12** Erakutsi dugu jada horrela ulerturiko Naturak ez duela izaterik, zeren eta ordinal guztiak ordezkatuko lituzkeen balizko anitzak -beraz, forma naturala duten izaki posible guztiak-

autobarnekotasunaren debekua nozitzen baitu, eta beraz, ez da existitzen. Onartu beharra dago, Kantekin batera, Osotasunaren ideia ontologikoa ez dela onargarria. Infinitua existitzen baldin bada, izaki natural bat, edo batzuen itxura izan behar du, baina ez Osotasun Handiarena. Infinituaren arloan -besteetan bezalaxe-, Presentazioaren emaitza den bat-anitzak osoak eta parteek eratzen duten mamurantz garamatza.

Ondoren agertzen zaigun oztopoa anitz naturalen eskema ontologikoaren homogeneotasunarena da. Infinitu/finitu oposizio koalitatiboak ordinalaren kontzeptua zeharkatzen baldin badu, IZAKI-ANITZ NATURALAREN BI MOTA -GUZTIZ DESBERDINAK- DAUDELAKO da. Beraz, puntu honetan zerbait erabaki beharrean baldin bagaude, desberdintasun espezifiko hori onartzea izango da erabakia.

Eta erabaki horrek ordinalen definizioan haustura, hots, eten kontzeptuala non dagoen pentsatzera eramaten gaitu.

2. Izakiaren puntua eta ibilbidearen ebakitzailea

Infinituaren existentzia pentsatu ahal izateko, hiru gauza behar ditugu: izakiaren hasierako puntua, beste-berbera ekoizten duen araua, eta bigarren existentzi marka, Bestearen tokia bestearentzat finkatzen duena.

Ontologian guztiz hasierakoa den izakiaren puntua, hutsaren izena, ø, da. Eta berau, anitz natural baten izena ere izan daiteke, ezerk ez baitio hori eragozten. Bestalde, orain arte gorde dugun existentziari buruzko ideia bakarra da berau. Halaber, hutsaren izenetik aurrera onartu ditugun anitzak, {ø} esaterako, matematika eraikitzailearen **13** arabera dira onargarriak.

Anitz naturalen ibilbidearen arauak **14** baimendu behar digu, ø-tik aurrera, beste ordinal arruntak etengabe eraikitzea -beti "oraindik bat gehiago"-, hots, beste multzo iragankor batzuk eraikitzea, hauen elementuak ere iragankorrak direlarik, eta denak onargarriak anitz hutsaren presentazioaren ideia axiomatikoen arabera.

Gure euskarria Biaren irudia izango da, {ø,{ø}} anitza alegia, honen elementuak hutsa eta bere "singletona" edo "bakuna" **15** direlarik. Ordezkapenaren axiomak hauxe dio: bi hori existitzen delarik, beste edozein multzo ere existitzen da, bi elementu horien ordez beste bi -balizko existentzia dutenak- ipiniz lortzen dena. Horrela lortzen dugu Biaren kontzeptu abstraktua: a eta ß existitzen baldin badira, {α, ß} multzoa ere existitzen da, bere elementu bakarrak α eta ß direlarik (existitzen den Bian, ø-ren ordez α; eta {ø}-ren ordez

ß). {α, ß} deituko diogu α eta ß-k osatutako bikoteari. Horrela bada, α eta ß "bikotetu" egin ditugu.

Bikotea lortu ondoren, goazen multzoak batzen dituen operazio klasikoa definitzera, hots aUß zeinaren elementuak α-renak eta ß-renak "elkarrekin ipinita" lortzen diren. Demagun {α, ß} bikotea. Bilduraren axiomak hauxe agintzen du: daukagun multzo baten elementuen elementu-multzoa existitzen da. {α, ß} bikotea existitzen baldin bada, bere bildura U{α, ß} ere existitzen da, eta dauzkan elementuak bikotearen elementuak dira, α eta ß-ren elementuak alegia. Hauxe da nahi genuena. Proposatuko dugu orain αUß, U{α, B} adierazteko idazkera kanonikoa baino ez dela. Eta oraintsu ikusi dugun legez, α eta ß existitzen badira, αUß ere existitzen da.

Beraz, gure ibilbidearen araua hauxe izango da:

$$\alpha \rightarrow \alpha \cup \{\alpha\}$$

Arau honek emandako ordinal batetik aurrera, bera eta bere bakunaren bildura-multzoa "ekoizten" du. Bildura honen elementuak alde batetik α-renak dira, eta bestetik α berbera, bere bakunaren elementu bakarra delako. Beste era batera esanda: α-ri bere izena biltzen diogu, edo: α-k aurkezten dituen anitzei bera den bat-anitza biltzen diegu.

Kontura gaitezen prozedura honekin "beste bat" ekoizten dugula. Izan ere, duela gutxi esan dugu, α, α U {a}-ren elementua dela. Alabaina, bera ez da α-ren elementu, α € α debekatuta baitago. Orduan, α eta α U {a} diferenteak dira zabalkortasunaren axiomaren arabera. Diferentzia anitz batean datza, α-rengan hain zuzen ere.

Hemendik aurrera, α U {α}, modu honetan idatziko dugu: S(α), eta honi α-ren *hurrena* deituko diogu. Gure arauak ordinal batetik bere hurrenera "pasarazten" digu.

Hurrena den beste hori, berbera da baita ere, ordinal baten hurrena beste ordinal bat delako zentzuan (Peano). Beraz, gure araua anitz naturalentzako inmanentea den ibilbide-araua da. Erakuts dezagun.

Alde batetik, S(α)-ren elementuak denak iragankorrak dira. Izan ere, α ordinal bat izanik, bai bera eta bai bere elementuak iragankorrak dira. Alabaina, S(α)-ren osagaiak, hain justu, α-ren elementuak dira, ondoren a bera gehitzen zaiela.

Alde batetik, S(α) ere iragankorra da. Izan ere, demagun ß E S(α) dela.

• Edo ß E α, eta ondorioz ß C α (α iragankorra delako). Baina S(α) = α U {α} den legez, orduan argi dago α C S(α) dela. Eta parte baten partea ere partea den legez, honakoa dugu: ß C S(α).

• Edo ß = α, eta orduan ß C S(α), zeren a C S(α) baita. Halaber, S(α)ren barne [E] den anitz oro, bere parte [C] ere bada. Beraz, S(α) iragankorra da.

Anitza iragankorra izanik bere elementu guztiak ere iragankorrak dira. S(α) ordinala da (α bera ordinala den unetik).

Gainera, badu zentzurik α-ren hurrena S(α) dela esateak, edo α-ren "ondo-ondotik" datorren ordinala -oraindik-bat-gehiago delakoa- dela. Inongo ß ordinalik ezin da txertatu α eta S(α)-ren "bitartean". Zeren arabera gertatzen da hau? Barnekotasuna osotasunaren alorreko harremana da ordinalen artean. Beste modu batera esanda, ez dago αEß E S(α) beteko lukeen inolako ß moduko ordinalik.

Zeren eta, S(α) = αU{α}-ean, "ß e S(α)" enuntziatuak hauxe adierazten baitu:

• Demagun ß E α. Honek α E ß baztertzen du, barnekotasuna ordinalen artean ordena-harremana izanik, iragankorra baita, eta bai ß E α-tik bai αEß-tik, ß E ß aterako litzateke, eta hori ezinezkoa baita.

• Demagun ß E{α}. Honek ß = α-ra eramaten gaitu, α, {α} singletonaren elementu bakarra delarik. Baina ß = α berdintzak baztertu egiten du nabarmenki, betiere autobarnekotasunaren debekua dela eta.

Kasu guztietan ezinezkoa da α eta S(α)-ren bitartean ß tartekatzea. Horrela bada, jarraipen-araua unibokoa da. Eta horren bitartez α delako ordinal batetik bakarra den beste horretara pasa gaitezke, eta hori hurrengoa da, barnekotasuna den harreman osoaren arabera.

Izakiaren hasiera-puntua den ø-tik hasita, existitzen (ø existitu egiten baita) diren ordinalen sekuentzia, beraz, honelaxe eraiki dezakegu:

ø, S(ø), S(S(ø)),... S(S(...(S(ø))...),...

Intuizioak berehala esaten digu, modu egokian "ekoitzi" dugula ordinalen kopuru infinitua, eta, beraz, infinitutasun naturalaren alde erabaki dugula.

Dena dela, hori Osoaren ospe imajinarioaren aurrean makurtzea litzateke. Ikusi dugun bezala, filosofo klasikoek argi ikusi zuten arauaren efektuaren errepikapen honetan soilik lortzen genuela beste-berdinen mugagabetasuna **16**, baina ez existitzen den infinitua.

Bestalde, horrela lortutako ordinal bakoitza nabarmenki finitua da zentzu intuitiboan. Hutsaren izenaren n-garren hurrengoa izanik, n elementu ditu, denak bakoiztasunaren errepikapenaren bidez huts soilarekin ehunduta. Bestalde, anitz soilaren inongo ideia axiomatikok ez digu baimentzen jarraipen-arauaren bidez lor ditzakegun ordinal *guztiekin* bat egitea. Horietariko bakoitza etorriko den oraindik- -bat-gehiago horren arabera existitzen da, bere bestea

izatea, atzera begira berbera modura kalifika baitaiteke, nahiz eta arauaren errepikapenaren ertzean berak mantentzen duen besteen-arteko-bat hori izan. Baina Osoa eskuraezina da. Badago hor soilik erabaki baten bidez zeharka daitekeen amildegia.

3. Jarraipena eta limitea

Jarraipen-arauetan oinarrituta beren existentzia oinarritzen duten ordinalen artean, badago bat, ø, apartekoa dena alde guztietatik begiratuta ere, baina hori soilik ontologia osoarentzat horrela den neurrian. Sekuentzian zehar, ø ez diren ordinal guztiak beste baten hurrengoak dira (Peanoren bosgarren axioma). Modu guztiz orokorrean esango dugu, α delako ordinala ordinal segitzailea dela -guk horrela idatziko dugu: S (α)- baldin eta berak segitzen duen beste ordinal bat, ß adibidez, existitzen bada. Horrela formulatuko genuke:

$$S(\alpha) <-> (\exists ß)\ [\alpha = S(ß)]$$

Ordinal segitzaileen existentzia ez dago zalantzan. Infinituarekin zerikusia duen erabaki ontologikoan jokatuko duen arazoa, ordea, hauxe da: ordinal ez segitzaileen existentia. a ordinal bat limitea dela esango dugu, eta lim (a) idatziko dugu, inongo ß-ren segitzailea ez denean:

$$\lim (\alpha) <-> \sim S(\alpha) = \sim (\exists)\ [\alpha = S(ß)]$$

Ordinal limite baten -horrelakorik existitzen baldin bada- barne-egitura funtsean ordinal segitzaile baten desberdina da. Eta hor aurkitzen dugu guk ez-jarraipen koalitatiboa anitz naturalen azpiegitura ontologikoaren unibertso homogeneoan; eta infinituaren apostuak ez-jarraipen horretara garamatza, ordinal limiteak Bestearen lekua betetzen baitu, bere barnean dauden beste-berberen jarraipenarentzat.

Puntu erabakigarria hauxe da: ordinal bat ordinal limite baten barnean ($\in$) baldin badago, bere segitzailea ere haren barnean dago. Izan ere, baldin ß $\in$ α (demagun α limitea dela) bada, ezin dugu izan α $\in$ S(ß), zeren eta orduan α, ß eta S(ß)-ren artean tartekatuta bailegoke, eta hori ezinezkoa dela erakutsi dugu apur bat lehenago. Eta ezin dugu ezta ere S(ß) = α egin, zeren eta α, ordinal limitea izanik, ez da inongo ordinalen segitzailea. Eta barnekotasuna ordinalen artean ordena osoa denez, α E S(ß) eta α = S(ß)-ren ezintasunak beste hau inposatzen digu, hots, S(ß) $\in$ ß.

Kontsidero honetatik ondokoa ondoriozta dezakegu: ordinal limite baten eta bere barnean dagoen ß delako ordinal baten artean, ordinalen kopuru infinitua (zentzu intuitiboan **17**) tartekatzen da. Izan ere, baldin ß $\in$ α (eta α da limite) bada orduan S(ß) $\in$ α, eta S(S(ß)) $\in$ α, eta horrela jarraian... Ordinal limitea orduan Bestearen lekua da, eta bertan, jarraipenaren bestea bere burua inskribatzen saiatzen da berriro ere. S arauaren bidez eraiki daitezkeen

segitzaile jarraien sekuentzia osoa ordinal limite horren "barruan" bilakatzen da, hots, sekuentziaren termino guztiak bere barnekoak dira. Hala ere, ordinal limitea bera Bestea da, eta ezin du sekula beste baten jarraian datorren beste-bat-gehiago izan.

Aipa dezagun baita ere, egiturari dagokionez, ordinal segitzaileek eta ordinal limiteek duten beste diferentzia: lehenbizikoek beren baitan anitz maximoa dute, bigarrenek aldiz, ez. Horrela bada, segitzaile bat baldin badugu, eskema ontologiko "ordinala" guztiz hierarkizatuta dagoen anitz natural bati dagokio, eta bertan, inmanenteki, eta anbiguotasun-izpirik gabe, termino meneratzailea izendatuko da. Ordinal limitea baldin bada ordea, izaki-azpiegitura eratzen duen anitz naturala itxidurarik. Ordena hau ordinal limiteak menperatzen du, baina kanpotik, bere buruaren barnean egon gabe; bera limitea den sekuentzian existitzen da **18**.

Ordinal segitzaile eta ordinal limiteen artean soma daitekeen ez-jarraipena honelaxe labur daiteke azkenik: lehenbizikoak, segitzen duten lehen ordinal *bakar* horrek mugatzen ditu; bigarrenak berriz, aurretik ibilitako ordinalen sekuentzia "oso" baten ondoren marka daitezke soilik, nahiz eta, arauaren arabera, sekuentzia hori osaezina izan. Ordinal segitzaileak ordinal txikiagoekiko ("txikiagoak" beraien barnean daudela esan nahi du) estatutu lokala dute; izan ere, beraien arteko baten segitzaileak dira. Ordinal limiteak berriz, estatutu globala du, txikiagoak diren horien artetik bat-bera-ere-ez baitago beragandik "hurbilago", eta aldi berean, ordinal limitea guztien Bestea da.

Ordinal limitea aldendu egiten da bestean dagoen -eta "oraindik" zeinuan agertzen den- berberaren parte horretatik. Bera da berbera ez den bakarra, aurre-tik datorkion segitzaileen sekuentzia osoan. Ez da oraindik-bat-gehiago, jarraipen-arauaren insistentzian existitzen den Bat-anitzak baizik. Honetan lotzen dira alteritatearen (bestetasunaren) lekua (sekuentziaren termino guztiak bere barnean daude) eta Bestearen puntua (bere izenak, a, sekuentzian agertzen diren guztiez harantzago dagoen ordinal bat izendatzen du).

Holako fusioak, mugan, Bestearen lekuaren eta bere bataren artean dagoen hasierako izaki-puntua (hemen, ø, hutsa) eta ibilbide-arau bati dagokiona da, propioki, infinituaren kontzeptu orokorra.

4. Bigarren existentzi marka

Nolanahi ere, heldu garen puntura iritsita ere, ezerk ez digu frogatzen oraindik ordinal limitearen existentzia. Egia esan, abiapuntutzat ø, eta ibilbide-arautzat

jarraipena duen ordinalen sekuentzia amaigabearen existentzia ziurtatu ditugu, horiek bai. Baina zintzoak izanik, onartu behar dugu sekuentzia bera ere ez dela existitzen, bere termino (finitu) bakoitza baizik. Soilik erabaki axiomatiko **19** guztiz berri batek baimentzen digu sekuentzia bera bat egitea. Erabaki honek infinitua anitz edo multiple naturalen eskema ontologikoaren mailan ipintzearen alde ebazten du, eta hori eginez XVII. mendeko fisikarien keinua formalizatzen du. Honela esaten da: ordinal limiteak existitu egiten du. Baina "existitu" hori, hutsaren izenaren existentziaren ondoren, hartzen dugun bigarren erabakia da, eta bertan oinarritzen da, hain zuzen ere, izakiaren infinitutasuna.

Gauzak horrela, oraindik ez dugu "infinitua definitu". Beraz, ezin ditugu infinitua eta ordinal limitea bat etorrarazi, ez eta ere finitua eta ordinal segitzailea, zeren eta, a ordinal limitea baldin bada, S(a) bere segitzailea, bera baino handiagoa baita, $\alpha \in S(\alpha)$ da-eta. Segitzaile finitu hori -segitzaile = finitu ekuazioa planteiatzen baldin bada-, bere aurrekari infinitua baino "handiagoa" litzateke; limite = infinitua ekuazioa planteiatzen baldin bada, berriz, hau pentsamenduarentzat arbuiagarria izateaz gain, horrek "infinitura pasatzea" keinu itzulezinezkoa izatea ezabatu egiten du.

Izaki naturalaren infinitutasunari buruzko erabakia ordinal limitearekin lotuta baldin badago ere, erabaki horri eusten dion definizioa desberdina da halabeharrez.

Badago ordinalen ezaugarri nagusi bat: minimotasuna. Ezaugarri bat duen ordinal bat existitzen baldin bada, orduan ezaugarri hori duen ordinal $\in$-minimo bakarra existitzen da. Izan ere, "ordinal limitea izatea" ezaugarri bat da, eta formula batez adierazten da: $\lambda(\alpha)$, honek aldagai libre bat duelarik. Beraz, ezaugarri horretarako ordinal $\in$-minimo bakarra dago. Hona hemen bada ordinal limiterik txikiena, eta hortik *honantzago* hutsa besterik ez dago. Eskema ontologiko hau funtsezkoa da, berak adierazten baitu infinituaren ataria. $\aleph_0$ deituko diogu. Izen propio honek, $\aleph_0$, anitz baten itxuraren pean, erabakiaren bidez, izakiaren infinitutasunari dagokion lehen existentzia suposatua konbokatzen du. Homogeneotasun naturalean, segitzaileen ordena (hierarkizatua eta itxia) eta limiteena (irekia, eta ek-sistitzen den batek hautsia) aurrez-aurre jartzen dituen haustura estrukturalak $\aleph_0$-n aurkitzen du bere ertza.

Infinituaren definizioa ertz horretan ezartzen da. Beraz, honelaxe esango dugu: ordinal bat infinitua da $\aleph_0$ baldin bada, edo $\aleph_0$ bere barnean baldin badago. Eta berriz, ordinal bat finitua da $\aleph_0$-ren barnean baldin badago. Beraz, $\aleph_0$, multzo infinituen "tamaina" hautemateko neurri bihurtu da.

Horrela, beraz, Inf (infinitua) eta Fin (finitua):

$$\text{Inf}(\alpha) <-> [\alpha = \text{No}) \text{ edo } \aleph_0 \in \alpha]$$

$$\text{Fin}(\alpha) <-> (\alpha \in \aleph_0)$$

Azpimarratu egin behar dugu $\aleph_0$-ren estatutu apartekoa. Bera da, definitzen duen minimotasunagatik, bere barnean beste inolako ordinal limiterik ez duen ordinal infinitu bakarra. Beste guztien barnean $\aleph_0$ dago gutxienez, eta hau ez dago beraren barnean. Ordinal finituen eta $\aleph_0$-ren bitartean beraz, bitarterik gabeko amildegia zabaltzen da.

Hau da, anitzaren doktrinaren arazorik sakonenetako bat -kardinal handier teoria izenaz ezagutzen dena- amildegi hori infinituan bertan errepika daitekeenentz jakitea da. Cantor urte luzez saiatu zen **R**-ren (zenbaki errealen) kardinala (*jarraituaren potentzia*) zenbaki naturalen, **N**, kardinalen hurrengoa zela frogatzen,

$$\text{card } \mathbf{R} = \aleph_1$$

Ez zuen inolako frogarik lortu, ez positiboa, ez negatiboa. Hipotesi honi, card **R** = $\aleph_1$ delakoari, jarraituaren hipotesia **20** deitzen diogu. Eta sekulako garrantz du, **N**-ren infinituaren ondoren **R**-rena datorrela frogatuko bailuke, eta bien artean beste multiple infiniturik, bere kardinala $\aleph_0$ eta $\aleph_1$ -ren bitartean legokeena, ez dagoela.

Jo eta ke aritu zen Cantor $\aleph_0$ eta $\aleph_1$-ren arteko bitartekoa aurkitzen. Badirudi ordea, anitz infinituen artean ere, aurretik datozen eta hurrengoen artean, ordinal finituen eta beren Bestearen artean bezala, ez dagoela inongo bitartekorik. Beraz, honek, erabaki berri bat eskatzen digu: infinituari buruzko axioma berri bat:

5. Infinituaren nagusitasun kontzeptuala

Existentziaren alorrean finitua lehena da, gure hasieran existitzen dena ø baita, eta guk{ø}, S{ø}... jokatu baitugu. Eta denak dira finituak. Baina kontzeptuaren alorrean, finitua bigarrena da **21**. Soilik $\aleph_0$-ren existentziatik atzera begiratuz kalifika ditzakegu ø, {ø}, eta abar lehenagotik existitzen ziren anitz-bat soil modura. Finituaren matematikak, ikusi dugun Fin (α) = ($\alpha \in \aleph_0$), finitutasunaren irizpidea bera zintzilika uzten du, harik eta ordinal limiteen existentzia erabaki arte. Grekoek izakia finituarekin identifikatu bazuten, infinituari buruzko erabakiaren faltagatik izan zen, eta horregatik, ezinbestez gailendu zitzaien "dagoena finitua da" ondorioa. Eta orduan, finituaren esentzia izaki-anitza den modukoa da.

Baina anitz naturalak infinitu bihurtzeko erabaki historikoa hartu zenetik, finitua soilik izakiaren erregio bat da, haren presentziaren forma txikia. Infinituari buruzko erabakiak finitua erregionalizatu egin duela esan dezakegu. Cantorren intuizio handienetakoa horixe izan zen. Finituaren kontzeptua soilik argitu daiteke guztiz, infinituaren izaera funtsezkoa argitu ondoren. Hasierako itxura antagonikoa beraz, itxura besterik ez da. Ez dago finitu/infinituaren inongo dialektikarik. Ikusi dugun bezala, infinitutasunari buruzko erabakia hartu baino lehen, infinituaren interpretazio guztiak finitistak ziren. Hartu ondoren, finitua guztiz argituta eta erregionalizatuta gelditu da.

Ez da hau kasu bakarra matematikaren historian. Klein-ek geometria euklidearra sakondu eta garatu zuen; eta, itxuraz behintzat, Riemann-ek bere geometria aurkeztu zuenean, pare kontraesankor bezala ikusteko tentazioa egon zen.

Geroago argi ikusi da geometria riemanndarrak bestea kasu partikular bihurtu duela **22**. Fisikaren arlora pasatuz, gauza bera esan daiteke: erlatibitate orokortuaren eta erlatibitate murriztuaren arteko kontrakotasuna ez zen antzekoen edo berdinen arteko dema. Lehenak bestea suntsitu beharrean, erregionalizatu egin zuen.

6. Infinitutasunak kopuru infinituan daude

Ikusi berri dugunez, infinitua ez da bakarra; gutxienez, bi daude: **N**-ren infinitua, $\aleph_0$ delakoa, eta **R**-ren infinitua, $\aleph_1$. Baina ba al dago besterik? Beste asko gehiago?

Egin dezagun goranzko ibilbidea. Nola lortuko dugu A anitz batetik hasita beste A baino handiago bat? Har dezagun hasteko nahiko sinplea den A anitza. A = {a, b, c). Har dezagun A-ren parteen anitza: (ø}, (a}, {b} eta (c} bakunak; {a, b}, (a, c), (a, c) bikoteak eta {a, b, c) hirukotea. Orduan, Aren parteen multzoak zortzielementu ditu; beraz, card P(A) = 8 (edo $\mathbf{2}_3$). Oro har, n elementu dituen anitzean, bere parteen anitza 2" izango da. Cantorrek frogatuta utzi zuen A delako anitz infinituaren parteen anitzaren kardinala, Aren kardinalaren mailaz goragokoa dela. Bereziki, **N**ren parteen anitzak $2_{\aleph_0}$ du kardinaltzat. Eta kardinal hori eta **R**rena berdinak dira.

Hala ere, eman ditzagun argitasun batzuk. Zenbaki errealak zenbaki oşoen serie gisa ere ikus daitezke (л = 3,141592.., e = 2,7182818284..., √2 = 1,414213562..., 1/3 = 0,33333... eta abar). Beraz, zenbaki erreal orori guk **N**ren parte bat egoki diezaiokegu, eta alderantziz ere bai, hots, **N**ren edozein parteri zenbaki erreala egoki diezaiokegu. Adibidez, **N**ren (0, 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7...}) delakoari, 0,1234567... zenbaki erreala egoki diezaiokegu. Dena dela, argitu

dezagun ezin dugula, oraindik, zirriborrotu dugun anitz bien arteko harremana "bijektiboa" dela esan **23**. Hain zuzen ere, Cantorren ekarpenetako batek zenbaki errealen anitzak eta **N**ren parteen anitzak dituzten kardinalak berbera direla dio.

Honetatik guztitik hauxe atera dezakegu: infinituen kopuru infinitua existitzen da.

Beraz, kardinal desberdinen seriea egin dezakegu:

$$\aleph_0\ \aleph_1\ \aleph_2\ \aleph_3\ \aleph_4\ \aleph_5 \ldots \aleph_n$$

Hona hemen mailaka antolaturiko infinituen kopuru infinitua. Lehen mailan $\aleph_0$ infinitu zenbakarriaren maila **24**, "infiniturik txikiena", nolabait esateko "finitutik hurbilen dagoen infinitua"; bigarren maila $\aleph_1$, $\aleph_0$-tik hurbilen dagoen infinituari dagokio... Horrela bada, anitz baten kardinala aztertzea, nolabait, anitz horri bere mailako kardinala egokitzea da, maila bereko anitzekin bijekzioan ipiniz.

Itzul gaitezen orain **R**ra. Ikusi dugunez, bere kardinala (edo potentzia) Nrena baino handiagoa da. Baina zer gertatzen da soilik **R**ren zati bat aztertzen badugu? Adibidez, [0, 1]-ren kardinala > $\aleph_0$. Galde dezakegu orduan [0, 1]-ren kardinala **R**rena baino txikiagoa denentz, honek zenbaki erreal guztiak hartzen baititu. Egia esan, nahiko sinplea da [0, 1]-ren kardinala eta **R**rena berbera direla frogatzea: **R**n ez dago [O, 1] delakoan baino zenbaki gehiago, zeren anitz bietako zenbakiak banan-banan elkar egokitu (bijekzioan ipini) baitaitezke.

7. Politikaren anitz infinituak

Filosofia existitzen denetik, kolektiboa -bere egintzaren bidez- den egia izateari, justizia deitzen zaio. Horregatik Platonek *Errepublika*-ren IV. liburuan argi uzten du justizia ez dela kanpoko arau bat, ez eta gauzei buruzko kalifikazioa ere. Justizia, dio berak, barnekotasuna ukitzen duen egintzari esaten zaio, eta hortik bakarrik etor daiteke. Komunitatearen irudian, beraz, justizia ez da kolektiboari buruz esan daitekeen zerbait, kolektiboa bera egia bihurtuta baizik.

Honek argi uzten du justiziak beharrizanetik banatuta egon behar duela. Platonek berak *Errepublika*-ren VI. Liburuan sofistaren definizio funtsezko hau ematen du: sofista "ongia eta beharrizana zein puntutaraino diren diferenteak" ikusteko gauza ez dena da. Borondate politikoa komunitatearen beharrizanaren menpe -ongiaren irudia bailitzan- ipintzea borondate hori sofistikaren menpe ipintzea da **25**, Era honetara, politika beharrizanaren gestioa izatera murrizten da eta, ondorioz, emantzipazio-politika oro ezinezkoa dela esaten zaigu. Guk, ordea, beste honi eutsiko diogu: politika "ezinezkoa" baldin bada ere, horrek ez

dio oztoporik egiten emantzipazio-politikaren preskripzioari, honek komunismoa, askapen nazional edo beste edozein izen duelarik ere.

Politikaren alorrean ere anitz infinitu desberdinak axiomatikoki defini ditzakegu: kardinaltasun desberdineko infinituak, eta horien artean, potentziakideak direnak. Esaterako, ENAMa anitz infinitua dela esan dezakegu, bere hedatzeko ahalmena infinitua baita. Kanpotik jar dakiokeen edozein murrizketa, legal edo moral sobera gainditzen duenez, bere hedaketa ez du kanpoko inongo mugak murriztuko. Soilik barne-lege bati obeditzen dio, eta hau axiomatikoa da. Kanpotik etor daitekeen edozein legetatik aldenduta dago, eta bere burua aldentzen segitzen du. ENAMa multiple infinitua izanik, bere parteak ere infinituak dira eta haren potentzia berekoak: harekin bijekzioan daude. Ez dira osoaren parte txikiagoak, greziarren eskema ontologiko finitistaren arabera, potentziakideak baizik.

Herri-mugimenduak berriz askapen nazionalaren egiaren anitzaren potentzia osoa adierazten du puntu batean. Ez da haren frakzio bat. Leninek zioenaren arabera, borrokak puntu batean erdiratu behar dira, ez zatikatu. **26** Puntu hori metatze-puntu **27** bihurtzen da, eta bere gain anitz osoaren potentzia biltzen du. Euskal Herrian badaude hainbat unetan ENAMen potentzia osoa bildu duten anitzak edo multipleak: Lemoiz, ikastolen mugimendua, Lurraldea, euskararen aldeko mugimenduak... eta anitz hauek ere infinituak dira. Ezin da esan, zinez, hura baino handiagoak edo txikiagoak direnik, kardinaltasun berekoak baitira. Bestalde, poentzia goragokoak soilik adieraz dezake bere potentzia beste anitz hauen bitartez.

Ikusi dugunez, matematika transfinituan hainbat kardinal daude. **R**ren kardinala, X1, **N**rena baino mailaz goragokoa izanik ere, ez dakigu "zein neurritan" den goragokoa. Askapen nazionalaren borrokan ere, kardinaltasun desberdineko infinituak daude. Maila bereko kardinaltasunean elkar litezkeen multiple infinituak subiranotasuna eta independentzia dira. Mailaz goragoko kardinala duen anitz infinitua, askapen nazionalaren egiarena litzateke. Aurreko biak, axiomatikoki fundatu diren arren, egoeratik zenbatu daitezkeen elementuak dituzte (zenbakarriak dira); egoeratik hartutako elementuez eta beren baliabideez imajinatu egin daitezke. Pentsatuz eraiki daitezke. Egiaren anitzak, berriz, egoerakoak ez diren elementuen kopuru infinitua du, egoeratik asmatu, ez eta pentsatu, ezin daitezkeenak; labur esanda, ezin da aurreko anitzekin agortu. Bere kardinaltasuna besteena baino maila goragokoa da. Beste bien bilduratik ere pentsaezinak diren infinitu elementu ditu. Potentzia maximoa duten anitz hauek anitz generikoak, ezjakingarriak, bereiztezinak deituko ditugu.

Bestalde, euskararen inguruan antolatzen diren mugimenduak, euskal prentsa, irakasleria propioa, abokatu euskaldunak, udal elebakarrak, intsumisioa..., egiaren multiplearen potentziakideak dira. Herri-mugimenduak, oro har, askapen nazionalaren egia aldarrikatzen duen anitzaren kardinalkideak dira. Beraz, autodeterminazioa edo independentziaren formulazio juridikoak osatzen dituzten anitzak baino maila goragokoak dira.

Nola jokatzen du infinitu aktualak politikan? Gertakizun batetik ateratako axioma fundatzaile batetik (egiatik sorturiko axioma batetik) sortzen da. Hortik, anitz generiko baten existentzia aldarrikatzen da: klase-borrokaren kasuan komunismoa zeritzon; nazio-borrokaren kasuan, anitz generikoari askapen nazionalerako prozesua deritzo. Axioma eratuta dagoenean, beste infinitu multiple batzuk sortzen dira, egoeratik eta axioma generikoari begira. (Komunismoaren kasuan, helburu taktikoa botereaz jabetzea zenez gero, epealdietan antolatu ziren, hala nola: gerra zibila, klase-partidua, matxinada, proletalgoaren diktadura eta sozialismoa. Bitartean, komunismoak -klaserik gabeko gizartea-, egia generiko agortezina izaten segitu behar zuen). Sozialismo errealek ordea, anitz generiko infinitua bere aurkezpen historikoarekin nahastu zuten, eraiki eta aurkeztutako imajinarioa, egia generikoarekin. Borroka nazionalean, subiranotasuna eta independentzia faseak lirateke, eta nazio-askapena, multiple generiko agortezina.

Nolanahi ere, ontologiak ezin dio egiaren kontzeptuari eutsi (gertakizunarena falta zaiolako), eta ezin du subjektuarena taxutu ere. Subjektuaren oinarrizko legeari dagokion izaera-mota -bortxaketa **28** alegia- pentsa dezake, ordea.

Denbora ororen faltan, Cohenek bereiztezina eta erabakiezinaren arteko eskema ontologikoa ezarri zuen. Eta modu horretara ontologia eta subjektuaren existentzia bateragarriak direla erakutsi zigun. Gauzak horrela, izakiaren esanetik (matematikatik) aldenduta egon arren, subjektuak izateko ahalbidea dauka.

Anitz imajinarioak hesitu ondoren, subjektu batek lan egiten du (bortxatu) kardinal beheragoko anitz horiek egoeran aurkezteko, errealitatearen parte bihurtzeko, ezagugarriak izan daitezen. Bortxaketa horrek ibilbidean utzitako markek ("orpenak", nahi bada) osatzen dute egiaren prozesu errealaren ibilbide amaigabea. Eta erreala beti iheska dabilkigun hori da (Lacan). Ezin da inoiz generikoa, erreala den hori, zuzenean bortxatu; beharrezkoa da kardinal txikiagoko anitzen bitartez egitea. Ibilbide hau ilustratzeko, Leninek, tesi "materialistak" defenditzen zituen Martinov burkidearekin izandako elkarrizketa "sokratiko" paregabea ikustea besterik ez dago **29**. Aldez aurretik adierazitako

axioma baten ondoren (klaserik gabeko gizartea), Leninek amets egin behar dela diosku, eta anitz imajinario baina eraiki daitezkeenak pentsatzeari ekiten dio (egunkari batetik hasi eta matxinadaraino). Halaber, ongi bereizten ditu aurreikus daitezkeenak eta aurreikus ezin daitezkeenak (infinitu nagusiago batekoak baitira). Horrela ez bada egiten, ezinezkoa da inongo egoerarik bortxatzea. (Einsteinek ere, zientziaren alorrean, "esperimentu imajinarioak" kuraiaz defenditu zituen bere arerioen kontra).

Subjektuak, egia gauzatu dadin, tortsioak egiten ditu. Multiple infinitu "mugatu" horiek bortxatzen ez baditu, anitz imajinario soil, gauzaezinak, infinitu potentzial (egoeran dagoenaren negazio huts) bihurtzen dira. Orduan, *forcing* egiten ez duen subjektua desiatzaile huts bihurtzen da, eta anitz mugatu eta eskuragarriak kardinal handiagoko infinituarekin nahasten ditu; utopia **30** agertzen da. Bi desbideratze klasiko datoz pentsamendu transfinituaren arauak enoratzetik: lehenak, egiaren multiple infinitu generikoa potentzia handiagoko infinituarekin nahastu eta guztiz finkatu nahi du. Bide honek hondamendira garamatza, eta historikoki izen bat du: Stalin; komunismoa dagoenekoz gauzatuta zegoela adierazi zuenean. Besteak, egoera bortxatu nahi ez duelako, ez ditu anitz mugagarriak bortxatzen eta, ondorioz, kardinal goragokoa duen infinituarekin nahasten ditu, eta horrela desio iraunkor eta gauzaezinean mantenduz, utopian geratzen da.

Hondamendia eta utopia, horra hor politika emantzipatzailea ezinezkoa egiten duten bi desbideraketak. Batak, egintza gehiegiagatik, egia gauza arrunt bilakatzen du; bigarrenak, egintza gutxiegiagatik, egia utopia bihurtzen du.

Bibliografia

Badiou, A. (1990): *Le Nombre et les nombres,* Seuil, Paris.

Bergson, H. (1985): *La evolución creadora*, Austral, Madril.

Cantor, (1980): Gesammeltte Abhandlungen mathematischen und philosophischen Inhalts, Springer-Verlag.

Delahaye, J.-P. (1997): *Le fascinant nombre л*, Pour la Science, Paris.

Gómez de Liaño, I. (1997): Giordano Bruno. *Mundo. Magia. Memoria,* Biblioteca Nueva, Madril.

Kant, E. (1912 itz.): *Prolegómenos a toda metafísica del porvenir*, Daniel Jorro ed., Madril [Julián Besteiroren itzulpena].

Koyré, A. (1971): "Remarques sur les paradoxes de Zenon" in *Études d'histoire de la pensée philosophique*, Gallimard, Paris.

Lautman, A. (1977): *Essai sur l'unité des mathématiques,* Union Générale d'Éditions, Paris.

Lenin (1981 itz.): *¿Qué hacer?,* Progreso, Mosku.

Noël, G. (1893): "Le mouvement et les arguments de Zenon d'Élée", *Revue de Métaphysique et de Morale*, Paris.

Peano, (1979 itz.): *Los principios de la aritmética, Pentalfa*, Oviedo [Julián Velarderen itzulpena]. Russel, B. (1903): *Principles of mathematics*, Cambridge.

Sartre, J.-P. eta Heidegger, M. (1981 itz.): *El existencialismo es un humanismo*, Ediciones del 80, Buenos Aires.

Verdier, N. (1997): *L'infini en mathématiques*, Flammarion, Paris.

Oharrak

1. Latinezko *actum*-etik. Etimologia bikoitza du. Aktua, filosofian, izakiak jadanik burutu duena; balizkoari, litzatekeenari, potentziari, kontrajarria. Actualem hitzak, gaurkotasuna adierazten du, existitzen dena. Aktualizazioa: Aristotelesen filosofian oinarrizko puntua: potentziatik aktura doan igarotze-prozesua.

2. Ikus esaterako Noël 1893. Alexandre Koyré (1971): «On reconnaît facilement la ressemblance des idées de Noël avec celles de Leibniz et, bien entendu, d'Aristote». Ikus baita ere Bergson 1985; eta Bertrand Russelek (1903) azkenik, Zenonen paradoxak hizkuntza matematikoan idatzi eta adibide erraz batzuen bitartez goian esandakoa frogatzen du.

3. "Akitze-metodoa" (edo Antzinakoen metodoa) deitzen zaio prozedura honi. Dena dela, partzialki bederen Euklidesengandik bazetorren ere, Arkimedesek landu eta sakondu zuen gehienbat. Ikus Delahaye 1997: 51-59.

4. «On pourrait se demander toutefois si l'opposition entre le finitisme grec et l'infinitisme chrétien, sur laquelle insistent Duhem et tant d'autres, est aussi justifiée qu'ils le croient. On pourrait même soutenir le contraire» (Koyré 1971: 39).

5. *Seiendes, das Seiende* = ens = "den hori", "dena", "izakia". Jean Wahl-ek, M. M. Lévinas-ek frantsesera "ce qui est" edo "étant" modura itzuli dute.

6."...De i quali accidenti di gravità, di velocità, ed anco di figura, come variabili in modi infiniti, non si può dar ferma scienza: e però, per poter scientificamente trattar cotal materia, bisogna astrar da essi, e ritrovate e dimostrate le conclusioni astrate da gl'impedimenti, servir cene, nel praticarle, con quelle limitazioni che l'esperienza ci verrà insegnando» (*Discorsi*. Giornata quarta. 275. or.).

7. Kantek lau proposamen kontraesankorreri arrazoi hutsaren antinomien izena eman zien. 1) Mundua mugatua da denboran eta espazioan / Mundua mugagabea da denboran eta espazioan. 2) Munduan dena da sinplea / Munduan dena da konposatua. 3) Askatasuna existitzen da eta zenbait efekturen hasiera absolutuaren posibilitatea izan daiteke / Munduan dena naturaren legeek behartuta gertatzen da. 4) Munduan izaki beharrezkoak existitzen du / Ez dago munduan beharrezkoa den ezer. Ikus Kant 1912: 149-159.

8. «...¿qué repugnancia hay en que el infinito, implicado en el simplicísimo e indivisible primer principio, no se encuentre explicado en este simulacro [universol suvo, sin fin ni términos, capaz de mundos innumerables?» (Giordano Bruno in Gomez de Liaño 1997: 174).

9. Abraham Robinson eta Edward Nelsonek 60.eko hamarkadan asmatutako No Standard Analysis (NSA) delakoak, zenbaki errealak (**R**) irizpide ez oso zehatz baten arabera, banaketa berri batez sailkatu zituzten: arruntak, i-handiak eta i-txikiak. *Arruntak*: egunerokotasunean erabiltzen ditugunak, eta intuizio berehalakoan hauteman daitezkeen 1, 2, 3, 4.... I-handiak. "izugarri-handiak" edo "itzelezko handiak", 10100, adibidez. Eta i-txikiak: "izugarri txikiak" edo "itzelezko txikiak", O, esaterako. Guk NSA honi kutsu erabat inframatematikoa ikusten diogu; Infinituaren konzeptu zehatzaren ordez "irudi lanbrotsuak" proposatzen dituzte.

10. Cantorren aipamenetarako ik. Cantor 1980. Zenbait testu, handik eta hemendik hartutakoak, ingelesez ere badaude. Frantsesez, aipatzekoa da J.-C. Milner-ek *Fondements d'une théorie générale des ensembles* (1883) delakotik hartutako oinarrizko zatiak, *Cahiers pour l'analyse*, 69ko udaberriko 10. zenbakian. Gaztelaniaz bestalde, eta hau sintomatikoa da, ez dugu uste Cantorren ezer itzulita dagoenik. 1972tik hona ez, seguru.

11. «FILOTEO: No hay sentido que vea el infinito, no hay sentido al que se exija esta conclusión, porque el infinito no puede ser objeto del sentido» (Giordano Bruno in Gomez de Liaño 1997: 168).

12. Cantorrek (1845-1918) infinitu aktualaren aldeko apostua egin zuenean, infinitua osotasun modura asmatu zuen. Hala ere, berehala agertu zitzaizkion arazoak multzo paradoxikoak zirela-eta. Horiek saihesteko, Hibertek proposaturiko irtenbide sinplea hartu dugu, hots, aldez aurretik teoriaren barruan multzo horien presentzia debekatzea; hala nola, horietako bat autobarnekotasunaren debekua dugu. «En fait, la définition classique d'un ensemble donnée par Cantor -'un ensemble est un groupement en *un tout* (etzana gurea da) d'objets bien distincts de notre intuition et de notre pensée'-n'est pas suffisamment précise pour échapper aux difficultés rencontrées avec certains ensembles. (...) Pour Hilbert, il faut d'abord court a la recrudescence des paradoxes qui produisent des effects dévastateurs sur la théorie des ensembles, de ces 'ensembles' (qui sont en fait trop 'gros') posant problème» (Verdier 1997: 53-55).

13. Matematika eraikitzailea: erabiltzen dituen objektuak algoritmoen bidez eraikitzen saiatzen da. Matematikari formalistentzat, adibidez, "existitzeak" "teoriaren axiomekin kontraesanean ez egotea" esan nahi du. Hau ez da nahikoa eraikitzaileentzat. Hauentzat "existitzeak" "algoritmoen bitartez eraiki ahal izatea" esan nahi du. Joera matematiko honen jarraitzaileak dira, adibidez, Estatu Batuetan Bishop-en eskolakoak, eta Errusian Markov-en eskolakoak.

14. Zenbaki naturalen (zenbaki osoak eta positiboak: 0, 1, 2, 3, 4...), **N**-ren eraiketa axiomatikoa Giuseppe Peano-ri zor diogu. Lehen axioma: 0 zenbaki bat da; bigarrena: edozein zenbakiren segitzailea zenbaki bat da (bildura-printzipioa)...; bosgarrena: 0 ez da inongo zenbakiaren segitzailea. Gaztelaniara itzulita dago (Peano 1979).

15. ß delako multzo baten singletona edo bakuna, ß delakoa elementu bakartzat duen multzoa da. Honela idazten da: {ß}.

16. «Il est impossible, affirme-t-on, de 'compendre' l'infini, c'est-a-dire de considérer comme actuel le non-achevé, de concevoir comme accomplie et terminée une division qui progresse à l'infini. Nous croyons, pour notre part, que les contradictions apparentes résultent de deux confusions, à savoir l'identification de l'indefini avez l'infini et l'application de concepts finitistes -tels que l'egalité numerique- à l'infini» (Koyré 1971: 25).

17. Intuizionismoa: intuizio hautemangarria arrazonamenduaren aurretik ipintzen duen filosofia matematikoa. Kantengan du bere oinarri filosofiko nagusia.

18. Existentzia: izakia-hor delakoa baino haruntzago dagoen existentzia. «Ec-sistencia es -difiriendo fundamentalmente de toda existentia y 'existence'- el ec-stático habitar en la cercanía del ser» (Heidegger, "Carta sobre el humanismo (a Jean Beaufret)" in Sartre-Heidegger 1981: 97).

19. Hemen, lehen bezala, Hilbert-en bideari jarraitu diogu, eta ez Russel edo Whitehead-ek proposatutakoari. Ezaguna denez, David Hilbert-ek matematikaren definizio genetikoen metodoa definizio axiomatikoen metodoarekin ordezkatu zuen. Matematikaren multzoa printzipio-apur batzutatik etalogikaren bitartez eraiki nahi ordez, logikatik aritmetikara eta aritmetikatik analisira iraganez, aldagai eta axioma berriak sortu zituen, pauso bakoitzean ondorioen eremua handitzen zihoala.

20. «On sait, depuis les travaux de P.J. Cohen, que l'hypothèse du continu est indécidable au regard des axiomes classiques de la théorie. On peut l'affirmer ou la nier sans introduire de contradiction* (Badiou 1990: 276).

21. «Les mathématiques se présentent ainsi comme des synthèses successives oú chaque étape est irréductible à l'étape antérieure» (Lautman 1977: 26).

22. «Partis de l'antagonisme entre les géométries de Klein et la géometrie de Riemann, nous arrivons après un long détour à cette constatation que c'est sous la forme riemannienne que les géométries de Klein montrent de mieux leurs propietés fondamentales» (Cartan, *La théorie des groupes et la géometrie*, Eus.Math, 1927, in Lautman 1977: 44).

23. Bijektiboa: A eta B multzoen arteko aplikazioa. Ako bi elementu desberdinek Bn irudi desberdina izanik eta Bko elementu guztiei An elementu bakar bana dagokielarik.

24. «Zenbakarria: Zenbaki arrunten anitzarekin bijekzioa egitea onartzen duen anitza. Zenbaki arruntak eta razionalak zenbakarriak dira; irrazionalak, berriz, ez.»

25. Jarrera hau oso nabarmen agertzen da, esaterako, *Deia* egunkariaren editorial batean. Hain zuzen ere, Autonomi Estatutuaren erreferenduma egin ondorengo iruzkinean: «Ha pasado la hora de la política pura (sic) y de los planteamientos generales. El hombre de la calle está preocupado por la calidad de vida, no sólo en un sentido ecológico, sino en un ámbito más amplio:

Puntos vitales para él son la seguridad en el trabajo, la defensa de la vida, la existencia de puestos escolares para sus hijos. el funcionamiento de unos buenos transportes públicos, la calidad de una red asistencial y hospitalaria» *Deia* 1979-XI-11.

26. «Toda la vida política es una cadena infinita compuesta de un sinfín de eslabones. Todo el arte de un político estriba justamente en encontrar y aferrarse con nervio al preciso eslaboncito que menos pueda ser arrancado de las manos, que sea el más importante en un momento determinado y mejor garantice a quien lo sujeta la posesión de toda la cadena» (Lenin 1981: 180).

27. Cantorrek 1872an idatzitako artikuluan puntu berezien multzoak definitzeko puntu-limiteak edometatze-puntuak erabili zituen. √2 delako zenbaki irrazionala, adibidez, 1; 1,4; 1,41, 1,414,... zerrendaren metatze-puntua da. Oro har, puntu bat anitz baten metatze-puntua dela esan daiteke, multzo horrek, beti, puntu-kopuru infinitua metatze-puntutik arbitrarioki hurbil daukanean.

28. "Forcing" delakoa Paul Cohen-ek sortutako iraultza intelektualaren bigarren aldea da ("bereiztezina"ren ondoren). Cohen-ek puntu honetaz egindako ekarpenik garrantzitsuena honela laburbil dezakegu: funtsezko egoera ia oso batean, posiblea da erabakitzea zein baldintzatan enuntziatu bat ala beste den egiantzekoa, egoeraren parte bereiztezin bat erantsiz lortutako hedapen generikoan.

29. "Hay que soñar. Mis sueños pueden adelantarse al curso natural de los acontecimientos o bien desviarse hacia donde el curso natural de los acontecimientos no puede llegar jamás. En el primer caso los sueños no pueden producir ningún daño, incluso pueden sostener y reforzar las energías del trabajador (...) en sueños de esta índole no hay nada que deforme o penalice la fuerza de trabajo. Todo lo contrario. Si el hombre estuviese privado por completo de la capacidadad de soñar así, si no pudiese adelantarse alguna que otra vez y contemplar con su imaginación el cuadro enteramente acabado [etzana gurea da] de la obra que empieza a perfilarse por su mano [forcing delakoa] no podría figurarse de ningún modo qué móviles lo obligarían a emprender y llevar a cabo vastas y penosas empresas en el terreno de las artes, de las ciencias y de la vida práctica" (Lenin 1981: 188).

30. Idealtzat baina ezin gauzatuzkotzat jotzen den ideia edo proiektua. T. Moro-ren *Utopia* klasikoa eta sozialista utopikoak alde batera utzita, ikus berriagoak diren Francfurteko eskolakoen lanak (Adorno-ren *Dialéctica negativa*-tik hasita eta Habermas-en azken lanetaraino) eta, bereziki, Ernst Bloch-en (1885-1977) *El espíritu de la utopía* (1918-1923) eta *El principio esperanza* (1954-59).

J. Agirre Kolektiboa

Herri mugimenduak

“Publikoa, Pribatua eta Herritarra” (LARRUN, 10: 1991-07:85-90.)

> *«Formez les institutions civiles les institutions aux-quelles on ‘a point pensé encore»* Saint Just

Herritarra ez da Estatuaren alorrekoa -ez eta bere buruari Errepublika Herritar izena ipintzen diotenekoa ere- Ez da gizartearen -pribatuaren- alorrekoa. Tesi honi ekingo diogu ondorengo lerrootan.

Gure ustez, gertakizuna Estatuarekiko (Batarekiko) *gainezkaduran* dago, ezinbestez, hau da, gertakizunak Bataren erreximenetik alde egin eta disfuntzioa sortzen du Bataren funtzionamendu eta kontrol zein meneratze logikan. Berak sortzen du desegokitzea gizarte egituretan, berriaren eta inkontsistentearen etorrera adieraziz. Gertakizuna ez da *dagoenaren egoerak* egintzat emandako gauza, ez eta ere aurretik emandako elementuen konbinatoriak sortua; ez da uneko giza harremanen efektu zuzena. Emanda dagoen bakarra Estatuak (Bataren erreximenak) izate-egotea ezartzen duena da. Gertakizunak, beraz, aurretik emanda dagoena ez bada, *interpretazio-interbentzioa*ren alorrekoa behar du izan. Interbentzio honek sortzen dituen kontzeptu eta baliabideen bidez, gertakizunaren existentziari buruzko interpretazioa egin ahal izango dugu, hots, Bataren, Estatuaren erreximenetik ihes egiten duen zerbait badagoelako interpretazioa (Bia deituko duguna). Gertakizunean beti agertzen dira konprometaturik langileriaren eta herriaren singulartasunak. *Erakunde herritarrak* gertakizunarekiko fideltasunaren inguruan artikulaturik agertzen dira, kontsistentzia, iraunkortasuna emanez eta bere efektuak berehalako dimentsiotik hurrunago hedatuz.

Oso komenigarria deritzogu gertakizuna kontzeptuari buruzko ondoko puntuak argitzeari: *gertakizun fundatzailea,* bere baitaren barnekoa den anizkuna litzateke, fidelak zaizkion beste anizkunen sorrera ere izanik. Euskal

Herrian, subiranotasunaren galeraren kontzientzia hartzea eta haren berreskurapen aldeko burruka litzateke. Hau ez da, inolaz ere, gertaera historiko objetibagarria (jai dute, beraz, gertaera horren bila jotake aritzen diren historialariek), interbentzio-apostu, interpretazio eta izendapen emaitza baizik. Ez gara, ondorioz, historiari buruz mintzatzen ari, *historizitateaz* (historia politikaren ikuspegitik ikusita) baizik; historiaren interpretazio zehatz bat defendatzen dugu beraz, historia unibertsala eta objetibagarria, marxismo zaharkituak hedaturiko falazia besterik ez delako.

Gertakizunaren episodioak berriz, fase desberdinetan aurkezturiko anizkunak deitzen ditugu, gertakizun zehatzak hedatu eta biderkatzeko ahalmenak. Hauek, une zehatzetan, nazio askapenerako burrukarekin fidel diren eskari esanguratsuen moeta zabala kondentsatzeko gaitasuna dute. Episodio hauek *akumulazio* guneotatik sortzen dira, hauek hedaketarako abiapuntu direlarik. Karlistadak, Sabino Arana, ENAMaren sorrera... diren episodioetan akumulazio guneak guztiz desberdinak dira: lehenean, Estatuan nagusitzen zihoan liberalismo ekonomiko zentralizatzailearen aurkako foruen mantentzea izan zen; bigarrenean ordea, Euskal Herriko betidaniko gizartearen oinarriak arriskutan —etorkinen iriste masiboarekin— jartzen zituen industri garapena; hirugarrenik (eta adibide oso orokor honi jarraikiz), ETA erakunde armatuaren sorrera litzateke. Alde batetik frankismoak zekarren Euskal Herriaren edozein eskubideren zanpaketa bortitzaren aurka, eta baita ere munduan diren Nazio Askapen Mugimenduen esperientzien (Cuba, Alger, Vietnam) eraginpe bizian, hots, mugimendu bakoitzaren berezitasuna errespetatuz, eta eredu sobietarra esportagarria zela kolokan jarriz.

Bestaldetik, aurrejarritako egoeran sarturik ez dauden esperientzia anitzak *gertakizunaren tokian* sortu eta garatzen dira, hau da, Bataren ordenu-legetik ihes egiten duten esperientziak dira.«Euskal»ek ezin du gertakizuna izendatu, nahiz eta inguratzeko (kalifikatzeko) balio izan, tokia tokitasunaren (egoeraren) terminoa bada ere, bere izana hutsaren ertzean bait dago; eta, nahiz eta izendapen hori gertakizunaren posibilitateari dagokion, ez du berez berriaren beharrizanik sortzen. Gertakizunaren berezko izena hutsetik aterata dago, izanaren oinarri ontologikoan dagoen hutsetik, bertatik anizkun infinitoa ateratzen delarik. Honen arauera, erraz uler dezakegu Euskal Herria nazio subiranotasunaren aldeko “klase burrukaren marko autonomoa» delako definizioa. Ez dezagun pentsa tokia kontzeptua espazio fisiko zehatz soila denik, baizik eta multzo singularra, normaltasunetik kanpokoa, eta bere elementuetarik bat bera ere, nahiz eta egoeraren barnekoa izan, ez da haren parte. Hori da, hain zuzen ere, *akumulazio gunea,* eta bertatik hedatzen da

Bataren erreximenari ihes egiten dioten herri esperientzia anitz guztiak. Esperientziok ezin dira zenbatu Bataren edo beraren azpimultzoen (partidu politiko, Autonomi estatutua, administrazio publikoak...) parte gisa. Euskal Herrian ENAMa dugu multzo anizkuna. Bere elementu guztiak klandestinoak, ez-aitortuak edota ez-ordezkatuak (militante, manifestari edo botoemaileak) ditugu, eta publikoki, batu eta zentzua ematen dion multzo gisara soilik agertzen dira. ENAMaren parte edo elementu hauetarik batek ere ez du bere burua guztiz autonomotzat erreibindikatzen, nahiz eta bakoitzak bere autonomia maila izan. Soilik ENAM multzoa onartzen da parte eta elementu guztien homogenizatzaile. [*]

Aurrekoa ikusirik, nahiko logikoa da gaur egun Euskal Herria (eta ez «País Vasco», ez eta «Navarra», ez eta «Pays Basque».., ez eta Euskadi bera ere) nazio askapenerako «klase burrukaren marko autonomoa», gertakizunaren lekutzat proposatzea.

Gertakizunaren tokiari egoeraren elementu izateak, baina parte ez izateak, dudagabeko inkontsistentzia ematen dio: dagoenaren egoeratik ikusita, ulertezina da, eta Estatuaren arrazoitik ihes egiten du etengabeki. Mugan egoteak, ertzean, barruan eta kanpoan, sormenerako ahalmen handia ematen dio, Bataren (Estatu egitura eta beraren legea) erreximenpean ez dagoelako. Sortu dezake librea delako -Estatuarekiko eta indarrean dagoen egoearekiko (aurrezarrita dagoen ordenu politiko-soziala) libre. Berria sortzeko ahalmena, dagoenaren egituran integrazio mailarekiko inbertsoki proporzionala da Zenbat eta integratuago egon, gero eta aniztasunerako posibilitate gutxiago edukiko du. Herri erakundeen agerpena, sormena ugaltzea eta Euskal Herrian duten aurrerapena, ENAMa instituzioetan eta sistema parlamentari espainiarraren logikan duen integrazio mailaren arauera baldintzaturik dago.

Hala ere, anizkuna Batarekiko duen inkontsistentzia mailak ez dakar barne desegituraketa. Barne-egitura eta antolaketa beharrezkoak dira; lehenago edo beranduago gertakizunak oro antolamendu gisa uzten du bere urratsa. Honela bada, ENAMeko erakunde guztiek izaera sozio-politikoa eskaini behar dute, arazo zehatzei irtenbidea emateko sortuak izan direnak barne. Hala ere, erakundeak, Estatuaren edo bere kume ohizkoenaren -alderdi leninista klasikoa- kopia izan nahi ez badu fideltasun handiagoa zor dio gertakizunari beraren egiturari baino. Beraz, herri erakundeen antolamendu egiturak inkontsistentzia maila altua behar du eduki bere barnean, beraren bidez, suertatuko diren mugimenduak detektatzeko eta beraietan atean sartzeko sentzibilitate nahikoa edukiz. Berrizteko eta berrosatzeko ahalmena eduki behar du, mugimenduen beharrizanen arauera.

Bestalde, gertakizunaren anizkuna zatikagaitza da Estatuaren egituratik ikusita, bakar bakarrik haren egituraren barnean dagoena zatika eta zenba daitekeelako. Honela, anizkunaren barruan dauden erakundeak agertu eta desagertu ahal dira, barne logikari erantzunez, anizkuna funtsean hunkitu gabe. Adibidez, «Euskal Kostalde ez-nuklearraren defentsarako erakundea», bere zeregina bete ondoren, traumatismorik gabe desagertu zen. Berriki, oso helburu zehatza duen «Lurraldea» alternatiba sortu da, aurrekoarekiko ildo politiko orokorrak oso antzekoak dituelarik.

Estatuaren logikaren pean dauden erakunde eta alderdiak, kontrara, desosaketa eta desagerpen traumatikoak pairatzen dituzte, beraien gogoz kontra (UCD, EE, PCE, eta abar).

Berria-herritarra pribatuaren itxurapean agertzen ohi da formalki. Baina, zergatik ezin da publikoaren itxurapean agertu? Honi erantzuna emateko Estatuaren domeinuan, beraren izaeran eta aparailuetan egingo dugu sarreraldia.

Leninek berak azaldu zuenez, Estatua beti da burgesa. Dauden produkzio-harremanen kondentsazioa da, egoeraren ordezkaria, gizartearen gestorea, aipatu harremanen (eta beraiekin doazen balore politiko-ideologikoen) berregilea; berez ez du aldaketarako ahalmenik. Bere funtzioa operatzaile batena da, existitzen dena arau baten barruan artikulatzen du, eta berari egonkortasuna ematen dion artikulazio-lege pean dago. Estatua, berez, geldia da, ezer berririk sortzen ez duen gorpua, baina bere baitan arrastoak uzten dituen gizartearen mugimenduaren karira aldatzen da. Estatua dagoenaren gainezkadura algebraikoa da: parteen batuketaren bidez ulertzen ez den Osoa. Esan bezala, bera da errealitatea sozialaren operadorea, beronen koherentzia eta funtsezko esentziaren barne iturria. Horrexegatik, egoeraren partea da, baina bertatik aldenduz, bera baino gehiago da.

Estatua, inklusio-esklusioaren bidez, gizartearen parte guztiak (alderdiak, instituzioak) integratzen ahalegintzen da, legea dela medio arautuz. Modu honetan, disidentzia oro, kontraesan oro, ezabatu nahi da, pertenentzia inklusio bihurtuz, hau da, Estatuak operatzen dituen azpimultzoen (bizilagun, kontsumitzaile, NAN, IFZ) *parte izanik*, kide anonimo gisa, eta beraz, bere legepean egonik.

Estatu espainiarrean, gaur egungo egituraketan, burgesia zaharrarekin batera aintzinako langile mugimendu instituzionalizatuaren aztarnak daude. Guzti hauek presente eta ordezkaturik daude Estatuan, termino «normalak» diren aldetik. ENAMa aldiz. multzo singularra izanik, presente dago baina ez ordezkaturik.

Ondorioz, gaur egun Euskal Herrian erakunde herritarrak instituzio publikoetan integratu behar direla (ikastolak sare publikoan, esaterako) defendatzeak likidazio bikoitza dakar argi eta garbi: autonomia galtze subitoak dakarren edozein mugimenduren akaboa batetik, eta bestetik, Estatua dakar, Euskal Herriaren subiranotasunaren zapaltzailea den Estatu espainiarra.

Sistemaren kontra planteia daitekeen edozein alternatibak, gaur egun Euskal Herrian, publiko-instituzionaletik kanpo *asmaturikoa* behar du izan. Publiko-instituzionala españolismoz josirik bait dago, Estatu espainiarra artikulazio sozial ororen elementu integratzaile nagusia delako.

Herri mugimenduei leporaturiko kritika, kontraesanguratsua da, izan, eta gainera bikoitza: alde batetik esaten da anizkun inkontsistenteak eta beraren erakundeak xede kolektibo eta igoalitarioak erreibindikatzen dituztela eta ondorioz, publiko-instituzionalaren logika barruan sartu beharko luketela; bestetik aldiz, iniziatiba hauek duten izaera pribatua kritikatu egiten da. Aldibereko kritika bikoitz honek mugimenduen barnera eraman nahi du kontraesana, eta, funtsean, agerian gelditzen dena zera da, indarrean dauden eskemetatik ezinezkoa dela erakunde horien eta beraien iniziatiben karakterizazio egokia egitea. Inkontsistenteaz dihardugu, ez bestez. Egitura sozio-politikoaren barruan sarturik ez dagoenaz dihardugu, eta gertakizunak oro daraman gainezkaduratik datorrenaz.

Herri mugimenduei beraien itxura pribatuaz egiten ohi zaien kritika ezker zaharkitutik egiten zaie. Honetaz hauxe argitu behar dugu, mugimenduek egoeran aurkezteko behar beharrezkoa dutela formalitate juridikoak betetzea, arrazoi soilik estrukturalak direla eta. Formula horiek pribatuaren alorrekoen artean aurkeratzen dituzte, publiko-instituzionalaren alorreko formalitateak baino askoz ere malguagoak direlako. Dena dela, argi dago erakunde horiek ez dutela logika pribatuaren barruan jokatzen, hau da, ez dutela etekinik bilatzen, ez eta txokokeriarik edo interes pribaturik defendatzen. Estatuaren logikak errotik errefusatzen du edozein funtsezko berritasun. Berriak, ondorioz, pribatuaren mozorroa aukeratzen du, eta modu honetara, denborarekin, kontsistentzia hartzen du. Soilik bigarren momentu honetan ahalegintzen da Estatua bere barruan integratzen. Estatuaren logika, beraz, askoz ere zurrunagoa eta kontserbadoreagoa da pribatua baino.

Nolanahi ere, «herritarra» deitu izan dugun horretan ere bereizketa egin behar dugu. «Herri erakunde»z mintzatzen garenean, ez gara ari ENAMeko egitura politikoaren parte diren horietaz (KAS, KASeko erakundeak, HB, eta abar), erakunde klasikoak biltzen dituztenaz alegia (sindikatua, alderdi, emakume erakundea, e.a.) edo bestela esanda, ENAM anizkunaren barnean

presente eta ordezkaturik dauden azpimultzoetaz, baizik, eta hastapeneko anitzarekin berarekin gainezka dauden beste horietaz, hots, ENAMeko egituretan parte izan gabe, haren barne dauden erakunde horietaz.

Zeintzu dira erakunde horiek definitzerakoan kontutan izan beharko genituzkeen ezaugarriak?

Herri erakundeak karakterizatzerakoan alde batera utziko ditugu, nabariagoak direlakoan, guztiok ezagutzen ditugun datuok: herritartasuna, altruismoa, baliabide eskasia, asanblada bidez funtzionatzea, e.a., eta gertakizunarekin zerikusi handia duten beste elementu batzuez arituko gara.

Interbentzioa

Apostuaren alorrekoa da. Sujeto egileek, kolektibo herritarrek sorturiko egintza eta esanen multzoa dugu. Hauen bidez mugimendua gertakizunaren alorrekotzat joko da eta horren arauera izango da ulertua. Esaterako, «Lurraldea» alternatiba, kolektibo herritar batek (anizkun inkontsistenteak) osatua da, eta bere apostua (bi faseetan: projektu ofizialaren kontra lehenbizi, eta proposamen berri batekin geroago) egiterakoan, Estatuaren aldetiko erantzun eskerga probokatuz, apostuak probokaturiko gertakizunaren izaera ilegala begi bistan utzi du. Interbentzio horrek, geroago ikusiko dugun bezala, izendatzearen ezinbesteko operazioa eskatzen du. Lekuan ez-aurkezturik dagoen izen baten bidez leku horretan suertaturiko gertakizuna kalifikatu du. «Lurraldea»k lurraldetasun soila, hots, deskripzio topografikoa baino zerbait gehiago adierazten du, Euskal Herriko baliabide geografikoa eta ingurugiroa autonomoki kontrolatu eta gestionatzeko beharra alegia.

Izendapena

Izendapenak herri erakundea eta bere garapenean sortzen den guztiarentzako izen propioak sortzen ditu. Herri erakundeen izendapena beti da berritasunaren seinale, nahiz eta bere esangura sortzen den lekuan egina izan. Herri erakundeek sorturiko izenak ez dira ulertezinak. Hala ere, mugimendutik kanpo dagoenari, neurri handi batetan, mordoilo arbitrario eta zentzugabea irudizen zaizkio, zeren izen gehien horiek ez bait dute erreferenterik dagoen egoeran. Ez da batere arraroa beraz, herri mugimenduen diskurtsoa, batez ere horien hastapenetan, utopiko eta ez errealistatzat edukitzea.

Adibidez, *ikastola* izena. Bere esangura Euskal Herrian sortu da, baina ez da eskola + lekua, Pais Vasco. Ez da itzulpen soila (adierazlearen lekua). baizik izen berriaren bitartez izpiritu berria adierazten duen, betidaniko «eskola»tik behin betirako aldendua, eta une horretararte ez-aurkeztua.

“Ikastolak» ez du funtzio bat adierazten, baizik eta, bere izaeran nahiz edukian, multzo ongi bereiztua eta eskola zaharrarekiko gainezkaduran dagoena, ta gainera, Euskal Herriaren berreraikuntzarekin guztiz loturikoa. Bere izen propioa ere, izen arrunta da, izan; berritasuna sortzen den lekuaren (Euskal Herria) barne dago, horrekin banaezina da, eta Euskal Herrian herri kolektiboek egindako apostuaren emaitza zanik, eskola espainarra krisi nabarian ipini du hemen. Izendapen hau ere funtsean ez legala da, ez bait da inongo -Estatuko- ordezkaritza legearekin egokitzen.

Fideltasuna

Herri erakundeen antolaketak fideltasuna du oinarri. Bera da gertakizunari kontsistentzia ematen dion emaitza kolektiboa, hark iraupenik izan dezan eta prozesuan marka uztea posible egiten du. Erakundea, baina, bi fideltasunen artean banaturik dago. Gure ustez, fideltasunik oinarrizkoenak gertakizunarekikoa behar du izan, eta soilik bigarren mailan, antolaketa egiturarekikoa (disziplina).

Ez dago fideltasun orokorrik: inor ez da fidela ala infidela jaiotzetik. Fideltasuna beti da gertakizun zehatz batekiko, ez da jaiotzetiko birtutea. Badaude egon egiturekiko fideltasun eternoak, baina, funtsean, mugimenduekiko sentsibilitate, kapazitate eta fideltasun falta ezkutatzen dute. Fideltasuna egoeran azterketatik dator; gertakizunarekin funtzionalki lotuta dago. Herri erakundeak, ezin-bestez, gertakizunaren ordezkariak, erakusgarri antolatuak dira, egoeraren barruan daude eta egitura maila ahula dute beren mugimenduarekiko fideltasuna nagusi delako. Horrek malgutasun eta egokitasun handia ematen die eta barne demokrazia maila altua eskatzen du: demokrazia zuzena, militantzia maila altua, antolaketa horizontala, eta abar.

Bestalde, herri erakundeek instituzioekiko duten dependentzia maila oso ezberdina da, bakoitzaren traiektoriaren eta gertakizunarekin mantentzen duten fideltasuna mailaren arauera. Oro har, alderantzizko harreman dago erakunde horiek gertakizunarekiko duten konpromezu errealaren eta konpromezu horrekiko egiten duten nabar menkeriaren artean.

Herri erakundeetako militanteak tentsio etengabean daude, antolaketaren egiturak —konexio operatzaileak— eskatzen duenaren eta gertakizunarekiko fideltasunaren artean; erakundeak, egiturak oro bezala, funtzionamendu autonomora jotzen bait du. Kontraesan honen ebazpide zuzenak gauza bi eskatzen du, gure ustetan: mugimenduekiko adi egotea alde batetik, eta egitura horizontal eta ahalik eta malguena izatea, bestetik.

Fideltasuna inoiz ez dator jakintzatik. Ez da ditugun ezagutzetatik egindako lana. Dagoen egoeraren parteak sailkatzea da jakintzak egiten duen bakarra. Horregatik jakintza ofizialak herri erakundeek daramaten gertakizuna enoratu egiten du, zeren gertakizuna egoeraren lengoaiatik kanpo bait dago. Fideltasuna ez da inoiz jakintsuaren, adituaren, eruditoren lana, baizik eta militantearena. Honek, askapen nazional lortu asmoz, gertakizunaren eraginak eta episodioak (Euskal Herriaren subiranotsun nazionalaren aldeko burruka gertakizuna izanik, bere episodio nagusiak, oro har, karlistadak, Sabino Arana, PNV, gerla zibila, ENAMaren sorrera izango lirateke) sortu eta hedatzen ditu, eta hedapenaren bidez, herri mugimenduen fideltasuna antolatzen du.

Militantea erreibindikatzen dugu figura da, burokratarekin ordezkatu, edota misiolariaren figurarekin nahastu, edo modaz pasatuta omen dagoelako abandonatu, edo kazetariarekin ordezkatu nahi izan den garai hauetan. Herri erakundearen militanteak, jakintzatik kanpo, gartsuki, bere mugimenduak Euskal Herriaren nazio askapenaren aldeko burruka den gertakizunarekin dituen lotura infinitoak esploratzen ditu, interbentzioaren izendapenaren eraginaren-pean. Eta emaitza infinito hauek ulertezinak dira jakintzarentzat (enziklopediarentzat) zeren, esan bezala, ezbait datoz bat, inondik inora, Estatuak izenda dezakeen ezerekin, edota dagoen egoeraren inongo parterekin ere.

Militantea, gertakizunarekiko fideltasunaren sujeto aktiboa dugu, beti bere burua aurkezten duena baina inork ordezkatzea (botoemaile hutsa izatea) onartzen ez duena. Hortik datorkio, hain zuzen ere, botoemailearekiko nagusitasun infinitoa, kuantifikatu ezin daitekeena.

Oharra

(*) Eguneroko hizkeran erabiltzen diren «HBkoa izan» edo «HBko sinpatizantea izan» Estatuak egindako karakterizazioaren izendapenak dira. Estatuak metonimia argia proposatzen du hemen, «partea osoaren ordez», hots, ENAMa den multzo inkontsistentearen ordez, bere partea den HB. Eta azken hau da, betetzen duen funtzioagatik —hauteskundeetan eta instituzioetan parte hartzeko erakundea—, ENAMeko azpimultzoetatik Estatuaren logikatik ikusita «ulergarriagoa» izan daitekeen praktika politikoa daramana.

J. Agirre Kolektiboa

Agirretarren Txokoa

“Aurkezpena” (*HERRIA 2000 ELIZA*, 106 2000/2: 8-9)

Une honetako egoeran eta komunikabideetan ongi isladatuta agertzen diren zenbait keinu eta egintzari kasu eginez gero, badirudi estatuaren jarrera guztiz itxiaren aurrean gaudela. Zehatzago esanda, Piqué, Aznar eta Serraren adierazpenak alde batetik, komandoen atxiloketak, estradizio etengabeak, poliziak edozein manifestazioren aurrean agertzen duen jarrera bortitza (batez ere Nafarroan) eta beste halakoetaz ohartzen bagara, estatuaren jarrera inoiz baino itxiagoa dela pentsatuko dugu, ez dela inongo aldaketa posiblerik somatzen, horizonte hurbilean bederen. Ematen du estatuak Konstituzioarena ez den beste edozein bide behin-betiko itxi duela. Hau guztia da iritzi hedatuena, boteretik ongi hedatua izan ere, eta behin eta berriz errepikatua.

Nolanahi ere badago, egon, aipatu iritzi horrekin inolaz ere uztartzen ez den sintoma-sorta ederra. Esaterako, HBko mahai nazionalaren askapena; ETAko militante kualifikatua den Josu Urrutikoetxearena; Uriarte gotzaina, lehenbizi bitartekari-lanetan ibilitakoa, Gipuzkoako Gotzain izendatu berria izatea. Setienek berak ere, begirada publikoetatik babestuta -zein libre dituen eskuak orain!-, ez ditu lehen jasan zituen zaparrada mediatikoak pairatu behar; Uriarteren adierazpenak esanez, bake-prozesua hauteskundeen ondoren berrabiatuko dela, bestalde, ez ote dira esplizituegiak elizako partaide nabarmenduak eginak izateko? Esan bezala,, nola lotzen dira sintoma hauek arestian aipatutako uste hedatuenarekin?

Baina, batez ere, gauzen itxuraz mesfidatzera eraman behar gaituena, pentsarazi behar gaituena, hauxe da: ikusitakoak ikusita eta entzundakoak entzunda, PNV eta EH oso trinko ikusten ditugu euren posizioetan, prozesua aurrera eraman nahian, temati, egoskor. Eta hau benetan harrigarria da, zeren

ongi baitakigu, esperientziaz, PNV beti-beti tximurtu egin dela estatuaren ordezkarien oldar eta purrustaden aurrean, eta orain berriz, ez. Areago, kikildu beharrean gero eta trinkoago agertzen da burujabetasunaren aldeko jarreratan.

Itxura guztien arabera, une honetako iritzi nagusia osatzeko azaltzen ari diren keinu eta mezuek, sektore bakoitzak bere bezeroak lasaitu, poztu eta kohesionatzea dute helburu. Aldez aurretik pakturen bat adostu dutelako sentsazioa dugu. Izandako akordio batzuk argitaratuak izan dira jadanik, baina horiek, eta ezagutzen ez diren beste batzuek, "eszenatoki" nahiko zabala eratu dute gaurko politika desberdinak mugitu ahal izateko, bakoitza berean baina muga aski zabalekin, antza.

Oso paradoxikoa da aldiberean entzutea konstituzioa guztiz aldaezina dela batetik, eta EHk, bestetik —oso modu seguru eta serioan- euskal gizarteak berak burutuko lukeen projektu soberanista sutsuki defendatzea. Udalbiltza eta euskal gizartea sortzen joango den beste instituzioak, oraingo estatuei bizkar emanez sortuz joango diren horiek bideratuz. Aldiberean, PNVk marko juridikoaren aldaketa eskatzen du, baina oraingo egituren erreformatik hasita. Nola uztartu guztiz kontrajarriak diren hiru posizio hauek, kontuan izanda, gainera, posizio bakoitza babesten duenak guztiz bideragarritzat daukala berea? Bestalde, hauetariko bakoitzak berea argumentatzen duenean, besteak uzkurtu ezean, eurena are trinkoago agertzen dute. Hau guztiz berria da. Orain dela urte gutxi, halakorik gertatzen zenean, kontrakoa bultzatzen zutenek berehala ñabartzen, biguntzen, malgutzen zituzten jarrerak, antagonismo sakonik ager ez zedin. Oraingo honi eszenifikazioaren itxura osoa hartzen diogu, eta hau ez da orain-oraintsuko kontua, hasi, treguaren aurretik hasi baitzen. Areago, ETAk suetena mozteak ez du errepresentazio-joko hau amaitu. Eta hori guztia ez litzateke posible izango, berriro diogu, parte guztiek onartutako aldez aurretiko nolabaiteko akordiorik ez balego. Akordio horren funtsa —ausartu egingo gara— honelako zerbait litzateke: Autodeterminazio eskubidearen onartzea, eta marko juridiko-politikoaren aldaketa oso posiblea, Konstituzioaren aldaketa barne.

Burruka, orduan -gure hipotesia ontzat ematen badugu—, ez litzateke hasierako planteamenduetan gordinduko, baizik eta prozedura-arazoetan eta, nola ez, azken emaitzan. Eta oraingo errepresentazio-jokoaren keinu eta higidura guztiek azken puntu horretara seinalatzen dute. Zeren orduan bai, oso diferenteak izango baitira, esaterako, euskal estatu subiranoaren konfigurazioa — konfederala edo ez— ala marko estatutario berria, nahiz eta azken hau zabalagoa izan, konpetentzia gehiagorekin aberastua izan, noski, baina oraingo

estatuen barruan sartuta. Muga bi hauek markatuko dituzte, gure ustez, urkilaren bi ertzak, jokoan egongo diren posibilitate guztien abanikoa.

Nor izango da erabakiaren subjektua? Espainolak ala Euskal Herria? Hau da, adibidez, prozeduraren atalaren funtsezko puntua, gaur egun ere eztabaidagai dagoena eta aurrerago askoz gehiago egongo dena. Hau eta honelako beste gai oso garrantzitsuak ez daude inolaz ere hitzartuta aipatu dugun minimoen aurreakordioan, eta azkenean burruka politikoak erabakiko ditu: bakoitzak egingo duen indarrak, alegia. Gauzak horrela, oso ondo ulertzen dugu une honetan parte bakoitzak agertzen duen zurruntasuna, ez baita ona negoziazio-mahaira aldez aurretiko kontzesioekin agertzea. Horrela ulertzen dira PNVk eta EAk ETArekin adostutakoetan atzera egitea, edo aspaldiko partez komunera ere elkarrekin joaten diren ELAk eta LABek ez adostea urtarrilaren 27ko greba.... Bakanketa horien arrazoi hutsa politikoa da.

Une honetan, indar politiko bakoitzak ongi baino hobeto perfilatu behar ditu bere posizioak, neurtu bere indarrak, etorriko den "eszenatoki" berrian bere jarreraren alde indar gehiago egin ahal izateko. Eta Herrero de Miñonek defendaturiko posizioa alde batera utzi behar izan dute, oraingoz, baina agertuko da, aurrerago, hori baita sektore batzuren apostua, baina ez orain, baizik eta negoziazioaren emaitza posible bat bezala. Une honetan, logikoa denez, inork ez dio "a priori" etsaiari abantailarik eman nahi.

Dena dela, datu batek oso argi adierazten digu zein eremutan jokatuko den etorkizuna, eta datua da partidu nazionalistek estatutismotik soberanismora eman duten zalantzarik gabeko bira. Honek erakusten du etorkizuneko lan-eremua soberanismoa izango dela eta ez konstituzioaren eremua. Benetako burruka, eremu soberanistaren barruan izango da: soberania juridiko-politiko osoa nahi duten ezker abertzalekoen, eta soberania konpartitua defendatuko duten nazionalisten artean. Azken hau, noski, espainolei ere interesatzen zaie, baina, oraingoz, markaturiko eszenifikazioaren gidoian ezin dute halakorik esan. Lizarra-Garazi da eremu soberanistan egongo den jokoaren sinboloa, eta bere baitan erabakiko da funtsezkoena. Piqué, Serra eta Aznar eta abarren deklarazioak momentuko su apainak baino ez dira, beraien politikaren etorkizuna bera ere Euskal Herriaren soberaniaren eremuan jokatuko baita, asko luzatu gabe, erremediorik gabe.

J. Agirre Kolektiboa

Agirretarren Txokoa

“Errepresioaren porrota” (*HERRIA 2000 ELIZA* 167, 2000/3: 8-9)

Politika errepikatzea da estatuaren funtsa; gauzak errepikatzea ez da zirkunstantzia soil bat. Estatua analogiak eta antzekotasunak aurkitzeko makina aparta da.

Marxek esan zuen, historia fartsa modura errepikatzen dela soilik. Baina Marxek hauxe ahaztu zuen: baldintza normaletan estatuak behin eta berriz errepikatzen du, eta ez da inongo fartsarik somatzen horretan. Errepikapena, estatutik kanpoko politika dagoenean agertzen da fartsa gisa.

ETA menperatu ezin zuela eta, estatuak ahalegin handiak egin zituen ezker abertzaleko erakundeei erasotzen. Batez ere ETAk tregua iragarri aurretik: Egin itxi, Mahai Nazionala atxilotu, KAS legez kanpo utzi, ETAren finantza-sarea omen zena desegin... Eta hori guztia, eta tregua bera —hasi ondoren-, ezker abertzale osoaren ahuleziaren seinale modura, ETAren porrot politiko eta militarraren sintoma segurutzat saldu zuen Madrigo gobernuak komunikabideen parafernaliaren laguntza paregabeaz.

Nolanahi ere, tregua haustean agerian gelditu ziren politika "birtual" honen hutsune ugariak.

Funtsean, ETA, eta orohar ezker abertzalea, ez zeuden derrotaturik, baizik eta bizirik eta aurrera segitzeko borondate trinkoarekin. Une honetan, tregua apurtu ondoren, Estatuak errepikatu egiten du tregua aurretiko politika berbera, komandoak atxilotuz, ENAMen kontrako eraso judizialei jarraituz, bide polizialari lehentasuna emanez... eta orduan agertzen da ezintasuna, botuak lortzeko irudi indartsua islatu nahian. Lortu nahi duenaren kontrakoa probokatuz, fartsa pertzibitzen da. Ez du jadanik Estatu zapaltzaileak beldurra ematen, haserrea sortzen baizik. Horra hor, beraren galbidearen hasiera. Estatuarenzat, eta PPrentzat bereziki, egoera lehen baino txarragoa da, Ajuriaeneko itunaren garaikoa baino txarragoa, alegia. Oraingo egintza errepresiboak testuinguru politiko eraldatuan egin dira, eta ondorioz, emaitzak

txarragoak dira, tregua hasi aurretik lortutakoak baino askoz txarragoak. Arrazoiak, gure irudiko, hauexek dira:

1. Lehenengo eta behin, ezker abertzalearen oraingo programa politikoa lehengoa baino argiagoa da, eta baseak nabarmenki ilusionatzea lortu du, parlamentu propio, instituzio propio eta euskal konstituzioaren proiektuarekin. Hori guztia, sei lurralde historikoak integratzen duten marko nazionalaren barruan. Eta hau guztiz berria da ezker abertzalearen historian. Lehengo programak, berriz, Estatu espainiarrak autodeterminazio-eskubidea ezagutu behar zuela eskatzen zuen nagusiki, eta hori bere Konstituzioan bildu. Planteamendu berriak horrekin moztu du, Euskal Herria erabaki politikoen subjektu bilakatu da, eta bereak ez diren aurreko marko guztiekin hautsi du. Eta hau oinarrizkoa da.

2. Bigarrenez. Ikusi den moduan, ETAren tregua ez zen izan prozesu berriaren hasiera, baizik eta aurretik egindako akordio batzuekin bat zetorren beste pauso bat, PNV eta EArekin pixkanaka nazio-eraikuntzan eta instituzio berrien sorreran abiatzeko bidean emandako urratsa alegia. Bide horren konkrezioak Lizarra-Garaziko akordioa eta Udalbiltza izan dira, eta baita Gasteizko gobernuan, Diputazioetan eta zenbait udaletxetan izandako akordioak ere. Nahiz eta PNVk eta EAk orain indarrean dagoen markotik abiatzeko beharra azpimarratu duten, benetan Euskal Herriak berak erabaki behar duen marko juridiko-politikoaren aldeko apostua egin dute, eta hau orain arte bi alderdi hauek Estaturekin eraman duten politika makurrarekiko (errepresio-faserik gordinenetan ere) hausketa nabarmena da.

3. Azken hileotan gehiengo sozial, politiko eta kulturala eratu da Euskal Herrian. Honek marko juridikoaren aldaketa eskatzen du, eta horrela islatzen da bai hauteskundeetan, bai inkesta eta sondeoetan. Gehiengo honen eraketan Estatuaren jarrera itxi eta bortitzak parte handia izan du, ez baitu ezertarako zirrikiturik utzi.

4. Gero eta onartuagoa da, bai Estatu mailan bai nazioartean "euskal gatazka" delakoa, bi inguruko estatuen eta Euskal Herriaren arteko gatazka politikoa dela. Eta horren konponketan konprometiturik daude, dagoenekoz, EEBBak, Europar Batasuna, Vatikanoa, Espainiako eliza, enpresariak...Hau guztia hemerotekan ikus daiteke azken hilabeteotan egin diren hainbat deklarazioren harian. Sumatzekoa da baita ere, nazioarteko konpromiso horrek izan zuela zerikusirik ETAren tregua-ematean ere.

5. Estatu frantsesak eta espainolak euskal presoen kontra daramaten politikan erakutsitako burugogorkeriari erantzunez, presoak herriratzeko eta amnistia orokorraren aldeko mugimendu zabala eta indartsua sortu da. Horren

aldeko kanpainari denbora luzean ari zaio eusten milaka pertsona inplikatuz; eta solidarioen ekintza ikusgarriek mundu osoaren arreta erakartzen dute. Kale-borrokak berak protagonismo handia du, eta gero eta legitimazio handiagoa ari da lortzen, Estatuen jarrera ezin itxiagoa ikusita. Presoen gaia hainbat jenderen mobilizazioen katalizatzailea izan bada ere, ezin ahaztu beste hainbat intsumisioren inspiratzailea ere izan dela: Itoizekiko solidarioak, Espainiako sistema judizialaren kontrako intsumisioa, euskal selekzioen aldeko aldarrikapena, eta abar. Hau da, kontzientzia berri bat sortzen ari da.
Honen arabera, autodeterminazioa ez da hasiko bi estatuek horrela onartzen duten egunean, oraintxe bertan baizik, estatu horiek erabat gainditzen dituzten berritasunak eta kontzientzia politikoa sortuz. Testinguru honetan Estatuek darabilten errepresioak kontrako efektua sortzen du, jendea ez baita kikiltzen jadanik, eta gero eta apostu ausartagoei ekiten baitie. Laburbilduz, politika defentsibo eta antirrepresibo batetik, Euskal Herriak iniziatiba hartu duen beste politika batera pasatu gara. Proposamenak ugaritu egin dira eta politika defentsiboak, desagertu ez bada ere, proiektu berriak finkatu eta sendotzeko balio du.

Politika berri honen indarra ongi ikusten da, ekintza armatuak berriro hasi diren arren, paktu abertzaleen arteko akordioak mantentzen direlako egitatean. Horrela bada, Ajuriaeneko itunaren garaiko ezker abertzalearen balizko isolamendutik, Lizarra-Garaziren bitartez, proiektu soberanistaren hedapenera pasatu gara, eta hau borroka-fronte guztiak zabalik mantenduz eta borroka-modu berriak horizontean gauzatuz doazen bitartean.

Laburtuz, estatu espainiarraren politika errepresiboak erabateko porrota egin du. Balio beza, orobat, estatu honen krisi sakonaren adierazle gisa Lasa eta Zabalaren hiltzaileen kontrako epaiketak: nekez aurki daiteke ikuskizun lotsagarri eta negargarriagorik. Gero eta gehiago, errepresioa funtsik gabeko mendeku modura ikusten da, eta espainolisten frontean bertan zatiketak eragiten ditu. Testinguru honetan, PSOEk eta IUk, PPren ahulezia politikoa ikusita, akordioa gauzatu dute hauteskundeei begira.

Partidu nazionalistak aurka izanda eta PSOE eta IU erdi bilduta, PPren egoera patetikoa da. Bilatzen zuenaren kontrakoa lortu du ezker abertzalearen aurka eraman duen muturreko politikarekin. Horrela segituz gero, gobernuan dagoen parti-duaren aldaketa beharrezkoa izango da, edo dara-man ibilbide politikoarena. Lehenago edo beranduago, Estatuaren politika aldatu egingo da, edo gobernuko alderdia aldatuz, edo bere politika, eta dena estatuaren beraren erabateko porrota ekiditeko.

J. Agirre Kolektiboa

Agirretarren Txokoa

“Impassetik nola irten” (*HERRIA 2000 ELIZA* 168, 2000/5: 8-9)

Euskal politika, berriz ere, geldiunean dago. Espainolisten presioak eragiten ari da ingurune abertzalean. Legebiltzarreko ekimena PSOE, PP eta UAren eskuetan dagoen bitartean, alderdi nazionalistak defentsiban ari dira eta eraikuntza nazionalerako prozesua blokeaturik dago. PNV eta EAk ez dituzte bete ETArekin adosturikoa eta, areago, akordiorik egon denik ere ezeztatzen dute: Lizarra-Garazi, Batera ekimena eta Udalbiltza bertan behera utzita daude egunotan. PNV eta EAk ez dute iniziatibarik presoena bezalako gaietan, eta PNVk, bereziki, zaharkituriko diskurtsoetara itzulia egin du Ajuaria Eneako Itunaren legitimazioa eta joera estatutuzalea berpiztuz. Honen guztiaren gain, gaur egungo instituzio espainiarretatik abiatuz, marko juridiko-politikoaren aldaketa proposatzen da, eta honi "bide demokratikoa” deitzen zaio.

Impasse politikoak EHrengan ere badu eraginik. Honen agerpen nabarienak dira Batzarreren joatea, kale-borroka desagertzeko eskaera gero eta ugariagoak, eta ezker abertzaleko militanteak suetena egon dadin egiten ari diren eskaera etengabea. Batzuetan jokaera horien bozeramale bilakatu den *Gara* egunkaria irakurtzea nahikoa da hori antzemateko. Hau guztia dela-eta arduratzeko moduko desmoralizazio eta desmotibazioa ari da sortzen, hain zuzen ere gaur egungo fase politikoaren aintzindari izan beharko liratekeen sektoreen artean. Hauxe da paradoxa: behin-behinekotzak jotzen ziren baliabideak, Gasteizko Legebiltzarra besteak beste, eztabaida politikoaren erdigune bihurtu dira, eta bestelako baliabideak (*Lizarra-Garazi*...) eraikuntza nazionalaren politika indartzeko sortu zirenak, geldirik daude, ezker abertzaleak aurreikusita zeukanaren kontrara. Espainolisten presioak eta alderdi eta sindikatu nazionalisten jokaerak lortzen ari dira lehentasun politikoak alderantziz jartzea, eta ezker abertzalea ez da gai —nahiz eta paperean politika zuzena zehaztuta eduki— koiuntura politikoa bere interesen alde aldarazteko.

Ezker abertzalearen sektore batek proposatzen duen irtenbidea, sueten berria lortzeko asmotan, aurreko suetena ahalbidetu zuten akordioetara itzultzea da, jakina, legozkiekeen aldaketak aplikatuz eta politika lehengo parametro bereberetan kokatuz.

Gure ustez, hasierako abiapuntura itzultzeak —aurrekoan buruturiko antzeko akordioen bitartez-ez luke funtsezko aldaketarik ekarriko talde politikoek gaur egun duten indar-erlazioan. Eta hori, ez da PNV eta EAk —"ordenuko" partiduak izanik— dituzten muga estruktural ezagunengatik (botuak lortzea, hauteskunde-prozesuak eta kopuruak mantentzea), baizik eta, batez ere, beren interes ugarien jagoketagatik eta iritzi-publikoaz duten ardura handiagatik. Arazoa sakonagoa da eta partidu politiko guztien esentziari dagokio. Posiblea al da, partidu politiko edo sindikatuek gidatzea Euskal Herriak bizi duen tamainako prozesua, kontuan hartuz egungo egoera politiko eta juridikoa errotik ikutzen dituela, soberania eta lurraldetasun klabeetan bizi dela, eta historikoki jarrera guztiz bortitza erakutsi duen Estatu espainiarra aurrez-aurre duela?

Programa eta proiektuetan agertzen diren aldaketen eragile eta bultzatzaile izan al daitezke partidu politikoak? Zintzoki uste dugu erantzuna ezetza dela. Esperientzia historikoak argi erakusten digu inoiz aldaketa sakonik egon baldin bada, herri mobilizazioek bultzatuta eta herri mugimenduek eraginda izan dela. Partiduak eta sindikatuak beti egon behar izan dira horien menpe. Herriak bere buruaren jabe dela aldarrikatu badu, bere estrategia soberanista ere berak antolatu behar du, eta partiduak horren zerbitzura egon beharko dute. Bizitzen ari garen prozesuan hasiera-hasieratik erabaki da eraikuntza nazionala partidu politikoen zuzendaritzapean egitea, bide horri berezkoa zaion ilunkeria eta guzti. Herri-mugimendu eta giza mugimenduei haien segizioa egitea baino beste erremediorik ez zaie geratu, zeren, hasieran batez ere, gauzak ez zeuden batere argi.

Partidu politikoak, aurreratuenak ere bai, estatu-erakundeak dira. Eta beraien funtzio nagusia dagoen egoera kudeatzea da eta ez eraldatzea. Orekatzaileak dira, dagoenaren arautzaileak, eta ez ez-dagoenaren eragile edo motore, hots **ez dira etorkizunerako beharrezko modura preskribitzen denaren eragile**. Beren ohiko lanean eguneroko beharrak eta beren partidu-interesak uztartu egiten dituzte. Murgilduta dauden logika, partiduen arteko konpetentzia eta ezberdintasunak osatzen dute, eta aldi berean, iritzi publikoa eta hauteskundeak dira hauen egintza eta enfrentamendu-esparru preziatuenak, estatuak eta bere logikak menperatutako esparruak alegia. Hau estrukturala da eta ia ekidinezina. Horrela, laborategi batean borondate

politikoak batu eta norabide berean martxan jartzea posiblea bada ere, praktikan —eta Euskal Herrian nola ez— sakoneko diferentziek ez dute batuketa imaginario zenbaiti eustea permititzen.

Guztiz beharrezkoa da, beraz, hasierako abiapuntua aldatzea, eta herri-erakundeak eragile izango diren beste prozesu bat abiaraztea. Euskal Herrian herri- mugimenduek duten bizitasunaz eta jendeak politika pentsatu eta praktikatzeko duen ahalmenaz profitatu beharra dago abertzaleek markaturiko bidera itzuli eta horren aldeko indar-erlazioa aldatzeko. Euskal Herri osoan zehar egin beharreko funtsezko Asanblada hauek lan bikoitza izango lukete: lehenengo eta behin, arlo ezberdinetan (lurraren jagoketan, ekonomian, gizartean, kulturan, hezkuntzan...) proposamen alternatiboak —orokorrak nahiz zehatzagoak—egin. Bigarrenik, soberaniaren eta lurraldetasunaren aldeko aldaketa sozialaren aldeko mobilizazioen eragileak izatea. Oinarrizko planteamendu bezala, estatu frantses eta espainoletako marko eta legeen aurkako intsumisioa erabili behar dute, lan horretarako neurri egokiak —tokian tokikoak— proposatuz, betiere Euskal Herriaren interbentzio-esparru guztietara soberania eta eredu propioak ahalik eta gehien hedatuz eta zabalduz.

Ez dugu herriaren kontraboterea antolatu nahi, guzti honen helburua soberaniaren aldeko proiektu politikoa oinarritik bultzatu eta piztea da. Eta baita ere partiduak kontrolatzea, horien lan funtsezkoa instituzio berriak, gure herrikoak, eta Konstituzio berria egitea izango baita.

Blokeotik irteteko, hasieran diseinatu zen "metodologia" aldatu beharra dago. ENAMek dituen baliabide guztiak erabili behar ditu, eta (benetan) behetik-gora herriaren iniziatibak eta egintzak bultzatu. Hori horrela eginez gero, gaurko instituzioek egun esparru-politiko modura duten garrantzia galduko lukete, eta egiazko politika herri-ekintza antolatura pasatuko litzateke; hau da, benetako politika askatzailea beti egin den tokira.

J. Agirre kolektiboa
2000eko maitzaren 9an

J. Agirre Kolektiboa

Agirretarren Txokoa

“Pluralismoa, batasuna eta integrazioa”

(***HERRIA 2000 ELIZA*** 168, 2000/7: 8-9)

Hiru hitz hauek, gaur egun giro politikoan eta hedabideetan oso arruntak izanik —eta ondorioz, gizarte osoan ere—, edonon eta edonola aurki daitezke. Modu akritikoan barneratu eta erabiltzen dira, batez ere lehena, aurka egiten zaien sektoreetan barne (ikus, adibidez, presoen alde egiten diren mobilizazioak tratatzean, ***Gara*** egunkariak egiten duen "plural" hitzaren apologia).

Zuzenbide-Estatua deitzen den politikaren moduak pluralismoa, batasuna eta integrazioa oinarrizko operadore ditu bere produkzio eta birprodukzio ekonomiko, politiko eta sozialerako. Bestalde, pluralismoa eta batasuna (kontsentsua), besterik badirudi ere, txanpon beraren bi aldeak dira.

Gauza nabaria da gizarte oro plurala dela, eta ez dago hitz horretan inongo bertuterik, ez eta ezaugarri berezirik ere; bere-bereko konstatazioa baino ez da hori. Edozein gizartetan erraz egiazta daiteke gizabanako eta talde sozial desberdinak daudela, eta hori bere izate estrukturalaren ezaugarri berezkoa da. Gizarte estatala berriz, diferentziaren ikuspuntutik, bere osagaien izaera diferentetik begiratutako aniztasun soziala da. Estatua-ren menpeko imajinario sozialak, berezkoa den diferentzia horri kualitatea ematen dio, ikutu subjektiboa, balorazio bat gehitzen dio.

Hain nabaria ez dena, ordea, hauxe da: diferentzia horiek, politikoki eta sozialki operatiboak izateko, batu egin behar dira. Plurala dena, diferentea diferente den aldetik, aniztasun sozialaren presentazio soilaren enuntziatua baino ez da, eta osagai horiek bereizi ostean soilik presenta daitezke. Hau edozein egituraren oinarrizko legea baino ez da: elementu desberdinak presentazioaren osagai edo termino modura aurkeztu behar dira. Lehen zenbaketa hau pluralismo hitzarekin kondentsatu eta erakusten da, osagai bereizien arteko harreman binkulatu gisa. Baina diferentea denak, gizarte

estatalaren barruan definitua izateko, errepresentatua izan behar du, batua alegia, berriz zenbatua, izaera estatala duen zenbaketaren bidez, integrazio-legea deituko dugun bigarren lege baten bitartez. Diferenteen batasuna elkartzen duen puntuari, izendatzaile komuna deritzo.

Besterik dirudien arren, pluralismoa batu behar den puntua higikorra da eta eguneroko arazoek markatzen dute: langabezia, drogak, emakumeen jipoiketa, ingurugiroa, inmigrazioa, gerrak, goseteak, katastrofe naturalak, autodeterminazio-eskubidea, intsumisioa, kale-borroka, borroka armatua, eta abar. Arazo bakoitzaren izaerak markatzen du, toki eta une bakoitzean, kontsentsuaren mota eta batasuna egin beharreko puntua.

Eta azken hau, ebidentzia guztien kontra, giza taldeak zatitzen dituena da, hots, izendatzaile komuna zatikatzaile komuna da. Hala ere, kontsentsu-mota bi bereiziko ditugu. Bata, funtzionala, arrunta, gehiengo-gutxiengo logikaren araberakoa da; intra-parlamentarioa da, eta antagonismo politikorik inplikatzen ez duten arazo guztiak konpontzeko balio du. Bestea, aparta da, extra-parlamentarioa. Ahobatekotasun-printzipioak zuzendua da. Bere salbuespen-izaerak izate kualitatibo apartekoa duen zerbaiten aurrean gaudela adierazten digu, eta Estatuari antagonismoa planteiatzen diola: autodeterminazio-eskubidea, independentzia.. Bigarren kontsentsu-mota honi "paktua" deitzen zaio. (aspektu hauek gehiago garatzeko, ikus]. Agirre: "*El proceso de integración estatal y sus leyes*" in *Herria 2000 Eliza*, n° 143, 1995, 20-26. orr.)

Gizarte estatalaren azpimultzo bereizietako (parteetako) subjektibitateei dagokien kontsentsu-efektuari integrazioa deitzen zaio.

Nondik datoz, nozio eta logika hauek? Ikusi berri dugun legez, argi dago pluralismotik kontsentsura egindako operazioaren efektuak direla gizarte estatalaren partaideen subjektibitateak osatzen dituztenak. Gure ustez, izendatzaile komun objektibo-subjektiboaren eguneroko arakaketa, kontsentsu arrunta alegia, merkantzia desberdinentzako zatikatzaile komuna, eguneroko batasun-puntua den salneurria bilatzen den antzeko moduan egiten da.

Zein da, ordea, operatzeko modu horrek subjektibitateen alorrean aurkitzen duena? Gutxienez, hiru subjektibitate mota daude: normalak, eszeptikoak eta marginalak. Lehenengoan, subjektibitateak integratuta daude, hots, lehen zenbaketak (presentazioak) eta bigarrenak (errepresentazioak) arrakasta izan dute. Eszeptikoengan, berriz, kontsentsuak ez du erabateko eragina. Hauek beti ipintzen diote objekzio bat, "baina"ren bat operazio bateratzaileari. Marginalak, izenak adierazten duenez, marko legalaren barruan daude, baina baztertuak (autobaztertuak) dira kontsentsu-integraziorako

operazio batzuetatik. Eguneroko kontsentsuak eragiten dituen subjektibitateak, hala ere, ez dira finkoak, aldakorrak baizik. Baina bigarren zenbaketa lanaren helburua integrazio osoa lortzea da.

Edonola ere, Estatuaren operatzaileak arduratzen dituena marko legaletik guztiz kanpo daudenak dira, hots, presentaturik daudenak, lehen zenbaketan daudenak, baina ez bigarrenean; ez daude errepresentatuta, ez dira parte. Eta hain zuzen ere, hauek dira, modu berezian, bateratze-prozesuak baldintzatu eta aldatzen dituztenak, singularrak izanik ("partikularrak" deritze F. Savaterrek *El País*en 2000-3-13an idatzitako "La lección" artikuluan). Bertan, ezin argiago esaten du: "*Estos (los votantes del PP y los abstencionistas del PSOE) quieren un país como los demás europeos, todo lo plural que sea debido, pero inequívocamente afirmados por encima de particularismos históricamente tramposos y políticamente chantajistas"*

Nahiko argi gelditzen da, beraz, batzuek ulertu nahi dutena ezeztatuz, giltzarri-hitza ez dela pluralismoa edo diferentzia, batasuna edo kontsentsua baizik. Eta hori oso ongi ikusten da gatazka-egoeratan, batasunera murriztu ezin diren gertakizunak agertzen direnean, Euskal Herrian gertatzen diren fenomeno singularrekin adibidez (Espainiaren logika estatalarekiko mugimendu intsumisoak). Honi buruz ere, oso argigarria da aipatutako Savaterren artikulua. Oso argi asmatu du zein izan den PP hauteskundeak irabaztera eraman duen logika: "*¡Recuerda que eres plural! (...) ¡Recordad que este Estado es plural porque es uno!, no a pesar de ser uno! ¡No olvidéis que la abrumadora mayoría de los españoles ha vuelto a votar —y con todo derecho, por cierto, en su ámbito político de decisión democrática- tanto por la unidad plural como por la pluralidad unida*!".

PSOEren porrota beraz, "kontsentsuatzeko" erakutsi duen gaitasun ezaren erruz gertatu da, espainiarrak subjektiboki batzeko ezintasunagatik, pluralismoari garrantzi gehiago emanez, pluralismo hori integratzen duen batasuna bigarren mailan utzi duelako: "*En la estrepitosa derrota del PSOE,... han confluido sin duda múltiples causas (...) Una de las más decisivas ha sido su incapacidad para presentarse ante los votantes como un partido tan comprometido en la defensa de la unidad del país como claramente lo está en la de su pluralismo*". Argiago ezin.

Esan dugun bezala, operazio horiek taldeak eta gizabanakoak integratzeko egiten dira. Beraz, integrazioa da benetako funtzioa, iritzi-eraketaren egiazko xedea, egunero egiten den kontsentsu-operazioetan, diferentzien batasuna egin eta berreginez, estatuaren funtzionamenduaren oinarrian dagoen pluralismoaren batasuna babesteko. Herrero de Miñón jaunak

("¿*Cuánto mejor, peor*?" *El País*, 2000-4-15) Euskal Erkidego Autonomoan hauteskundeak aurreratzea ala ez eztabaidatzen ari zen unean, honela amaitu zuen bere arikulua: "*Quienes creemos que España es lo único importante, pensamos que integrar debe primar sobre mandar*" Azenarioa makilari nagusitu behar zaiola alegia, baina ahaztu egin zaio esatea makilaren laguntzarik gabe azenario hori nahiko irenstezina dela.

Bestalde, inguru espainolistetatik behin eta berriz "Euskal Herriaren pluralismoa" azpimarratzen denean, zertaz ari dira? Argi dago, ikusi dugun bezala, ez dutela gauza nabarmena ageriago jarri nahi. Gehiago uste dugu, desio bat adierazi nahi dutela: euskal gizarteak benetan plurala "izan behar duela", beraien ustez ez da eta. Hau da, gizarte honetako diferentzia guztiek Estatutu, Amejoramendu... eta Espainiako Konstituzioaren barruan egon behar dutela. Estatuaren mekanismo operatiboaren barruan: batasun-pluralismoan, bata bestea gabe existitzen ez den horretan.

Baina zerk oztopatzen du Estatuaren izendatzaile komuna den borondateen batasun horren eraketa? Gure ustez, elementu desberdinen existentziak. Beren izaeragatik Estatuaren bigarren zenbaketan sartzen ez direnak, integratu ezin direnak alegia. Lehen singularrak deitu ditugun horiek dira. Egoeran presentaturik egon arren, gizarte estatalean errepresentaturik ez daudenak. Punturen batean ihes egiten diote, intsumisioaren bidez, gizarte hori artikulatzen duten legeren bati. Honen adibide argiak ditugu gure artean: mota guztietako solidarioak, ETA, Euskal Herriko herri mugimenduak osatzen dituzten intsumisoak.... Beraien singularitatea erraz ikusten da: kolektibo hauek ezin dira numerikoki neurtu gehiengo-gutxiengo logikarekin, ezin dira hierarkikoki ordenatu... Ondorioz, ezin dira neurtu, ebaluatu, konparatu eta izendatu aipatutako pluralismoaren kategoriekin.

Beraz, ezin dira zenbatu gizarte estatala osatzen duten beste multzoekin batera. Agian, etorkizunean, egiazko euskal subiranotasuna dagoenean, hots, instituzio propioak eta euskal zenbaketa-lege propio bat dagoenean, orduan, elementu singular hauetako batzuek, jadanik diferente bihurturik, Euskal Herriko pluralismo berria osatuko dute. Balizko pluralitate hau ari dira jadanik pentsatzen ezker abertzaletik. Adibidez *Gara*n agertutako artikuletan: Martin Garitanoren "Pluralidad" 2000-6-6an, eta "Audacia y eco para una reivindicación" izeneko editorialean, 2000-6-2an.

J.Agirre Kolektiboa

Agirretarren Txokoa

“Errealak moztutako amets zapuztuak”

(***HERRIA 2000 ELIZA*** 168, 2000/10 8-9)

AIdizkari honen 143. zenbakian, "Integración estatal" izena zeraman artikuluan, gure ustez estatu espainolean disidentzia politikoaren aurka zuzendutako errepresio-integrazioaren prozesu politiko-historikoaren norabidea zuzentzen duen zatitzaileen legea formulatu genuen. Aipatu legea honela enuntziatu genuen: "El consenso entre grupos estatales se concentra en aquel punto que ha sido el de su máxima división anterior; es siempre coyuntural y está sometido a la dinámica del múltiple responsable de su formación". Kontsentsu horren sorrera eta amaiera, eta bakoitzean duen forma zehatza izaki anitzaren dinamikaren ondorioa da, eta beraz, izaera erreaktiboa du. Denboran zehar garatutako estatu-kontsentsuak, une batean estatu-integrazioa osatzen duten multzoen artean dagoen diferentziarik handienaren puntuan egiazta daitezke. Puntu horiek, aldakorrak izanik, "zatitzaile komunetako handienak" deitu genituen.

Horietan gauzatu ohi dira disidentearen kontrako kontsentsu berriak, diskordantziak —aldi baterako behintzat— konponduko dituen "izendatzaile komuna", temati ari den izaki anitz antagonikoa suntsitu/integratzeko batasun funtsezkoa eratuz.

Hurrengo kontsentsuaren eraketari ongi beha diezaiokegu aurrekoan parte hartu zutenak banatzen zituzten kontraesanen talaiatik.

Franko hil zenetik Espainian formalizatu diren kontsentsuak, orohar, hauexek dira:

a) *Erreforma politikoa*ri buruzkoa. Liberal bilakatutako antzinako frankistek zuzendua, frankismoan sortutako erantzun sozial zabala desagertaraztea izan zuen helburu. Kontsentsua, esan bezala, aurreko disentsoaren gainean eraiki

zen: Erregimenari irteera bilatu beharrean alegia. Kontraesanen ebazpena botere-batasun berrian finkatu zen: Konstituzioan eta Estatu autonomikoan.

b) *Kontsentsu zikina eta ez-aitortua*, estatuak ETAren kontra egindako gerra zikin bezala ezagutua (laburtuz, GAL). Kontsentsu hau Suárezen garaian gehien zatitzen zuen puntuan eraiki zen (eta Suárezi berari kargua galtzea ekarri ziona): Estatuak ETAren kontrako gerran bitarteko ilegalen erabilera.

c) *Ajuriaenea eta Madrilgo itunak*. Besteetan bezalaxe, Estatuaren barruan zatiketa gehien sortu zituen puntuaren gainean, Argelgo elkarrizketak, eraiki zen hauxe ere. Honen helburua, ezker abertzalearen isolamendu politikoa izan zen.

d) *Lizarra-Garaziren inguruko kontsentsua*. Ajuariaeneako ituna ahulduz joan zen denborarekin, erreferente formal hutsa bihurtu arte. Itunean parte hartu zutenak gehien zatitzen zituen puntuan joan ziren gauzatzen kontsentsu berria: ENAMekiko elkarrizketa eta negoziazioan. Eta puntu berri honek, iraganean ezinezkotzat jotzen ziren gauzak mahairatzera, hots, subiranotasuna eta aldaketa juridiko-politikoak. Hirugarren bidea eratzeko ahalegin baten ondoren, bertan PNV, EA, ELA (Estatutuaren heriotza aldarrikatuz) eta Elkarri (Konstituzioaren xadapen iragankorra bilakatzeko proiektua) zeudelarik, ETAren ekintzak tartean, prozesua arindu egin zen. Horrela heldu ziren Lizarra-Garaziko akordioak, ETAren sue-etena eta Udalbiltza. Subiranotasuna, koiuntura honetako ardatz aglutinatzaile eta erreferente nagusi bilakatu zen. "*Tiempo de cerezas*" liburu kolektiboan idatzi genuen "*Euskal Truman Show*" artikuluan, Lizarra-Garaziko akordioa estatuaren kontsentsu berri bat bailitzen aztertzen saiatu ginen. Horren helburua ENAMa egitura juridiko espainolean txeratzea litzateke eta operazioa, oraingo honetan, PNV-EA tandemak zuzenduta. Azpimarratzekoa da puntu honetan,

PNVk PPrekin azken bost urteotan izandako kontaktuak, Egibarrek parte handia hartu duelarik, etengabeak izan direla. Aipatu artikuluan (Euskal Truman...) prozesu osoa, eraikitako bi imaginarioen ikuspuntutik aztertzen saiatu ginen. Estatuarena bata: ETAren su-etena Estatuaren eta Ermuako espirituaren indarra eta erakunde armatuaren ahuleziaren emaitza soila zela zioena. Eta bestea, abertzaleen batasunarena, su-etena, beraien artean lortutako akordioaren ondorio zela zioena. Unionistek Lizarraren kontra agertutako erasokortasuna oso ongi ezkontzen zen abertzaleek beraien artean lortutako akordioen defentsarekin. Horrela subiektihitate ikusle eta gerarazia eratu zen, ilusioa eta itxaropena kontzeptuek ongi definitua. Bazirudien

subjektibitate honek gehiengo batek subiranotasun politikoranzko eboluzioa, bide lasaia eta gatazkarik gabekoaren desioa baieztatzen zuela. Askatasun-amets hauek, bide batez, partidu abertzale kontserbatzaileen ukapenez betetako zoritxarreko historia berria estaltzeko balio zuten. Iragana ahaztu beharra zegoen eta etorkizun distiratsuari begiratu.

PNV, EA eta partidu espainolen helburua hauxe zen: borroka armatuaren amaiera behin-betikoa lortu, herri mugimenduaren desagerpena eta HB instituzio espainoletan integratzea. Lizarrako akordioen ostean, partiduek eratutako mahaietan Euskal Herria behin-betiko marko konstituzional espainolean integratzen saiatu ziren. Oso argi ikusi du hau Lander Gallastegik, *Gara*n argitaratu artikuluan: PNVk Lizarran izan duen zeregina, kabestruen bidez ezker abertzaleko zezenak eskortara eraman eta plaza espainolean toreatuak eta... izan zitezen.

Baina, berriro ere, errealak moztu ditu ametsak, itxaropenak eta ilusioak. Imaginarioak zapuztu egin dira. Imaginario espainola errepresio gordinera pasatu da: kode penalaren gogortzea, militante mota guztien atxiloketa, espainolismo zaharkituenaren agerpena eta abar. Bigarren imaginarioaren eraisketak berriz Balzaren “on eta gaiztoen" teoriara eraman gaitu, eta PNV infernuetara jaitsi da, duela gutxiko etsaia den PSOErekiko akordioaren bila.

Nolanahi ere, zerbait argi dago panorama honetan: Lizarra-Garaziren printzipioak, erainkuntza nazionala eta subiranotasunaren enuntziatua inoiz baino biziago daude, kontzientzietan sartu dira, egurrarekin ezabatu ezin daitekeen mamua bailiren. Aipatu ditugun lau kontsentsu errepresiboek porrot egin dute, eta historia soilik fartsa gisa errepikatzen da. Azken esperientziak hauxe erakutsi digu: ezker abertzaleak diseinaturiko proiektua berak zuzendu behar duela, herri mobilizatuaren laguntzarekin, hots, antolatu eta helburuen bidez loturiko herri- eta giza mugimenduekin batera.

-II-

J. AGIRRE

KOKEKTIBOko burkideak et al.

∞ ∞ ∞ ∞ ∞ ∞∞ ∞ ∞ ∞ ∞

Antton Azkargorta
Nikolas Xamardo

Kazetaritza

Egia eta egiantzekotasuna. Prentsa Euskadin. (Zenbait adibide) (UZTARO 0-,1990:37-46)

Manipulazio-prozeduren barne-izaeran sakondu nahiak oinarrizko kontzeptuak berrezartzera behartzen du, hau da, "egia", "egiazkoa", "egiantzekotasuna", "jakintza", "gezurra"... bezalako kontzeptuen irakurketa berria da beharrezkoa. Izan ere, Egia eta Jakintza kontzeptuak giltzarri dira arazo honetan.

Hasiera batez, parekagarri irudi balezakete ere, eremu desberdinekoak dira. Jakintza baieztagarria da, frogagarria da, zehatza da, Historiarekin pareka daiteke, Entziklopedia du ikurtzat, beraren prozedura bereizketaz eta sailkapenaz osatzen da. Egia, ordea, generikoa da, bereiztezina, berarengana hurbiltzeko prozedura "fideltasun generikoa" da eta helbideak "sintomak". Halaber, egia proiektua da.

Sare teoriko honen eta komunikabideen eginkizunaren arteko lotura zuzena Politikatik dator. Jakintzatik aldenduz, datu zehatzak baztertuz, Estatuko komunikabideak egiantzekotasunera hurbiltzen baldin badira Politikaren subjektarenganako konfiantza deuseztatzera zuzentzen direlako da.

Aurkezpena

1989ko UEUn azaldu genituen komunikabideetan manipulatzeko erabiltzen ohi diren prozedura usatuenak. Azalpen haien arrazoia, batez ere, ZEN planak "Euskal kasua" delakorako proposatzen zuen politika informatiboaren filosofiari erantzutea genuen. Prozedura horiek, oraindik agortu ez badira ere (hamaika aldagai onartzen bait dute), soberan azaldurik daude dagoeneko.

Aurten, aitzitik, prozedura zehatz horiek sostengatzen duten barne-izaeran sakonduz ahaleginduko gara. Hau da, manipulazioaren beraren muina eta arrazoia. Helburua, beraz, "bailitzan" aditzaren bidez esan litekeen formula zehaztea litzateke: "basta que la información sea creíble para explotarla" ("Nahikoa da informazioa sinesgarria izatea profitatu ahal izateko"), hauxe da, kontrainformazioaren eremuan, ZEN planaren oinarrizko axioma.

Konpara dezagun aurreko esaldia Konstituzio-Epaitegiaren ondoko ebazpenarekin (6/1988ko urtarrilaren 21a): "Konstituzioak informazioa egiazkoa izan dadila eskatzen duenean, informatzailearen zeregin ezinbesteko eta bereiztua ezartzen ari da, eta honi beroni eska eta exiji dakioke gertaeratzat jotzen eta transmititzen duena, aldez aurretik datu objektiboekin baieztaturik izatea; honela bada, berma konstituzionala ukatu egingo zaio, guztiok dugun informazioarekiko eskubideari iseka eginez, informazioaren faltsutasuna edo egiatasun eza erabiliko duenari. Arautegiak ez du honelako jarrera ardurabakorik babestuko, are gutxiago zurrumurru soilak edota, txarragoa dena. asmakizun edo susmo fedetxarrekoak gertaeratzat jotzen dituen informazioak... "(*Cuando la Constitución requiere que la información sea veraz... [está] estableciendo un específico deber de diligencia sobre el informador, a quien se le puede y debe exigir que lo que transmita como hechos haya sido objeto de previo contraste con datos objetivos, privándose así, de la garantía constitucional a quien, defraudando el derecho de todos a la información, actúe*

con menosprecio de la veracidad ofalsedad de lo comunicado. El ordenamiento no presta su tutela a tal conducta negligente, ni menos a la de quien comunique como hechos simples rumores o, peor aún, nuevas invenciones o insinuaciones insidiosas...") eta konparaketak ageri-agerian jarriko digu norainokoa den ZEN planaren formulazioaren salbuespentasuna.

Estatua behartuta dago salbuespeneko metodoak erabiltzen, hau bezalako metodoak, nahiz eta, guztiok dakigunez, itxuraz behinik behin, baliabide eta bitarteko guzti-guztiak dituen, (legala, poliziala, ekonomikoa, informatiboa, politikoa, hezkuntzarena eta abar). Kazetal kode deontologikoan honelako salbuespeneko legea sartzeak argi eta garbi adierazten digu "zerbait" berezi dagoela, eta honen kausaz, beren arauak baztertu eta sistema legal berezkoa hausten duten neurri berezietara jo behar dutela.

Horregatik, hain zuzen ere, ezinbestekoa deritzogu arazo honekiko kontzeptuak berrezartzeari. Lehenengo eta behin, kontzeptu hauek egunero erabiltzen direlako, eta bigarrenik beraien esangura egitura erreferentzial menperatzailetik sortu eta berberari zuzendurik dagoelako.

Egia eta jakintza

Gainontzeko kontzeptuek zutabetzat duten bi erreferentziak EGIA eta JAKINTZA dira. Bi kontzeptu hauek sinonimotzat jotzeko ohiturak oztopatu egin du gaia bere horretan ulertzea. Nahasketa, jakina, ez da errugabea. Gehienetan, jakintza egia bailitzan eskaintzen zaigu eta egia, jakintzaren eremukoa bailitzan. Leibniz-ek **[1]** berak egi mota desberdin bi bereiztu beharra izan zuen, nahiz eta defendatu egia (egia baldin bada behintzat) jakintzaren objektua dela, eta beraz, edozein egia proposizio berdinaz formula daitekeela, A = A. Egi mota bat, Leibniz-entzat, *egia beharrezkoa da*, eta beraren ezaugarria operazio logikoen kopuru mugalu baten bidez froga daitekeela da: bigarren egiak, aldiz, *egia ustekabekoak edo kontingenteak* etapa-kopuru mugagabea eskatuko luke. Horren arabera, soilik Jainkoak froga zitzakeen bigarren mota honetako egiak. Edo bestera esanda, Jainkoaren existentziak berak (fededunentzat antonomasiazko Egia dena) soil-soilik baiezta dezake prozedura traszendentea, generikoa, bereiztezina, hau da, prozedura mugagabearen bidez.

Egia eta *jakintzaren* artean dagoen nahasketa, berriz azaltzen zaigu beraietatik eratorritako, edo beraiekin erlazionaturiko terminoetan: EGIAZKOA (verídico), EGIANTZEKOA, BENETAKOA (verdadero), FALTSUA, OKERREKOA, GEZURRA...

Aristotelek *Poetika* **[2]** izeneko obran hauxe dio: *Poetaren zeregin berezkoa ez da errealki jazo diren gauzak kontatzea, baizik eta jazo litekeena kontatzea. Gertakizunak izan daitezke, izan, egiantzekotasuna zein beharrizanaren kariaz. Hots, historialaria eta poeta ez dira bereizten batek bertsotan eta besteak prosan egiten dituztelako kontaketak (Herodotoren lana bertsotan idatz zitekeen eta historia izaten segituko zukeen bertsotan zein prosan); aitzitik, beraien arteko bereiztasuna zera da, batek jazotako gertakizunak kontatzen dituela, eta besteak, jazo litezkeenak.*

Gertakizun historikoak beharrezkoak dira, uka ezinezkoak, baiezta daitezke eta objektibatu, Jakintza osatzen dute, Historia Zientzia den neurrian. Arteak, ordea, beharrezkoaren eremutik planteatua izan arren, ezusteko arloa dauka, *gehi*-a dauka, Jakintzaren gainetikoa, berritasun generikoa, ezustekoa edo kontingentearen eremukoa izatea eragiten diona, Leibniz-en kontzeptuen arabera azalduz gero. Honela bada, artearen berezkoa Egia da eta ez Jakintza, nahiz eta artea egiantzekotasunaren (barnekoa, intrintsekoa, ez kanpokoa) hitzaren bidez gauzatu, eta beti Jakintzaren bidez (erreferentzia entziklopedikoa) zehaztu, eta ez Egiaren (infinitua) bidez.

Nahiz eta kontzeptua egia-antza hitzetatik eratorria izan, horretan datza beraren efikazia eta indar ezkutatzailea. Egiantzekotasuna Egiarantz edo Jakintzarantz gehiago edo gutxiago makurtzen delako froga kasuistika zabalean aurkitzen dugu, entziklopediatik hasita (Jakintza klasifikatu eta inbentariatuaren sinbolo ennlematikoa), egiarekiko fideltasun orokorra planteiatzen duen edozein prozeduratataraino (artea, politika, maitasuna eta zientzia). Jakintzaren oinarrizko erakuslea datua da, gertaera, kasua, hitz batez, notizia. Jakintzaren araua beti da izendapen zehatzerako erizpidea izatea. Azken finean Jakintzaren eremuko funtsezko zereginak *bereizketa* (aurkeztu edo pentsaturiko multzo anitzak dituen eta ez dituen ezaugarriak) eta *sailkapena* (bildu ditzakegu eta ezaugarri amankomunatuaz izendatu, gure usterako berezkotasun berbera eta izendagarria duten multzo anitzak). Bereizketa, aurkezturiko edo aurkezgarri diren errealitateen eta hizkuntzaren arteko loturari dagokio. Aurkezpena du helburu. Mailaketa edo *sailkapena*, aldiz, egoeraren parteen (multzoen azpimultzoak) eta hizkuntzaren arteko loturari dagokio. Ordezkapenak errepresentazioa du helburu.

Datu baieztagarrien kopuru handia edo txikiagoak, zehaztasun gehiago edo gutxiagoak, objektibitateak funtsean, ez dute zerikusirik Egiarekin, baizik eta Egiazkoa edo Okerrekoaren arteko eremu zabalean murgiltzen den. Datuak agortezinak izateak, alde batetik, eta ñabardurak itxuraz mugagabeak izateak (elementu ezagunen arteko konbinatoria mugagabea da) bestetik, ez du esan

nahi Jakintza eta Objektibotasuna existitzen ez direnik. Bestelako kontua da (ondorengo adibidean Todorov-ek dagienez) sofistikoa eta agortezin-anekdotikoa (Zenon-en aporiak: Akiles eta Dortoka...) Egiaren muga-gabetasunaren ordez eman nahi izatea; Egia oro, halabeharrez, mugagabea, infinitua delako, eta Jakintza oro mugatua.

Egun batetan, J. a. V. mendean, Sizilian, bi gizonek eztabaidan zihardutela istripua gertatu zen. Biharamunean, erruduna nor den erabaki behar zuten agintarien aurrean aurkeztu ziren. Baina, nola aukeratu? Kereila ez da epaileen begien aurrean gertatu, eta ezin izan dute egia behatu ezta egiaztatu ere; sentimenak ahalgeak dira; irtenbide bakarra baino ez dago: kereilarien kontaketak entzun. Modu honetan, azken hauen jarrera aldaturik agertzen zaigu: kontua ez da egia ezartzea, (ezinezkoa, bestalde) hurbilizea baizik, egiaren itxura eman, eta inpresio hori are eta handiagoa izango da zenbat eta trebeagoa izankontaketa) **[3]**.

Todorov-ek aztertzen duen istorio honetan bi maila agertzen zaizkigu: gertaera eta "*casus judice*". Hasiera batetan, istorioa bi modutara gutxienez planteiatu beharko litzateke. *Gertaeraren* beraren kontaketa, errelatu periodistikoa klasikoa litzateke; albistea, dituen elementu guztickin. Egoera normaletan (gertaera arruntak direnean, hau da, traszendentziarik gabekoak) kazetariak, iturriak kontrastatzeaz gain, ahalik ela fidelen emango lituzke datuak, "alde batelik... bestetik" motako formula erabiliz, bertsio biak isladatu nahian.

Kereilariek, edo berauen abokatuek, kazetarien errelatua baino askoz desberdinagoa den beste errelatua eraikitzen dute. Abokatuen diskurtsua gertatutakoaren interbentzioak markatzen du -eta ez izandakoaren errelatu soilak- beraren helburua kontzientziak mugieraztea bait da, konbentzitzea, bertsioetarik bat aukeratzea, ez du balio dagoeneko "alde batetik... bestetik" formulak. Horrexegatik, hain zuzen cre, "bailitzan" formularen garrantzia, egiantzekotasunaren eraikuntzan, edo, Baudrillard-ek esango lukeen bezala, "simulakroa"ren eraikuntzan. Guzti honen gainean Platonek honokoa idatzi zuen: *Halaxe da, epaitegietan ez digu axola egia esateak, konbentzitzeak baizik, eta konbenizimendua egiantzekotasunetik dator*. **[4]**

Aurreko honek agerian jartzen diguna zera da, "bailitzan" arazoaz arduratzen garenean, eta ez egiatan izandakoaz, edo areago, "bailitzan"-a izandakoaren ordez pasaerazi nahi zaigunean, manipulazio informatiboaren benetako izaera azaltzen zaigula. Gure ustez, hauxe da ordezkapen honek kazetari informatzaileari dakarkion gainezkaduraren arrazoia, egoeraren datuen artean, egoeraren deskribapen soila baino harantzago doan zerbait dagoela, eta

harrapatu eta neutralizatzeko ahaleginean, egiantzekotasunaren "bailitzan"--az baliatzera behartuta dagoela, bai abokatuak (ohi denez) eta bai kazetariak bataren zein bestearen aldeko jarrera hartzen dutelarik. Kazetariak, gertakizunaren arloko zerbait daukan informazio baten aurrean, eta abokatuak edozein istilutan konpondu beharraren aurrean, *parte hartzera* ("bustitzera") behartuta daude, datuak ez-nahikoak direlako, kasu batean zein bestean, eta beraz, kasu batean zein bestean bide bi baino ez dira gelditzen: istiluan ordezkaturik dauden bi parteetarik bat aukeratu, edo bertsio ofiziala bakartzat onartua izan dadin saiatu.

Egiantzekotasuna eta eritzi publikoa

Egiantzekotasunak, Egiaren antza eduki nahi horretan, datuetatik harantzago jotzen du, baina traszenditu arren ezin ditu datuak baztertu; beraz, baieztagarriak diren datuak dauzka alde batetik, eta bestaldetik, nahikoa du gaiaz gehiengoak duen eritziarekin. Corax-ek egiantzekotasunaren Iehenengo teorikoetarikoak, bigarren aspektua azpimatratzen zuen lehenengoaren kaltetan: “*egiantzekotasuna - beraren ustez- ez dago errealarekin loturik, baizik eta gehiengoak errealtzat jotzen duenarekin, bestera esanda, eritzi publikoarekin*”. Uste berekoak ditugu Aristotele eta Platon: egiantzekotasuna, testu partikularrak "eritzi publikoa" izena daraman beste testuarekin, orokorragoa eta zabalagoarekin, duen erlazioa da.

Orain galdera zera da, zeri esaten diogun eritzi publikoa. Kontzeptuak berez kontraesanguratsua dela ematen du, eritzia gauza pertsonal eta indibiduala izanik, ez bait du bidezkoa ematen publikoa izan daitekeenik. **[5]**

Arazoa ez da Bata eta Pluralaren artean sortzen den dialektika, baizik ela nor den pluralitatea (funtsezko arazoei loturik) zehazteko eta homogenezatzeko arduraduna; laburbilduz, eritzi publikoa mugatzaile berbera duten epaien multzoa dugu, Estatutik maneiatzen (operatzen) den "mugatzaile berbera", pluralari arrazoia eta batasuna ematen diolarik. Estatuaren *arrazoia* da eritzi publikoa *arrazoigarri* bihurtzen duen elementua.

Bestalde, egiantzekotasunaren eremu pribilegiatua artearena da. Eta, azken finean, testugintzaz dihardugunez, literaturatik hartutako adibideak tratatuko ditugu; poetika batez ere, genero artistikoena eta benetazkoena bait da. Literaturgintzan polizi nobela da, ordea, genero ez-literarioena (esaterik balego), ez-poetikoena, egituratuena delako eta gertaera kronika edo polizi inkestarekin antz handiena daukana delako. Kasu honetan, egiantzekoa oso dimentsio berezian agertzen da, literaturtasunaren (fikzio poetikoa) eta izandakoaren edo susmaturikoaren errelatuaren artean kokatzen da.

Horrexegatik, genero honen egiantzekotasuna "anti-egiantzekoa ezartzea" da. (Todorov) **[5]** . Hau da, Todorov-ek anti-egiantzekoa planteiatzen du polizi nobelan posiblearen eremu mugatuaren barruan, baina, eritzi orokorraren ikuspuntutik ikusita, "a priori" ez-probablearen eremuaren barruan dagoena.

Nolanahi ere, bai Todorov-ek, bai Genette-k **[6]** eta bai Bathes-ek **[7]** onartu egiten dute polizi errelatuaren egiantzekotasuna (konbinatoria hutsaz, arrastoen leku-aldaketaz lortua, gure ustez), edo literaturaren lan "txikien" egiantzekotasuna ez den beste egiantzekotasun-mota bat egon badagoela. Gérard Genette-k honelaxe definitzen du: *Katearen beste muturrean, hau da, egiantzekotasuna inplizitu dagoen estatu honen aurkako muturrean, eritzi publikoarekiko adostasunetik askeen dauden idazlanak leudeke. Leku honetan, errelatuari ez dio ardura egia orokorren sistema erresperatzeak, beraren jatorria egia partikularra edo sakoneko asmakizuna bait da. Errotiko berritasuna edo orijinalitateak, edozein alderditatiko independentziak, egiantzekoarekiko morrontzatik antipodetan kokatzen du ideologikoki*. Hemen dugu Egiatik Jakintzarako ("egia orokorren sistema") pausua, Egiatik egiantzekora.

Esan dezagun, ondorioz, egiantzekoa Egiari esker dela, izan, nahiz eta Egia harrapatzeko Jakintzaren mugimendua baino ez izan, harrapatzeko ahalegin etengabea. Egia dugu, dudarik gabe, geroko edozein Jakintzaren oinarri.

Horrexegatik, Egiak oro zuloa eragiten du Jakintzan. Bestalde, Egiaren beste ezaugarria zera da, mugatzaile entziklopediko guztietatik kanpo kokatzen dela, Jakintza egituratutik kanpo; Egiari funtsezkoa zaio generikoa, Jakintzaren arloak bereiztu ezin duena, Jakintzatik kanpo kokatzen dena, bereiztezina; guzti hau bait da egoera baten egia orokorra. Ondorioz, Egiak ez du kontrakorik. Jakintza Egiaren alde estrukturala da; Okerrak eta Gezurrak berriz, Egiaren oztopo baino ez dira, haren efektuak berandutu egiten dituzte, ez besterik.

Nolanahi ere, bereizketarako beste modu bat ere badago: Jakintzatik kanpo egonda, baina izendapen militante eta interbinientearen efektupean, gertakizunaren izenarekiko loturak aztertzen dituen modua; hori da fideltasun generikoaren prozeduraz ezagutzen duguna.

Komunikabideak eta konfidantza

Ikusia dugu, dagoeneko, artea prozedura hauetariko bat dela, beste bat eta politikak batak edertasuna eta besteak entusiasmoa sortzen dutenez, bi hauek komunikagarriak ez direla zehaztu behar dugu eta trasmisio pedagogikorako

gauza ez direla. Ez dago, beraz, artearen edota politikaren jakintza, baizik eta sorturiko efektuen azalpen partzial eta diferitua.

Politika fideltasun generikoaren prozedura da, konfidantzarena, eta beraren gertakizunak eten historikoak dira; eten historiko hauetan sozialaren hutsunea faltan agertzen da -Estatu espainolak ez du legitimitaterik Euskal Herrian-, beraren operatzaileak aldagarriak dira (Euskal Herrian diren erakunde anitzak), eta beraien produkzio mugagabeak bereiztezinak dira Jakintzaren arlotik ikusirik. Zehazkiago: ez datoz bat Estatu mailan izendagarria den inolako erakunde edo forma politikorekin (Alderdia, Sindikatua...)

Aipatu etenak egoerango subjektibitatearen aldaketak dira, eta bereizketa egiteko era propioa ez datorkie Jakintzatik (Soziologia, Ekonomia), baizik eta ekintza militantetik egindako azterketa sintomatikotik (sintomak, ez arrastoak). Horrexegatik, ZEN planak markatzen duen aipatu erizpideari jarraituz, komunikabide guztien baliabideak politikaren, gertakizunaren subjektuaren(ganako) konfidantza deuseztera zuzendurik daude, konfidantza politikaren subjektuen lokarria bait da. Hauxe da egiantzekotasun informatiboa eraikitzeko parterik handiena subjektibitatearekiko erreferentzian gauzatzeko arrazoia: Kinitoren kasuan traidore eta salatariaren imajina azpimarratu nahi luke ENAMeko militantearengan; Ilumberriko kasuan partaideen etsipen suizida eraiki nahi luke; balizko erreintsertatuen kasuan, amore ematen duen koldarraren imajina azpimarratu nahi luke; porrot egindako Sevillako ihesean subjektuaren gaitasun eza azpimarratu nahi luke; ETA eta narkotrafikanteen arteko balizko harremanetan, ENAMeko militanteen "moral bikoitza", eta abar. Laburbilduz, gainezkadura subjektiboa, justizia eta kuraia, eta hauen egia indargabetu nahi dira, suntsitu eta barrura sartu nahi dituen egiantzekotasuna eraikiz.

Guzti hau honela bada, kontaketa egiantzekodunek oinarrian datu baieztagarriak baldin badituzte eta eritzi publikoa oinarrian baldin badituzte, nola jakin dezakegu tranpa hor dagoenik? Zer nolako sintomek agerterazten dizkigute egoerari buelta emateko baliagarriak diren hutsuneak, akats ikusgarri eta erabilgarriak?

Ondorio gisa

Konklusio gisa, manipulazio informatiborako prozesuei buruzko zenbait hausnarketa egin dezagun;

-Abiapuntutzat hartu beharra dago, edonola cre, "bailitzan"a konponbidea baino ez dela, eta gainera, politikaren egiak gainezkadura neutralizatu eta bereganatu nahi duela, eta ez alderantziz, egiten ohi denez.

-Jakintzaren subjektuaren interbentzioak (legea, informazioa), Egiaren efektuak beraren barnean sortzen dituen zuloak estaltzen eta berregiten ahalegintzen dira. Horrexegatik, arreta handiagoa zor zaio "bailitzan" horien bamean dauden intentzioak ezagutzeari, informazio polizialak oro duen Jakintzari buruzko parafrasiak egiteari baino, informazioa oso gogorra balitz ere. Funtsean, Egia beste leku batetan dagoelako konfidantza dugu, egoeraren statuserako efektu zirraragarriak sortuz.

-Gure ahalegina, politikaren Egiak Jakintzaren egituran sortzen dituen efektuak (zuloak) interpretatzea da, azterketa sintomatikoen (koalitatiboen) bidez. Intuizioak hartuko ditugu oinarri eta ez ebidentziak edo arrastoak.

Batzutan sintomak informazio bezala aurkituko ditugu (Amedok Kinitori zuzendutako gutun ezaguna); komunikabide eta iturri ofizialen aldetik **isiltasuna**, (nahiz eta isiltzeko zaletasun gulxi duten: "enuntziatzeko beharra"), zain egotea, eta abar, izango dira iniziatiba nork eramaten duen esango digutenak bai eta politika informatiboaren munduan ere (ikus "Kinitoren kasua"). Beste zenbaitetan, sintomak informazioaren **momentuan** aurkitzen dira (koiuntura deiturikoan, ekintza ugari egonik emaitza poliziako gutxi dagoenean); informazioa datu oparoetan apoiatzen da eta begibistakoa are eta begibistakoagoa egiten ahalegintzen da; informazio gehigarriak erabiltzen dira -esaterako- pertsona baten gainean konzentratzeko datuak: Artapaloren atxiloketa eskatuz, Sevillako ihesa...

Bestaldetik, "**lapsus**"ak ere agertzen dira: Felipe "politikaren desagueak" aipatuz, GALen inguruko "lapsus"ak, **zentzugabekeriak** ("minorías abultadas"), bertsio ofizialak datu mordoez puzteko gehiegikeriak ("todo aquel que dude del suicidio se descalifica") eta abar: hauek ere intuiziorako beste zenbait sintoma dugu.

Aipatu politika informatibo guzli hau, batez ere, egituraren subjektuak mantentzeko eta indartzeko planteiaturik dago; Euskal Herriarekiko debaluatua eta injustua den legearen mantenimenduaren subjektuak dira. Subjektu hauen oneritziaz, ZEN planaren egileck zera dioskute: legeak babesturik, edozer egin behar eta ahal dugu. Super-egoa da. Bere mezua, hala ere, entzulego bati zuzentzen diote, bi kualitateren artean eszinditurik dagoen entzulegoari: gertakizunak dakarren egiarengan (proposamenaren justutasunean konfidatu eta beraren defentsaren balorean) konfidantza, alde batetik, eta aldi berean, sisteraren ebidentzia zenbagaitzen (Jakintza) sinesgarritasuna bestetik, azken honek amore ematera bultzatzen duena.

Gure zeregina (interpretazio-etena darabilen azterketaren bidez) zera dugu, Egiarekiko konfidantza indartzea -ez begi bistakoa eta urriam eta

sistemak eta honen bitartekariak kuantifikatu, errepikatu, bermatu, baieztatu, hedatu eta zabaldu dituen ebidentziekiko deskonfidaţzea. Manipulazio informatiboaren arloan, politika izena merezi duen edozein politikak dakarren Egiaren efektu partzial eta diferituak azalerazi ahal izateko, ezinbestekoa da, kasurik hoberenean, aurreko guztia burutzea.

OHARRAK

(1) APERY Roger eta beste batzuk: *Pensar la matemática* Tusquets, Bartzelona.

(2) ARISTOTELES: *Póetique*, Ed. Las Belles Lettres, Paris, 1969. 41-42 orr.

(3) TODOROV, Tzvetan: *Poétique de la prose*, Seuil, Paris, 1971. 12. orr. eta hurrengoak.

(4) Zentzu berean baina landuago, ikus KRISTEVA, Julia: *Semiótica 2, Fundamentos*, Madril, 1981. 11-12 orr. Jose Martín Arancibiak gazteleratua. Frantsesezko orijinala: *Semiotike. Recherches pour une semanalyse,* Seuil, 1969.

(5) AGUILERA, Octavio: *Las ideologías en el periodismo,* Paraninfo, Madril, 1990.

(6) GENETTE Gérard: "Vraisemblable et motivation", in *Comunications 11,* Paris, 1968.

(7) BARTHES, Roland: *Le degré zéro de l'écriture,* Paris, Seuil, 1953. 46-52

Antton Azkargorta
Nikolas Xamardo

EHU-Gizarte eta Informazio-Zientzien Fakultateko Irakasleak

Kazetaritza

Herri mugimenduak eta komunikazioa prozesua (**UZTARO** 3, 1991:77-85)

Artikulu honetan, igorleari, euskarri materialei eta informazioaren tratamenduari buruz egiten diren azterketak alde batera utziz, komunikabide boteretsuekin konpetitzeak, edota berton mezu propioak plazaratu nahi izateak dituen mugak azaltzen dira.

Lana bi ikusmoldetik egina dago: batetik herri-mugimenduen aldetik eta mezua plazaratzeko duten premiatik; bestetik, alternatiba baten bilatzetik. Gertakizuna eta albistea ondo bereiztuz, bakoitzari dagokion subjektua erakusten du, ohizko eskema komunikatiboa erabat aldatuz. Irtenbide bezala, hots alternatibarik sortu ahal izateko, planteiatzen du herri-mugimenduetako militantea bera dela mezuaren ekoizlea eta hedatzailea: dena batean.

***

Komunikabideez egiten diren azterketak, ikuspuntu kritikoetatik bederen, honako mailatan banatu izan dira:

Lehen mailan, **igorlea**ren inguruko ikerketak daude. Honen barruan komunikabideak enpresa gisa aztertzen dituzten lanak daude; haien egitura, multimedia taldeak direlakoak, kazetaritzako enpresen kontrola eta -gero eta azkarrago doan- kontzentrazio-prozesua, komunikazio erlazioen gero eta mekantilizazio handiagoa, komunikabideen kontrola eta botere politikoa zein ekonomikoekiko erlazioa, komunikazioaren alorreko kapitalaren internazionalizazioa, horren ondorioz sortzen diren menpekotasun-harremanak, eta abar.

Bigarren mailan, komunikazioaren **euskarri materiala** aztertzen da, kanala alegia. Bai bitarteko materialei eta hedakuntzaren teknologiari dagokienean, baita komunikabidearen baitan egiten den lanaren antolaketa eta banaketari dagokienean ere. Hemen kokatzen dira kablezko telebistaz,

sateliteak, datu-baseak, idazlaritzaren informatizazioari buruzko lanak...Halaber, kazetarien lanaren behin-behinekotasunaz, lanaren hierarkizazio gero eta handiagoaz (kazetari *vedetteak*, gaizki ordainduak eta ezezagunak diren morroi multzoa behar du bere inguruan), lanaren zatiketa eta komunikazio-prozesuaren kontrolaz, egintza eta diseinuaren kontzentrazioaz... Funtsean, komunikabideekin eta lan-indarrarekin zerikusirik daukan guztia sartuko litzateke atal honen barruan.

Hirugarrenean berriz, **informazioaren tratamendua**ren barruan dauden prozedura eta teknikak sartzen dira. Honen barruan, mezuaren hedakuntza, edukiaren azterketa eta, orohar, mezuaren kritika, bere manipulazio, toxikazio eta propagandaren prozedura anitzak ere barne direla.

Bestalde, aurreko mailetan aurkitzen diren arazoei planteiatzen zaizkien erantzunak, posizio kritikoetatik, abaniko zabalean eratzen dira, hala nola, irrati libreak, agentzia alternatiboak, herri eta bailaratako telebista zein irratiak, bitarteko kontrakulturalak, fanzinak... erantzun hauek beren antolatzeko era propioak ekarriz: kooperatibak, sozietate anonimoak...

Gure aldetik, nahiz eta oso interesgarritzat jotzen ditugun aipatu ikerketa eta esperientziak, hauxe gehitu behar dugu: guztiei nabaritzen diegula prozesu komunikatibo orokorraren ikuspen-falta, ondorioz, dagoen egitura kolokan jarri gabe bere baitan mugitzen direla, berritasun funtsezkorik planteiatu gabe. Hain da horrela, ezen kasu askotan espreski onartu izan den planteamendu horiek ez bait diote, inondik inora, sistemari aurre egiten.

Azkenean, komunikabide boteretsuek bete ezin dituzten espazioak betetzea baino ez da bilatzen, adibidez., musika-mota bat programatuz, edota gizarteko kolektibo marginatuei zuzendurik: homosexualak, gazteak, ikasleak... edo espazio marginatuei: auzoak, kartzelak eta abar.

Gure ustez, gaur egungo sare informatibo izugarriari emandako erantzunak aipatu horietara mugatzerakoan oso ikuspuntu murritza aukeratu da, eta horrek frogatu egiten du, berriz ere, ez zaiola gaur egungo sistema komunikatiboari erantzun globalik kontrajarri. Horren ondorioz, aurrean aipatu erantzunak komunikabide "ofizial" ahalguztidunei aurre egitekotan egin direnean, berehala sortu dira ezintasunak, angustiak eta gogoezak, zeren, funtsean, haiek markaturiko jokoa eta erregelekin ari bait gara. Modu horretara sekulan gertatuko ez den "miraria"ren bila ari dira: bitarteko, mezu edo euskarri kontra kultural behin betikoaren bila, sistema meneratzailearekin baldintza berberetsuetan konpetitzeko gai izango omen dena.

Azpimarratzekoa da hemen azken obsesio hau asko nabarmendu dela aspaldiko partez eta hori, hein handian, nozitzen ari garen eraso

manipulatzailea inoiz baino gogorrago ari delako. Horren inguruan zenbait hitzaldi eta egintza desberdin eratu da, betiere mezuaren aldaketa intentzionatuaren kontra egiteko ahaleginean. Ondorioz, toxikazioaren hamaika mota, teknika eta prozedura desberdinen tipologiak, eta egunero erabiltzen ohi diren manipulatzeko erak eskaini izan zaizkigu, azterketa horiek bitarteko normaletatik zetorren albiste manipulatuen uhinari aurre egiteko txerto ezin hobea izango zirela pentsatuz.

Alferrikako ametsa

Nolanahi ere den, geure buruari galdetu beharko genioke ea gaur egungo sistema informatiboaren nagusitasun izugarri eta ukaezinaren aurrean, zergatik ukatu zen Euskal Herrian Espainiako konstituzioa? Halaber, zergatik eman zitzaion OTANi ezezko borobila? Zergatik agertu zen gehiengo zabal bat Golkoko gerraren kontra eta haren inguruko manipulazioaren aurka? *Lurralde*aren manifestazioak ia bikoiztu egin zuen instituzionala, nahiz eta biak bultzatzeko inbertituriko dirua 1/625 proportzioan egon, bigarrenaren alde noski? Azken finean, zergatik albiste manipulatuen bonbardaketa masiboak eta bitartekoen erabilera mugagabeak ez dituzte Euskal Herrian beren helburuak lortu?

Galdera hauei erantzuten saiatzeko, errotik desberdina den beste ikuspuntu bat proposatzen dugu, Igorlea- Mezua- Hartzailea eskema klasikoa alde batera utzız eta gure arreta prozesuaren giza elementuan erdiratuz, hots, subjektuan, bere isurki bietan, bai gizabanakoarenean bai kolektiboan. Gure ustetan, subjektu hori herri-mugimenduen barruan sortzen da, **gertakizunaren subjektua** dugu, eta errotik kontrajartzen zaio eskema klasikoaren subjektu igorleari, **albistearen subjektua**ri alegia.

Goazen bada, lehenik eta behin, bi kontzeptuak definitzera. **Gertakizuna**, gure ustez, ustekabean suertatzen den gertaera bakana da; dagoen egoerarekiko haustura dakarrena; dagoen errepresentazio-sistema kolokan jartzen duena; une horretararte normaltzat jotzen zen gizartearen funtzionamendua apurtuz, sekuentzia sorta bat ekoizten duena -egoeraren mozketak-. Beran traszendentzi prozesuaren amaieran soilik jakin daiteke, inoiz ere ez hasieran. Gertakizunaz hitzegiteak momentu horretararteko gauzen ordena normalaren krisiaz hitz egitea dakar, hots, -informazioaren alorrari dagokionean- albistegai diren gertaera guztiek eratzen duten ehunaren krisiaz. Horregatik, nahiz eta gertakizunaren parte bat albistegai izan (albisteen sarean euskarri-puntu bat izan, alegia), egia esan, egoera egituratuarekiko dakarren

gainezkadura- eta apurketa-zama hain da handia, ezen albistearen elementu antagonikoa dela esan behar dugun.

Bestalde, **albistea** erabat parte da sartuta dagoen egoeraren barnean. Ez du errotiko berritasunik aportatzen, nahiz eta nolabaiteko berritasunik badakarren. Albistea, gertakizuna ez bezala, berehala pasatzen da -frikziorik gabe- datuen bildumara, dakigunaren esparrura. Ez du akumulatzeko ahalmenik, ez du markarik uzten, bere izaera behin-behinekoa da eta hilkorra. Bere interes eta garrantzia honako elementuok ematen diote: hurbiltasuna, kantitatea, edo askoz mugagabeagoak diren hauek, hots, giza interesa, "bitxitasuna", , pertsonaien edo lekuen ospea, gaiaren gaurkotasuna, eta abar. Azkenik, oso inportantea da, albistea albiste izateko, ez dadila soilik suertatu, baizik eta behar-beharrezkoa da komunikabide batek bildu, elaboratu eta masiboki hedatzea.

Laburtuz, esan dezakegu gertakizunaren dimentsio erreala lotuta dagoela -ezinbestez- bere interbentzioarekin, produzitzen duen subjektuarekin; zeren ez bait dago subjekturik gabeko gertakizunik. Albistearen dimentsio erreala ordea bitarteko materialarekiko banaezina da. Horregatik, kazetaria, albistearen agentea baino ez da, inoiz ere ez subjektu; informazioaren profesionala dugu kazetaria.

Herri-mugimenduetako militantea berriz, gertakizunaren subjektua izanik, profesionala izan gabe, bere lanarekin entusiasmatzen den zaletua da.

Bigarren hau da, hain zuzen ere, gizartea, eta ondorioz, komunikazioaren gaur egungo egitura aldatzeko, interesatzen zaigun irudi bakarra.

Gertakizunaren subjektuak funtzio bikoitza betetzen du: hartzailea da komunikazioaren eskema meneratzaile nagusian, baina baita **hartzaile-blokeatzailea** ere, eskematik irtenda, **gertakizunaren subjektu ekoizle eta hedatzailea**. Hartzaile-blokeatzaileak, bere lanean aritzean, mugimendua eta bere inguruak diskurtsu meneratzailearen kontra iragankaizten ditu. Ondorioz, **inkomunikazioa** sortzen da, gertakizunaren kontra -zuzenik zein zeharka- igorritako zenbait informazioren eragina oztopatzen dela. Hartzaile-blokeatzaileak bai ulertzen duela komunikabideetako igorleak bidaltzen dion mezua; areago, esan genezake haren funtsa ulertzen duen bakarra dela (ezin dugu, beraz, kode-problemarik, kanalaren arazoak edo zaratak aitzaki gisa aipatu). Gertakizunaren subjektua, beste edozein hartzaile bezala, egoeraren barne dago, baina gertakizunak ematen dion izaerak hain oparoa den jario informatiboaren alde nagusiak errefusatzera eramaten du, hori bai, hura aztertu eta doiki baloratu ondoren. Hain da sakona errefusapen hori, hasierako mezua

galdu egiten bait da sarritan. Energia komunikatiboaren galera suertatzen da, eta baita mezu-bonbardaketan inbertitzen diren diru-kopuru handiena ere bai. Izan ere, esan bezala, gertakizunaren subjektuak mezu horien xedeak errefusatzen dituen aldiberean, mezuen azterketa **kualitatibo** eta **sintomatikoak** egiten ditu. Edozein mezutan daude igorlearen kontrolpetik ihes egiten duten elementuak, eta hauek haren egoera objektibo eta subjektiboaren informazio erreala ematen digute. Datu horiek gertakizunaren subjektuaren estrategia aberas dezakete. Adibidez, *Lurralde*aren kontrako manifestazioan, horretarako aukeratutako leman detektatu zen sintoma; horrek adierazten bait zuen manifestazio haren bultzatzaileek mezuaren gunea desplazatzeko beharra zutela. Normalena izango zen autobia ofizialaren bikaintasunak azpimarratzea *Lurralde*ak proposatutakoaren aurka. Ez zen horrela egin. Ofizialistek ETAren aurka zuzendu zuten beren mezua eta instituzioen alde.

Honelako azterketa kualitatiboak beti egin behar ditu gertakizunaren subjektuak, zeren eta berari interesatzen zaion mezua seguru ez duela sekulan aurkituko komunikabide ofizialetan. Beraz, beti bilatu beharko ditu bestearen diskurtsuan berak eragindako efektuen sintomak. Lantxo hau ez dugu baina, sintomaren teoria bilakatzeko lekurik aproposena. Hala ere, esan dezagun -laburki- "igorlearen ‘huts egiteak’ direla, tentsio handiko uneetan bere subkontzienteak saltzen duenean, eta -nahi barik- komeni ez zaizkion gauzak agertzen dituenean".

*Lurralde*ak diskurtsu ofizialaz egindako azterketa sintomatikoak argi erakutsi zuen haren punturik ahulena lan-proiektua bera zela. Horregatik, egokia izan zen *Lurralde*aren kanpainak projektu ofizialaren alde teknikoak eta ingurugiroaren kalterako zirenak behin eta berriz azpimarratzea.

Gertakizunaren ekoizle eta hedatzaileak modu desberdinez aurkezten du bere burua. Modu horiekin lotuta subjektibitate berriak agertzen dira, entusiasmoz, sormenaz, konfidantzaz, solidaritateaz, adorez, lan-ahalmenaz... horniturik. Guzti honek zerikusi gutxi du komunikatu deitzen denarekin, eta komunika daitekeenarekin.

Komunikatu daitekeen guztia, definizioz, nabarmena da. Hala ere, badaude egon gertakizunean komunika daitezkeen gauzak, baina ez dira inportanteenak. Gertakizunean funtsezkoa den oro, eta bere subjektuak transmititzen duena, hura egiaren iturri izatea da, nahiz eta proposatzen den proiektuaren informazio zehatza egon ez. Transmititzen dena, ordea, zera da: gauzak horrela direlako konfidantza, eta ondoren, informazio zehatza bilatzen da, hasieran emandako konfidantza birbaieztatzeko. Beraz, bigarren momentuan da, behin eta konfidantzan oinarritutako gune subjektiboa eratu

denean, jendeak -orohar- gaia onartzen duenean eta proiektuaren zehaztasun teknikoak eskatzen dituenean. Faltsua da, ondorioz, gai bati buruzko informazio zabal eta zehatzak inor komentzitu dezakeenik berez.

Guzti horrengatik, erabat pentsaezina da posible izan daitekeenik informazio eta komunikabide nagusien bitartez gertakizunaren subjektuak eratzea, zeren haiek, beren izaeragatik, bakarrik mezu "objetiboak" komunika bait ditzakete, hots, "objektuak" sort ditzaketeenak, sisteman ongi integraturiko pertsonak alegia, ezer aldatzeko gogo gutxirekin, eta sekulan ere ez subjektuak. Horrela bada, alderantziz, gertakizunaren subjektuak, mezu "objektiboak" produzitzeko eta mezu horiek "beren izaera objektiboagatik" hartzaileen komentzimendu masiboa eta ia instantaneoa lortzeko egin ditzakeen ahalegin guztiak, frustraziorik baino ez du sortzen harengan, eta areago, oraindik preso dagoela logika komunikatibo meneratzailean.

Gertakizunaren egiaren transmisioa subjektuak "subjektuz subjektu" egin behar du, aurrez aurre (eskuz-esku), zeren inportanteena ez bait da transmititzen den mezua, baizik eta subjektibotasuna: entusiasmoa, adorea, komentzimendua... eta hori, dakigun bezala, ezin da inoiz prentsaz, irratiz edo telebistaz komunikatu. Horrela, albistearen agentea -kazetari profesionala- desagertzen ahalegintzen den bitartean, komunikabidearen eta mezuaren itxura objektiboan ezkutatuz, modu horretan pertsona gramatikal huts bihurtuz (hirugarren pertsona ospetsua: inpertsonala), gertakizunaren subjektua presente dago -ez errepresentatua-, bere burua igorle, bitarteko eta mezu bihurturik.

Lurraldea herri mugimendua

Ikus dezagun orain nola bilakatzen diren kontzeptu guzti hauek *Lurraldea* izeneko herri-mugimenduaren praktikan. Bere kapainan gehien erabilitako sistemak eskuz-esku delakoaren izpirituaren barruan koka ditzakegu. Hori posible izan dadin beharrezkoa da militanteen gune bat eratzea eta Euskal Herri osoan ahalik eta sarerik zabalena. Militante hauek gertakizunak sorturiko informazioen transmisio-eztabaidarako egiazko subjektu-konplize bilakatu dira, demokrazia zuzenaren metodoak erabiliz: herrietako asanbladak, hitzaldiak, buzonaldiak, manifestazioak, eta abar. Halaber, filosofia berberaren barruan, eragın zuzena duten beste forma batzu erabili dira: erakusketa ibiltariak, lanen lekuko kontzentrazioak, gose greba irekiak, manifestazioetarako deialdiak, era guztietako laguntzak -diruarena barne-...

*Lurraldea*ren kasuan erabilitako euskarri normalizatuago baten -bideoaren- erabilerak garrantzi berria hartu du, baina ez berezkoa, baizik eta

ikustaldi ibiltari eta kolektiboetan erabili izan delako, eta espazio-mota desberdinetan: eskola, lantegi, unibertsitatean…

Hori da gertakizunaren subjektuak -igorle, bitarteko eta mezu aldiberean izanik- bere egia transmititzeko duen modua, propioa zaion sistema baten bidez, eta jenerikoki **interpelazio-interbentzioa** deituko duguna.

Zergatik da beharrezkoa subjektu ikutuen interbentzio zuzena, ordezkari edo bitartekorik gabea? Zenbaitek uste du injustizia edo zapalketaren erakuste objektibo soilarekin berez sortuko dela gizarte osoaren berehalako erantzun masiboa. Historikoki, hala ere, gauzak ez dira inoiz horrela izan, ez politikan ez eta artean ere. Subjektu ikutuen, gertakizunaren subjektuen, borondate irmoa izan da ordea, funtsezko elementu nagusia jendeak gauzak ulertzeko eta ondoren -beti ondoren-nozituriko injustiziaren arrazoi objektiboak onartzeko. Interpelazioaren bitartez (pikete, asanblada, hitzaldi, greba, kontzentrazio...) ulertu ahal izango du interpelatuak subjektuen planteiamenduen egiaren zerbait. Eta proposamen horiek soilik dira biziak subjektu aktiboetan hezurmamitzen direnean, beraien erabakian inplizituki dagoen kuraian hain zuzen ere.

Interpelazioak gizabanako zein talde interpelatuen barruko apurketa proposatzen du, jarrera kontrajarrien artean erabakitzera behartuz: injustiziaren aurka jarri, interpelanteak eskainitako arrazoiak asumituz, ala, kontrara, axolagabekeria edo kontrako jarrera nabarmena adierazten segitu haren eskarien aurrean. Azken hau, errefusa-jarrera zabal batekin lagunduta etor daiteke, ordena errepresiboki berrezartzeko deiaeginez, bere barnean planteiatu zaion dilema - interpelazioak sortu dion dilema- horrela ebatzi nahirik, edo hobeto esanda, botereak ebatz diezaion. Interpelatuak, egoera injustua apurtzeko deia egiten zaionean, gainera datorkion erabaki beharrak sorturiko ondoeza sentitzen du. Erabaki zaila planteiatzen zaionez, ihes egiteko tentazioa du, bere pertsonarekiko efektu apurtzaileak ekidin asmoz. Egoera honek, sarri askotan, interpelariari galdera hauek zuzentzera bultzatzen du: zer egiteko eskatzen didazu? zergatik errekeritzen nauzu, ez bait daukat zerikusirik arazo horrekin?

Edozein herri-mugimenduren xedeen artean, botere-praxis ororen azpian dagoen bortxakeria erakustera bideratuta daudenak daude batetik, eta burruka-jarrera orok daraman dimentsio etikoa pedagogikoki erakustera zuzendutakoak bestetik. Ikus, kasurako, *Lurraldea, Aranguren, Itoiz, Sakana,* eta abarrek botererekin dituzten harremanak: elkarrizketak eta irtenbide negoziatua eskatzen da alde batetik eta instituzioek itxiduraz eta errepresioz erantzuten dute.

Bestalde, **albistearen agentea**, bere burua aurkeztu eta interpelatu ez ezik, kamuflatzen saiatzen egoeraren errepresentantearen papera jokatuz. Ez dio hartzaileari inolako aukerarik ematen; hark onartu egin behar du, besterik gabe, komunikabideen bidez ematen zaion errealitate albistetua. Proposatzen zaiona hauxe da: proiektu eta planteiamendu ofizialen balorazio positiboa eta onarpena, besterik ez. Arangurengo zabortegia, Itoizko aintzira, Leizaran eta Sakanako autobiak, Irati Haraneko turismogunea, Bilboko portuaren kanpoaldeko Abraren zabalera, Sondikako aireportuaren handiketa, Uribe-Kostako autobia...

Herri-mugimenduek, gertakizunaren alorrekoak direnean, **akumulazio-puntuak** osatzen dituzte. Honela definituko genituzke hauek: "indarrak (subjetibitate herritar eta nazionalak) akumulatzeko ahalmena, bere efektu hedatzaileak modu biderkatuan eta ez linealean zabaltzen direlarik". Esan dezakegu beraz, gertakizunak puntu baten inguruan gunetzen duela bere indar akumulatiboa, geroago bere efektuak zabaltzeko eta bere higiduran leku, pertsona, talde, zeinu... kopuru zabala zeharkatzen duelarik.

Zentzu honetan, guretzat, *Lurraldea* gertakizuna da. Hala eta guztiz ere, albistea ez bezala, hau ez da baieztapen objektiboa, botereak mantendutako tesi ofizialen aurkako **interpretazio** baten emaitza baizik. Autobiaren kontra zegoen hasierako gune txiki batetik, milaka pertsona kontzentratzeko ahalmena duen mugimendu indartsua izatera pasatu da (batez ere, alternatibarik gabeko oposizio hutsa izatetik alternatiba planteiatzera iritsi zenean eman zen -gure ustez- jauzi kualitatiboa).

Lurraldea gertakizunak -gertakizun guztiak bezala- episodio (fase) desberdinak pasa izan ditu: Gipuzkoan eratutako erreferendumaren aldeko Batzordea, Nafar Legebiltzarrean batzorde arbitrala eratzeko iniziatiba, proiektu alternatiboaren finantziaketan pertsona ugariren inplikazioa, herri-komite ugariren eraketa, eta abar. Nahiz eta, esan bezala, akumulazio-prozesuan funtsezkoa izan den pausua, alternatibaren aurkezpena izan.

Gertakizunak duen hedapen-indarra hain da handia, berria izateagatik eta dagoen errepresentazio-sistema kolokan jartzeagatik ezen, ohizko albisteekiko erabat desberdintzen baita. Horrela bada, gertakizuna gai izan da, lehen momentu batean, komunikabide guztietara hedatzeko, bere mezu berria zirrikitu ofizial guztietatik sartuz. Hala ere, bigarren momentuan, sistemaren begiraleek abisatuta, komunikabideak gertakizunaren efektu apurtzaileak ekidin asmoz, kontsentsua eraiki dute eta prozedura manipulatzaile ugari darabilte. Horregatik, kazetariek *Lurraldea* alternatibaren funtsa eta ondorio sakonez ohartu direnean beren esku dagoen guztia egiten dute haren efektuak

oztopatzeko. Zeren argi dagoen, dagoenekoz, *Lurraldea* ez dela errepide bati buruzko alternatiba on soil bat, baizik eta, batez ere, herrialdeen arteko-Gipuzkoa eta Nafarroaren arteko-azterketa alternatiboa. Proiektu honek, halaber, Madrilgo gobernuak eta instituzio autonomikoek baztertu duten lurraldearen planifikazio bat dakar; bertan bilakaera ekonomikorako funtsezkoak diren ardatzak seinalatzen direlarik. Halaber, proiektu honek gaur egun nagusi den gestio instituzionalaren eredua kolokan jartzen du, praktikan bi gauza agerian utziz: demokrazia partehartzaile eta demokrazia instituzionalaren arteko desberdintasun sakona; eta, noski, bigarren honen akats larriak.

Instituzioek zein komunikabideek, gertakizuna eraldatzeko, baztertzeko, enoratzeko, manipulatzeko eta kriminalizatzeko darabiltzaten prozedurak ugariak dira. Lehenengo eta behin, modu askotan saiatzen dira gertakizuna albiste huts bihurtzen, hots, intraszendente, hilkor eta inolako ondoriorik gabeko. Horregatik saiatu izan dira *Lurraldea* alternatiba errepide bati dagokion diskordantzia dela esanez, eta gainera teknikoki onartezina. Are gehiago, lehen momentu batean alternatiba existitzen ez zela esan zuten, botereari ziria sartzeko mamua baino ez zela. Hortik aparte, ohizko prozedurak ere erabiltzen dira, *Lurralde*ak berak duen ikerketa batean ongi ikusten den bezala. Teknika gehienak, klasikoak izanik, espazioen logikan oinarritzen dira: informazioen tamainua, non kokatzen diren, aldamenekotasunaren efektua bilatuz (biolentziari buruzko albisteen ondoan), eta baita ere, testuen tratamenduan. Ez dituzte aurreztu kriminalizatzeko eta baztertzeko teknikak, etengabeki ETArekin erlazionatuz, bere izaera "anti-demokratikoa", bortxaz inposatua... Halaber, gaiari buruzko periodizazioak egiterakoan alternatiba alde batera uzten saiatzen dira, den-dena instituzioen iniziatibaz gertaturiko gorabeherak bailiran, eta hor *Lurralde*ak jokatuko zukeen papera, inolako autonomia eta iniziatibarik gabe, instituzioek proposaturiko aldaketa desberdinen kontra sistematikoki agertzea baino izango ez bailitzan.

Konklusioak

Diskurtsu meneratzailearen kontra babesteko, eta proiektu alternatibo berriak sortzeko, ez da funtsezkoa -inportantea izanik- bitarteko berriak eraikitzea, edo gertakizunaren mezuak komunikabide ofizialetan iragaztea, ez eta bitarteko horien esparruan konpetitzen saiatzea, bitarteko horiek darabiltzaten milaka manipulazio-prozedurak salatzea, eta abar ere, baizik eta funtsezkoena, gertakizun zehatzetan edo proiektu konkretuen inguruan sorturiko herri mugimenduak bultzatzea da. Ideia honen haritik, **gertakizunaren lekuaz** hitz egin behar dugu. Zeren arazoa ez bait datza jende-kopuruan, ez eta

ingurugiroarekiko kontraesan objektiboen existentzian, baizik eta leku berezi batean aurkitzean. Leku berezi hori definitzerakoan, hauxe esango genuke: "gertakizuna suertatzen den politikaren espazioa" dela. Aipatu espazioa elementu hauek osatzen dute: egoeraren estatuak (gauzak dauden bezala, baina Estatuaren arauek antolatuta), eta aipatu Estatua gainditzen duen sentsibilitate nazional eta herritarren multzoa. Sentsibilitate eta kontzientzien multzo hori emaitza historikoa da; iraganeko gertakizunen ondorioa.
Zera baieztatzen dugu, ondorioz: gaur egun Nafarroa gertakizunaren leku dela, espazio zabalago -Euskal Herria- baten parte delarik. Horregatik sortzen dira bertan, hain ugari, herri-mugimenduak, eskari zehatzekin -ingurugirokoak batez ere- baina jadanik Estatu-arazo bilakaturik, zeren beraien "denominadore amankomuna" izaera askatzailea, nazionala eta soziala duen proiektu politiko global batean txertaturik egotea bait da.

Antton Azkargorta Aretxabala

Filosofia-Etika

“Hitzaurrea” - Alain Badiou : ETIKA: Gaizkiaren kontzientziari buruzko saioa [1993] (*BESATARI*, Bilbo, 1996:9-15)

Modan dago etikaz mintzatzea. Dena dela, etikaz politika eta kazetaritzaren profesional ugari ari bada ere, komunikazio-gaien artean ia izar bihurtu arte, egiazko (egiekin lotutako) etika gutxi dago. Hau, alabaina, ez dugu gure garaiaz aieneka ibiltzeko atxakiatzat hartu behar, zeren gai honetaz ezin baita esan inoiz sasoi hoberik izan denik.

"Morala" edo "etika", bereiztu gabe, gure gizartean jokaera pertsonal, sozial edo politikoei buruzko irizpenak emateko erabiltzen diren terminoak dira. Marxismoaren hondorapenak ekarri duen desastre ilunaren ondorengo ideien gabezia hain da sakona ezen munduan diren injustizia, miseria eta "burruka etniko" guztientzako irtenbide bakarrak heriotza, sarraskiak eta garbiketa bortitza direla baitirudi. Horrekin batera, agintari politikoen nepotismo eta ustelkeriak neurri guztiak gainditu ditu, horren kiratsa gizarte osoan hedatuz doalarik. Egoera honi guztioni irtenbideak aurkitzeko ezintasuna, kapitalismoaren eta parlamentarismoaren nagusitze planetarioarekin batera ari da gertatzen. Ez da hain harrigarria, orduan, testinguru zabal horretan, sistema mantentzen duten berberek, "gaizkia" sortzen duten horiek, morala eta etika arma jaurtigarri bezala erabiltzea, beraien nagusitasuna mantentzeko daramaten burruka gordinean.

Alain Badiouk liburu honetan egiten dituen ekarpenak guztiz erabakiorrak dira, gaur gaiaz. pentsatu ahal izateko. Pentsamendu filosofikoaren lerro nagusiek utzitako urratsak aztertuz, etikaz arrunki esaten dena, filosofia modernoan gaiaz agertzen denaren ihakin eskasa dela erakusten digu Badiouk; hau Kanti dagokionean nabarmen-nabarmena da. Une honetan "Kantenganako itzulera" bizitzen ari garela diosku. Gaurko pentsamenduak, moralitate edo arrazoi praktikoaren sinonimotzat dauka etika, arrazoi teorikotik

bereizita. Arrazoi praktikoak bakoitzaren egintzak eta horien errepresentazioak lege unibertsal batekin lotzen ditu. Modu horretara ulertutako etika, subjektuaren —bakana zein kolektiboa— irizpen-printzipioa dugu. Horrela, bada, irizpenetan oinarritutako etika batez hitz egingo genuke (irizpenen etika).

Zuzenbide naturalaren teorikoek balore unibertsal, eterno eta aldaezinak daudela uste dute. Balore horiek egoera zehatzen eta kontsiderazio enpirikoen gainetik leudeke. Baloreok aginduen forma hartzen dute eta zuzenbide estatalak zein nazioartekoak isladatu eta babestu behar omen ditu, eta urratzen dituenak zigortu. Urratzen dituztenen portaera burrukatu behar den "gaizkia" kontsideratzen da. Balore hauek ez dira positiboki aurkezten, baizik eta gaizki-ezaren eskubide bezala, eta bere babes formala exijigarria dela esaten da. Ideologia etiko horrek, beraz, Gaizkiaren ukapen diren baloreak aurkezten ditu eta unibertsalak eta denboratik kanpokoak izan arren, kontsentsu orokorraren bitartez legeterietan txerta daitezkeela proposatuz iritzien etika batekin nahasten ditu. Ondorioz, etika horrek ez du ezer aldatzeko indarrik, iritziak soziabilitatearen sustraia baitira, gizarte-egituran dabiltzan jakintzaren puska anarkikoak. Etikaren ikuskera hau ideologia hutsa da. Gizaki zehatzak eta egoera zehatzak ukatu egiten ditu, egien edozein pentsamendutatik eta horien protagonistetatik urrundu egiten da.

Badiouk etikari zentzu guztiz bestelakoa eman nahi dio eta, horretarako, Hegelek egindako bereizketa funtsezkoa zaio: "etika" (*Sittlichkeit*) egintza berehalakoari dagokio, "moraltasuna" (*Moralität*) berriz, egintza hausnartuari. Eta printzipio etikoaz hauxe esan zuen Hegelek berak: "ordena etikoaren funtsa berehalako erabakia da". Morala kalkulagarria da beti baitagokio legearen pean dagoen egoerari, ezarritako gertaera eta jakintzarekin baitu zerikusia. Gizakiek gertaera eta jakintza horietaz duten irudiarekin (ideologiarekin) egokitzen den erizpen printzipio baten bitartez neurtu daitezkeen eritziak ematen dituzte. Iritzi moralak, dagoen egoerari buruzkoak izanik, planifikatu aztertu eta baloratu egin daitezke. Morala, beraz, erreflexiboa da. Egoeraren anitzei gertatzen zaienaz hausnartzen du; hausnarketa hau amaigabea izan daiteke eta ezer ez egitea eskatzen du. Bere zigorra: ezagutza berriengana ezin ireki daiteke.

Etika, ordea, kalkulaezina da, planifikatu gabeko berehalako erabakia baita. Dagoenarekiko hausturaren apustua egiten du. Etika, funtsean, subjektuaren erabakiezintasuna da, zeren, subjektuak, protagonistak, erabaki ezin daitekeen zerbaitez erabakitzen du, hots, egoerak erabakitzeko baliabide nahikorik ematen ez dion horretaz. Ez dago hausnarketarik hemen, etikaren erabakia ez dago datuen aniztasun infinitua aztertzearen zain. Etikaren erabakia

egintza egindako pentsamendua izanik, edozein hausnarketaren gainetik dago. Bere saria: berritasunak eta egiak aurkitzeko prest dago.

Badiourentzat ez dago etika orokorrik: "Beharrezkoa da 'etikaren' dispositibo ideologikoa errefusatzea, gizakiaren definizio negatibo eta biktima gisakoaren aurrean amore ez ematea". Kantenandik, eta moral orokorraren planteamendutik urrundu egiten da horrela. Dagokeen etika bakarra egia prozesuetakoa da, eta beraz, prozesu horiek sortzen direneko egoera aldakorrena: politikaren, maitasunaren, artearen edo zientziaren etika egon daiteke. Ez dago subjektu bakar bat, hortaz, baizik egia-mota beste subjektu, eta egia-prozedura bezain beste subjektu-mota.

Kant alde batera utzita, Badiouk kapitulu osoa eskaini dio "diferentziaren etika" edo "Bestearen etika" aztertzeari. Emmanuel Lévinas izan da ikuspuntu honetatik gaur planteatzen den nolabaiteko erradikalismo etiko baten jatorria. "Beste" horren barrruan sartzen dira, "guk" (mendebaldeko herri garatuok alegia) ez bezala bizi, pentsatu eta jokatzen duten guztiak. Etikaren bertsio honen arabera, Bestearengandik eta berarekiko dugun jarreragatik hasi beharko genuke nor garen jakin nahi badugu.

"Beste" horren ezagutza eta tolerantziaren diskurtsoa izango lirateke pentsamendu horren emaitza ezagunenak, eta, zehatzago, arrazakeria, xenofobia, eta munduaren eredu kultural bateratuaren kontrako diskurtsoak. Badiouren ustez, pentsamendu hau "teologiak anulaturiko filosofia" baino ez da, edo gogorrago esanda: "Errukirik gabeko diskurtso errukitsua, gobernu ezgaientzako gehigarri espirituala, predikazioaren beharrengatik klase-burruka defuntua ordezkatzen duen soziologia kulturala".

Badiouk egia baten etika, egia-prozesu baten jarraipen-printzipioari deitzen dio. Hau da, hain zuzen ere, egia-prozesuak eragindako subjektu baten egintzari kontsistentzia ematen diona.

Kontsistentziak subjektuaren lege propio bat dagoela adierazten du, ez-jakinaren (edo horretan parte hartzen duen norbaiten) lege bat, eta lege hori ez da egoera arruntaren legea. Barne-lege propio eta subjektibo horrek, egia batek eragindako prozedura fidelean ekiteko kontsistentzia ematen dio subjektuari; egia horrek iraunkortasuna ematen dio denboran eraikitzen duen trajektoriaren jarraipenari.

Gaur egungo Euskal Herritik liburu honi egin dakiokeen irakurketa, guztiz garrantzitsua iruditzen zait, gure herria egien subjektuen ugalketaren leku pribilegiatua delako. Hemen egien etika, zentzu sakonean, eguneroko ikuskizuna dugu, batez ere egia politikoari dagokion aldetik. Behar-beharrezkoa zaigu horretaz pentsatzea, zeren egiazko etika horren ondoan —eta ezin da

bestela izan— moralismo kontserbatzaile makur eta maltzurra ere barra-barra baitabil, batez ere botere politiko eta ekonomikotik eta bere tresna pribilegiatuak diren komunikabideetatik datorkiguna, beti ere gauzak dauden bezala mantentzeko eta beren interes eta pribilegioak defenditzeko.

Amaitzeko, hona hemen Badiouk politika filosofiatik nola ikusi behar den laburbil dezakeen proposamen oso sintetizatua, eta gure herriaren prozesu politikotik ikusita oso interesgarria gerta dakigukeena. Bere *D'un désastre obscur* liburuaren azken parrafoa da: "Filosofiak, tiranoaren zerbitzutik eta aldakortasun sofistikotik aldi berean aldendutako ariketa izatekotan, politikaren hasiera Estatuaren desagerpenaren aldeko pentsamendu-praktika eragingarria den neurrian dagoela jaso behar du. Pentsamendu bat Estatutik kentzen deneko guneak, kenketa hori izatean bertan inskribatzen duela, politika baten erreal osoa egiten du. Eta erakunde politikoak "irabazitako urratsa mantentzea" du helburu, halaber, bere jatorrian dagoen intsumisioaren keinu publikoa aurkitzen jakin duen kolektiboki bildutako pentsamenduari, gorputz batez dohatzea."

***

Alain Badiouren lan filosofikoan hiru etapa bereiz daitezke. Lehena, Louis Althusserren maisutzaren itzalean burututakoa; lanaren ikuspuntu nagusia epistemologikoa izan zen. Garai hartako liburu adierazgarriena *Le Concept de modèle* izan zen. 68ko gertakizunak epe berri zein erabakiorra ireki zuen Badiouren pentsamenduan. Bigarren etapan, 1972an hasitakoan, Deleuze eta Lyotarden eskutik sortu eta hedatuz zihoazen ideologia anarko-desiratzaileak salatzera eta burrukatzera militanteki dedikatu zen, baita Althusserren bideari jarraituz zebilen nolabaiteko eskolastikaren kontra ekitera ere: estrukturalismoaren positibismo konbinatzailearen aurka kontraesanaren nagusitasuna berretsi zuen, eta, errepikapen eta simetriaren aurka, hausketa kualitatiboa proposatu. Aldi berean, *Théorie du sujet* liburuan, ezagutza, dialektika eta ideologiaren birfuntsaketa materialista-dialektikoaren oinarri teorikoak landu zituen. Azkenik, laurogeigarren hamarkadaren erdialdetik, marxismoaren suntsiketaren "desastre ilunari" bere berrasieraren preskripzioa kontrajartzen saiatu da. Etapa honetako paradigma nagusia matematikoa izanik, izakiaren pentsamenduaz aritzerakoan Heideggerren bidearekin desberdintzen da: poema aukeratu beharrean matema aukeratu du; eta subjektuaren teoriari dagokiola: Lacanetik harantzago mantendu da. Horra hor, XX. mendearen amaieran, pentsamenduaren bidean egindako apostu paregabea.

Antton Azkargorta Aretxabala

Kazetaritza

Kazetaritza tipologiarako zenbait ohar , (**UZTARO** 6, 1992:99-109)

Kazetaria dugu gaur egungo mundu hiperinformatuaren itxurazko izarra. Baina gero eta ezezagunagoa agertzen zaigu bere lanean betetzen duen egiazko funtsaz. Aldiberean, engranaje erraldoi baten elementu soil eta anonimo, eta hala eta guztiz ere, muntaje guztian aurpegia ematen duena eta bere presentziarekin prozesu informatibo oro balioztatzen duena dugu kazetaria. Dena den, lasai asko baiezta dezakegu Macluhanen axioma: bitartekoa, informabidea da, inoiz baino gehiago, mezua.

Haruntzago joanda, masa-informabideak Estatuaren integrazio eta barneratzeko lehen mailako tresna bilakatu diren (partido politiko eta sindikatuen pareko) uneon kazetaria are eta funtzionarioago egin da. Hori bai, funtzio horren efektibitaterik handiena esplizituki ez agertzean datza, eta Estatuaren aparatu formal eta beste integrazio-tresnekiko "autonomo" bezala agertzean du bere indarrik handiena.

Nolanahi ere, lan honek ez ditu aztertzen kazetariak bere funtzioa betetzeko erabiltzen dituen mekanismo ugariak, baizik eta kazetariaren prozesu subjektiboan parte harten duten elementuak. Orain arte komunikazioaren alorrean sekulan erabili izan ez den ikuspuntutik saiatu gara kazetarien tipologia baterako oharrak proposatzen.

***

Kazetaritzaren ikertzaile nagusiek informazio-prozesua aztertu izan dutenean, bertan parte hartzen duten bi giza elementuak desberdintzekotan, betidanik esan ohi dute bata -entzulegoa- pasiboa dela eta bestea -igorlea- subjektu eragilea dela. Subjektu eragile honek izen diferente asko hartzen du: komunikatzailea, kodifikatzailea, operatzaile semantikoa edo igorlea, baina laburrago eta mundu guztiak ulertzeko moduan, *kazetaria* **[1]** dugu.

Gure hipotesia honako hauxe da, kazetaria, komunikabideen historia ez oso luzean, despertsonalizatze-prozesu bat ari dela bizitzen. Inoiz

informazioaren subjektu eragilea izan baldin bada, gero eta gehiago ari da "kodifikatzaile/operatzaile semantiko" **[2]** bihurtzen, egitura konplexu baten elementu soila alegia, egituraren logika erabat nagusitu delarik. Guzti hau bat dator Mac Luhanek aspaldian proposaturiko axiomarekin: "*Bitartekoa da mezua*", hots, informazio--prozesuan bitarteko egiturak subjektu eragilearekiko duen nagusitasuna nabarmena da.

Ideia hori berori isladatzen da baita ere kazetariak sailkatzeko orduan. Kazetarien ahalmen pertsonalen murrizketa gero eta zorrotzagoa ikusten dugu bitartekoen baitan egiten den lan-banaketa dela eta. Espezializazio gero eta bortitzago hori informazioaren mundua hainbat eta konplexuagoa dela esanez azaltzen da, baina hori azaleko arrazoia baino ez da gure ustez.

Informazioaren atalak (politika, kirola, ekonomia, gizartea, nazioarteko politika...) alde batera utzirik, kazetariak lantzen duten kazetaritza-generoaren arabera sailkatzeko ohitura dago; behin eta berriz azpimarratzen da kazetariaren nortasunak desagertu **[3]** egin behar duela, errelatoaren objektibotasun handiagoaren mesedetan, edo bigarren mailan geratu behar duela beti ere lantzen duen generoaren garrantziaren eta exijentzien menpe. Horrela bada, hainbat autorek egin dute kazetarien sailkapena. Hemen Mtez. Albertosena aipatuko dugu, baina argitu behar dugu berak eta beste askok, Emil Dovifat **[4]** maisu alemaniarrak egindakoa hartzen dutela abiapuntutzat. Gutxi gorabehera honela izango litzateke: Informazioa **idazlari** edo **etxeko-erreportariek** (Iparramerikako autoreek "reportero local" deitzen dutena) lantzen dute; erreportajea edo kronika **kronikariak** edo **erreportari espreski joanak**; eta azkenik, iritzia lantzen duenari, orohar, **editorialgilea** deitzen zaio.

Nolanahi ere, nahiz eta -esan bezala- sailkapen honek ongi erakusten digun zenbaterainokoa den bitartekoaren eta bere lan-banaketa eta barne-antolakuntzaren nagusitasuna kazetariaren autonomia hipotetikoarekiko, ez digu askorik balio kazetariaren lanaren funtsa eta portaera desberdinak sakonki karakterizatzeko orduan. Gure aburuz, komunikabideek estatuaren antolaketa-moduarekin eta murgildurik dauden politikaren moduarekiko duten autonomi maila oso erlatiboa da.

Ondorioz, komunikabideen -eta horien menpeko kazetarien- jokaeraren eboluzioa, estatuaren eboluzioak eta aldaketek ezinbestean mugaturik agertzen da.

Gauzak horrela, azken hamarkadatan izandako eboluzio politikoak hedabideen portaera aztertzeko berebiziko garrantzia du. Klase-kontradikzioa bigarren mailara pasatzen ari den heinean, partiduen karakterizazioa ere aldatzen joan da. Partiduek (eta komunikabideek) klase desberdinen interesen

defentsa asumitzen zuteneko estatuarekiko banaketa eta nolabaiteko enfrentamendua abandonatzen joan dira, eta gero eta gehiago joan dira, bai partiduak eta bai *mass-media* delakoak, erakunde estatal bilakatzen. Estatubarneko logikan ari dira. Esaten dugun hau egiaztatzeko, beti bezala, krisiak une pribilegiatuak dira, eta Euskal Herria, tokatzen zaigun aldetik, ezin hobea da. Politikaren modu parlamentarioan beraz, partidu politikoak zein hedabideak estatuak bat-eginik agertzen dira, erabat parte **[6]**.

Bestalde, kazetariak karakterizatzerakoan badago, egon, sailkatze hori banaka egiten saiatzen den ikuspuntua: Zeintzuk dira masa-komunikatzaileak? Zein beren jatorri soziala? Zeintzuk beren iritzi politikoak? Non ikasiak dira? Egia esan, galdera horientzako erantzun argirik ez dago, eta dena den ez da hori planteamendu zuzena. Benetan interesatzen zaiguna berriz, beste hau da: zerk eragiten du kazetarien lanaren **ondorioen uniformitatea**? Guretzat erantzuna argi dago, estatuaren efektuaren menpean aurkitzen dira.

Ez indibidualki, noski, zeren marxismoaren aurkikuntzarik handienetako batek ongi azaltzen du estatuak, bere funtsean, ez duela erlaziorik gizabanakoekin baizik eta horiek elkartzen dituzten azpimultzoekin. Beraz, ideia hau ez da berria. Jadanik Aristotelek bere *Politika*n argi utzi zuen estatuaren etorkizun zehatza ez zela bizilagunek okupatzen dituzten leku orekatuekin definitzen, baizik eta masa handien arabera definitzen diren -sarritan estatuaren "parte" diren partiduak-, enpirikoak eta mugikorrak aldiberean; haren ustez, aberatsak eta pobreak alegia.

Kazetariak estatuaren efektuen menpe daudela hain da nabarmena ezen teorilari iparramerikarrak ari diren jadanik kazetariei **funtzionari** deitzen: horrela, John C. Merrill-ek idatzitako liburu batean honako hau esaten da, eta ez du, gure ustez, ezer soberan: "*El comunicador de masas... está **institucionalizado**, como dicen los sociólogos, es decir, es parte de un sistema organizado de comunicación, un sistema cuyo objetivo es servir al medio en el cual se expresa y a la sociedad. Todo medio de comunicación es una institución social; (...) Los comunicadores (los reporteros y los editores que trabajan para un periódico, por ejemplo) son parte de esta institución. Ellos forman (...) **la estructura institucional**."* Eta aurreago, oraindik dudarik balego, autore berberek: "*A los comunicadores de masas con frecuencia se les llama **funcionarios**: instrumentos a través de los cuales los medios de comunicación logran sus objetivos propios y los objetivos de la sociedad*". **[7]**.

Zentzu berean, Secanella andreak ere kazetariei buruzko mitoak ongi botatzen ditu lurrera. Izan ere, askok oraindik uste dute kazetaria langile "berezia" dela, "liberal" deitu horietakoa, eta autonomia handia duela bere

portaera eta mila joan-etorrietan; "*El aire democrático de las redacciones de los periódicos es sólo una ilusión; la realidad organizativa es mucho más jerárquica de lo que significa el tuteo generalizado o la indumentaria moderna*". **[8]**

Aipatu dugun aurkikuntza marxistara itzuliz, ongi barneratu behar dugu estatuak ez duela gizabanakoez ulertzen, baizik eta hauen multzoez -azterketa marxistan, klaseak: "*Estatua, klase meneratzailearen estatua da*". Baina klaseen lexiko berezia alde batera utzirik ere, guztiz funtsezkoa da estatuak azpimultzo kolektiboekin tratatzen duela ulertzea: partiduak, sindikatuak, ogibideak -funtzionariak bereziki-, komunikabideak... Estatua beraz, egoera sozio-historiko ororen metaegitura beharrezkoa da, oinarrizko batasuna dagoela garantizatzen duen legea, integrazio eta zenbaketarako operatzailea, baina ez gizartean zuzenki, baizik eta, esan bezala, azpimultzoen multzoan.Berak garantizatzen du efektuen uniformitatea, egoeraren kohe-rentzia. Hau da, gure ustez, axioma marxistari gaur egun egin behar zaion irakurketa.

Hau ezarri ondoren, goazen kazetariei maiz planteatzen zaien beste arazo bat ikutzera. Kazetariek, langileak diren aldetik, sindikatuta egon behar dute? Eta hiritarrak diren aldetik, partidu bateko militante edo afiliatu izan behar dute? Galdera hauen artean betidaniko jarrera biak ditugu: sindikazio edo afiliazioak kazetariaren lan "objektiboari" kalterik baino ez diotela ekarriko defendatzen dutenak, alde batetik; eta kontrakoa mantentzen dutenak, bestetik. Adibidez, Munduko Kazetarien Federazioko idazkari orokorra denak hauxe zioen: "*No es cierto que un periodista pierda su independencia al sindicarse"... "Es la primera vez que la CEE reconoce la especificidad del periodista-trabajador de una industria cultural*"?.**[9]**

Guk uste dugu White-ren lehen baieztapena egia dela, baina ez berak dioen zentzuan; kazetariak guztiz galduta du bere "independentzia" komunikabide batean lanean hasten den une beretik, komunikabideak berez estatuaren integraziorako lehen mailako instituzioak direlako, erakunde intraestatalak. Eta ohartzen bagara, inklusio edo barneratzearen errepikapenak, bikoizketak, ez dio estatuari mesederik ekartzen -besterik badirudi ere, integrazio-maila ez da horrela gogortzen, ahultzen baizik-. Estatuarentzat, sistema parlamentarioan bederen, azpimultzoen balizko "autonomia", banaketa mantentzea, funtsezko printzipioa da. Egunero ikusten dugu sindikatuek behin eta berriro esaten dute ez dutela zerikusirik partiduekin (UGTk PSOErekiko; CCOOk, IUrekiko; ELAk, PNVrekiko); halaber, sindikazio-mailarik txikiena duten lanbideak funtzionariak eta kazetariak ditugu.

Gaye Tuchmann iparramerikarrak ere komunikabideak gizartearen (estatuaren) funtsezko instituzioak direla diosku: "... *el profesional sirve también*

a los intereses de la empresa para la que trabaja y reafirma los intereses sociales o políticos en los que se halla inmersa la profesión periodística. No hace falta que el periodista sea un militante de un partido. Quiéralo o no, es siempre un militante de la sociedad" **[10]**. Bestalde, lanbide konpetitibo eta insolidariorik badago kazetaritza dela oso gauza jakina da. Beraz, oso hedatuta dagoen ustearen kontra guk hauxe mantentzen dugu: partiduak, sindikatuak, ez dira jendearen elkartu beharretik —behetik gora- sortutako erakundeak baizik eta estatuaren egituraketarako funtsezko "parteak" -goitik behera sortuak- eta ondorioz beren oinarrizko batasuna estatuan bilatu behar dugu eta ez beste inon.

Kontua da, hala ere, egoera normalean eta azalezko azterketa eginez, parte horiek autonomiaren, kontraesanen, eta interes desberdinen defentsaren fikzioa mantentzen dutela. Krisi-egoera sakonean soilik agertzen da estatuaren kontsistentzia sakona, baina batasun horren agerpena estatuaren kalterako da; salbuespena!!, Hau horrela izanik, esandako guzti hau ulertzeko toki pribilegiatua dugu Euskal Herria; zeren berau baitugu gaur egun munduko kontraesan nagusi berriaren -Nazio-Estatua-agerpenaren toki pribilegiatua.

Azken ikuspuntu honetatik ikusita hemen ditugu Ramón Jaureguik, PSOEko buruzagiak, argitaraturiko elkarrizketa batean esandakoak **[12]**. Bertan ongi azaltzen du zein betebehar ematen dien kazetari eta komunikabideei Euskal Herria eta espainiar Estatuaren arteko gatazkan. Kazetariak galdetzen dio zertara datorren PSOEren aldetik hainbesteko interesa Ajuria-Eneako paktuaren irizpideak komunikabide guztietara hedatzerakoan, eta ondoko hau erantzuten du: "*Eso se está produciendo prácticamente sólo... Nadie está influyendo. Se está generando una cultura colectiva en los medios de comunicación: se han asentado unos valores que facilitan el tratamiento más adecuado de todo lo que se refiere a este tema, aunque quedan algunos fallos semánticos*"

Albistearen agentetik gertakizunaren kazetarirantz

Arestian aipaturiko kazetarien tipologiara itzuliz, goazen bada Euskal Herritik eta aipatu estatuaren krisi-egoera sakonak ematen dizkigun abantailak profitatuz, kazetarien tipologia berri bat proposatzera. Horretarako, berriz ere, Dovifat-en taxonomiara **[13]** itzuli gara horren insufizientzia frogatu nahian, erabiliena eta aipatuena delako. Halaber, lehen aipaturiko Martínez Albertosek **[14]** Dovifat-en eskemari gehitzen dizkionak ere (izatez kazetaritza anglo-saxoniarraren

elementuak gehitzen dizkio) aipatuko ditugu. "*La búsqueda de las noticias está confiada a los ágiles **reporteros**; la organización, valoraciones, forma definitiva de los mensajes y plasmación concreta de la línea editorial corresponde a los oscuros **redactores**; la propuesta de juicios y opiniones mediante editoriales, comentarios y secciones de crítica corresponde al brillante cuerpo de **editorialistas***". (mundu anglosaxoniarrean horrela deitzen dira: ***news reporting***, ***news editing*** eta ***fair comment***).

Argi gera bedi aldez aurretik, klasifikazio orok daraman arbitrarietate-maila. Nolanahi ere, gure tipologia honek autore klasikoek eskaintzen diguten eskema, kazetariak praktikatzen duten generoaren arauera sailkatzen dituena alegia, gainditu nahi du. Lantzen duten generoaz gain, jarrera subjektibo eta profesional zenbait aztertu nahi dugu, eta gehiago zehaztuz, batez ere Lacanek **[15]** landutako subjektoaren teorian oinarrituta. Hasi aurretik, baita ere, argitu behar dugu proposatzen ditugun hauek ez direla tipo finkoak, kontzeptuak, ezta esperientziak ere; eskaintzen dizkizuegun hauek prozesuentzako izenak baino ez dira.

Edozein subjekturen eraketan parte hartzen duten kontzeptu oinarrizkoak,

Angustia Kuraia

Superegoa. Justizia

hauek baldin badira, kazetari-mota desberdinak egituraren efektuaren menpe ala diagonal imajinarioetan definitzen dira **[16]**.

Hasteko, **Kazetari eskribaua** dugu (Mtez. Albertosek "oscuro redactor" edo Warrenek "reportero local" deitzen dituztenak sartuko ditugu hemen). Kazetari hau, egoera, dagoen horretan, erabat ongi dagoelako sinesmen osoan dago murgilduta. Estatuaren logikan operatzen du. Berarentzat legea = informazioa = eritzia = Justizia; identifikazio hau modu perfektuan gertatzen delarik, ez da soberakinik gelditzen. Kazetari honek autonomia gutxien duena da. Instituzioetatik datorkion informazioaren menpe dago (agentziak, prentsaurrekoak, iturri ofizialak, zenbait dokumentu...). Objektibotasuna, agentziak eta iturri ofizialak dira bere oinarrizko erreferentziak. Ez da sekula ahalegintzen datu ofizialek edota komunikabidearen exigentzien harantzago, sakonago, joaten. Egiarekiko opakua da, nahirik. Ez du ezer arriskatzen. Ez du inoiz momentuko gauzen egoera kuestionatzen, ez eta berriaren bilaketan konprometitzen ere.

Bere lanean aurkitzen dituen arazoekiko intsensibilitate izugarria erakusten du, batez ere dagoena kolokan jartzen badute. "Espezializazio"rako joera handia du, hots, toki, espazio, genero berean urte luzeetan zehar mantentzeko. Gertakizunarekiko iragazkaitza da eta beraz, albistearekiko oso harkorra. Ez du legea inposaketa gisa sentitzen. Komunikabidearen araua, estatuarena, berezkoa zaio. Superegoan erabat kokaturik dago.

Estatuaren kazetaria (Mtez. Albertosen "editorialista" edo anglosaxoniarren "fair comment" sartuko lirateke hemen). Hau da gure ustez, eta ez aurrekoa, estatuaren egiazko kazetaria. Honen portaera Superego eta Kuraiaren arteko diagonal imajinarioan kokatuko litzateke. Kazetari-mota honen distirarik handiena estatuaren kontrako antagonismoa, bere hegemonia kolokan jartzen duena borrokatzerakoan agertzen da. Arlo politikoko gidaliburua Konstituzioa du. Hizkuntzaren aldetik, Real Academia. Formaren aldetik, diseinuagatik sarituriko egunkaria. Azken (eta lehen) erreferentzia, estatua. Funtsezko batasuna dutelarik, plural eta ugari gisa tratatzen dute informazioa. Beren luma loratuak albiste hutsak gertakizunak bailiran saltzen erabiltzen dituzte. Egiazko gertakizuna (gauzen egoera kolokan jartzen duena) agertzen denean berriz, balizko pluralismoa desagertu egiten da, iritzi publikoaren kazetari-statusa ematen zizkioten diferentziak alenatu egiten dira. Ikuspuntu desberdinak batean laburtzen dira. Biluzik geratzen da bere azken funtsa, estatuaren aparateroa, funtzionaria, da kazetari hau. Bere sinesgarritasuna honako erretorikan oinarritzen da: *Bai*... (estatuari beti bai) *baina* (ñabardurak, tragoa biguntzeko). Bere etika: "Iritziak ez du inoiz legearen alorra gainditu behar". Tipo honetan logika parlamentarioa isladatzen da: bigarren mailako gaietan, oposaketa-jokoa; funtsezkoetan, kontsentsua.

Beste aldetik, **kazetari ausarta** dago (Martínez Albertosen "ágil reportero", anglosaxoniarren "news reporting"); hemen egongo lirateke kronikari bidaiaria eta erreportari espreski joana. Kazetari-mota hau Angustiatik Justiziara doan diagonal imaginarioan mugituko litzateke. Hau da, gure ustez, kazetaritza modernoaren izarra. Kazetari honek ez du justizia (mundua hobetu daitekeelako printzipioa alegia) inondik ikusten, horregatik angustiaturik bizi da, eta funtsean, azken finean, honek ere Superegoa du azken erreferente. Bere etika diskordantziarena da. Egundoko arrakasta du. Eskribauak ez bezala, autonomia handia du, bai pertsonala, bai delegatua. Genero eta gai arruntak ongi lantzeak ez du asetzen kazetari hau. Aintza-egarri handia duela (irakurleen txaloak, bere lankideen enbidia/mirespena eta nagusien onarpena) informazioaren puntu beroak bilatzen ditu, horretarako bere lankide gehienek nahi ez dituzten arriskuak pasatzera ausartzen da. Eskribaua hirugarren pertsonaren atzean

izkutatzen saiatzen den artean, lehen pertsona (NIa) da kazetari ausarta agertzeko modua. Permitituaren eta debekatuaren arteko muga labainkorrean sarritan ibiltzeagatik, noizbait egia azalez ikutzen du. Nolanahi ere, egia beti kanpotasunean bizitzeak, eta dituen menpekotasun estruktural ugariek beti berreramaten dute buru-belarri murgildurik sartuta zegoen zurrunbilotik patxada informatibora. Sarritan bere kokagune estrukturala gainditzen duen arren, ez du inoiz hura apurtzen, hura delako, azken finean, bere esistentziaren arrazoia eta bere portaera esplikatzen duena. Leku estrainioetan agertzen bada ere, kazetari ausarta beti egongo da beste guztiek egongo dela espero duten tokian. Kazetari hau da etorkizuneko kazetarien bokazioak pizterakoan sistemaren eredu nagusia. Sakonean, kazetari ausarta eszeptikoa da, horregatik bere goiburua horrela labur daiteke: "Mundu baliogabetu honetan, bizi dezagun informazioa biziki".

Goazen orain ikustera nola bilakatzen diren aipatu prozesuak estatuarena ez den alorrean. Gure esparruan, ENAMek estatuari planteatzen dion antagonismoaren ondorio, badaude ere, gutxienez, kazetarientzako hiru figura, figura egongaitzak, eta kokapen ezinekoak.

Aparatuaren kazetaria. Aparatua esaten dugunean partidu edo erakunde politikoa esan nahi dugu. Figura honen subjektibitatea oso markatuta dago mugimendu orok (erakunderik iraultzaileenak ere badauka ezin-besteko aspektu hau) duen isuri estrukturalagatik. Aparatuaren kazetaria Erakunde Politiko Zaharrean dago (EPZ), eta erakusten duen kuraia faltsua izanik (imajinarioa) berak oker interpretatzen dituen herri-mugimenduetatik datorkio, -nahiz eta mugimendu sozialekin konfunditzen dituen- eta beti uste du dirigitu egin behar dituela. Dogmatikoa izanik, Superego eta Kuraiaren arteko diagonal imajinarioan mugitzen da.

Kontsignen kazetaria dugu hau. Lan egiten duen komunikabidearekiko desberdina den instantzia batetik datozkio irizpideak. Egiarekiko fideltasunaren aurretik beti jartzen du erakundearekiko fideltasuna, biak gauza bera direla pentsatuz. Bere lan informatiboak sektarismorantz jotzeko sekulako joera dauka: bultzatzen duen informazioa funtsean zerbitzen dituen erakundeetatik datorkio. Erakundeekiko pertsonekin gorespenaren etika erabiltzen du. Estatuaren komunikabideei kritikatzen dizkien prozedura manipulatzaileak erabiltzen ditu (zentsura, aparatuarentzat kaltegarriak diren datuen izkutatzea, disidentziaren desprestigioa, zurrumurruen hedaketa, barne-erantzun posibleen espioia...). Estatuaren kazetariak ez bezala, honek gizartearen problematika sozial eta politikoan murgiltzen dela ematen du, baina funtsean, egiten duena hauxe da: zerbitzen dituen erakunde partidarioen informazio filtratua trasmititu.

Erakundea herriaren gainetik dagoela pentsatzen du. Arruntki esaten den bezala "errealitatera astabelarritakoekin jaisten da". Bere jokaeraz galdetzen zaionean beti aipatzen du egitura ikusezin batzuen irizpidea legitimazio gisa. Figura honi kazetari militantea deitu izan zaio, gure ustez, erratuki. Guretzat kazetari militante bakarra egiarena eta kuraiarena da.

Aurrekoaren alor berberean dugu **Kazetari oportunista**. Bere etika "trepa"rena dugu. Bere meritua une egokian toki egokian egotetik edo egoten saiatzetik datorkio. Besteek kuraiarekin lortutakoa bere bezala pasatzen ahalegintzen da. Berria jaiotzeko puntuan dagoenean, hauek dira detektatzeko trebezia aparta erakusten dutenak, eta horregatik posizio pribilegiatuan kokatzen dira orduan. Hauek ere zuzenean pasatzen dira Angustiatik Justiziara, Super-egoaren bitartez, Kuraiatik pasatu gabe; Kuraia zirkuitulaburtu egiten du. Kuraiaz borrokatzen denak behar duen Justiziaren antizipazioa, kazetari noiz-nolakoak egituran duen toki pribilegiatuak ematen dion primiziarekin ordezkatu nahi du. Kazetari hau erraz detekta daiteke tronpatzen denean. Superegoak gogor jotzen duenean, lortzen duen informazioak engainatu egiten du, ez du Justizia berri baten aukera "objektiborik" ikusten. Egoera horietan, angustiak menperatzen du, eta erraz erortzen da fatalismoan, derrotismoan, pesimismoan; horrela, pausu okerrak ematen ditu eta bere burua agerian jartzen du.

Azkenik, **Egiaren kazetaria** dugu. Besteak ez bezala, hau -kazetari independientearen figura enblematikoa- ez da ebidentea, apustuaren emaitza baizik. Subjektuaren eskeman bere Superegoa Erakunde Politiko Berrian kokatzen da, Angustiatik pasatzerakoan Mugimendu Sozialen zalantzatik, Herri Mugimenduen dinamikan bilakatzen du bere Kuraia eta Justizian, Euskal Herria independente eta sozialista baten proiektua du buruan, ez utopikoki baizik pausoz-pauso lortu daitekeen zerbait bezala.

Gertakizunaren kazetaria izanik, herriaren arrazoiei die fideltasuna. Intuizioaren sujetoa, aldez aurretiko ikusmenaz baliatzen da. Ebidentziak eta datu objektiboez baino sintomez fidatzen da. Koalitatiboa eta egia (berria eta ustekabekoa) ditu irizpide eta ez gauza jakinak (ezagunak, jakingarria, inbentariaturik dagoena; albisteak funtsean). Justiziaren kazetaria izanik, konpromezu militantea du etikatzat; ez da komunikatzailea (ebidentzien igorlea) baizik eta kontzientzi zirikatzailea. Horregatik, bere informazio-esparrua arlo instituzionaletik at bilakatzen da gehienbat. Kazetari ausarta debekatuaren mugan ibiltzen bada maiz, baina hutsera (berriaren sorrera posiblera) zabaldu gabe, Egiaren kazetaria beti dago ertzean, oin bat errealitatearen egituran eta bestea hutsean; ondorioz askotan egoten da debekatua eta ezinezkoaren arloan. Ez du bere burua profesionaltzat jotzen bere baliabideak ez datozelako

fakultatetik, ezta esperientzia profesionaletik ere, baizik eta gizartean dauden kontraesanekiko konpromezu kontsekuentetik. Gizartearen parte hartzailea dugu, bere informazioa azaretik eta apostutik datorkio. Ausardia kanpotik barrura doan higidura den bitartean, kuraia barnetik sortzen den zerbait da eta bere galdera enblematikoa: "Injustizien aurrean, zer egin?". Horregatik, bost axola zaizkio komunikabidearen zein jendearen alabantzak. Ez du lanordu finkorik, ez baita langile arrunta baizik eta egiaren arakatzaile porrokatua.

Lan egiterakoan ez da egoten besteen informazioaren zain, ez eta bere partidu politikoaren kontsignak itxaroten ere, ez da edozein saltsatako abentureroa, ez eta pluralismo parlamentarioko kontzientzia tele-zuzenduen gidaria ere. Bere lan-tresna pribilegiatua inkesta koalitatiboak dira. Funtsean, hau da informazioaren egiazko subjektua.

Bibliografia

1.- MARTINEZ ALBERTOS, J.L.*: El lenguaje periodístico*, Paraninfo, Madril, 1989, 207 orr.

2.- MARTINEZ ALBERTOS, J.L.: *Curso general de redacción periodística*, Mitre, Bartzelona, 1983, 203 orr.

3.- Salbuespen bi -funtsean hedabideen sinesgarritasuna eta efikazia informatiboagatik-desagerpen horretan: espreski joandako kronikari edo erreportari berezia (enviado especial delakoa) eta artikulugile-zutabegilea. Oso esanguratsua da Martínez Albertos ikerlariak dioena kazetaritza-generoa den informazioaz aritzerakoan: "*No hay sitio para el yo del periodista" eta baita ere, "Es un género escrito por un reportero o reelaborado por un redactor"*. Aurrerago, erreportajeaz ari dela: "*... tampoco es aconsejable que el periodista emita contínuamente juicios propios sino que, por el contrario, debe objetivar su pensamiento*". Curso de redacción... op. cit. 280 orr. eta hurrengoak.

4.- Gaztelaniazko bertsiorik zaharrena: *Periodismo*, UTEHA, Mexiko, 1963. II ale.

5.- WARREN, Carl: *Géneros periodísticos informativos*, Mitre, Bartzelona.

6.- Ikus MARTINEZ ALBERTOS, J.L.: *El lenguaje periodístico*, op. cit. 210 orr. eta hurrengoak. Lan honetan, egileak, kazetariaren lana eta parlamentariarena oso modu interesgarrian parekatzen ditu; hona hemen zati esanguratsu bat: "*Los ciudadanos **delegan** su derecho a la libertad de expresión a favor de unos ciudadanos concretos -vamos a llamarlos ya periodistas- para que estos sean los administradores eficaces y honestos de una riqueza social de valor insustituible: la información. Esta delegación es **similar** a la delegación que esos mismos ciudadanos hacen a favor de otros convecinos suyos para que les representen en el Parlamento legislativo y ejerzan el poder ejecutivo en los órganos de Gobierno*" negritak gureak dira)

7.- MERRILL, Jon C. & LEE, John & JAY FRIEDLANDER, Edward: *Medios de comunicación social. Teoría y práctica en Estados Unidos y en el mundo.* Fundación Germán Sánchez Ruipérez, Madril, 199

8.- SECANELLA, Petra M.: *Periodismo de investigación*, Tecnos, Madril, 1986, 21 orr.

9.- WHITE, Aidan. ELA-STV. *Astekari sindikala*-n egindako elkarrizketa.
1991ko martxoak, 4. 407. zenbakia.

10.- ikus SECANELLA, P.M.: op. cit. 20 orr. Baita ere TUCHMANN, Gaye: *La producción de la noticia*, Gustavo Gili, Bartzelona.

11.- "On voit très bien... pourquoi l'Etat est à la fois absolument lié à la présentation historico-sociale, et cependant en est separé". BADIOU, Alain: *L'etre et l'événement,* Seuil, Paris, 1988, 123 orr.

12.-EGIN, 1991ko martxoaren 18an. 6. orrialdean.

13.- op. cit. *Periodismo*, I alea, 21-26 orr.

14.- El lenguaje... op. cit. 217 orr.

15.- LACAN, Jacques: *Écrits* eta *Séminaires*, Pariseko Seuil argitaletxean.

16 -ikus AGIRRE, J. "Del agente de la noticia al perodista del acontecimiento", in *EGIN*, 1991, urriak, 26. 19 orr.

Jesus Mari Zalakain Garaikoetxra, Nikolas Xamardo Gonzalez

UPVtik kaleratutako irakasle doktoreak

Komunikazioa eta kazetaritza

Citizen Kane, hedabideak, boterea eta beren mugak (*UZTARO* 52, 2005:35-74)

Laburpena

Orson Welles-en *Citizen Kane* aztertzean, autoreek ez dute filmaren ezaugarri teknikoak zein estetikoak miatu nahi izan, baizik eta zinemaren eta artearen maisulan horrek hedabideei eta botereari buruz dioena. Beraz, ahalmen eta miseriei buruzko eta, batik bat, hedabideen ahalmen eta miseriei buruzko diskurtso garbia azaltzen baita filmaren mami-mamian.|

Abstract

In their analysis of Orson Welles' Citizen Cane film, the authors of the paper did not want to examine the technical and aesthetic features, but what this cinema masterwork says about media and power. In fact, at the core of the movie there is a clear discourse on the capabilities and miseries of power and, above all, on the possibilities and shortcomings of the media.

FITXA TEKNIKOA

Titulua: Citizen Kane
Ekoizpena: Radio Keith Orpheum (RKO)
Zuzendaria: Orson Welles (
Gidoilariak: Orson Welles eta Herman J. Mankiewicz
Gainerako kolaboratzaile teknikoak: Robert Wise, Mark Robson, Gregg Toland
Aktoreak: Joseph Cotten, Ray Collins, Agnes Mooreheard, George Coulouris...
Estreinaldia: 1941eko apirilaren 9a: Aldi berean New York-en eta Los Angeles-en

0. Aurkezpen gisa

Idazten hastea zeregin neketsua izanik, are neketsuagoa da hasierak zerikusia badu klasikoen pentsamenduarekin, eta bereziki klasikoa antonomasiaz denean klasiko (*Citizen Kane* zinemaren historiako filmik handiena ote den uste dute askok); baina zeregina korapilatu egiten da eduki-tokia —zinematografia, alegia — idazten duenaren espezialitatea ez denean.

Alabaina, hasiera-hasieratik adierazi beharra daukagu, ez zaizkigula hemen hainbeste axola filmaren arazo teknikoak —zineman adituek behin eta berriro aztertu dituztenak, bestalde—; orain aztergai dugun film hau zazpigarren arteari buruzko azterketen adibide eta paradigma izan baita, besteak beste, lan honen amaieran jarri dugun bibliografiak argi adierazten duenez. O. Welles-ek berak (O. Welles eta P. Bogdanovich, 1994:129) mugatzen ditu batzuek filmari esleitzen diz-kioten berritasun teknikoak eta originaltasuna, esanaz ezen Nazio baten jatorriak benetako berrikuntzak ekarri zituela —lehen planoa, mugimenduan hartutako har-tualdiak, dena—; izan ere, "film horretan baitago zinemaren lengoaia, oso-osorik". Beraz, orriotan aztertu nahi dugu filmetik benetan interesatzen zaiguna, hots, filmak mintzagai duena, hau da, boterea, bere handitasun eta miseriekin. J. Lacan-ek (1966:115-116, 130-137, 360, 434, 619, 653, 683-684, 769) *Surmoi* (*Super-nia/Superegoa*) deitzen duen boterearen figura, hain justu. Hots, botere bortitza, auzitan jartzen denean bortizki erantzuten duen boterea. Boterearen aurpegi izu-eragilea, arbitrarioa, ilegala eta basatia; haren indarra eta ahulezia.

O. Welles-ek, historian zehar botereak hartu dituen formak hain ondo eza-gutzen zituenez —Kreontek Estatuaren boterearen figura despotikoa eta basatia sinbolizatzen du Sofoklesen *Antigona* tragedian; koroa da boterearen eta bere mekanismoen irudia Shakespeare-ren tragedietan, antzerki-gizon eta zinemagile gorena izandako harengan hainbesterainoko eragina izan zutenak, bestalde; etab.—, bere garaiko masa-komunikabideetako handiki batengan hezurmamitzen du betiko gai hau, boterea. Ameriketako Estatu Batuetako inperioarekin batera. hedabide horiek laugarren boterea osatzen dutela esan genezake, eta halaxe dira ezagun gaur egun, laugarren botere gisa.

Kontuan har dezagun, Alain Badiou (1990) filosofo frantziarrak adierazten duenez, antzerkiaren, boterearen eta subjektibotasunaren artean betidanik izan den harremana. Antzerkian, eta "zazpigarren artea" deritzon honetan, zeinarekin hainbeste elementu partekatzen dituen, boterearekin zerikusirik duten tentsio eta mugimenduak landu dira, *prozesu subjektiboko* figurek hain ondo errepresentatzen dituztenak: Kreontek, *supernia*; Antigonak,

angustia; Prometeok, kuraia; Orestesek, justizia. Eta *Citizen Kane* filma ere bide horretatik dabil. Wells-en obraren kritiko gehienek aipatu dituzte zinemaren eta antzerkiaren arteko harremanak.

Zinema-alorreko gertakizun honek, gizakiaren maisulan gehienetan gertatzen den bezalaxe, unibertsalaren eta partikularraren arteko lotura hautsezina erakusten du. Hau da, zinemaren historiako film nagusitzat hartua izan den honek ederki asko biltzen du bere baitan hedabideen eta boterearen arteko erlazioa une zehatz eta herrialde zehatz batean kokatuta. Sakonki amerikarra izateak, hau da, XIX. mendearen bukaerako eta XX. mendearen hasierako gizarte amerikarraren indarguneak, tentsioak eta joerak modu garaiezinean erakusteak egiten du film hau unibertsala. Eta horrexegatik interesatzen zaigu gizakia garen neurrian, nahi eta nahi ez kokatuta dagoen denbora eta espazioa baino harago.

Citizen Kane-k, edozein artelanetan gertatzen den moduan, munduaren konplexutasunaren aurrean kokatzen laguntzen digu, sinplifikatuz; hots, gizarte konkretu baten giltzarriak antzematen, ulertzen laguntzen digu, mekanismoak ezagutzen, emandako datuak baino harago joaten. Errealitateari aurrea hartzen, boterearen handitasuna eta ahultasuna erakusteko: hedabideen botere erraldoia eta bere mugak. Hedabideen boterea edo/eta boterearen hedabideak.

Horren froga da ezen, gertakari erreal, ezagun batetik abiatu arren —William Randolph Hearst prentsa-gizon handiaren bizitzatik—, O. Welles-ek eta H. Mankiewicz-ek filmaren gidoian egin zioten "tortsioa" hain izan zen handia non AEBko pertsonaia garrantzitsu baten historia, une konkretu baten bizitza, erabateko artelan bihurtzen den.

Hau da, gertakizuna den heinean, *Citizen Kane*-k denboratik kanpoko eta gizatasunez eterno bihurtzen du, izatez, denborazkoa eta galkorra den zerbait. Hilezkor bihurtu zuen R. Hearst handikia, zeinak filmean ikusi zuena atsegin izan ez zuenez, bere eskura zegoen eta ez zegoen guztia egin baitzuen filmazioa eragozteko lehenik, eta hedatzea gero: zentsoreak estutu zituen, filma erosten saiatu zen, suntsitzeko, zuzenean edo zeharka kontrolatzen zituen zinema-aretoetan eta zinema-kateetan eman ez zezaten eragin zuen, eta abar, eta abar. Horrek erakusten digu argi asko maisulan bati gertatzen ohi zaiona: hastapenetan jendeak baztertu arren, eta *Radio Keith Orpheum* (RKO) enpresari ekarri zizkion galera ekonomiko handiak alde batera, *Citizen Kane,* ezer inposatu gabe, azkenean denen gainetik inposatzen dela. Horixe da errespetuaren oinarria, ezer ez inposatzea. Errespetua gizartearen intolerantzia gainditzeko premiazko bertutea da, gainera, nahi eta nahi ez, obra batek

gizarteko intolerantziarekin egingo du topo baldin eta aztertzen ari garen maisulan baten tamainako berritasun-gradua badauka bere baitan.

Egia esan, *Citizen Kane gaizki ikusia eta madarikatua i*zan zen bere garaian, erroz berria den edozeini edo edozeri gertatzen zaion bezalaxe, Beckett-ek (1980) azaltzen duenez. Gaizki ikusia, *erregistro imajinarioan,* diogu guk, maila ikonikoan egindako berritasunek, gauzak begirada arrunt eta normalez begiratzeko ohitura zutenei, ekartzen zizkien zailtasunengatik. Gaizki ikusia, *erregistro moralean,* edo arauzkoan, zeren gehienen begiradak, moralari dagokionez, normaltzat, ezaguntzat jasotzen zuena arau bihurtu baitzen, eta, ondorioz, arbuiatu egiten baitzuen edozein berritasun tekniko, alterazioa edo transgresioa zekarrelako.

Gaizki esana edo madarikatua, *maila sinbolikoan*, ongi esatearen (ondo, hitz egin, ondo idatzi, ondo figuratu, ondo errepresentatzearen) arauekin ados esaten ez den guztia gaizki esanda baitago eta gaizki esana da (erregistro arauemailean, akademikoan), eta gaizki esanda dagoena, gaizki dagoena, madarikatuta dago (erregistro moralean) eta, beraz, baztertua izan behar da, gaitzetsia. Erregistro imajinarioa eta morala beti batera ibiltzen direnez, gaizki esana beti gaizki ikusita dago, eta ondo esana beti ondo ikusita dago. Ezaguna denez, klasikoek —gerora ondo ikusiaren eta ondo esanaren eredu bihurtu direnek— beren garaiko erregistro imajinarioa eta sinbolikoa behartu behar izan zuten beren berritasun iraunkorra formulatu ahal izateko. Gauza bera gertatu zitzaion *Citizen Kane* filmari; kontinente zinematografikoan, gaur egun ondo esanaren eta ondo ikusiaren eredu ukaezina eta ukatu gabea bihurtu den filmari. Gertakari hori betiko gogoan hartzeko zerbait da, dialektikaren legea baita, zaharra berriaren kontra, jakinduria egiaren kontra, errepikapena berritasunaren kontra dabilena hain zuzen, hots, imajinarioa eta sinbolikoa errealaren kontra. Hasiera-hasieratik filmaren errozko berritasunaz jabetu ziren kritiko bakar batzuk kenduta, *Citizen Kane* estreinatu eta hamarkada batzuk beranduago iritsi zen jendartera.

Esan berri dugunez, *Citizen Kane* komunikazioari eta botereari buruzko edo botereari eta komunikazioari buruzko filma da. Hein horretan eta horren arabera interesatu zaigu eta aztertu dugu film hau. Gure iritziz, komunikabideek ahal dutenari eta ezin dutenari buruzko adibide paradigmatikoa da.

Horregatik interesgarri deritzogu film hau botere- eta komunikazio-alorretik pentsatzeari, bi elementu horien arteko erlazio, mendetasun, handitasun eta ahulezietatik abiatuta. Iruditik sentimenduetara, eta sentimenduetatik ideiara doan ibilbidea eginez, Alfonso Palazón-ek (1998: 24) gomendatzen duen bezala.

1. Filmaren egitura

Citizen Kane filmak bi zati bereizi ditu, formalki osagarriak baina izaeraz desberdinak direnak, lanean zehar erakusten saiatuko garenez. Filmaren egiturak erreportajearen forma du, eta prentsako handiki baten bizitza eta heriotza kontatzen ditu. Lehen zatia erreportaje interpretatzailea da, eta, bigarrena, erreportaje sakona edo erreportaje handia.

Filmaren hasierako lehen irudiak RKO produktorearen antena transmisorea erakusten du, non RKO produktorearen izena ageri den, gero *Mercury Production*-ena, eta gero O. Welles-ena, eta, azkenik, filmaren titulua. Kamerak burdin sarea erakusten digu, non *No trespassing* dioen txartela esekita dagoen. Burdin sarearen beste aldean, koltzak, kantzelak, tximinoak kaiolan eta bi gondola. Urrutiago, laino artean, gaztelu bat muino baten gainean, leiho bat argitan duela. Kristaletan zehar, hilzorian dagoen norbaiten ohantzea antzeman daiteke. Elurra ari du gogotik, eta maluten artean txabola bat ikusten da. Esku batek kristalezko bola bati eusten dio, zeinaren barnean txabola txiki-txikia ageri den, elurrez estalita. Ezpain batzuei hitz bat darie: *Rosebud*. Kristalezko bola bizirik gabeko eskutik jausi da, eta txiki-txiki egin da maila baten kontra. Erizain bat sartu da hildakoaren gelara. Hildakoaren besoak gurutzatu ditu, eta aurpegia estali dio izara batez. Irudi horiek filmaren beraren eta filmak kontatuko duen istorioaren aurkezpenak dira.

Lehen zati honen muin informatiboa *News on the March* albistegi famatuarekin abiatzen da, zeinean kristalezko bola eskuetan zeukan eta *Rosebud* hitz enigmatikoa esanaz hil berri den pertsonaiari buruzko informazioa ematen den.

Lehen erreportajearen egitura —informatzaile/interpretatzaile defini dezakeguna- generoan usu erabilitakoa da, albiste nekrologikoa edo. Gisa horretako komunikazioan erabilitako kontakizuna edo errelatoa, heriotzari buruzko informazioa eman ondoren, ordena kronologikoari lotzen zaio, lehen paragratoan hil berri den pertsonaren bizitzako gertakari eta jazoera nagusiak kontatuz. Filma ere ordena horri lotzen zaio, oro har.

Pertsonaia kokatu eta bere garrantzia seinalatu ondoren —Xanadü jauregiaren eta hango ondasunen deskripzioa eginez—, jabea, Charles Foster Kane, hil egin dela esaten zaigu. Ikusleak badaki, azkenean, hiltzen ikusi berri duen pertsonaren izena.

Ondoren —aurreko informazioa eta Kane-ren jatorriari buruzko kontakizun kro-nologikoa lotzen dituen paragrafo batean—, erreportajeak hildakoaren jarduerari eta haren garrantziari buruzko datu berriak eskaintzen

dizkigu: punta-puntako komunikazio-, enpresa- eta industria-multzo handiaren baten jabea zen.

Jarraian, Kane-ren eta bere ondasunen jatorria ematen zaigu, eta Thatcher albazearen adierazpenak. Kane-ri komunista izatea leporatzen dio albazeak, eta horrek prentsaren handikiaren iritziekin lotzeko balio du. Eta gero, haren botere mediatikoa politikoki erabili izana adierazten duten erreferentziak datoz.

Handikiaren ezkontzak eta dibortzioak. Kane-ren jarduera politikoa. Enpresen krisia eta berreskuratzea, depresio ekonomiko handiaren ondoren. Europatik itzuli zela aprobetxatuz egiten zaion elkarrizketak handi-mandiaren eragin eta sinesgarritasunaren galera argitzeko erabiltzen du Welles-ek; eta, aldi berean, kontakizunaren azken zatiari lotzeko: Charles Foster Kane-ren bakardadea, gainbehera, zahartzaroa eta heriotza adierazteko, hain justu.

Erreportajea amaitzean konturatzen gara ezen ikusitako guztia Thompson kazetariak bere lagunei ikusaraziko dien albistegia izan dela. Lanaren interes-falta dela eta, lagunek *Rosebud* hitzak zer esan nahi duen ikertzera bidaltzen dute Thompson kazetaria. Horretarako, Kane-rekin harremanen bat izan zuten guztien adierazpenak jaso beharko ditu.

Horrela hasten da filmaren bigarren zatia, erreportaje sakonaren forma hartuz, non, *Rosebud* hitzaren esanahiaz galdetzean, elkarrizketatuek Kane-ren nortasunari buruzko adierazpenak egiten dituzten, hasierako albistegian axaletik baino aztertzen ez zelako alderdi hori.

Kane-ren bigarren emazte Susan Alexander elkarrizketatzeko huts egin ondoren, Kane-ren Thatcher tutorearen memoriak kontsultatzen ditu Thompson-ek; ondoren, Bernstein idazkariarekin eta Leland lagun minarekin mintzo da. Azkenean, Susan Alexander-ekin hitz egitea lortzen du, eta, azkenik, handikiaren maiordomo Raymond-en adierazpenak jasotzen ditu. Kane-ren nortasunari buruzko bertsioa ematen dute, bakoitza nolakoa den eta hildakoarekin izandako harreman-motaren arabera.

Amaitzeko, filmak hauek erakusten dizkigu: *Rosebud* hitza inskribatuta duen lera, su hartu baino lehenagoko unean; *No traspassing* dioen txartela eta aktoreen izenak.

Arestian esan dugunez, *Citizen Kane*-ren bigarren zatiak Charles Foster Kane handikiaren bizitzari buruz lehen zatian emandako informazio-nukleoak zabaldu, sakondu eta osatzen ditu. Hori dela eta, filma zehatz-mehatz ikertu ondoren, Antonia del Rey-k (2002:75-77) dio haren egitura narratiboa "kutxa txinatarren labirinto espekularra" bezalakoa dela.

2. Masa-komunikazioaren izaera

Esan berri dugunez, erreportajea —filma egituratzen duen kazetaritza-generoa, alegia— komunikazio-eremua, bere teknika eta efektuak ongi ezagutzen dituen baten obra da. Gogora dezagun ezen O. Welles —batik bat antzerki- eta zinema-gizona— irratiko komunikatzaile aparta izan zela. Kontuan hartzea baino ez dago *The March of Time* programa herrikoian parte hartzen zuela, non berriek albistegi-formatua hartzen zuten lehenik, eta zinemako erreportajearena gero. Nabarmena da, gainera, *The March of Time* programaren eta filmeko News on the March-en artean dagoen erlazioa.

Gogora ekar dezagun, baita ere, ezen, 1938ko Santu Guztien (*Hallowe'en*) eguneko bezperan O. Welles-ek izu-ikara sortu zuela AEBko milioika irrati-entzuleen artean, sinetsaraziz New Jersey inbaditzen ari zirela. Irrati-programa H. G. Wells-en *Munduen arteko gerra* izeneko eleberri ezagunean oinarritzen zen, eta O. Wells-en irrati-programak mass-medien efektuei buruzko hainbat eta hainbat analisi merezi izan ditu.

Beraz, Orson Welles-ek ederki asko ezagutzen zituen komunikazio-prozesu masiboak, haien mekanismoak, prozedurak, teknikak, legeak, ezaugarriak, propietateak eta efektuak. Edo, beste modura esateko, haien aukerak eta mugak.Ikus dezagun, orain, filmak dioskuna horri guztiari buruz.

Lehen erreportajearen proiekzioa amaitzean, albistegiaren erredaktore-buru Ralwston-ek egiten dituen komentarioetan dago, guk, *Citizen Kane* filmari buruz oinarritzen dugun interpretazioaren giltzarria, hots, hedabideek Kane-k egin zuena baino ezin dutela kontatu; baina hedabideen bitartez ezin dugula jakin hura nor zen bene-benetan. Horregatik sentitzen du Welles-ek bigarren erreportajea egiteko premia.

Arestian esandakoan sustraitzen da, gure iritziz, komunikazio-prozesu masiboen izaera: gertatutako zeraren berri eman dezakete, bai, baina ezin dute argitu nor zein den, nolakoa den eta zergatik egin duen egindakoa. Hau da, objektuaz mintza daitezke, baina ez subjektuaz.

Beraz, zera argitzen saiatzen diren informazio-sistemak etenik gabeko komunikazio-prozesuak direla esango dugu. Izan ere, sakoneko ezerk ez baitu mozten gertakaritik hartzailearengana doan bidea, igorlea, mezua eta hedabidea zeharkatu ondoren; edo existitzen ez delako, hau da, ezer sakonik ez dagoelako, edo bere izaeran harrapatzerik ez dagoelako; hots. komunikatzeko modu hau baino harago dagoelako, bertan sartzerik ez duelako, alegia.

2.1. Etenik gabeko komunikazio-prozesuaren nondik norakoa

Komunikatzeko modu honen aukerak eta mugak prozesuari berari atxikiak dira.

Masa-komunikabideen prozesuak edo etenik gabeko komunikazioak berez dituen ezaugarriek —berritasuna, aldizkakotasuna, orokortasuna, eta ahalik eta hedapenik zabalenak— beren mugak ezartzen dizkiete, eta masa-komunikabideek gertatutakoa objektibatu besterik ezin dute egin, bai gertakariei badagokie, zein pertsonei. Horregatik lehenesten da hedabidea bera prozesuaren beste edozein elementuren gainetik, eta horregatik esaten da objektibotasuna dela informazioaren helburu desiratua, eta horrexegatik aitortzen da mezuak masiboa izan nahi badu, orokorra izan behar duela; esan nahi baita, publiko heterogeneoak ulertzeko modukoa. Mekanismo horiexek nagusitzen dira, beraz, *News on the Marc* izeneko erreportajeak Kane-ri buruz ematen digun bertsioan. |

Aurreko postulatuen oinarriak agerian uzteko, filmeko lehen albistegia aldatuko dugu hona, hau da, Xanadú jauregia deskribatu ez ezik, hango Ch. F. Kane nagusi jaunaren heriotzaren berri ere ematen duena:

> Inoizko Xanadú hartan eraiki zuen Kublai Khan
> -ek bere jauregi ikusgarria. Gaur egun hura bezain ikusgarria da Floridako Xanadú, munduko etxalderik handiena.
>
> Hemen, golkoko kostaldeko basamortuetan eraiki zen arrakastaz mendi partikular itzela: ehun mila zuhaitz eta hogei mila tona marmol dira Sacro izeneko mendiaren osagaiak.
>
> Xanadú jauregi barruan dagoenak, hots, koadroek, pinturek, estatuek eta beste hainbat jauregitako harriek, ezin konta halako bildumak osatzen dituzte, kataloga ezinezkoak eta baloratu ezinezkoak. Hamar bat museo osatzeko adina bai, badago Xanadú-n.
>
> Xanadú-ko kortak, txoriak, arrainak, oihaneko abereak (mota bakoitzeko bikote bana) Noeren garaitik inoiz ikusi gabeko zoologikoaren kide dira.
>
> Faraoien antzera, Xanadú-ko jabeak harrizko testigantza ugari utzi zituen bere hilobia seinalatzeko. Piramideez geroztik, Xanadú da inoiz inork bere burua omentzeko egin duen monumenturik garestiena.
>
> Joan den astean, hemen, Xanadú-n, lur eman zioten bertako jabeari, gure mendeko figura handi-mandiari, Ameriketako Kublai Khan: Charles Foster Kane-ri.

AEBko jendeari eta munduari zendu berri den pertsonaiaren berri emateko, agiriak hainbat prozedura sintaktiko, logiko-diskurtsibo, estilistiko eta erretoriko erabili behar ditu, mezua hartzaile heterogeneoengana helarazteko modukoak, hau da, heterogeneo terminoak duen zabaltasun osoa besarkatuz, hots,

kulturaz, ideologiaz, adinez, sexuz, erlijioz, giza izaeraz eta abarrez heterogeneo den jendearengana.

Komunikatzaileak bere egitekoa txukun betetzeko baliatu dituen errekurtsoak dira: konparazioa, zenbaketa, analisia eta metonimia.

Testuak darabilen egikaritze logiko, estilistiko eta sintaktiko emankorrena konparazioa da; hau da, pentsamenduaren bi edo objektu gehiagoren artean berdintasunak edo/eta desberdintasunak jasotzea ahalbidetzen duen errekurtsoa, hain justu: konparazioa. Ezinbestekoa egiten da formula hori erabiltzea, zendu berri den pertsonaren nabarmentasuna mota guztietako publikoari aditzera emateko. Beraz, pertsonaia eta haren ondasunak inoizko beste pertsonaia eta egoera ospetsuekin alderatzen ditu, aktualitateko informazioa jaso behar duen publiko zabalak ustez ezagutuko dituelakoan, noski. Konparazioa eginez, ezezaguna dena ia hartzaile gehienek ezaguna, jakina dutena adieraziz komunikatu nahi du kazetariak, ustez jende gehienaren ondasun komuna delakoan; egiaz ezaguna izan zein ez, ordea.

Kontakizuna bi ondasun parekatuz hasten da, Kublai Khan buruzagi mongolaren jauregi mitikoa eta Floridako Xanadú-n eraiki dena, azken hori munduko etxalde partikular handiena dela azpimarratuz, gainera.

Jarraian, jauregiaren kokalekua deskribatzen du: "Hemen, golkoko kostaldeko basamortuetan eraiki zen arrakastaz mendi partikular itzela". Zenbatuz edo metatuz, osotasun horren alderik orokorrenak enuntziatzen dira, mendi pribatu eta artifizial handienaren zatiak: "Ehun mila zuhaitz eta hogei mila tona marmol dira Sacro izeneko mendiaren osagaiak". Jada Aristoteles jabetu zen analisiaren egikaritze logikoak —hots, osotasun bat zatitan banatzeak—, anplifikazioa erabiliz, limurtzeko eta komunikatzeko zeuzkan posibilitateez. Ezaguna da baita ere sintesiaren efektu kognoszitiboa: osotasunaren eta parte osagarrien arteko erlazio berria.

Ordezkapena baliatuz, kontakizuna osotasunetik —menditik— parterik esanguratsuenera doa —Xanadú-ko jauregira —. Baliabide honi, ekibalentzian, konparazioan eta termino bat beste baten ordez erabiltzeari, sinekdoke esaten zaio.

Ondoko hauxe da sinekdokearen logika: parterik esanguratsuena, jauregia, dena balitz bezala ageri da, mendia balitz bezala; edo beste modu batez esanda, Xanadú mendiaren tokian ageri da Xanadú; eta areago, Xanadú Sacro-ren ordez.

Jauregia eta jauregiko nagusiaren ospe handienaren hobe beharrez.

Zenbaketa-lan gehiago dator gero: "Hemen, golkoko kostaldeko basamortuetan eraiki zen arrakastaz mendi partikular itzela: ehun mila zuhaitz eta hogei mila tona marmol dira Sacro izeneko mendiaren osagaiak".

Xanadú jauregi barruan dagoenak, hots, koadroek, pinturek, estatuek eta beste hainbat jauregitako harriek, ezin konta halako bildumak osatzen dituzte, kataloga ezinezkoak eta baloratu ezinezkoak. Zenbaketa kualifikatu horiek itxiera logikoaren zeregina eta balioespena betetzen dute, hots: "Hamar bat museo osatzeko adina bai, badago Xanadú-n".

Egitura berbera du Xanadú-n dauden abereen zerrendak, modu superlatiboan: "Xanadú-ko kortak, txoriak, arrainak, oihaneko abereak (mota bakoitzeko bikote bana) Noeren garaitik inoiz ikusi gabeko zoologikoaren kide dira".

Hurrengo paragrafoan, Xanadú-ko jabea faraoiekin konparatuz, lehen zatiari amaiera emango dion albistea ematen da, hain jauregi ederraren jabea hil dela, hain justu: "Faraoien antzera, Xanadú-ko jabeak harrizko testigantza ugari utzi zituen bere hilobia seinalatzeko".

Piramideak eta Xanadú jauregia parekatuz edo, aurreko ideia garatu eta balioesten da: "Piramideez geroztik, Xanadú da inoiz inork bere burua omentzeko egin duen monumenturik garestiena".

Erreportajearen lehen zatiko azken paragrafoak ideiaren mamia jasotzen du, hots, Xanadú-ko jabearen heriotza, eta beste datu batzuk: noiz, nor, non... Eta dena ixteko, identifikazioa: Charles Foster Kane Ameriketako Kublai Khan da: "Joan den astean, hemen, Xanadú-n, lur eman zioten bertako jabeari, gure mendeko figura handi-mandiari, Ameriketako Kublai Khan-i, hots, Charles Foster Kane-ri". Gogoratu, kontakizun informatiboan bi pertsonaiak konparatzen direla euren jauregiak konparatuz, eta azkenean identifikatu egiten direla.

Beraz, hildakoari buruz esandako guztiak bigarren erreportaje baten premian oinarritutako tesia baieztatzen du: Kane-ri buruz dakiguna, bere ondasunen bidez ezagutzen dugu; baina hori ez da aski benetan nor zen ezagutzeko. Edo beste era batera esanda, Kane, daukanaren metonimia den heinean, komunikagarria da; baina Kane, nortasunaren metafora den neurrian, komunikazioa baino harago dago. Izan ere, metonimia publiko masiboraino iristen da, konparazioaren emaitza baita; aldiz, metafora, ez, asmaketaren fruitua baita. Gogoan izan dezagun idazketako esku-liburuek kazetaritza-generoetan metaforak ez erabiltzea gomendatzen dutela, hizkera estandarrean ezagunak izan ezean.

Prozedura horretantxe dautza, ordea, masa-komunikazioetako prozesuen indarra eta ahulezia. Indarra, milioika lagunei egitate albistegarri bati buruz informatzeko aukera ematen dielako; eta ahulezia, hartutako informazioaren izaeratik bertatik datorrena: informazioa orokorra da, axalekoa, berritasun gutxikoa, iraunkortasun laburrekoa eta ondorio eskasekoa. Heda daitekeen bakarra kantitatea baita, objektiboa, kanpokoa, zera; eta ez kualitatea, subjektiboa, barrukoa, nortasuna.

Hildakoaren figura handitzea bilatzen den heinean —bere maila eta gisako pertsonaiekin konparatuz, bere ezaugarriak analogiaz nabarmenduz—, lortzen dena da, konparazioaren terminoa termino konparatuari gailentzea, eta interesa horretan zentratzea. Hots, ezagutzera eman nahi den hura bera (albistegarria, oraindik ezagutu gabea), ustez gizartearen jakinduriaren parte den beste haren zati eta menpe ageri da (albistegarri ez denaren, jada ezaguna denaren menpe). Horregatik diogu ezen konparazioa kanpotiko egikaritzea dela; bi termino desberdinen ezaugarri berdinak erlazionatzen dituela; baina modeloaren ezaugarrietatik abiatuz, eta ez gertakariaren ezaugarrietatik. Gainera, prozedura honek, ezberdintasunean dauden berdintasunak nabarmenduz, konparazioaren termino bakoitzean dagoen espezifikoa, benetan ezberdina eta propioa alboratzen du. Eta bereziki informatu nahi den terminoarena, hain zuzen. Pertsona bat edo objektu bat beste pertsona baten edo objektu baten bidez aditzera ematen badut, argi dago non dagoen informazioaren interesa. Hau da, ezagutzen ez dena publiko masibora iristeko, aldez aurretik ezaguna denaren bitartez iritsiko da, baina dakigun emaitza jasoko da: ez dela benetan ezagutzen.

Kanpoko izate hori are nabarmenagoa geratzen da zenbaketan eta handik eratorritako konparazioan: ez batean ez bestean ez da ezer esaten pertsonari buruz, pertsona eta bere ezaugarriak dauzkan ondasunetatik datoz. Kane berdin Xanadú, berdin Floridako Xanadú, berdin Khan, berdin faraoiak, berdin piramideak, berdin Noeren kutxa... Hots, ahalik eta gehien hedatu nahiak kantitate, orokortasun, kanpoko, objektu bihurtzen du etenik gabeko komunikazio-prozesua. Beraz, esanahi osoa eta sakona hartzen du filmaren parte honi buruz filma ikusten dutenek egiten duten balioespenak: "Egin zuena baino ezin dugu kontatu: Ez dakigu nor zen benetan".

3. Kontakizun kronologikoa

AEBko eta munduko prentsa prestigiotsuaren bitartez ezagutzen dugu Kane-ren heriotzaren oihartzuna. Trantsiziozko paragrafo baten bidez —zeinak hildakoaren zereginen, haren ondasunen izaeraren eta handik datorkion

boterearen berri ematen digun—, pertsonaiaren bizitzaren kronologiari egiten zaio bide.

> *Kane-ren jatorri apalak etxe xume honetan du hasiera. Kane-ren inperioa, gorengorenean, 37 egunkarik, 2 sindikatuk, irrati-sare trinkoak osatzen dute. Inperio bat beste baten gainean. Janari-dendak, paper-fabrikak, hainbat eraikuntza, faktoria, oihanak, nabigazio-lineak. Berrogei urtetan zehar urrea zerion inperio hari. Eta munduko hirugarrena zela esaten zen, aberastasunari dagokionez.*

Prentsako handiki honen botereak —"inperio bat beste baten gainean"— inperio mediatiko horizontalean eta bertikalean zeuzkan sustraiak. Paragrafo horren prozedura nagusia zenbaketa da, eta horrela informatzen da Kane-ren botereaz, berriro ere bere ondasunen bitartez. Hasierako esaeraren —"Kane-ren jatorri apalak etxe xume honetan du hasiera"— eta amaierakoaren arteko aldeak —"Eta munduko hirugarrena zela esaten zen, aberastasunari dagokionez"—, aurreko logikari ematen dio segida, hartzailearen arreta pizteko asmoz.

Jarraian, ondasunen jatorri legendarioa kontatzen da: "Ospe handikoa da Kane-ren ondasunen jatorria. Mary Kane-k zeukan apopilo berankor batek abandonaturiko meatze baten jabegoa eman zion 1868an, Colorado Lane izenekoa, ustez batere baliorik gabea zena".

Walter Parks Thatcher bankero eta Kane-ren tutorearen adierazpenek, indarra eta sinesgarritasuna ematen diote jatorriaren kontakizunari, eta handikiari buruz duen iritzien bitartez, Kane-ren nortasuneranzko hurbiltzea hasten da:

> Berrogeita zazpi urte beranduago, eta Kongresuaren ikerkuntza baten ondoren, Walter Parks Thatcher-ek, Kane-ren egunkariek eraso egiten zioten Wall Street-eko pertsonaia ospetsuak, gaztetan egindako bidaia bat dakar gogora:
>
> - Kane andereak heredatu berri zuen ondasunen administratzaile izendatu zuten nire enpresa. Charles Foster Kane gaztearen ardura har nezan nahi zuen andereak.
> - Thatcher, Thatcher jauna, ez al da egia orduko hartan lera batez egin ziola eraso Charles Foster Kane-k, urdailean kolpatuz?
> - Prestatuta ekarri dudan adierazpen bat irakurriko diot Kongresuari. Eta ez diot galdera bakar bati erantzungo: Charles Foster Kane, jabego pribatu eta ekimen pribatuari buruzko tradizio amerikarrei eraso egin dien moduagatik, komunista hutsa da, besterik ez.

Sindikalista batek ere hildakoari buruzko iritzia ematen du Batasunaren enparantzan:

- Charles Foster Kane-ren izena mehatxua da herri honetako langile guztientzat. Beti izan dena eta izango dena da orain Kane, faxista bat.

Eta komunikazio-prozesu masiboen alor nagusiari amaiera emateko: "Beste iritzi bat...".

Gure ustez, Orson Welles-ek oso zehatz adierazten du iritziaren balioa. Ukatzerik ez dago prozedura horiek hedabideei ematen dieten komunikatzeko boterea eta balio erantsia: pluraltasuna, objektibotasuna, interes informatiboa, etab. Aipatutako boterea eta balio erantsia gertakari albistegarri bati buruzko ikuspuntu desberdinetatik, askotariko iritzietatik datoz, hain justu, eta are handiagoak dira, iritzi horiek, desberdinak ez ezik, errotik desberdinak direnean, kontraesankorrak direnean, hain zuzen.

Hedabide bat plurala dela esaten da, gertakari albistegarri bati buruz ikuspuntu desberdinak jaso, balioztatu eta hedatzen dituenean. Aktualitateko gertakari bat hartu eta ikuspuntu edo ikusmolde desberdineko iritziak —eta are kontraesankorrak— biltzen dituen hedabideak objektibotzat du bere burua. Horrela jokatzen duten hedabideei, material informatiboa horrela lantzen duten hedabideei, alegia, ezaugarri nabarmenak aitortzen zaizkie interes informatiboa deitutako alorrean.

Baina O. Welles-ek, sinpletasun harrigarriz eta ekonomia itzela erabiliz, diosku —aldez aurretik eta tradizio platoniarrean oinarrituz— iritziaren erresumak ez daukala gaitasunik nortasunera hurbiltzeko. Iritziak itsuak direla berritasunaren aurrean, jakintzaren zati solteak diren heinean. Kane-ri buruzko iritziek —kanpoko iritziak azken finean, komunista/faxista—, usteak uste, ez dutela pertsonaiaren barneko ezer adierazten. Edota, beste modu batez adierazteko: dena komunikatzen duten itxuran, ezer ez dutela esaten, benetan.

Zerbait edo norbait irizpide kontrajarrien bitartez definitzea, aditzera ematea, azken finean ezer ez definitzea da, baizik eta irizpide bat kontrako beste batekin anulatzea. Ez-kontraesankortasun printzipioaren arabera —horixe da kazetaritza-diskurtsoaren axioma nagusia—, zein pertsona-mota da aldi berean gauza bat (komunista) eta kontrakoa (faxista) dena?

Bi muturreko posizioen artean dagoen iritzi-serie teorikoki infinituak ez digu ezer berririk ematen Kane-ren subjektibotasuna aditzera emateko. Beha dezagun nola irekitzen duen —itxuraz, ironikoki, puntu etenen bitartez— eta ixten duen —egiaz— hildakoaren nortasuna ezagutzeko bidea, iritziarena, hain zuzen: "Beste iritzi bat..."

Adierazpide horrek hildakoari buruko iritziak ez baloratzeaz gain, aurreko biak ere "beste iritzi bat" direla dio. Orson Welles-k, beraz, indarrean dagoen ideologia mediatiko nagusiaren kontra, iradokitzen digu ezen egoera baten egia ez dela hari buruzko bertsioen batuketa, filmaren bigarren partean ikusiko dugunez. Itxura guztien arabera, zinemako maisu horrek tradizio platonikoan oinarritzen diren klasikoek zeukaten irudi berbera zeukan iritziari buruz.

Ondoko paragrafoek Kane-ren interbentzionismo politikoaren berri ematen digute, haren botere mediatikoak ematen zion aukera baliatuz eragiten zuena: "Berrogei urtetan zehar Kane-ren egunkariek arazo guztiei buruzko iritzia agertu zuten, eta denetan zeukaten berariazko jarrera". Jarduera politiko-mediatiko horiek hainbat enuntziatu erabiliz formulatu eta baloratzen dira filmean, zenbatuz, aurreko iritziak bezala, iritzi kontrajarriak baliatuz:

> Kane-k gerra batean sartzera bultzatu zuen bere herria, eta beste batean sartzea ukatu zuen.
>
> Gutxienez presidente bati lagundu zion hauteskundeak irabazten.
>
> Milioika amerikarren alde borrokatu zen, eta beste hainbestek zioten gorroto.
>
> Berrogei urtetan, Kane-ren egunkariak arazo guztiei buruz kokatu ziren.
>
> Ez zegoen gizon publikorik Kane-k berak babestu edo salatuko ez zuenik. Eta batzuetan lehenengoz babestu eta gero salatuko ez zuenik.

Enuntziatu horiek islatu eta gauzatzen dituzte Xanadú-ko jabearen alderdi nagusi horri buruz hedabideek jaso eta landutako hainbat irizpide eta ikuspuntu —hau da, iritzi—. Iritziari buruz gorago esan dugunak balio du hemen ere. Aipatutako balorazioek, itxurazkoak izan arren, zeharka eta kanpotik informatzen digute hildako gizon aberatsari buruz: bere jarduerek amerikarren artean sorturiko erreakzio kontrajarrien bitartez. Kontakizunaren logikaren arabera, Kane berez nolakoa zen jakin gabe jarraitzen dugu; esaten zaiguna da besteek hari buruz uste zutena.

> Hurrengo atalak Kane-ren bizitza sentimentala ematen du aditzera: Bi aldiz ezkondu zen. Beste hainbestetan dibortziatu zen. Lehenengoz, Emily Norton presidentearen ilobarekin, zeinak 1916an utzi zuen, eta 1918an hil baitzen bere semearekin auto-istripu batean.
>
> Lehen dibortziotik hamasei urtera, Susan Alexander-ekin ezkondu zen Kane, Brenton-go udaletxean (New Jersey).

Bigarren emaztearentzat, hau da, Susan Alexander-entzat, Chicagoko udaleko antzerki-opera eraiki zuen, abeslaria baitzen. 3 milioi dolar sartu zituen eraikuntzan.

Harentzat altxatu zuen Xanadú jauregia ere, eta erdi-amaituta zeukan dibortziatu zirenean. Auskalo zenbat balio zuen... inork ez zekien.

Narrazio-eskemak, aurrekoaren logikari jarraituz, lotzeko enuntziatu bat dauka, zeinak, kontrastea erabiliz, Kane-ren maitasun-bizitza biltzen duen: "Bi aldiz ezkondu zen. Beste hainbestetan dibortziatu zen".

Jarraian, ordena logikoari eta kronologikoari jarraituz, haren ezkontza eta dibortzioei buruzko alderdi informatibo nagusiak garatzen ditu. Atal honek, Kane-ren bizitza sentimental eta maitasunezkoari buruzkoa izanik, pertsonaiaren nortasunera, filmaren protagonistaren subjektibotasunera hurbildu beharko gintuzke... Eta, aldiz, ez da horrela gertatzen. Ezer ez zaigu esaten Kane-k bi emazteekin izandako maitasun-harremanez. Maitasunari eta maitasunik ezari buruz kanpotiko adierazpenen bitartez informatzen zaigu; arazo juridikoak, legalak, hots, metonimikoak nabarmenduz: ezkontza eta dibortzioa

Zer esaten digu Kane-ren maitasun-gaitasunari buruz Chicagoko opera eraikitzeak 3 milioi dolar inbertituz, edo Susan Alexander bigarren emaztearen omenez Xanadú jauregia eraiki izanak? Ezer gutxi, zinez.

Kane-k maitasunean zeuzkan lehentasunei buruz ere gutxi esaten digu bi emazte sozialki ezberdinekin ezkondu zela jakiteak —AEBko presidentearen ilobarekin eta opera-abeslari batekin, hurrenez hurren—.

Kontua da, gure ustez Orson Welles-ek iradokitzen digunaren arabera, masa-komunikazioko prozesuak ez direla gai publiko zabalari arazo horiek komunikatzeko.

Kane-ren hurrengo alderdia —hots, nahikeria politikoen porrota— aurrekoetan erabilitako egitura berbera baliatuz azaltzen zaigu: esaera batek laburbiltzen du, kontrastea erabiliz, atal horren ideia nagusia, eta ondoren, garatu egiten du: "Bizitza osoan iritzi publikoaren egile izan zen arren, AEBko hautatzaileek ez zuten inoiz Kane aukeratu postu exekutiboak betetzeko".

Jarraian, beste behin ordena kronologikoari segituz, etendako lasterketa politikoaren mugarriak aipatzen ditu, adieraziz ezen Kane-ren botere mediatiko izugarria ez zela aski izan, gero, haren bigarren emaztea izango zenarekin egindako adulterioak sortu zuen zalapartari aurre egiteko, estatuko gobernadore izateko hauteskunde-atarian, non hautagai independente modura aurkeztu zuen bere burua:

Benetan indartsuak ziren Kane-ren egunkariak. Eta behin, eskura-eskura izan zuen saria.

1916an gobernadore izateko aurkeztu zuen bere burua, hautagai independente modura, estatuko elementu nagusien babesarekin.

Eta Etxe Zuria zirudien haren ibilbide arrakastatsuaren hurrengo urratsak.

Baina, hauteskundea izan baino astebete lehenago, bere emazteak abeslari
baten ohantzean harrapatu zuen Kane hautagaia.

Porrot hark hogei urtez atzeratu zuen AEBko erreformaren xedea, eta betiko zapuztu zuen Charles Foster Kane-ren bizitza politikoa.

Infideltasun-atal horrek AEBko gizartearen moral bikoitza islatzen du, gaur egun ere indarrean dagoena, besteak beste. Gogora ditzagun hurbileko atal batzuk, adibidez Clinton presidente ohiaren afera gazte bekadun batekin, eta haren ondorio politikoak.

Datu objektibo eta egiazko horiek ere ez digute Kane-ren nortasun politikoaren berri ematen sakonki. Komunikatzen digute iritzi publikoa gauzatzean zeukan eragina, haren egunkariak oso eraginkorrak zirela, independente modura aurkeztu zuela bere burua hautatua izateko, eta bere adulterioari buruzko informazioek bere nahikari politikoak zapuztu zituztela. Hau da, oraingoan, politikan egin zuenaren bitartez informatzen digute hildakoari buruz.

Hurrengo atalean, balantze modura-edo, Kane-ren negozioen berri ematen da:

Jarraian, depresio handiaren lehen urtean itxi egin behar izan zuten Kane-ren egunkariek, beste hainbat industriak bezala.

Baina, lau urteko kolapsoaren ondoren, hamaika egunkari berpiztu ziren, lehen beste indar eta eraginez.

Seinala dezagun, beste behin, oposizioen erabilera komunikatiboa (itxiera/berpiztea). Kane-ren jarduerei buruzko erreferentziak —are nabarmenago, nahi bada—.

Kane-ri Europatik itzultzean egindako elkarrizketa baliatuz, erreportajea Kane-ren alde humanora hurbiltzen saiatzen da, zahar samar eta maldan behera baitago:

— Egia al da hori?

— Ez sinetsi irratian entzundako guztia. Hobe duzu Inquirer irakurtzea.

— Kane, jauna, nola daude negozioak Europan?

— Europan negozioak nola dauden, B. jauna? Zailtasun handiak daude.

— Gustura al zaude itzuli izanagatik?

— Bai, noski! Amerikarra naiz, ez ahaztu. Beti izan naiz amerikarra. Zerbait gehiago? Erreportaria nintzenean azkarrago galdetzen nuen nik. Ea, mutiko!

— Zer iritzi duzu Europan gerra hasteko aukeraz?

— Potentzia handietako ordezkariekin hitz egin dut, Ingalaterra, Alemania Frantzia eta Italiakoekin, eta nahikoa azkarrak dira gaur egungo zibilizazioaren amaiera izango zenari heltzeko. Segurtatu dezaket ezen ez dela gerrarik egongo.

Erreportarien galderei erantzunez, beste hedabideekin kritiko eta burlari agertzen da Kane, eta, aldi berean, bere egunkariaren propaganda egiten: "Ez sinetsi irratian entzundako guztia. Hobe duzu *Inquirer* irakurtzea".

Jauntxo eta mespretxagarri: "Europan negozioak nola dauden, B. jauna? Zailtasun handiak daude".

Oso patriotero: "Amerikarra naiz, ez ahaztu. Beti izan naiz amerikarra". Setati eta autoritario: "Zerbait gehiago? Erreportaria nintzenean azkarrago galdetzen nuen nik. Ea, mutiko!".

Harroxko, bere itsutasun politikoan: "Potentzia handietako ordezkariekin hitz egin dut, Ingalaterra, Alemania, Frantzia eta Italiakoekin, eta nahikoa azkarrak dira gaur egungo zibilizazioaren amaiera izango zenari heltzeko. Segurtatu dezaket, ezen ez dela gerrarik egongo".

Erantzunen bitartez, [boterearen figura hezurmamitzen duen] Kane-ren nortasunaren ezaugarri batzuk ezagut ditzakegu: harrokeria, jauntxokeria, ironia faltsua, setakeria, autoritarismoa, abertzalekeria, etab. Pertsona baten subjektibotasunaren dimentsio objektiboa, egiturazko izaera, bere normaltasuna osatzen duten ezaugarri batzuk. Barnekoaren kanpoko aldea. Niaren adierazpenak egoera normal batean. Nortasunaren alderdi komunikagarriak. Personaia baten alderdi batzuk, zeinek, gaurkotasunezko arazo batzuei buruz Kane-k berak emandako iritzien bitartez, bere izateko moduaren berri ematen duten. Kane-ren portaera, iritziak eta jarduera gizarteak hari buruz itxaroten duenaren isla dira, berak bere buruaz duen irudiaren arabera, zeina, bestalde, sozialki sortu eta balioesten den. Bere egindako irudia, baina sozialki gauzatua. Izan ere, subjektuari buruzko egia egiten da ordena imajinarioa, irudi konparatua eta sinbolikoa, hizkera, diskurtsoa -norberaren osagarri esentzialak — krisian sartzen direnean; errealak —berritasuna, ezustekoa, ezjakina— sartu eta bi erregistro horiek zalantzan jarri eta pertsonaren egia ezkutua sorrarazten

duelako. Horregatik diogu, behin eta berriro, erreportajeak Kane-k esandakoa ematen digula aditzera, baina ez nor zen benetan.

Orain arte esandakoa beste froga esanguratsua da ulertzeko Orson Welles-ek, gure ustez, iritziaren balio kognoszitiboaz, prediktiboaz eta probatzaileari buruz zuen ideia.

Azken atala balantze moduko zatia da, erreportajeari amaiera emateko. Bertan, prentsako handikiaren azken aroa eta heriotza kontatzen zaizkigu. Zahartzaro eta dekadentzia-aroa da. Erretiroa, abandonua eta botere-galera agertzen da, eragina izateko gaitasun-falta.

> Kane-k mundua aldatzen lagundu zuen; baina Kane-ren mundua historia da jada. Kazetari handia bera historia izateko bizi zen, eta bere boterea gailendu zitzaion historia egiteko.
>
> Bakardadean, inoiz amaitu gabeko etxe dotorean, erretiratuta eta ia bisitarik gabe, gainbehera zetorren inperioa zuzentzen jarraitzen zuen prentsaren enpera-doreak.
>
> Jada entzuten ez zion nazio baten destinoa aldatzen saiatzen zen, alferrik, jada
> ez baitzuen harekiko konfiantzarik.
>
> Eta aurreko astean, gizaki guztioi gertatuko zaigun modura, heriotza bila etorrizitzaion Charles Foster Kane-ri.

Lehen paragrafoak hurrengoen ideiak batzen ditu. Boterearen handitasuna eta hauskortasuna laburbiltzen ditu. Abandonua, boteretsuaren bakardadea, boteretsu izaten uzten diotenean batik bat. Gure iritziz, hedabideen botereari buruzko metafora gisako zerbait da, non Kane-ren botereak zituen sustraiak.

Erreportajearen azken parte hau boteretsuaren bakardadeaz mintzo zaigu, haren abandonuaz; baina, kanpotik, berriro. Hots, ez digu esaten zeintzuk izan ziren benetako arrazoiak, abandonuaren arrazoi sakonak.

3.1. Lehen erreportajearen balioespena eta bigarrena egiteko erabakia

Hurrengo lerroetan, lehen erreportajea ekoizpen-taldearen aurrean eman ondoren egindako iruzkin batzuk aldatuko ditugu:

- Horratx!
- Interesgarria da.
- Itxaron. Esango dizut berriro pasatu behar denetz...
- Ongi. Zer iruditu zaizu, Rawlston jauna? Zer iruditu zaizue zuei?
- Beno, 70 urteko bizitza gehiegi da 10 minututan sartzeko.

- Ados, Thompson; baina interes apur bat gehiago eman behar zaio. Pantailan ikusi dugun gauza bakarra da Charles Foster Kane hil dela. Eta hori ezaguna da.
Irakurtzen ditut egunkariak. Baina hark egindakoa baino ezin konta dezakegu. Hori da kontua. Ez dakigu nor zen benetan. Horixe da koska. Unetxo bat. Zeintzuk izan ziren Kane-ren azken hitzak? Gogoratzen al dituzue?
- Zertaz ari zara?
- Zeintzuk izan ziren bere azken hitzak? Agian heriotza-unean azaldu zigun bere bizitza.
- Edo agian ez.
- Amerikar handia izan zela besterik ez dugu ikusi.
- Handienetariko bat.
- Ados. Baina, zerk bereizten du Ford, Hearst edo J. Dow-engandik. Thompson,
errepikatzen dizut bere azken hitzak izan zirela...
- Zeintzuk?
- Ez al dituzu, bada, egunkariak irakurtzen?
- Hiltzean, Charles Foster Kane-k hitz bakar bat esan zuen: Rosebud.
- Gizon sendoa, ez da?
- Bai: Rosebud, esan zuen.
- Unetxo bat....
- Isil zaitez. Horrela ez dugu elkar ulertuko. Presidente izan ahal zuen gizon bat. Maitatua bezain gorrotatua izan zitekeena. Gure garaian gehien aipatutako gizona. Eta, hiltzean, Rosebud dauka gogoan... Zer esan nahi ote du?
- Agian, apustu egindako zaldi bat da.
- Ongi da. Baina non izan zen lasterketa?
- Thompson?
- Esaidazu?
- Gorde ezazu filma astebete edo bi aste, ahal bada.
- Denak hitz emanda dauzkagu, ordea...
- Azter dezagun zer den Rosebud. Hitz egin ezazu hura ezagutu zuten guztiekin. Barru-barrutik ezagutu zutenekin: haren apoderatu..., Berstein... horrekin; bere bigarren emaztearekin, oraindik bizirik baitago.
- Susan Alexander.
- Atlanty City-ko jai-areto batean lan egiten du....

- Bisitatu denak, inoiz berarekin lan egin dutenak, maite zutenak eta gorroto ziotenak. Eta ez da nahikoa telefono-gida.
- Berehala hasiko naiz, Rawlston jauna.
- Ongi.
- *Rosebud*! Bizirik edo hilda. Segur aski oso gauza sinplea izango da.

Pantailan ikusitakoa balioetsi ondoren, taldearen arduradun Rawslton-ek erabakitzen du Thompson-ek bigarren erreportajea egin dezala, lehenengoari interesa gehitzeko, amerikar handia izan zen Kane-ren benetako nortasuna ezagutu arte. Horretara iristeko, hil-hurren zegoela hark esandako azken hitza bakarra arakatu behar da: Rosebud. Beraz, harekin harremana izan zuten guztiak elkarrizketatu behar ditu, esan dezaten, benetan nor zen Kane.

Gorago azpimarratu diren hitzetan oinarritzen da, gure ustez, filma interpretatzeko giltzarria: *masa-komunikabide*en edo *etenik gabeko prozesu*en itxurazko boterea eta ahulezia erreala, eta *komunikazio intersubjektibo*en edo etendako prozesuen itxurazko ahulezia eta botere erreala.

Filmaren lehen zatiko iruzkinetan, *zer* kontuan hartzen duten masa-komunikabideen prozesuak aipatu ditugu. *Nor* elementura, subjektura hurbiltzeko, bestelako prozesua behar da, *intersubjektiboa* edo etendako komunikazioa dei genezakeena behar da. Egoera hori gertatzen da zerbait berrik edo ezustekok —subjektu bat agertzea, adibidez— komunikazio-modeloa hautsi, eten, edo ebakitzen duenean; baina *interpelazio-prozesuak* beste parametro batzuen arabera jokatzen du, eta berariazko kontzeptuak behar ditu pentsatua izateko.

3.2. Bigarren zatiaren laburpena

Filmaren bigarren zatiak datu batzuk errepikatu edo zabaldu egiten ditu, eta beste batzuk berriak dira lehenengoaren aldean, lehenago ere esan dugunez. Baina lehenengoak ez bezala —kanpoko kontakizuna baita hura—, bigarrena barneko erreportajea dela esan genezake. Hildako pertsonaiari buruzko ikuspuntu hori Kane-rekin harreman estua izan zutenen testigantzak bilduz lortzen da. Horretarako, Thompson kazetariak lehen eskuko dokumentazioa biltzen du, handikiarekin harremana izan zuten guztiak elkarrizketatuz eta interpelatuz, *Rosebud* izeneko enigma argitu eta, horrela, Kane-ren benetako nortasuna aditzera emateko.

Susan Alexander-ekin huts egin ondoren, Thompson-ek Kane-ri buruz Thatcher-ek idatzitako memoriak irakurtzen ditu, non haurtzaroaz, gaztaroaz eta helduaroaz hitz egiten duen; eta, aldi berean, kazetariaren eta Kane-ren artean bankeroaren (Thatcher-en) negozioak zirela-eta, haren informazio-politikari

zegokionez izandako gatazkak biltzen ditu. Gero, Berstein, Kane-ren konfiantzako gizona elkarrizketatzen du, zeinak negozio-gizonaren kazetaritza-jarduera kontatzen duen. Jarraian, Leland pertsonairen lagunak, *Inquirer* egunkariaren zuzendariaren maitasun-erlazioen une nagusiak ez ezik, bere nagusi eta lagun Kane-rekin izandako aurkamenduak kontatzen dizkio Thompson-i. Ondoren, Kane-ren bigarren emazte Susan Alexander elkarrizketatzea lortzen du, zeinak kontatzen dizkion harekin izandako harremanak banantzea erabaki zuen arte. Azkenik, Raymond maiordomoak Thompson-i kontatzen dizkio Xanadú-ren jabearen azken urteak, Susan Alxander-ek alde egin eta gerora. Inork ez daki enigma garbitzen, eta filmak Kane-ren leran idatzitako *Rosebud* hitza erakusten digu, su hartzear dagoela, eta hasieran ikusi den *No traspassing* hitzak.

4. Kane-ri buruzko ikuspuntuak

Indarrean dagoen pentsamendu eta ideologiaren arabera, esan daiteke ezen gizarte pluralean, non pentsamendua ere plurala den, pertsonaiari buruzko ikuspuntu desberdinak, bertsio desberdinak, kontakizun desberdinak, oro har, haren nortasunarekiko ahalik eta hurbilpen handienak direla.

Guk, aldiz, uste dugu bi erreportajeen artean, testigantzen artean bezalaxe, itxuraz osagarritasuna dagoela, baina egiaz disimetria. Izaera desberdinekoak direlako, hain zuzen, kualitatiboki ezberdinak direlako, hain justu.

Horregatik uste dugu *Citizen Kane*, zinemako klasikoa, ez dela hedabideek islatzen duten handikiaren heriotzari buruzko zati eta ikuspuntu desberdinen arteko osagarritasunaren fruitu, baizik eta, alderantziz, bien arteko tentsio dialektikoaren emaitza.

Eta horrexegatik diogu ezen kontakizun bakoitza formulatzen duen pertsonaren araberakoa dela, Kane-rekiko duen erlazioaren araberakoa, eta horrexek markatzen duela Kane-rekiko duen erlazioa eta hari buruz duen iritzia. Hots, Kane-ri buruzko bertsio bakoitza elkarrizketatu bakoitzaren erregistro sinboliko eta imajinarioen arabera gauzatzen da. Zentzu horretan, lehen hurbilpen orokorretik abiatuta esan dezakegu ezen bost pertsonaietatik bik kanpotik ematen dutela iritzia, beste bik barnetik, eta besteak bi posizioen artean baskulatzen duela. Kontakizun batek, muga batzuk gora behera, zerbait esaten du hildakoaren nortasunari buruz, eta beste batek errebelatzen du nolakoa zen Kane benetan; gainerakoak, ostera, elkarrizketatu bakoitzaren bertsioak baino ez dira, bakoitzaren kokapen subjektiboaren arabera emanak.

Leland-ek eta bereziki Susan Alexander-ek -Kane-ren adiskidea eta emaztea, hurrenez hurren— beste inork baino hobeto ezagutzen dute handikiaren benetako izaera. Thatcher-ek eta Raymond-ek, ostera, dirua tartean dela hitz egiten dute Kane-ri buruz. Berstein, bere apoderatua, sentikorra izan arren, Kane-ren pean dagoenez, ez da gai bere nagusiari buruzko kontakizun justua egiteko, gainbalioztatu egiten baitu.

Jarraian, pertsonaia bakoitza aztertuko dugu, banan-banan. Erabiliko dugun metodoa hauxe da, alegia: bertsio bakoitzaren laburpen txiki bat egin ondoren, bakoitzaren nortasuneko giltzarriak aipatuko ditugu, eta hortik abiatuta balioetsiko dugu Kane-ri buruz dioena.

Ordon Welles-ek, giza arimaren aditu handia denez, hainbat arrasto ematen dizkigu Thompson-ek elkarrizketatzen duen pertsona bakoitza ezaugarritzeko; batzuetan, finezia handikoak, gainera, eta, dena dela, nolako pertsonak diren adie-razteko balio dutenak, subjektibotasunean aldaketak dituzten edo ez, eta alderdi horiek Kane-ri buruz ematen dituzten iritzietan nolako eragina duten jabetzeko.

4.1. Thompson, Thatcher-en memoriak irakurtzen

Susan Alexander elkarrizketatzeko huts egin ondoren -erabat mozkorturik topatzen du Atlanta City-ko El Rancho izeneko gau-klub kaskar batean, non abeslari modura lan egiten duen— eta klubeko zerbitzari batengandik inongo daturik lortzen ez duela *Rosebud*-i buruz, erreportariak Filadelfiara jotzen du, Thatcher bankeroaren liburutegi/fundaziora, horrek idatzitako memoriak irakurtzeko.

Bankeroak Kane-ren ondasunen jatorria kontatzen du, haren haurtzaroa eta gaztaroa eta, adin-nagusitasunera heldu ondoren, bien arteko ezberdintasunak: handiki gazteak bere ondasunak kudeatzeko duen moduagatik eta Kane-k kontrolatzen dituen hedabideek albazea izan duenaren negozioei buruz erabilitako informazio-ildoagatik. Thatcher-ek gogora ekartzen du gertakari bat: Kane-k, bere monopolio informatiboa 29ko *crack*-aren ondoren bankuaren esku utzi zuenean, bere buruaz egindako kontsideroak, beraren aurrean eta Berstein-en aurrean kontatu zituen.

Thatcher-ek hasiera-hasieratik azaltzen du bere burua egindako jardueren eta esandako hitzen bitartez. Horrela, zeharka ematen du aditzera nolako iritzia izango duen handikiari buruz. Bankeroa irritsua da, eta uste du diruak dena lortu ahal duela, hilezkortasuna barne.

Thompson-ek Filadelfiara joan beharra du Thatcher-en memoriak irakurtzera, zeren, hiltzean, bere izena daraman fundazioko liburutegian kokatu

baitzituen. Liburutegiko giro hitsa eta kartzelako modukoak, eta bibliotekako arduradun andereak ezarritako kontrol poliziakoak adierazten dute nolako funtzioa ematen zion bankeroak jakinduria kokatu, gorde eta kontsultatzeko balio duen tokiari. Thatcher-en tamaina txikia, kokatuta dagoen zutoin izugarriaren aldean, hiperbole ironikoa da, zeinak adierazten dizkigun pertsonaiaren tamaina morala eta haren nahikariak.

Bide batez, aurreratuz, filmak modu kritikoan jartzen gaitu [AEBn eta handik kanpo dauden hainbeste] fundazioen esanahiaren aurrean.
Ikusiko dugunez, bankero zuhurraren eredua da, gauza guztien gainetik dirua jarri duen pertsona. Beraz, hori da gauzak juzgatzeko duen perspektiba bakarra, eta ez-gai bihurtzen du ikuspuntu mugatu eta kanpoko horretatik at dagoen edozer ulertzeko. Zuhurrak dirua biltzeko duen mugarik gabeko grinari laguntzen diona maitatzen du, eta oztopo egiten diona gorrotatzen du. Hots, haren maitasuna edo gorrotoa kanpokoa den zerbaiten araberakoa da, diruaren araberakoa, hain zuzen. Hortxe dago Kane-ren eta bere tutorea izandakoaren arteko gorabeheren koska.

Adin-nagusitasunera iritsita, munduko seigarren fortunaren jabeak, Kane-k, berea den New York *Inquirer* egunkariarekiko interesa baino ez du, eta zuzendari izatea erabakitzen du ordura arteko ondasunen administratzailearen (Thatcher) iritziaren kontra. Baina bien arteko aurkaritza gorengo mailara iritsi zen Kane-ren egunkaria bankeroaren (Thatcher) interes ekonomikoen aurka idazten hasi zenean, titular biribilak erabiliz: "Garraioaren *trust*-a *Inquirer*-ek zapaldua", "*Inquirer*-ek behe-auzoen gerra irabazi du*, "Kobre-lapurrak kondenaturik".

Thatcher-ek bisita egin zion Kane-ri *Inquirer*-en egoitzan, bere interesen eta egunkariaren zuzendariaren beraren kontrako informazio-politika baliatzen zuela esateko. Hona hemen aberats gaztearen erantzun batzuk: "Bururatzen zaidana egiten dut. Ez dakit egunkari bat gidatzen", "Bi pertsonekin mintzatzen ari zara zu: Public Transit Company-ren akzionistarekin eta egunkari baten zuzendariarekin", "Atsegin dut lan egitea eskualde honetako jende zintzoari pirata batzuek lapur ez diezaioten. Nik egin ahal dut, nahikoa diru dudalako". Eta amaitzeko, esan zion ezen ez ziola axolarik urtean milioi bat dolar galtzeak egunkariarekin, urteetan horrela eusteko adina diru bazuelako.

Aurreko iritziek adierazten dute, Thatcher-entzat ez bezala, dirua ez dela dena Kane-rentzat. Era berean, handiki gazteak ongi aski dakiela zenbat diru duen eta bere negozioen nondik norakoa.

Iritzi horien harira, Thatcher-ek bere bertsioa eraikitzen du: Kane-k egiten duen guztia berari kontra egitearren egiten du.

Eta susmo hori baieztatzen da, oso modu sotilean, kontakizunaren azken partean, bankuak bere gain hartzen dituenean, behin-behinekoz, Kane-ren komunikabideak, 1929ko Depresio Handiaren garaian. Ikus dezagun handikiak dioena bere konfiantzako gizonaren (Berstein) eta Thatcher-en aurrean: "Hain aberatsa izan ez banintz, gizon handi bat izango nintzakeen". Hots, diruak ez ziola zoriontsu izaten utzi. Agerian dago hori. Baina esaera hori erabiliz, bankeroak (Thatcher-ek) Kane-ri buruzko bertsio negatiboa igortzen du, hau da, berari kontra egiten saiatzen zela, alegia.

Hipotesi hori ere agerian geratzen da Kane-k ustez ematen dion erantzunean: "Zuk gorrotatzen duzun guztia", Thatcher-ek galdetzen dionean: "Zer gustatuko zitzaizukeen izatea?". Erantzunari erreparatuz, Thatcher-en iritziz, Kane haren menpean zegoen. Eta ez zeukan autonomiarik, ez irizpide propiorik. Hots, banke-roarentzat desatsegina zenak determinatzen zituen Kane-ren nahikariak. Beraz, ikuspuntu horren arabera, Kane-ren nortasuna esentzialki negatiboa zen.

Gure iritziz, ostera, errealitate besterik da: finantza-gizonak gorrotatzen du prentsaren handikiak egiten duen guztia, zeren, besteak beste, haren interesen kontra ari baita. Horregatik, erregistro negatiboa baliatzen du bankeroak. Eta ezkortasun horrek, guk interpretatu behar dugun sintoma bezala funtzionatzen du. Benetan modu sotila proposatzen zaigu bankeroaren memoriek duten logika argitara ekartzeko. Bere diru-gosea eta Kane-ri dion gorrotoa aitortzea onartezina denez, Thatcher-ek bere buruaz duen irudi sozialarentzat —imajinarioarentzat, hain justu—, bankeroak kontakizun egiantzekoa, sinesgarria —sinbolikoa— eraikitzen du, harekin, imajinarioarekin, bat datorrena; eta Kane-ri egozten dio berak, Thatcher-ek, maite zuen guztiarekiko gorrotoa. Mekanismo hori baliatu ohi da gertakari bati buruzko bertsioetan. Horrexegatik esan dugu lehenago, bankeroak Kane-ri buruz duen ikusmoldea kanpoko ikusmoldea dela. Interes interesatuak, diru-goseak eta gorrotoak baldintzatutako ikuskera.

Enigma argitzeko ezer topatzen ez duela eta, Thompson-ek aldez aurretik erantzunik ez duen galdera egiten dio bibliotekako arduradunari, eta galdera bat baino gehiago agur ironikoa dirudi, portaera *milikoa* izan duen emakumeari egina, hain justu: "Ez zara zu izango *Rosebud*, ezta?".

4.2. Berstein-en bertsioa

Kane-ren apoderatuak bere bulegoan hartu du Thompson, bere nagusi ohiaren erretratu baten azpian. Handikiaren konfiantzako gizona da, eta hasiera-

hasieratik haren kazetari-bizitzaren lekuko denez, bizikizun horietatik abiatuz eraikitzen du bere kontakizuna.

Urte askotan emakume batekin izandako irudia gogoratuta, Thatcher-i buruz iritzi negatiboa eman eta kazetariari Leland ikus dezala gomendatu ondoren, Berstein-ek, Kane eta Leland-ekin batera *Inquirer* egunkarian sartu zeneko eszena barregarria gogoratzen dio; Kane-k darabilen kazetaritza sentsazionalistaz edo horiaz informatzen du; Kane-k *Inquirer*-entzat egindako printzipio-deklarazioa kontatzen du, hainbat kazetaren arteko borroka izugarria tiradak kontrolatzeko, konpetentziako egunkariko —*Chronicle*- kazetariak nola erosi zituen, eta *Inquierer* kalean jarri zeneko festa, non Kane Espainiaren kontra gerra egitearen aldeko agertu zen, Kane-k Emily Northon Monroe-rekin ezkonduko zela adierazi zuen unea aipatzen du. Dio ezen Rosebud Kane-k galdutako zerbait izango ote zen. Eta amaitzeko, Espainiaren kontrako gerrari buruzko gogoeta-pare bat egiten ditu: "Kubako gerrarik gabe, izango al genuke orain Panamako kanala?"

4.2.1. Berstein-en imajinarioa

Lehenago ere esan dugunez, filmak ez digu esplizituki esaten nolako pertsona zen Kane-ren apoderatua, baina agerian dago bere adierazpenen eta portaeraren bitartez, zeharka. Berstein nolakoa den asmatzea eta bere irudiaren eta horri eusten dion kontakizunaren arteko erlazioa ulertzea ez da batere nabarmena; atera beharreko zerbait da; interpretazioa eskatzen duen ikuspuntua, hain justu.

Gure iritziz, Berstein-en nortasuna elkarrizketaren hasieratik jartzen da agerian: "Batek daki... agian emakumeren bat" erantzuten du apoderatuak *Rosebud*-i buruz galdetzen zaionean. Irudi horrek inoiz ahaztu ez duen gogorapen zahar bat ekartzen dio gogora: duela urte asko, New Jersei-ra zihoala, transbordadore bat hartzean ikusi zuen zuriz jantzitako emakume gaztearena.

Berstein-ek ezin du ahaztu biziki hunkitu zuen agerpen hura. Ezin du bere burua kendu hain une laburretik, eta aldi berean hain iraunkorretik; izan ere, gutxienez hilabetero ebokatzen baitu. Kontua da, agian gure pertsonaiak ahaztu nahi duenak ez duela bera ahazten, esango genuke guk Lacan-en hitzak ekarriz.

Eta ahazten ez duen hori, bere pentsamendutik aldentzerik ez daukana, behin eta berriro bere burura datorrena, une gizatiar eta eterno horixe —denboraren joanari eusten diona— maitasunaren aurkikuntza da.

Baina, zer esaten digu anekdota horrek Berstein-i buruz? Pertsona sentikorra izan arren, koldarra dela. Hots, maitasunak ukitutako norbait dela,

zuriz jantzitako gazte haren begiradan —"urakanak sortzen diren zeru zurbila"- gozotasun liluragarria eta plazer hilkorra sentitu zuena, Baudelaire-k (1977:276-278) esango lukeen modura esanda. Baina, aldi berean, parte hartzeko, jokatzeko gai ez dena, maitasunaren alde —gizakiaren nahikaririk gorenaren alde— apustu egiteko ez-gauza, baietza edo ezetza jasotzeko beldurrez arriskatzeko gai ez dena, bat-batean hartu ezean, nahitaez eta betiko, beranduegi, erremediorik gabeko, inoizko, errekuperatu ezinezko bihurtu eta heriotzaraino aldean eramango duena. Pertsona batek une erabakigarrian —maitasunaren aurkıkuntzan, hain zuzen— sentitutako koldarkeriak, baliorik ezak —zalantzak— pertsona koldarrak aritzeko eta pentsatzeko duen gaitasuna ezaugarritu eta mugatzen du. Horregatik diogu ezen Berstein-ek, itxurak baino harago, kanpotiko ikuskera duela Kane-ri buruz. Izan ere, pertsona koldarra ez baita justua bere irizpideetan. Ez baitu nahikoa kemenik jokabide eta egoera injustuari aurre egiteko, beldurrak lotu egiten duelako; horregatik, beraz, bere irizpideak ere ez dira egiaren tamainakoak.

Aldi berean erakusten digu ezen sentikorra izaten badakiela, interes interesaturik gabe, hain zuzen; adibidez, Thatcher-i buruz mintzatzean, tenteltzat jo arren, dioenean ezen ez dela hain zaila dirua egitea, hori baldin bada gustukoa duen gauza bakarra. Hots, Berstein-ek adierazten du badirela dirua baino gauza interesgarriagoak eta hura metatzeko bakarrik bizi den pertsona ez dela gauza, berak, zeharka, aditzera ematen dituen beste balio horiek ulertzeko. Beraz, Berstein, bere erara, Thatcher-en bertsioan ere ikusi dugun gauza bertsua esaten ari zaigu.

Beha ditzagun bere adierazpen batzuk, Kane-rekiko zituen harremanak ulertzeko eta bere izaeran sakontzeko. Adibidez, *Inquirer* berria kaleratzeko festan, honela erantzuten die Leland-ek egindako oharkizunei *Chronicle*-tik ekarritako kazetarien leialtasunari buruz: "Lan bat egin behar dute eta egin egiten dute. Kane jaunak astebetean moldatuko ditu bere erara".

Munduko diamanterik handienaren erosketari buruz, berriz: "Harribitxiak biltzen dituen pertsona biltzen du'.

Kane-k, Emily Northon Monroe AEBko presidentearen alabarekin ezkonduko zela esan zuenean, Berstein-ek honako iruzkina egin zuen: "Oso oker ez banago, berehala izango da AEBko presidentearen emaztea".

Berstein-ek gainbalioa ematen dio bere nagusiari (Kane-ri). Hots, benetan balio duena baino gehiago estimatzen eta miresten du. Edota, norbait koldarra, sumisoa, ustez gutxietsia eta azpibaliotsua delako ematen zaio gainbalioa beste bati, iristen da norbait neurri egokien gainetik balioztatzera.

Hori dela-eta, beraz, inoiz ez diogu inolako kritikarik edo iruzkin negatiborik sumatuko Kane-ren kazetaritza-jarduerarekiko. Dela nola jabetu zen egunkariaz, dela nolako tratua eman zion zuzendari zaharrari —Carter jaunari —, edota dela *Inquierer*-eko zuzendari berriak egiten duen "horikeria" edo sentsazionalismo informatiboa, kritikarik ez —gogora dezagun, adibidez, nola, Silverston anderearen hilketari buruz informazioa biltzeko, Kane-k agintzen dion kazetariari polizia balitz bezala joateko eta, harrapatzen badute, anarkista deitzeko identifikatzen duenari—. Edo dela konpetentziako kazetariak erosi zein edozer gauza egiteko prest egon tiradak gehitzeko, edo, lehen esan dugun bezala, Kubako gerra zuritu... Berstein-ek kritikarik ez Kane-ri.

Ikusi berri dugunez, beraz, Berstein-en nortasunak determinatzen du berak emandako bertsioa, hots, informazioaren aukeraketa eta ikuspegia; hau da, berak bere buruari exijitzen diona: koherente, kontsekuente izatea, azken finean, berari buruz jendeak itxaroten duena da bere bertsioaren determinatzailea. Izan ere, pertsona koldarra, sentikorra izan arren, Berstein-ek egiten duen modura beste pertsona gainbalioesten duena ez da gauza gainbalioetsitako pertsonaren —kasu honetan, prentsaren handikiaren— barneko informazioa emateko.

Azkenik, diogun ezen Thatcher, Berstein edo Raymond-ek —azken horren kontakizuna aurrerago komentatuko dugu- ez dutela eraldaketa subjektibo sakonik izaten; horregatik ez dute Kane-ren erreakzio handirik ere probokatzen.

Guztiz kontrara gertatzen da Leland eta Susan Alexander-engan. Bi pertsonaia horiek komentatuz, errazago sar gaitezke protagonistaren arima barruraino.

4.3. Adiskide baten kontakizuna

Berstein-ek gomendatzen dio Thompson-i Kane-ren adiskide minarekin hitz egiteko: Jadediah Leland-ekin, zeina, zaharturik eta ondoezik, ospitale batean baitago. Leland-en kontakizuna da denetan luzeena, Kane-ren alderdi pertsonalak aztertzen ditu, zuzenean edo adiskide, kolaboratzaile eta langile izanagatik ezagutu zituenak. Zorrez positako aberats baten semea zen Leland, Kane-rekin batera ikasi zuen, eta *Inquirer*-en kronikak idazten amaitu zuen.

Leland-ek gogoan ditu Kane-ren lehen ezkontzako —Emily Northon Monroe-rekin— gorabeherak, maitasunetik maitasunik ezara doazenak, emazteak egiten dizkion errietak barne, berari baino denbora gehiago eskaintzen diolako egunkariari, Berstein-ek haien semeari egiten dizkion opariei buruzko desakordioa.

Kane-ren eta Susan Alexander-en artean izandako ezusteko topaketa kontatzen du, zalgurdi batek handiki aberatsaren gainekoa zipriztindu eta emaztearen barrea, Susan-en haginetako mina; bera bizi zeneko apopilo-etxera igotzeko gonbita, gainekoa garbitzeko; haren haginetako mina burutik kentzeko Kan-ek egiten dizkion itzal txinatarrak, identifikazio-jolas seduktorea; kontakizunari darion konfiantza eta intimitatea, Susan-en desio zapuztua —operako abeslaria izatea—. Eta, zeharka, Susan-en etxean biek izandako harreman adulteroa.

Thompson-ek Leland-engandik entzuten du Kane-k estatuko gobernadorea izateko egindako kanpainari buruzko kontakizuna. Ekitaldi nagusia Madison Square Garden-en izan zen, eta Kane-k, familiak, Berstein-ek, Leland berak babestuta, jendetza izugarriaren aurrean hitzaldi populista egin zuen, Jim Gettys gobernadoreari errukirik gabe eraso eginez. Jim Gettys-ek, Kane-ren eta Susan-en arteko harremanen jakitun, txantaje egin zion Emily emaztearen eta Susan maitalearen aurrean, eta mehatxu, hauteskundeetan aurkezteari utzi ezean, *Chronicle*-n argitaratuko zituela emaztearekiko infideltasunak. Kane, haserre eta bere onetik aterata, Gettys-i eraso egiten jarraitu zuen, eta inori kasurik egin gabe, hauteskundeetan aurkeztu zuen bere burua, baina sekulako porrota izan zuen, ezkontzaz kanpoko harremana argitaratu ondoren.

Leland, mozkorturik, gogor kritikatzen du afera honetan Kane-k izandako portaera pertsonala eta kazetari modura izandakoa, harrokeria, prepotentzia eta autoritarismoagatik ez ezik, hautestontzietan jasotako porrota informazioak manipulatuz makillatu nahi izan zuelako. *Inquirer*-en erredakzioan bertan gertatu zen aurkamendua, hauteskundeen biharamunean. Adiskidearekin etsita, kazetak Chicagon duen erredakziora bidaltzeko eskatu zion Leland-ek.

Thompson-ek kontatzen du gero Kane Susan Alexander-ekin ezkontzeak -Emily-rengandik dibortziatu ondoren— izan zuen arrakasta mediatikoa eta nola baliatu zuen Kane-k kazetarien presentzia prentsaurrekoan, esateko ezen Susan opera-abeslaria izango zela. Gogora ekartzen du Susan-en agerraldi penagarria Kane-k eraiki zion Chicagoko operaren inaugurazioan. Gogoratzen du baita ere, nola Kane bertaratu zen *Inquirer*-en erredakzioan emaztearen kantaldiari buruzko kronika, aldekoa izateaz gain, lehen orrialdean atera zedin; eta nola konturatzen den Leland-en kronika falta zela. Izan ere, Leland mozkorturik zegoen idazmakinaren gainean burua botata, komentarioa amaitu gabe. Kane-k berak eman zion amaiera artikuluari, adiskideak emandako tonu negatiboa mantenduz. Berstein-ek abisaturik, Kane-rengana

doanean, handikiak despeditu egin zuen Leland. Amaitzeko, hildako adiskideari buruzko irizpide kritiko batzuk eman zizkion Thompson kazetariari.

4.3.1. Leland-en ikuspuntua

Leland adiskidetasunaren eredua da, maitasun-era hori, zeinaren arabera, batak eta besteak egindako hautuaren fruitu, batak bestearen ongia nahi duen. Gizakion ezaugarri sakon horrek, benetakoa izateko, berdintasunean, elkartasunean, fideltasunean eta errespetuan erroturik izan behar du. Ikus dezagun, irizpide horiei jarraituz, nola gogoratzen zuen Leland-ek Kane-rekin izandako harremana.

Elkarrizketaren hasieran, balantze modura-edo, honela dio bere adiskideari buruz:

> Haren adiskiderik onena nintzen arren, abere baten gisa jokatzen zuen nirekiko.
>
> Ez zen basatia, baina basakeriak egiten zituen. Edo ni nintzen bere adiskiderik handiena, edo ez zuen adiskiderik izan. Agian bizkarroia izan nintzaion. Ez zion inori konfiantzarik ematen. Inoiz ez zuen deus ematen; iritziak baino ez, asko baitzituen. Bere buruarengan baino ez zuen sinesten Kane-k. Agian beste konbikziorik gabe hil zen.

Leland-en ustez, Kane-rekiko harremana ez zen adiskideen artekoa izan, ez baitzegoen berdintasunik, ez errespeturik: Kane aberatsa eta boteretsua zen, eta Leland haren menpeko enplegatua eta diru gabea. Adiskidetasuna bien artekoa denez, Leland-ek Kane-ren adiskide dela uste izan arren, eta horren arabera jokatu, elkarrekikotasunik ezean, apurtu egin zen harremana. Gainera, Leland-en ustez, Kane-k ez zuen adiskiderik izan. Zinez logikoa da. Adiskidetasuna berdintasunean oinarritzen bada eta boterea desberdintasunean, nagusigoan, sumisioan eta beldurrean, logika du esateak boteretsuak ez duela adiskiderik, inorengan konfiantzarik ez duela, bere buruarengan izan ezik, ez duela beste inorengan sinisten. Horregatik, boterea erakusteko, basakeriak egiten zituen, eta abere modura jokatzen zuen adiskidearekin, abere izan gabe.

Testigantza horrek ederki asko argitzen digu nondik eraikitzen duen Leland-ek bere kontakizuna: Kane-rekiko sentitzen duen adiskidetasunak hainbeste subjektibatzen du ezen kapaz dela bere adiskidearen baitan dagoen boterearen meka-nismoak antzemateko. Hara hor barnetik emandako testigantza.

Thompson-ek galdetu zionean zer ote den *Rosebud*, Leland-ek kazetari eta kazetaren zuzendariari buruzko juzgu bat eginez erantzun zion: "*Rosebud*? Nik inoiz ez dut sinetsi *Inquierer*-ek esaten zuena".

Emily-k, desatseginez, Berstein-ek semeari egiten dizkion opariez, eta etxekoa balitz bezala sartzen delako haurraren gelan, Kane-ri horren berri ematen dionean, Kane-ren erantzun autoritarioa izan zen, alegia, apoderatuak egin dezala nahi duena eta gainerakoek "nik agintzen dudan moduan pentsatuko dute".

Hara hortxe boterearen ezaugarri esanguratsuenetako bat, autoritarismoa, norbaitek boteretsuari aurre egiten dionean azaltzen dena. Eragozpide horrek, oztopo horrek eta halako erresistentziak autoritarioaren benetako aurpegia erakusten dute. Adierazleak dira oso Leland-en beste gogoeta hauek: "Maitasunagatik egin zuen dena. Maitasuna baizik ez zion eskatzen bizitzari. Maite zuen Charlie Kane eta, ene ustez, bere ama ere bai".

Kane-rekiko maitasunak bultzatuta, adiskideak argitzen ditu beste behin boterearen mekanismoak. Leland-en hitzak maitasunaren eta boterearen arteko ezintasunaren bilduma dira. Zergatik? Maitasuna, adiskidetasuna bezalaxe, berdintasuna, errespetua, fideltasuna, eskaintza, sakrifizioa, etab. delako. Denen buru, hala ere, berdintasuna; diferentzia nabarmenen harago, berdintasuna. Hots, Leland-ek ebidentea ez den egia argitzen digu, hots, Kane-k, dena maitasunagatik egin zuen arren, ezin zuela maitatu, beste edozein gizakik bezala bere sakonean nahi zuen arren, ezinezko zitzaiola. Eta horixe izan zen Kane-ren tragedia: maitatu nahi eta ezin, etsi-etsian maitatu nahi, adiskide izan nahi, eta maitasunari, adiskidetasunari ezin erantzun.

Kane konpon ezinezko dilema baten atzaparretan harrapaturik dago: maitasunaren alde ala boterearen alde egin behar du apustu. Izan ere, botereak, esan dugunez, hierarkia, desberdintasuna, beldurra, abusua, betebeharra exijitzen ditu. Boteretsuari beldur izaten zaio, baina ez da maite, Pascal-ek (1977:32. pentsam.) erregeei buruz zioenez. Maitasunak —edozein bertuteren hasiera eta amaiera denak—, aldiz, berdintasuna exijitzen du *sine qua non*, edertasun-, ontasun-, grina-, askatasun-, zoriontasun-, plazer-, esker-, justizia-gogoa eskatzen ditu, bizi-poza. Maitasuna, adiskidetasuna bezalaxe, maitatzea da batik bat, maitatua izatea baino gehiago, paradoxikoa dirudien arren. Hartara, maitasuna baino harago joateko gaitasuna da, maitatua norbera baino gehiago maitatzeko. Horregatik lotzen dugu maitasuna ontasunarekin, borondatearekin. Aldiz, boteretsua ez da gai gainerakoak maitatzeko, bere burua maite du, ez da gauza harago joateko, transzendentzia harrapatzeko, sakonean berekoi hutsa baita; eta berekoikeria da gaizkia. Horixe dio Berstein-

ek Kane-ri buruz, botereari buruz, esentzialki berekoia dela eta, ondorioz, gizakia irudikatzen duela. La Rochefoucauld-en (1994: 653. maxima) hitzetan esateko, berekoia dena, nork bere burua eta gauza guztiak berarentzako maitasun-objektutzat dituena, maitasun propioaren figura da. Horrexek daramatza hainbat gizaki jainko bihurtzeraino, eta, bitartekoak balitu, gainerako guztiak mendean hartzeraino, Kane-ri gertatzen zaion modura.

Pertsonaiaren berekoikeriaren tamaina Leland-ek berak adierazten digu, zalantzan jartzen duenean, bere laguna (Kane), unibertsaltzat jotzen den sentimendu baten jabe ote den: seme batek bere amarekiko duen maitasunaren jabe, hain zuzen. Beha dezagun aipatu dugun azken esaerako kontrastea: "(...) eta, ene ustez, bere ama ere bai (maite zuen)".

Kane-ren definizioz Susan Alexander "publiko amerikarraren ordezkari jatorra" da. Hots, *Inquirer*-eko zuzendariak, maitalea bere herriko publikoarekin alderatzean, gutxienez hiru gauza kontatzen dizkigu: nolakoa zen publiko amerikarra, nolakoa zen bere maitalea eta, jakina, nolakoa zen Kane bera horrelako erlazioak formulatzeko. Kane-ren jarduera kazetaritza sentsazionalista da, horia, populista, manipulatzailea, gezurtia, aldrebeskerian oinarritua bere interesei begira balio baldin badu. Ondorioz, publiko amerikarra ere manipulagarria, moldakorra, eragiten erraza, sineskorra, sinplea, ahula eta sumisoa da. Eta, *mutatis mutandis*, hori baldin bada publiko amerikarrari buruz uste duena, horixe pentsatzen du Susan-i buruz ere, publiko haren ordezkari jatorra den heinean.

Beste behin, Kane-ren portaerak orain arte boterearen eredu mediatiko horri buruz [bere buruari buruz, hain zuzen] esandakoa indartzen du: sakon-sakonean botereak gutxietsi egiten dituela *mass-medie*tako hartzaileak, bere herriko iritzi publikoa eta bere maitalea, publiko haren prototipo den heinean, hark bezala pentsatzen duelako, eta hura bezalakoa delako. Boterea hierarkikoa denez, beraz, desberdintasunak mantendu beharra dauka nagusigoa mantentzeko.

Leland-ek beste atal bat dakar gogora, zeinean boterearen ezaugarri jakin batzuk agertzen diren, norbaitek edo zerbaitek mendetasun-gogoari oztopoak jartzen dizkionean. Ezkontzaz kanpoko harremana agerian jartzen denean, Kane-k ez dio amore ematen Gettys-en xantaiari, ez eta bere emaztearen eskakizunei eta, barne-barnean minduta, bere onetik aterata, bere oldarraren ondorioei erreparatu gabe, bere handinahia erakusten du:

- Kane. Bakarrik borroka naiteke. Hemen gelditu ko naiz. Pertsona bakar batek
erabaki dezake zer egingo dudan, eta hori ni neu naiz.

- Kane. Charles Foster Kane naiz, politikari ondradua!
- Gettys. Irakaspen baten beharrean zaude zu, eta berehala izango duzu.
- Kane. Sing-Sing-era bidaliko zaitut, Gettys!

Berriro harropuzkeria, berriro besteekiko mespretxua, bere maitasun propioan eta mugarik gabeko berekoikerian islatuta. *Ni* mehatxagarria, izugarria, *ni* arbitrarioa eta errepresiboa; superegoa edo supernia bete-betean.

4.3.2. Leland-ek Kane-ri aurre

Kane-k estatuko gobernadore izateko hauteskundeak galdu ondoren, Leland-ek kanpaina-garaian erabilitako jarrera demagogikoagatik bere adiskidearekin izandako eztabaidaren berri ematen digu, nahiz eta agindua zeukan langileen alde, defentsarik gabekoen alde eta gose direnen alde egitea; baina eztabaidaren arrazoi sakonena, batık bat, hauteskundeetan galdu ondoren egindako manipulazio informatiboagatik izan zen. Porrota iruzur elektoral bihurtu zen, zuzendariak hala erabakita eta Berstein-ek/*Inquierer*-eko maketatzaileek gauzatuta. Hauteskunde-egunaren biharamunean egunkariko lehen orrialdean argitaratutako manipulazioa izan zen, beraz, Leland-en pazientziari gainezka egin ziona eta bien arteko iskanbila sortu zuena egunkariko erredakzioan. Elkar kusten dutenean, Leland-ek Kane-ri: "Mozkorturik nago". Kane-k, aldiz, "moralaren kausa sakratuaren kontra egiteagatik" galdu dituela hauteskundeak dio; bere erantzukizun propioa besteengana botatzen saiatuz —pertsona handinahi eta berekoi baten jarrera logikoa eta normala, bestalde—.

Azter dezagun Leland-ek eztabaidari ekin aurretik egiten duen aitorpen esanguratsu eta sintomatikoa —mozkorturik zegoela—. Aitorpen horrek subjektibotasunaren mugimendu batzuk erakusten dizkigu, eta ezkutuan dauden heinean, azalpen baten beharra daukate.

Mozkorraldiak egoeraren zergatia eta zertarakoa adierazten du. Leland larri dagoelako mozkortzen da, nagusiaren erreakzioaren beldur delako bilatzen du edarian trantzetik ateratzeko pizgarria, adiskideari egia esateko ausardia har dezan, gerta ahala gerta. *Inquirer*-eko kronistak ongi aski daki benetako adikidetasuna adiskideari ezer ez ezkutatzean eta gezurrik ez esatean datzala, harremana hausteko beldurrari aurre eginez.

Badiou-ren terminoak erabiliz (1982), diogun ezen Leland-ek, superegoaren erreakzioen beldur, edarian bilatzen duela hari aurre egiteko behar duen kemena, egia esateko eta harremanean justizia egiteko; horixe baita berriz konpontzeko modu bakarra. Prozesu subjektibo horrek apustu bat egitera behartzen du gure pertsonaia (Leland), arriskua hartzera, Kane-ri sentitzen

duena premiaz esateko, adiskidetasunak hala aginduta. Pertsona normal bat subjektu bihurtze horrek egiten du egia egoeran, imajinarioa hautsi eta bakoitza bere tokian jarriz. Hau da, adiskidearekiko duen mendetasun-irudia apurtzean, berari buruz pentsatzen du(t)en ez bezalakoa dela konturatzen da Leland. Etenaldi horrexek bultzatzen du Kane-ri egia esatera, ordura arte esateko asardiarik izan ez duena esatera. Etenaldi horrexek kusarazten dio ordura arte ikusteko ez-gauza zena: nolakoa zen Kane egiaz. Horregatik diogu, beste behin, ezen Leland-en kontakizuna barnetik eginda dagoela.

> Hona hemen egiazki esandako egiak:
>
> Beti hitz egin diozu herriari haren jabe izango bazina bezala; baina ahaztu dituzu langileen eskubideak. Beti hitz egin duzu herritarrei buruz, dagozkien eskubideak emateko, haiei askatasuna ematerik izango bazenu bezala. Langilea ahaztu duzu. Ez zaizu batere gustatuko enteratzen zarenean langileak bereak direlako eskatzen dituela eskubideak, ez zuk eskaintzen dizkiozulako, Charly. Gizagaixo horiek denak batzen direnean, konturatuko zara ezen zuk irudikatzen duzuna baino indartsuagoak direla. Tximinoen errege izatera joan beharko duzu urruneko irlaren batera. Zeure buruak izan ezik, ezerk ez dizu axola. Hainbeste maite dituzula konbentzitu nahi dituzu ezen, nahi eta nahi ez, maite behar zaituztela, halabeharrez. Dena egin behar da zure nahierara, dena zure arauen arabera.

Eta Kane-k erantzun: "*Nire erarako maitasunez. Dena egin behar da nire arauen arabera*".

Leland-ek hankaz gora jarri du prentsako handikiak darabilen despotismoa, portaera horrek zekarren injustizia agerian utziz. Bi ideiatan biltzen du Leland-ek bere pentsaera: nolakoa zen Kane prentsako handikiaren erlazioa herriarekin, mezuak bidaltzen dizkionean, eta zergatik zen horrelakoa. Funtsezkoa da Leland-en bereizketa: herria eta langileak. Herriari buruzko iritzi soziologikoa eta langilea, kategoria politikoa, alde banatan.

Lehenik, herria, gizarte estatala dei genezakeen norbanakoen multzoa, banakako dimentsioan hartua —pertsona bat, bozka bat—; eta dimentsio kolektiboan hartuta, iritzi publikoa den aldetik; hots, Estatuaren iritzia hedabideek bitarteko. Edo, nahi izanez gero, hedabideek hedatutako boterearen irizpidez bateratutako herria. Bere indarraren jabe ez den herria dago hor, organizaturik gabea, lanaren zatiketa sozialak sakabanatuta, manipulagarria. "Herria bere hartan", esango genuke. Herri mediatiko horri hitz egiten dio Kane-k, haren jabea izango balitz bezala, eskubideak eskaintzeko eta askatasuna oparitzeko.

Beste aldean, langilea, bizi duen zapalketaz jabe den soldatapekoa, erakundetzeak ematen dion indarraren jakitun, hori izanik klase gisara dituen eskubideen bermea; kategoria politikoa dago hor, gizartea errotik aldatzeko proiektua daukan neurrian. "Herria berarekiko", esango genuke guk. Herri horri buruz, klasea den aldetik, mintzatzen zaio Leland Kane-ri, izan duen jarrera aurpegian salatzeko, portaera horren injustizia non dagoen ikusarazi nahirik.

Leland-en ustetan, horrela pentsatzeko eta jokatzeko arrazoia dago Kane-k maitasunaz, adiskidetasunaz eta giza harremanez duen ikuskera bitxian, lehenago komentatu dugun bezala. Boteretsua despota berekoia da, besteak behe-mailako izaki modura ikusten dituena, zeinak, hari obeditu ez ezik, hura maitatzera behartuta daudenak. "Maita nazazu maite zaitudalako", esango luke Bergamin-ek (1997:301. poema); konturatu gabe, benetako maitasuna maitatua izan gabe ere maitatzea dela. Horregatik, ebidentzia guztien kontrara, esan ohi da, korrespondentziarik izan ezean, hobe dela maitatzea maitatua izatea baino; maitatzen duenaren indar positiboa lehenetsiz, maitatua den indar autozaletu, pasibo eta berekoiaren aldean.

Kane-k berak baieztatzen ditu gogoeta horiek denak, itxurazko ironiaz, onartzen dituela dirudienean: "Nire erarako maitasunez. Dena egin behar da nire arauen arabera".

Eztabaida haren ondotik, *Inquier*-ek Chicagon duen erredakziora joatea eskatu zion Kane-ri, eta Kane-k, gogo gutxiz, onartu egin zion. Urruntze horrek garbi asko adierazten ditu Leland-ek Kane-rekin zituen desberdintasunak. Kronista zaharrak, handikiak Susan Alexander-ekin egindako ezkontza oroituz, gogora ekartzen ditu, baita ere, nola baliatzen duen Kane-k han aurrean dagoen prentsa, emaztea operako abeslaria izango omen den ideia sustatzeko, berak emaztearentzako —eta emaztearen ordez— erabaki duen bezala.

Chicagoko operaren inaugurazioa dela-eta Susan-ek emandako ikuskizun barregarriaren testigu da Leland zaharra. Kontatzen du ezen Kane *Inquier*-en erredakziora doala ikuskizun penagarri hari buruzko informazioa gainbegiratzeko, eta nola Berstein-ek, bere nagusiaren desioei aurrea hartuz, kontrolpean duen egoera, erredaktoreen baimena eskuratuta: informazioa lehen orri aldean joango da, ikuskizunari kategoria emateko, eta kritikek abeslariaren laudorio egingo dute.

Leland-en kronika falta denez, Kane-k adiskidearen bulegora jotzen du, kronika zergatik ez duen oraindik entregatu jakiteko. Hantxe topatzen du mozkor-mozkor eginda, idazmakinaren gainean lo. Artikulua bukatu gabe. Idatzitakoa irakurrita eta konturatuta Susan-en jardueraren kontrakoa dela, berak bukatzen du artikulua, testuaren tonua galdu gabe.

Berstein-ek gertatutakoaren abisu ematen dio Leland-i, eta Leland Kane-rengana joan da gertatutakoaz azalpen eske. Kane-k agurtzen duenean, Leland-ek esaten dio: "Uste nuen ez geniola elkarri hitz egiten". Eta handikiak erantzun: "*Jakina. Despedituta zaude*".

Beste behin, boterearen erreakzio itsusia aurre egiten zaionean. Superegoa den bezala agertzen da horrelakoetan. Ez du ezer errespetatzen: ez adiskidetasuna, ez egia, eta are gutxiago justua dena; bere irizpidea gailentzearren, edozer gauza. Ustez bere adiskiderik handiena zena despeditzeko gauza izan da Kane, berak onartu nahi ez zuen egia esanaz egindako kronika idatzi duelako; hau da, Susan Alexander-ek ez dituela dohainak operako abeslari izateko, senarrak besterik uste izan arren.

Beha dezagun, nola Leland-ek edanera jotzen duen berriro Susan-en agerpen penagarriari buruzko egia kontatzeko erabakia hartu beharrak eragiten dion larrita-sunetik ihes egiteko, bai baitaki nola hartuko duen Kane-k. Aldiz, beste behin, adiskidetasuna egian oinarritzen dela, adiskidetasuna izateko, erakusten du bere portaeraz. Beraz, hartzen duen arriskuaren jabe, kronika negatiboa idaztea eraba-kitzen du, adiskidearen haserrea piztu arren, eta ez laudoriozkoa, bere buruari gezur esanez, Kane-ri atsegin emateko.

Eta Leland-ek, bere bizimodua arriskuan jarriz —halaxe gertatu zen, gainera— *Inquirer*-eko zuzendari ahalguztidunari kontra egiteko kapaz izan zen. Egiaren etikak bultzatuta, nahikoa kemena izan zuen "babarrunen inperatibo moralari" uko egiteko, horra jotzen baita injustiziaren aurrean amore ematen denean.

Alabaina, aurkamendu berri horrek, aberats amerikarraren despotismoa seinalatzen duen arren, ez zuen muga-mugako egoerara eraman, zeinean monopolista mediatiko handi-mandiak oraindik ezkutuan daukan nortasunaren aldea erakutsiko duen, bigarren emazte Susan Alexander-ek egingo duen modura. Agian, Kane-ren mendekoa delako Leland, haren enplegatua. Ez du mendean egoera, Kane-k duen bezala. Gogora dezagun Leland-ek berak eskatu zuela Chicagora joatea, eta gero despeditua izan zela, erreparorik gabe. Horregatik diogu ezen Leland-ek barnetiko ikuskera duela Kane-ri buruz, adiskidea delako mugatua agian, eta batik bat haren enplegatua delako.

Kontakizuna amaitzeko, Leland-ek Kane-ren figurari buruzko balioespen oroko-rra egiten du, esanaz: "Oso bakarrik egongo zen azken egunetan. [Xanadú jaure-gia] amaitu gabe zeukan bere bigarren emazteak utzi zuenean. Berak ez zuen inoiz ezer bukatu, nire artikulua izan ezik. Oso bakarrik biziko zen bere jauregian. Irakaspena eman nahi izan zidan; berak beti erakutsi nahi zuen zerbait".

Iruzkin honek boterearen beste ezaugarri bat erakusten du: bakardadea. Boteretsua benetan bakarrik dago; sakonean inork ez duelako maite, denek diotelako beldur. Maitatzeko ez-gaitasunak eta sorrarazten duen beldurrak gero eta bakartiago bihurtzen dute boteretsua, bizitzaren amaieran Kane-ri gertatu bezala. Zahartzen ari zen heinean, inoiz izandako boterea ere galtzen joan zen.

Boterearen bakardade beltzak, bizitzaren amaieran Kane-k bizi izandako isolamenduak urrikalpena sorrarazten du bere adiskide Leland-engan, bera ere zahar eta gaixo. Leland triste ageri da, Kane-ren adiskide izan baita, eta min ematen dio berekoi izateagatik sufritzen ikusteak, berekoikeria baita boterearen gaixotasun sendaezina. Kane-rekiko sentitu zuen adiskidetasun-sentimendua afektu aktiboa zen; baina, korrespondentziarik gabe, errukitsu bihurtu zen, hau da, afektu erreaktiboa, haren zoriongabetasuna ikustean. Urrikalpena, ordea, sufritzen duen gizateriarekin ez ezik, sufritzen duten denekin eta bakoitzarekin oso ondo lotzen den bertute bitxia da, Comte-Sponville-ek (1998:127-145) adierazten duenez. Leland-ek, beraz, adiskidetasunaren bi erak irudikatzen ditu, era aktiboa eta era erreaktiboa.

4.4. Susan-en egia

Azkenik, Kane-ren bigarren emazteak ere onartu zuen Thopson-ekin hitz egitea. Lan egiten zuen klubean kontatu zion kazetariari handikiaren aldamenean izandako bizimodua. Bere senarrak bere ordez aukeratutako opera-karreran ez ezik, Xanadú-n zeraman bizimodu aspergarri eta mundutik urrunduan eta ezkontzaren etetean ditu gogoramenak.

Chicagoko operaren inauguratze-egunean izandako porrota kontatu zion, Leland-ek egindako kritikak eman zion nahigabea, bere borondatearen kontra AEBn barrena egindako bira, operako abeslari modura jasotako porrot galantek bere buruaz beste egiteko eragin zion gogoa, Xanadú-n bizi izandako bizimodu iluna, berak ez kantatzeko borondatea senarrak onartu ondoren, maite ez zuen bizimoduagatik senarrari egiten zizkion agirakak, bien arteko errieta gordina kanpin-denda barruan, Everglades-eko jai-festan, Susan-ek Kane-ri egindako oihuak, Kane-k eman zion belarrondokoa, senarra uzteko erabakia, eta, azkenik, senarrak emazteari egindako erreguak utz ez zezan.

Ikus dezagun, patxadaz, Susan-en ibilbide subjektiboa, zenbatu ditugun ataletan barrena. Beha dezagun nola emakume sumiso, esaneko, izaeraz ahul, angustiaz betea bizia kentzeraino, Kane-ren iritziz "publiko amerikarraren eredu jatorra" zena erabat aldatzen den, eta zer-nolako aukera ematen digun orain arteko elkarrizketatuek baino askoz ere hobeto, benetan, itxurak eta

imajinarioak gorabehera, bi gauza ulertzeko: nor zen Susan Alexander eta nor Charles Foster Kane ahalguztiduna. Susan maitasunaren figura da. Eta sentimendu sakon horretatik ulertuko du inork baino hobeto bere senarraren bizitza.

Hasteko, abeslari-ikasketak gogora ekarri zituen, operan hasi baino lehenago hartutakoak: "Irakasle batek 500 $-en truke erosi ninduen". Modu bikaina adierazteko nolakoa zen Kane, ekonomikoki bere mendekoak zirenekin: ez zituen kontratatzen, erosi egiten zituen, gainerako gauza guztiekin egiten zuen modura. Ante Matise irakaslea, desesperaturik Susan-ek ez zuelako gaitasunik operan kantatzeko, Kane-ri esaten saiatu zen ez zuela merezi jarraitzea: "Nola lortuko dut zu konbentzitzea, Kane jauna? 'Ezin duzu', erantzun zion handikiak".

Ezkontzari buruz: "Dena izan zen haren ideia, banantzekoa izan ezik". Esaera esanguratsu horren bidez, Kane-ren eta Susan-en arteko bizitzari buruzko egia adierazten da. Hots, boterearen eta bere mugen egia errebelatzen da, filmak formulatzen duen egia, hain justu. Bi ideia horien bitartez, Susan Alexander-ek esaten digu Kane-ren menpe bizi izan zela, baina inoiz errebelatu egin zela eta gauza izan zela sumisio-egoera injustuarekin apurtzeko. Hau da, Kane-k "ia" bizitza osoan izan zuela menpean, "ia" beti inposatu zizkiola bere desioak, "ia" botere absolutua ezarri zuela emaztearengan; baita ere, Susan koldarra izan zela, baina ez erabat eta guztiz, eta Kane ez zela izan zirudien bezain boteretsua.

Beste modu batera esanda: Susan emakume itxuraz ahulak, indar-une bat izan zuela; eta unetxo hura nahikoa izan zela itxuraz sendoa zenari ahuleziak ere bazituela erakusteko. Edota, oraindik beste modu batez: osoa, osotasuna, ez dela existitzen, beti dagoelako "izan ezik" bat, ezinezko bihurtzen duena. Horrela, bada, "izan ezik" horrek, "ia ezer ez" horrek, egiaren unea iritsita, senarraren ustezko oro-ahala ezerez bihurtuko duen osotasuna izango dela. Hara hortxe irakasgai orokorra, izaera unibertsalekoa: pertsona ez da dirudiena, badena baizik, egia-prozesuak bete-betean harrapatzen duenean "izatera irits daitekeena". Aurreratzen dugun emaitza, Susan-ek bizi izandako aldaketa subjektiboak aztertuz ikusiko dugu garbiago. Izan ere, ezin hobekiago laburbiltzen baititu Susan-ek gizakiaren handitasuna eta miseria, personei eta gizarteari buruzko egia egiten den unean sortuak.

Susan-en debutaren porrota Chicagoko operan —senarrak harentzat erabaki zuen, elkarrizketatzaileari kontatzen dionez— handitu egin zen Leland-ek hasi eta Kane-k amaitutako artikulu negatiboagatik, benetan txarra izan baitzen agerraldia. Berak gogoratzen du Leland-ek, arrazoi nabarmenak tarteko,

elkarrizketa-garaian kontatu ez zuen xehetasun bat: despeditu eta biharamunean, Leland-ek gutun bat bidali zion Kane-ri, *Inquirer*-en printzipio-deklarazioa eta 50.000 $ itzuliz, kaleratzeagatiko kalte-ordainari zegozkionak. Keinu haren bitartez, Leland-ek adierazi zion Kane-ri adiskidetasuna ez dela ebaluatzen, injustizia ez dela diruz kitatzen eta egunkariaren printzipio-deklarazio famatu hura edukirik gabeko oskol hutsa zela. Berekoi, arbitrario, despota eta injustua zenez, Kane-k ez zuen erreakzionatu bere adiskide Leland-en keinu esanguratsu haren aurrean.

Susan, opera ez zela bere zaletasuna konturaturik, bere senarraren erabakiaren kontra altxatzen da: "Eroturik zaude. Psikiatra batek ikusi beharko zintuzke. Ez dut kantatzen jarraitu nahi". Baina Kane-k bere irizpidea inposatzen dio berriz: "Ez dut asmorik erridikulua egiteko. Kantatzen jarraituko duzu. Arrazoi indartsuak dauzkat eta ez dizkizut errepikatu behar".

Kantatzen ez segitzeko gogoaren eta bere senarraren portaera irrazional, arbitrario eta aginduzkoaren artean harrapatuta, angustia paralizatzailea bizi du Susan-ek, amore ematera darama behin eta berriro eta Kane-ren agintekeriaren menpe bizitzera. Hala ere, Susan-ek gehiegizko zerbait sumatzen du senarraren portaeran, halako erokeria-puntu bat; botere nahigabetuaren erreakzio propioa, edo psikoanalisian supernia esaten zaionaren erreakzioa. Kontzeptu horren bidez uler daiteke Kane-ren portaera despotikoa. Izan ere, Freud eta Lacan-en teorien arabera, supernia lege ez dena lege izanaren figura da, araua gehikuntza modura hartzearena; bere irizpidea betetze aldera, botere arbitrarioa eta injustua mantentze aldera, egin daitekeena eta alboratu behar dena agintzen jarraitu aldera, ongia eta gaizkia zer diren adierazte aldera, edozein arau urratzeko gai denaren figura, hain zuzen. Kane-ren jarrera Susan-i emandako erantzunean islatzen da; izan ere, bere berekoikeria eta botere-borondatea baino beste inolako arrazoirik eman gabe, obeditzera, mendeko izaten jarraitzera, kantatzen segitzera behartzen baitu, indarrez.

Nahi ez duen bira egiteak sorrarazten dion tentsioa herriz herri biltzen dituen porroten bidez metatzen zaio Susan-i. Susan-en aurpegian islatzen da emeki-emeki pilatzen ari zaion angustia, eta senarraren egunkarien orrialdeetan ageri da, publikoaren irudien, irakaslearen argazkien aldamenean. Pertsonaia horien guztien adierazpenek areagotu egiten dute emakumearen porrot-sentimendua. *Washington Post, San Francisco Inquirer*, *Sant Louis Inquirer, Detroit Inquirer* eta *New York Inquirer* egunkariek opera-agerraldiak kokatzen dituzte, baina, aldi berean, bertigoa dakarkiote abeslariari, ikustean alde ikaragarria dagoela argazkietako aurpegi minduaren eta laudoriozko titular

sentsazionalisten aldean, zeinek arrakasta bihurtzen dituzten agerraldi penagarriak izan direnak. Bat-batean, argi-bonbillak —Susan Alexander-en ibilbide subjektiboaren metafora— kliskatu egiten du, haria erre arte. Bitartean, abeslariaren ahots karrankaria entzuten da, orkestraren mugimendu desafinatuan itota. Opera-*torurnée*-aren amaiera da.

Jarraian, Susan antzematen dugu, bere gelan lo, erlaxaturik. Mahaitxoaren gainean edalontzi bat, koilara eta farmako-flaskoak aldamenean, hots, badirudi bere buruaz beste egin duela. Kane, artega, atea behartu eta Susan bere buruaz beste egiten saiatu dela ikusi du. Konortera etorrita, honela dio senarrari: "Ez dakizu zer esan nahi duen bat-batean ulertzeak publikoak ez zaituela jada maite!". Eta Kane-k: "Aurre egiezu! Baina, ados; ez baduzu nahi, ez duzu gehiago kantatuko! Ergelak dira!".

Bere buruaz beste egiteko saioan huts egiteak bitan banatzen du Susan-en bizitza. Emakume ahula eta sumisoa den horrek sutan probatu du bere ahalmena. Senarrarekiko beldurraren eta publikoak erakusten dion arbuioaren artean ez du irteerarik topatzen, eta bizitza eteten saiatu da. Ikus dezagun zer dakarkion bere buruaz beste egiteko saio horrek subjektu-prozesuari, superniaren eta angustiaren arteko dialektikatik abiatuz, zeina J. Lacan-ek formulatu zuen eta A. Badiou-k garatu zuen (1982:293-332).

Lacan-en iritziz, angustiak ez du inoiz huts egiten; hots, sentimendu horrek, bai Susan-i, bai ikusleei, zati egiten duen kontraesana adierazten die: ez dago ados bere senarrak abesten jarraitzeko inposaketarekin, baina ez da ausartzen hari desobeditzen; hots, ez dago ados gehiegizko eta injustu jotzen duen arau batekin, baina ez du nahikoa kemenik hura urratzeko. Hartara, Susan-ek badaki zerk sorrarazten dion angustia, eta badaki zer egin behar duen hura gainditzeko.

Sentimendu horrek adierazten digu zerbait oso garrantzitsu gertatzen ari dela opera-abeslariaren barrenean: Susan, emakume sumiso eta obedientea, kanpoan gauzatu arren ustez gainditzerik ez daukan irudia apurtzen saiatzen da, senarraren espazio arau-emailea, arbitrario eta tiranikoa apurtu nahi du, berak nahi ez duen zerbait egitera behartu nahi baitu. Uste baino ondorio zabalgoak ditu horrek. Izan ere, gure imajinarioa —besteek guri buruz osatu duten irudia, eta guk geuk geure, propio eta aldaezin bihurtu dugun irudia — apurtu egin daiteke, nortasun ezezaguna agerian utziz, dela norberarentzat, dela gainerakoentzat.

Zer da *angustia*? Freud-en iritziz, ez da gauza bera beldurra eta angustia. Beldur-sentimendua kanpoko arrisku batetik dator; angustiak, ordea, —pultsio edo irrika sexualen errepresioen ondorioa- barruko arrisku batean du

sorkaria, ikusten ez diren kausak ditu, eta desio baten eta supernia izeneko instantzia arau-emaileak eragindako debekuaren arteko gatazkak sortzen ditu. Sentimendu unibertsal hori —erabakia hartzeko trantze unibertsalean gaudenean hautemandako sentimendua— irudikatzen duen pertsonaia Sofoklesen Antigona da. Antigonak aurre egin zion Kreonte tiranoak Tebasen ezarritako legeari, zeinaren arabera, ez zegoen lurrik banatzerik Estatuaren kontra altxatzen zenari; baina hori zen, hain justu, Antigonaren anaia Poliniziesen kasua. Antigonak, Kreonteren arauari muzin egin eta anaiari lurra ematea erabaki zuen. Ordainetan, Antigona bizirik lurperatu zuten. Ez etsitzeko desioaren eta araua urratzeagatiko zigorraren beldur, Antigona eredu ikusgarria da, erakusten diguna zer den angustiak menderatutako prozesua, eta zer den, kemenaren bitartez, justiziara igarotzea.

Subjektibotasunarekiko desegokitze hori ari zen biziki pairatzen Susan Alexander, berak egin nahi ez zuen bira hasi zenetik: arauarekin apurtzearen eta, apurtuz gero, haren erreakzioz etor lekizkiokeen kalteen artean sortutako sentimendu bikoitza. Edozein erabaki hartu aurreko ezinbesteko urratsa den aldetik, angustia egoera emozional ezegonkorra da, halako indar eta intentsitatekoa ezen ez duen luzaroan bertan mantentzerik uzten, larriki gaixotu nahi ezean, depresioa kroniko bihurtuz edo egoera aldaezinak sortuz. Korapilo emozional horrek, arimaren estutze horrek, barneko alterazio horrek, norberak bere buruaz duen irudiarekin eteteak itzelezko energia subjektiboz kargaturiko sentimenduak eta emozioak eragiten ditu, eta handik ateratzeko hartutako bideek, imajinarioen kasuan (nork bere buruaz beste egin edo eromena), izaera erratikoa izan dezakete; objektu jakinik gabeak.

Amore ematen duen pertsona, angustiatik berriro supernira itzultzen dena, derrotaturik itzultzen da irten nahi izandako injustiziara; arauetara itzultzea da. Susan-en kasuan, senar autoritario eta arbitrarioaren menpera etortzea: hots, Susan Alexander berriro kantatzen jarraitzea, bere buruaz beste egiten saiatu zenera arte egiten aritu zena, bestalde.

Amore ematea, beraz, traizionatzea da. Nork bere burua traizionatzea eta desioak markatu duen ideia bera ere bai. Horregatik, amore ematen duenak interesa du besteek ere amore eman dezaten; izan ere, hartara, gainerakoen traizioak norberarena zurituko bailuke, nolabait. Zesioak beti dakar berarekin prezioren bat ordaindu beharra: norberarekiko konfiantza-galera, erresistitzen jarduten dutenekiko salakuntza, batzuetan; traizioa egiten duen pertsona, lehenago defenditzen zituen ideien etsairik amorratuena bihurtzea, errebeldiako "bekatua" nolabait eta ezinean garbitzen saiatzeko; erabaki-subjektu modura desagertzea —batzuetan betiko, beste batzuetan behin-behinean—, beste

gertakizunen bat sortu arte —pertsona subjektu-prozesuaren zurrunbiloan biltzen duten horietakoren bat—. Bere barne-muinak nahastu dizkion ideala traizionatzen duen pertsona batengan zesioak esan nahi duena beste bi irteera imajinarioetan beha daiteke, modu berezian.

Pertsona batzuk, bizi duten egoera desesperatutik alde egiteko irteerarik topatzen ez dutenez, amore eman baino lehen, bere buruaz beste egiten saiatzen dira —gure protagonista, adibidez—, edo erotu egiten dira; hots, mundu imajinarioan murgiltzen dira, non, errealitatea eta aluzinazioak nahasturik, pertsonak angustiak lehen eta psikosiak gero sortutako tentsioetatik urrun bizi ahal diren.

Seinalatu berri dugunez, azken irteera imajinario horiek, berez erakusten dutenaz gain, zesioaren prezio larria adierazten dute: subjektuak, arau alteratuaren erakarpenak eraginda, amore eman baino lehen, eta justiziaren bidea hartzeko gauza ez dela, autodesegin egiten du bere burua, bere energia errantea haren ibilbidea ixten duen oztopoaren kontra lehertzen alferrik saiatuz: (gure kasuan) senar autoritarioaren kontra. Kane (senarra) jasan ezinezko oztopoa da, hain da injustua!

Susan-ek, angustiak harrapatuta eta bizi duen jasan ezinezko egoerari irteera bat topatzeko gauza ez dela, amore eman baino lehen, senarraren portaera arbitrarioaren menpe itzuli baino lehen, bere buruaz beste egitea lehenetsi zuen, besteak beste aldarrikatu ahal izateko ezen nahiago zuela hiltzea traizionatzea baino, eta bere sakrifizioa, bere heriotza, haren erantzulearen (senarraren) zama izango zela betiko. Jokabide desesperatuaren benetako erantzulearen kontrako salaketa isila da suizidioa, azken mendeku bat bezala, hainbeste mespretxatu eta ofenditu zuenaren (senarraren) kontra gure kasuan.

4.4.1. Susan-en kuraia

Gogo txarrez baina Kane-k onartu egin zuen emaztearen erabakia. Susan berehala jabetu zen senar harroaren jarrera ezohikoaz. Susan-ek badaki, bere barruan, ordaindu behar izan duen prezioa zein izan den, senarrak behartu ez dezan nahi ez duena egitera. Badaki, baita ere, lehen aldiz hartu duela bere bizia arriskuan jartzeko erabakimena, erabat jasan ezina egiten ari zitzaion bizimodua eteteko. Eta badaki, Kane ez dela berak ordura arte uste zuen bezain boteretsua. Itxurak itxura, zaurgarria da Kane ere. Egia da bere duintasuna berreskuratzeko pasatu behar izan zuen froga ez zela txantxetakoa izan, ez duela inoiz ahaztuko, eta dagozkion ondorioak aterako dituela hurrengorako,

aurrerago ikusiko dugunez. Bere buruaz beste egiten saiatzea, beraz, benetako gertakizuna izan da, Susan Alexander-en bizitza bitan zatitzen duena.

Susan Alexander-ek opera-abeslaria izateari uko egin ondoren eta Kane-k emaztea drama musikaleko famatu bihurtzeko asmoa baztertuta, amaitu gabe dagoen Xanadú jauregian itxi ziren senar-emazteak. Urruntasuna, inkomunikazioa, bakardadea, isolamendua eta irizpide-desberdintasunak gero eta handiagoak dira bien artean. Senar-emazteen bizitokiak dituen kolosalismoak handitzen ditu, filmean, sentimendu horiek. Susan-ek bakardadeari egin nahi dio aurre, eta buru-hausgarriak egiten ematen du denbora. Charles Foster Kane-k aurpegira botatzen dio Susan-i jarduera errutinarioan, monotonoan eta aspergarrian bizitzea. Susan-ek, jada isiltzen ez dela desegokitzat dituen egoeren aurrean, erantzuten dio: "Logikoagoa da hau, estatuak batzea baino".

Susan-ek, Xanadú-ko bakardadeak eta unadurak lepo eginda, New York-era joatea eskatu zion senarrari: "Charlie, New York-era joan nahi dut; mesedez, Charlie". Eta handikiak, betiko jarreraz jantzita, moztu zuen gaia: "Gure etxea hau da. Ez zait interesatzen New York". Hala eta guztiz ere, Kane-k Everglades-en festa bat ospatzea proposatu zion emazteari, lagunekin, txango bat eginez eta kanpin-dendetan lo eginez". "Gonbidatu? Esan hobeto kanpin-dendetan lo egitera agindu", erantzun zion Susan-ek, modu kritikoan beste behin. Eta Kane-k, berriro inperatibo kategoriko modura erantzun: "Ondo dago. Bihar joango gara txangoan".

Susan-ek, berriro, aurpegiratzen dio berarekiko duen portaera: "Inoiz ez didazu eman benetan interesatzen zaidan ezer". Erdietsi berri duen kuraiak pentsa ezinezko argitasuna eman dio Susan-i, eta bere senarrari eta bien arteko harremanari buruzko egia egin du: inoiz ez badio eman berak benetan desiratzen zuena, ez du maite, ez du aintzat hartu; hau da, Kane-k Susan-i emandako guztia Kane-ri berari interesatu zaiona izan da, eta, horregatik bakarrik emazteari ere interesatu behar zaiolako edo. Horixe da pertsona berekoiaren portaera. Berekoia, bere burua eta gainerako gauza guztiak berarentzako maitasun-objektu izanik, ez da gai harago joateko eta bere burua ez beste inor benetan maitatzeko. Berekoikeria —eta berekoia— gaizkia da, zioen Kant-ek (1997:359-371). Eta, gainera, boterea eta dirua duen berekoia harroputza da, handinahia, despota eta, unea iritsita, bortitza; ez ditu besteak aintzat hartzen, ez ditu errespetatzen, erabili eta mespretxatu egiten ditu. Hauxe da gure supermanaren benetako erradiografia. Susan eta Leland ados daude horretan.

Handikia eta bere emaztea kokatu ziren kanpin-denda itzelean bien arteko ika-mika galanta sortu zen. Eszena, indar dramatiko handiz betea, Susan Alexander-en prozesu subjektiboaren goi-goi maila da, bere buruaz beste egiten huts egindakoan hasi dena. Errietan ari ziren bitartean, gonbidatuak jostatzen ari ziren, edaten eta dantza egiten jazz-erritmoan. Hurrengo lerrootan daukazu bien arteko aurkamenduaren isla, hitzetan esanda:

- Susan: Inoiz ez duzu alboratu benetan interesatu zaizun ezer. Inoiz ez duzu ezer eman bihotzez. Ez dut isiltzeko asmorik. Zuri eman dizudana ordaindu egin didazu, besterik ez. Gauza asko oparitu dizkidazu. Diru hutsa.
- Kane: Egiten dudan guztia maite zaitudalako egiten dut.
- Susan: Hori ez da egia. Ez da maitasuna zuk desiratzen duzuna.
- Kane: Esan nahi duzuna, eta berehala izango duzu esku artean; baina, maite egin behar nauzu.
- Susan: Ez da nire maitasuna desiratzen duzuna.

(Kane-k Susan kolpatu du)

- Susan: Ez iezadazu esan sentitzen duzula.
- Kane: Ez litzateke egia izango. (Susan-ek alde egin du. Kane utzi du. Kane-k, haserre, bere portaera aurpegiratu dio).
- Kane: Ez al zara konturatzen gonbidatu guztiak jabetuko direla honetaz?
- Susan: Noski jabetuko direla.
- Kane: Ez zaitut utziko.
- Susan: Banoa, Charlie.
- Kane: Ez egin hori. Ez, mesedez. Hemendik aurrera, zuk diozuna egingo da, hobesten duzuna. Zure gustura, baina gera zaitez. Ezin didazu hori egin.
- Susan: Grazia du. Zu izan zara iraindua. Ni, ez. Ezin dizudala hori egin? Jakina, horixe! (Susan badoa).

Susan-ek aurpegira bota dio Kane-ri bere berekoikeria, maitatzeko ezgaitasuna. Eta bi ikuspuntutatik abiatuta esan dio, bere ikuspuntu propioz eta senarrarenetik, aktiboaz eta pasiboaz; hots, inoiz ez diola emazteari ezer bihotzez eman, esan dio, edo behintzat Kane-rentzat benetan garrantzitsua denik ez diola eman. Hortxe dago, maisuki islatuta, maitasunaren froga: interes interesatuagatik, bete-beharrez egiten dena ez da benetako maitasuna. Maitasun berekoia da, hots, Susan maitatzea Kane-ren ongiagatik. Zentzu horretan, esan dezakegu ezen Kane-k, maitasunari dagokionez, ez duela hasierako fasea gainditu, hots, Freud-en arabera, intzestua, desioa, pultsioa

edo irrika, gabezia, erosa debekatu ondoren, lehen-lehengo fasea. Hau da, Kane bere buruan zentraturiko maitasunean kokatuta dago. Eta emazteak eskatzen diona maitasun eskuzabala da, eman egiten duen maitasuna. Eros gisako maitasuna eta philia moduko maitasuna, maitasuna bestearen onerako; Susan maitatzea Susan-en onerako, ez Kane-ren berekoikeriaren onerako.

Maitasunagatik egiten dena, ongiaren eta gaizkiaren harago egiten da, Nietzsche-k (1972:153. aforism.) esango lukeenez; modu desinteresatuz, maitasunagatik beragatik. Maitasunagatik egiten dena, egiten dena maite delako eta egiten zaiona maite delako egiten da, pentsamendu sokratikoaren ildoan, "maite ezazu eta egin nahi duzuna". Jakina, nahi duena egiten duenak, egiten duena maite egiten du: maite duena ematen duenak, ematen duena maite duelako ematen du. Susan-ek esandakoa parafraseatuz, ondoko pentsamendua atera dezakegu: maite duenari maite duena ematen dionak, maite duena maite duelako ematen dio. Eta horixe hain zuzen aurpegiratzen dio bere senarrari: berbera emateko gauza ez izatea, maitatzeko gai ez izatea. Maitasunak, errespetua ez ezik, elkarrekikotasuna ere eskatzen baitu.

Maitasunean oinarritutako harremana izan ez bada, berekoikerian baizik, zer izan da? Susan-ek argi asko esan dio: harreman komertziala, trukeko harreman ez-berdina: afektua, maitasuna, sexua, sumisioa objektuen, gauzen truke; berak emandakoa, gauza asko oparituz ordaindu diola esan dio Susan-ek. Finean, diru hutsa.

Kane kexu da, eta zuritu egin nahi du Susan-en aitortza eta kritika, egiten duen guztia maitasunagatik egiten duela erantzunez. Aitzitik, ez dela egia erantzun dio Susan-ek, eta Kane-k berak konfirmatzen du Susan-ek aurpegiratua: "Esan nahi duzuna, eta berehala izango duzu esku artean". Beste behin, opariak eginez erosi nahi du emaztearen maitasuna. Eta hori da Kane-rentzat maitasuna. Gure handikia pentsamendu bergamindarra —"Maite ez banauzu ere maite zaitut"— baino honago dago. Susan-en erantzunak atzamarra zaurian jarri du, eta Kane-k kolpatu egin du emaztea, nahigabetuta. Ezin du jasan emazteak kontra egitea eta egia aurpegiratzea: ez duela bere maitasuna nahi (Susan-ena), baizik inposizioan eta faboreen eta borondateen salerosketan oinarritutako erlazioa, ustezko eskuzabaltasunean oinarrituta dagoela dirudien arren.

Susan-ek beste urrats bat eman du kuraia erdiesteko bidean, Kane muga-mugako egoerara eramanez, non intolerantzia eta portaera itsua erakusten duen beste behin. Ez du ulertzen emaztea beste pertsona bat dela jadanik. Horregatik erantzun dio Kane-k "Ez litzateke egia izango", Susan-ek aurpegiratzen dionean: "Ez iezadazu esan sentitzen duzula".

Badoanean, utzi egiten duenean, Kane ez da enteratzen; ez da gauza emaztearen erabakiaren dimentsio erreala ulertzeko; arduratzen duen gauza bakarra da gonbidatuak jabetu egingo direla han gertatutakoaz. Susan-ek, ostera, bere erantzun biribilean -"Jakina jabetuko direla"—, benetan gertatutakoa erakutsi dio senarrari.

Emaztearen erantzunean bizi den erabakimenak harrituta, Kane-k autoritarismoz erreakzionatzen du: "Ez zaitut utziko!" Susan-ek erakusten duenean, ordea, bere erabakiak ez duela atzera-bueltarik -"Banoa, Charlie"—, egia egin egiten da, eta Kane-k harrotasuna utzi eta otoitzaren bidea hartzen du, despotismoarena utzi eta mendetasuna hartu, urquiluarena utzi eta onarpenaren bidean sartu, prepotentziarena utzi eta inpotentziaren bidetik abiatu. "Ez egin hori. Ez, mesedez. Hemendik aurrera, zuk diozuna egingo da, hobesten duzuna. Zure gustura, baina gera zaitez. Ezin didazu hori egin".

Susan-ek, ostera, erabakiaren azken ondorioetara joateko prest, senarraren erantzunaz jabetu —agindua, agindua azkeneraino— eta esaten dio: "Grazia du. Zu izan zara iraindua. Ni, ez. Ezin dizudala hori egin? Jakina, horixe!".

Hara hor egiaren unea, egia egiten den mementoa, imajinarioak aldatzen diren instantea. Egonkorra eta segurua zirudiena suntsitu egiten da; ezinezkoa zirudiena, errealitate bihurtzen da; pentsaezina, agerian jartzen. Nork imajina zezakeen Kane ahalguztiduna emazteari ez joateko erregutzen, ez dezala utzi, aurrera begira hark nahi duen guztia egingo duela esanaz? Nork pentsa zezakeen emazte sumiso eta koldarrak kemena errekuperatuko zuela, senar autoritario itzelari aurre egin, inork eraman ez zuen punturaino behartu eta, azkenean, Charles Foster Kane egiazki nor zen errebelatuko zuela?

Prozesu luze, korapilotsu eta mingarriaren azkenean gaude. Zein ibilbide luzea den angustiarena, eta zein laburra kuraiarena! Sufrimendua, grina ikusi egiten dira, iraunkorrak dira: komunikagarriak dira, gizarteragarriak; kemena, ostera, puntuala, unean-unekoa, bat-batekoa, pentsaezina eta pentsatu gabea; komunikazioa ebaki eta eten egiten du.

Kemena kontzentratu eta angustian sorturiko energia guztiaren uneari dagokio, zeina espazio sinboliko eta imajinario berrira bideratzen den, non pertsona hain sakonki alteratzen duen injustizia gainditu eta zuzentzen den [ikusi dugun bezala].

Kemena, aurreikuspenik gabea eta aurreikusi ezina denez, gutxien espero daitekeenarengandik sortzen da, Susan-ekin gertatu zen bezala. Giza ezaugarri hori —denetan miresgarriena— pertsonala, singularra eta unean-unekoa da.

Presentean bakarrik existitzen da. Ezin da gorde eta metatu; beti hasieran dago. Kemena ez da jakintzaren, hautuaren, iritziaren eremukoa, baizik erabakiarena, interbentzioarena. Gure heroinaren bizi-bideak islatzen du esandako guztia. Thompson-ek Susan Alexander mozkortu eta derrotatua topatu zuen, kabaret kaskar batean lanean; egun batean Charles Foster Kane-ri aurre egin eta aurpegi ezkutua azalarazteko gai izan zen emakumea.

Kazetariari agur esatean, Kane-rekiko lastima sentitzen zuela esan zion; urrikarri baita Kane. Hots, tristezia erakusten du, senar ohia ez delako zoriontsu. Triste dago, maite duen pertsona sufritzen ari delako. Horrexek adierazten digu, sufritu arren, ez duela gorrotorik harekiko; bat egiten duela harekin... sufrimenduan. Susan ez da berekoia, ez da ankerra, ez da mendekaria. Nork pentsa zezakeen Kane-k holako sentimenduak sorraraziko zizkiola urteetan mendean eta ezerez bihurturik izan zuen emakumeari?

4.5. Raymond, azken elkarrizketatua

Raymond da, Kane-ren maiordomoa, Thompson-ek azkenik elkarrizketatzen duena. Hari esker ezagutzen dugu Kane-ren bizitzako azken fasea —Susan-ek utzi zuenetik, heriotzara artekoa—, bakarrik eta mundutik urrun, Xanadú jauregian.

Thompson-ek Raymond-i galdetzen dionean zer esan nahi duen *Rosebud* hitzak, maiordomoa prest dago hitz egiteko, baina diruaren truke. Dio ezen Kane-k tentelkeria asko egiten zituela askotan, oso gogorra zela zerbitzariekin, baina ondo maneiatzen zuela.

Kazetariari kontatu zion ezen Kane-k, erabat errabiaturik emaztea joan zitzaionean, emaztearen logela suntsitu zuela zaflaz. Azkenean, lur jota, negarra begietan, eskuetan kristalezko bola hartu eta *Rosebud* esanez, isilik begiratzen zioten zerbitzarien aurretik pasatuz, urrundu egin zela. Superniaren erreakzio bortitza ageri da hemen. Suminduta, ustez bere tristeziaren iturri dena suntsitzen saiatzen da. Susan suntsitu ezinik, harena zen guztia desegiten du. Horrek adierazten digu ezen Kane-k, Susan gorrotatzeaz gain, bere burua ere gorrotatzen zuela; zeren emazteak, ispiluaren antzera benetako aurpegia erakutsi zionean, bertan islatutako nortasuna oso desatsegina egiten baitzitzazion gure gizon handiari. Eta errebelazio horren aurrean, *Inquirer*-en zuzendariak, ohikoa zuen modura erreakzionatu zuen, ispilua txikituz, irudiaren jabea —bere burua— zigortu ordez. Zeharkako autozigorra.

Raymond-ek dio *Rosebud* izan zela Kane-k hil aurretik esandako azken hitza.Thompson-en iritziz, informazio horrek ez du balio eskatu zaion dirua,

baina Raymond-ek beste hainbat gauza kontatzen dizkio, eskatutako dirua eskuratzearren.

Azterketa honen hasieran esan dugunez, gogoratu, Raymond-ek oso kanpotik ematen du Kane-ri buruzko bertsioa. Maiordomoak oso sentimendu negatiboak ditu nagusiarekiko. Eta sentimendu horiek ezkutatzearren, erdeinuzko komentarioak egiten ditu hari buruz —askotan tentelkeriak egiten zituela, berak ondo maneiatzen zekiela—. Komentario horiek erakusten digute zeintzuk diren morroiaren sentimenduak: gorrotoa eta inbidia. Pertsona berekoia, mizkina, miserablea eta harroxko samarra da Raymond, zeina, Kane-ren aldamenean bizi izan den arren, den bezala delako ezin du bere nagusiari buruzko zerbait interesgarri esan.

Elkarrizketak buruturik, Thompson-ek dio ezen ez duela lortzerik izan zer esan nahi duen *Rosebud* hitzak. Kane-k metatutako objektuz lepo dagoen gela handi batean bere kideekin mintzatuz dio ezen buru-hausgarri batekin jolasean ibili dela elkarrizketak egin bitartean: Kane-k nahi beste eduki zuela eta dena galdu zuela; agian Rosebud lortzerik izan ez zuen zerbait edo galdutako zerbait izan zitekeela; edozelan ere, hitz bakar batek ezin duela bizitza osoa azaldu; *Rosebud*, azken finean, buru-hauskarriari falta zaion pieza bat dela, garrantzitsuena izan arren.

4.5. Zer ote da *Rosebud*?

Thompson-ek bezala, hainbat eta hainbat "erreportari" saiatu izan dira, saiatzen dira eta saiatuko dira hitz horrek gordetzen duen enigma argitzen, espekulazio bitxienak aipatuz. Batzuen iritzi, *Rosebud* -"arrosa-kuskua", ingelesez-, Kane-k Susan Alexander-en aluari esaten zion izena da. Beste batzuen ustean, *Rosebud* haurtzaroa da, lera, eta abar, eta abar. Dakiguna da zerbait garrantzitsu jokatzen duela filmean, ekintzaren motorea ez ezik, istorioari interesa ere ematen diona baita. Kane da *Rosebud* edo *Rosebud* da Kane?

Gure ustez, *Rosebud* edozein maisu-lanari ihes egiten dion metafora moduko zerbait da. Eta edozein interpretazio baino harago doan horixe da *Citizen Kane* bezalako film bat —batzuentzat zinemaren historiako filmik handiena omen dena, zazpigarren arteko klasikoa— agortezina egiten duena, hitz enigmatikoa bezain agortezina, hots, denboraren joanean ere, filma interesgarri mantentzen duena, esanguratsu, berrizale, pentsamendu eta intuizioarentzako erronka, eternoa nolabait humanoa den aldetik.

Amaitzeko, tituluari buruzko hitz bi: *Citizen Kane*, Francois Truffaut zinemagile frantsesaren arabera, Kane abizenaren eta Khan —tartariarren buruzagi baten izena da, eta enperadore esan nahi du— izenaren arteko

antzekotasun fonetiko begi-bistakoa da, eta "ez du zalantzarik uzten autorearen intentzioari buruz, pertsonaia mitikoari bere-berea duen ezaugarri nagusiaren izena ematen baitio, hots, bere inperioarekiko botere eta subiranotasunaren izena, eta, Kane-ren kasuan, ekonomikoa eta mediatikoa da, politikoa baino gehiago" (del Rey, 2002:86). Charles Foster Kane-ren eta Khan handiaren arteko konparazioa, eta bien jauregien izenen artean ezarritakoa —Floridako Xanadú eta mogol handiaren Xanadú— hil berri den prentsaren handikiaren figura nabarmentzeko eta esanahi zehatz bat emateko egin da, ikusi dugunez.

Logika horren arabera, esan beharra dago ezen tituluko bi hitz horien arteko konbinazioa (Citizen/Kane) ironikoa dela, itxuraz esan nahi duenaren kontrako zerbait adierazten baitigu; ez gezurra esateko, ez, baizik barre eginarazteko, Kane-ren kontura barre egiteko bi terminoen arteko kontrastetik sortzen den esanahi berria dela eta. Horrela interpretatu behar da filmaren titulua. Gogora dezagun "herritar" terminoak, itxuraz, modu positiboan kalifikatzen duela Kane abizena.

Jatorriz, "herritar" kontzeptua kategoria politikoa da, Frantziako Iraultzatik sortua eta berdintasun, askatasun eta anaitasun kontzeptuei lotua dena. Gaur egun, hasierako erreferentzia iraultzailea galduta ere, "herritar" hitzari sistema parlamentarioaren edo demokrazia ordezkatzailearen (hautesle/hautatu) ezaugarria datxekio. Aitzitik, Kane-ren eta Khan-en arteko erlazioa benetakotzat jotzen badugu, guk ere hala uste dugunez, zer ondorio atera daitezke guretzat termino positiboa den gaurko baten (herritar) eta antzinako beste negatibo baten (Khane: agintari goren, krudel, despota, hordako buru, botere absolutua duenaren) artean? Hots, gure pertsonaiari —herritar despota, Citizen Kane— deitzea, zentzugabekeria da, ezinezko politiko eta kontzeptuala; ironiaz betetako beste oposizio batzuen antzeko zerbait (arkitektura nomada edo zalditeria aztekaren antzeko zentzugabekeria berdin-berdina).

Bibliografia

Badiou, A. (1982): *Théorie du sujet*, Editions du Seuil, Paris.

- (1990): *Rapsodie pour le théâtre*, Imprimerie Nationale, France.

Baudelaire, CH. (1977): *Poesía completa,* Ediciones 29, Bartzelona.

Bazin, A. (2002): *Orson Welles*, Paidós, Bartzelona.

Beckett, S. (1980): *Mal vu mal dit,* Editions de Minuit, Paris.

Bergamin, J. (1997): *Antología poética*, Castalia, Madril.

Comte-Sponville, A. (1998): *Pequeño tratado de las grandes virtudes,* Espasa Calpe, Madril Ishaghpour, Y. (2001): *Orson Welles Cinéaste*. *Une caméra Visible,* La Difference, II. lib.

Kant, E. (1997): *Leçons d'éthique*, Librairie Générale Française, Paris. |
Lacan, J. (1966): *Écrits*, Editions du Seuil, Paris.
Nietzsche, F. (1972): *Más allá del bien y del mal*, Alianza Editorial, Madril.
Palazón Meseguer, A. (1998): *Lenguaje audiovisual,* Acento, Madril.
Pascal, B. (1977): *Pensées*, Gallimard, Paris.
Rey Requillo, A. del (2002): *Ciudadano Kane. Orson Welles*, Paidós, Bartzelona.
Rochefoucauld, F. de la (1994): *Máximas*, Edhasa, Bartzelona.
Welles, O. eta Bogdanovich, P. (1994): *Ciudadano Welles,* Grijalbo, Bartzelona.

Laura Mintegi Lakarra

Kultura

“Euskal kulturaren izenaz eta izanaz” (*HERRIA 2000 ELIZA* 131 1993/12:6-8)

Aurtengo otsailaren 23an "Eliza 2000 Herria"k antolaturik, Euskal Kulturari buruzko hitzaldia eta ondorengo eztabaida burutu zen Gasteizen, berton gai honetaz dihardugun zenbaitzuk parte hartu genuelarik.

Areto hartan esandakoak alde batera utzita, gai honetaz egiten dudan ausnarketa apala plazaratu nahi nuke orri hauen bidez,lehenengo eta behin antolatzaileek halaxe eskatu didatelako, eta, bigarrenez, gai honetaz dudan ideia multzo ezordenatua, nolabait ordenatu nahi nukeelako, idatziz batera.

Euskal kulturaren izenaz

Izenburuak dioenez, Euskal Kulturaren izenaz eta izanaz aritu nahi nuke, eta izena aipatzean lehen arazoa sortzen da, titulua bera zehaztea, hau da, zer da *euskal* eta zer da *kultura*. Euskaraz mintzatzen garenean *euskal* hitza definitzeak ez du arazo handirik izaten: euskarazkoa esan nahi du. Baina *cultura vasca* ere euskarazko kultura ei da? Edo eta, *euskal kultura* osoa euskaraz pentsaturik eta eginda dagoena da? Ba al dago gaztelaniaz *euskal kultura* egiterik? Edo bestera esanda, eta galderari buelta emanez, beste kezka bat sortu egiten da: euskaraz *erdal kultura* egin ahal da?

Orain zenbait, Barzelonan burutu zen Hedadura Gutxiko Hizkuntzei buruzko Jardunaldietan, euskal idazle batek ere honelako arazoa azalerazten zuen *euskal literaturaz* eta *literatura vascaz* aritzean, eta bien arteko bereizketa egin nahian, honoko tesia plazaratu zuen: espainolez egindakoa Espainiak beretzat hartzen du, eta frantseseraz egindakoa estatu frantsesak ere bere gain hartzen du, bertoko produktu gisa, Euskal Herria independientea ez den artean, behinik behin. Halaber, euskaldunok ez dugu propiotzat hartzen euskaraz egiten ez dena, zeren, "zer dela eta hasiko da euskal komunitatea *herrialdeko beste hizkuntza batean* idatzitako idazlana bere ondare kulturalaren osagarritzat jotzen?". Euskaldunok garenontzat, beraz, produkzioo propioa euskaraz egindakoa da, nahiz eta, gerta daitekeen, inguruko espainolek eta frantsesek ere propiotzat hartzea euskaraz egiten den guztia, "Espainia/Frantziako kultura anitzaren osagarritzat joaz" aipatu idazleak zioen bezala.

Literaturaz baino, kulturaz dihardugu lantxo honetan, eta kultura, literaturaren eremutik haruntzago doa, zabalagoa da. Bestalde, kulturak ez du aurrekoak duen bezain lotura argia hizkuntzarekiko. Edonola ere, arazoa ez datza *kultura* kontzeptua definitzean, baizik eta kulturari laguntzen dion hitza zehaztean: *Euskal/vasca*, alegia. Zeri esan diezaiokegu *euskal kultura* eta zeri *erdal kultura*? Zer da euskal kultura eta zer *cultura vasca*? Bata eta bestea gauza bera dira? Non datza gakoa: hizkuntzan, mentalitatean, kodigo linguistikoan...? Galdera hauei erantzuten saiatuko gara, banan banan, artikuluxka honetan, agerian jarriz, alde batetik, kulturak hizkuntzarekiko duen harreman estua, eta bestaldetik, kultura neutrorik ez dagoela. Hau da, edonola izanda ere, kulturari buruz ari garenean, kultura zehatz bati buruz ari garela, kalifikatua, abjetibatua, zehatza eta lokaltasunez kutsatua.

Edozein kultura, garaiak eta lekuak mugatzen dute, historiak eta geografiak. Gure lehenetariko tesia horixe dugu hain zuzen. kultura unibertsalik ez dagoela, baizik eta kultura menperatzaileak eta menperatuak, kultura hedatuak eta murriztuak, kultura ezagunak eta enoratuak. Ausnarketa honek osatzen du artikuluaren mamia eta ardatza.

Kultura hitzaren definizioak ugariak dira, antropologo edo pentsalariak bezain ugariak. Hala ere, gure kasurako garrantzitsuena ez da definizioetan galtzea (akademizismo antzura edo topikoetara eraman gaitzakeen lana) baizik eta edozein definizio hartuta, horren inguruan mugitzen diren kontzeptuak zehaztea. Kultura, gure irudiko, herri baten espresiobide zabala da, hitzen bidez gauzatzen denaz gain, bestelako adierazbide motetan ere burutzen delarik. Hau da, herri baten ideosinkrasia, kosmogonia, mundua ulertzeko era, imajinario kolektiboa, gogo konpartitua, komunitate baten ikusmira. Hori da kultura, eta, beraz, eremu diferenteak hartzen ditu bere baitan (artea, gastronomia, jolasak edo maitasunerako ohiturak, kasu).

Arazoa, esan bezala, *kulturari* laguntzen dion kalifikatiboan datza, honexek berezituko bait du gure *kultura* besteengandik; *euskal* kalifikatiboak markatuko ditu mugak besteekiko. Eta muga zehazte horretan sortzen zaigu lehen arazo serioa.

Euskal, orain zenbait urte, *euskarazkoa* zela pentsazen genuen askok (aipatu euskal idazle-ak bezalaxe), eta horren arauera hizkuntzak berak muga zehatza eta gaindiezina markatzen zuela uste genuen, trazo bateko lerroa bailitzen. Azken urteetan, aitzitik eritzia aldatuz joan naiz, lehenengo eta behin kulturaren arlo batzu hitzez gabekoak direlako, mutuak (pintura, eskultura, musika, maitasunerako joera, gastronomia, berriaren aurreko jarrera, besteekiko jokaera...). Bigarrenez, eritzia aldatuz joan naiz, baita ere, zera ikusi izan

dudalako, diglosia basatia bizi dugun herriok egun osoz berehalako itzulpenak eginez antolatu dugula bizitza, ohituraz, naturaltasun osoz. Gure bizitzak unean uneko traduzio etengabeak dira, hizkuntza batetik bestera, mentalitate batetik bes-tera, pentsakera batez bestearen hizkeraz, eta al-derantziz, eta abar.

Diglosia etengabe honek, nahi edo nahi ez, gustatu edo ez sorterazi ditu interferentzia etengabeak, eta hizkuntzak gizarte elebidunetan, zoritxarrez, ez dira soilik pentsakera zehatz eta mono-litiko baten trasmisore zuzenak, baizik eta beste pentsakera baten (edo kultura nahasi eta mistoen) tresna edo ibilgailu bihurtu diren. Areago, mende askotan zehar diglosikoak diren gizarteetan, hizkuntza eta beronen pentsakeraren arteko mugak desmarrazturik daude, eta ez dago ondorengo ekuazio sinple hauek egiterik:

A hizkuntza = A pentsakera
B hizkuntza = B pentsakera

Baizik eta bien artean interferentziak izan daitezkeen. Hau da, eta bestera esanda, B pentsatuz A kodigoaz mintza gaitezke, eta A pentsatuz B hizkera medio adiera erazi. Beraz, honoko, ekuazioak ere faltsu suerta daitezke:

euskal = euskarazkoa
erdal = erdarazkoa

Poztasunez ez badiot ere, uste dut euskaraz *erdal mentalitatea* adierazteko gaitasuna dugula, eta aldi berean, eta arraroagoa ematen badu ere, *euskal kulturaren* aztarnak nabari daitezkeela erdara baino ez dakiten pertsonengan. Adibide erraza: euskal literaturako zenbait idazlan erdal ideosinkrasiaren itzulpen zuzenak diren artean (adibiderik ez dugu aipatuko, inor ez mintzearren), badago egon, aldi berean, euskara jakin gabe euskal eskultura eta pintura antonomasikoak, egiten ari diren artistak, Oteiza eta Txillida kasua.

Euskal kulturaren izanaz

Zer da, beraz, *euskal kultura*? Zer da *cultura vasca*? Erantzuna, ausarta ematen badu ere, hauxe da: *guk nahi duguna izatea*. Hots, euskal kultura izango da, azken finean, guk geuk euskal kulturatzat jotzen dugun bera, argudio historiko, tradiziozko, sentibera, zientifiko edo estetiko guztiak alde batera utzita.

Argudio **historikoak eta tradiziozkoak** ez dira behin betikoak, historian zehar askotan aldatu izan delako eskal kulturaren kontzeptua. XX mende honetan gure ustez euskal kulturaren eremukoa den espresio peto petoa,

zeharo arrotza izan zitekeen orain berrehun urte, eta, aldi berean, gaur ez dugu guretzat jotzen erdi aroan guri gurian zeuden adierazbide kultural euskaldunak. Euskal kultura kontzeptu dialektikoa da, aldakorra, bizia eta garapena bere barnean daramana. Nolatan jo arrotzat euskal rock erradikala, kasu, nahiz eta rock musika kanpotarra izan?

Argudio **zientifikoak** ere alde batera uzten ditugu, kultura herri baten bizitzan aintzindari den bitartean zientzia, ordea, *a posteriori* datorren ordenamendu arrazionala delako. Eta kultura, ondo dakigu, irrazionala izan daiteke hainbat kasutan. Berritasuna sortzeko gaitasuna dauka, sortzailea da, eta ez da soilik pilagarria den ezagutza pasiboa. Ikuspuntu horretatik ikusita, zientzia izango da, geroago, kolektibititateak *euskal kulturatzat* jo izan duena etiketatuko duen elementua, baina ez da kultura zer den erabakitzen duen sujetoa. [Kultura] Ez da kronikagilearena.

Argudio **sentibera eta estetikoak** ere, baztertu egingo ditugu azkenik, giza baloreak direlako eta, definizioz, aldagarriak direlako, balore eskala eta lehentasunak garaiz garai aldatzen doazen hein berean. Gaur egun pintura eta eskulturaren zenbait artelan euskaltzat jo egiten ditugu zalantzarik gabe, eta orain zenbait urte ez genituen inoiz guretzat hartuko. Arte edo sinesmen arlokoo parametro estuak aldatuz joan dira.

Nork erabakiko duen

Argudio guztiak baztertuz, bakarrik garatzen da **erabakitzea** zer hartuko dugun euskal kulturat-zat, eta erabaki hori ez da behin betikoa izango, baizik eta unean unekoa, dinamikoa, eta etengabe berrikusi beharrekoa. Erabakia, bestalde, ez dugu dogma bihurtuko, ez da gainonzekoa anatemizat-zeko balio izango, eta ez da akademizismorako aitzaki bihurtuko. Prozesuak dialektiko izan behar izango du une oro, zabala eta ahalik eta hesi gut-xien erabilikoa duena. Kontua, ordea, zera da: erabaki bai, baina nork hartuko du erabakia?

Erabakia hartzea, beti bezala, ez da egite kolektiboa. Multzoek ez dute kolejiatuki erabakitzen, ez da gizarte zabalean eztabaida daitekeen gauza, ez da bozketaren bidez gauza daitekeen horretakoa. Beti izan den bezala, historian zehar, erabakiak gutxiengo batek hartu izango ditu, eta zuzena den neurrian gehiengoak bere egingo ditu, geroago, Gutxiengoari beldurra kendu beharrean gaude, demokraziaren kontzepzio faltsuak gutxiengoak ez baloratzera bultzatu gaituen arren. Egintzarako lerro nagusiak, mundua mundu denetik, gutxiengo batek ezarri izan ditu beti, bai artearen munduan, zientzian, antolamendu sozialean zein politikan. Halaxe izan da edonora begiratzen badugu ere.

Kultura unibertsalaren falazia

Laburbilduz, *euskal kultura* zer da? zer da *cultura vasca*? Egia esan, ez dakit. Galdera hori berori kasu bakoitzari egin beharko genioke, une bakoitzean. Gerta dakiguke, erraz, guk euskaltzat jo izan dugun hori, herriak geroago ez onartzea. Gerta daiteke, halaber, guk mesprexatutako espresabidea gure kulturaren sinbolo bihurtzea urte gutxiren epean. Gutxiengoek proposamen kulturalak egiten dituzte, eta herriaren kolektibitateak onartuko ditu ala ez, kasuan kasukoa.

Nolanahi ere, garrantzizkoa da ondo bereiztea erabakiak noiz datozen herriaren gutxiengo batek bultzatuta, eta noiz botere faktikoek (irakur bedi estatuak edo beren menpe dauden beste indarrak, intelektualak kasu) inposatuta. Noiz den herriak sorturiko espresiobide propioa eta noiz kultur kolonizazioak eraginda. Garrantzizkoa da kultura unibertsala etiketaz datorren kultur kolonizazioa igartzea, batzutan itxura klasikoa dakarrela, eta beste batzutan, ordea, garaikidea. Kanpoko kulturen elementu propioak hartzea erabakitzen badugu, har ditzagun kontzienteki eta arduratik gabe, baina ez dezagun pentsa kultura unibertsaleko ereduak direnik, unibertsalik ez bait dago, baizik eta kultura zehatzak (nazionalak?) unibertsalki hedatuak, grekoa, erromatarra, espainola zein amerikarra izan.

Amaitzeko, eta laburpen gisa, hiruzpalau ideia argi utzi nahi genuke, zalantza itsaso baten artean.

a) nahiz eta kultura guztiek hizkuntzarekiko lotura estua eduki, hizkuntza batean edo bestean adierazteak ez du ziurtatzen dagokion kulturaz aritzen garenik, gizarte diglosikoetan aldi bereko itzulpen etengabea egitera beharturik egon gaudelako.

b) euskal kultura erdara batez adieraz dezakegu, eta, modu berean, euskara erabiliz erdal kultura gauza daiteke.

c) kulturak nazionalak dira, eta antropologikoki ikusirik kultura aurreratuago edo atzeratuagorik ez dagoen arren, botere ekonomiko-politikoa duten kulturek, kultür-kolonizazioa inposa diezaiekete kultura zanpatuei.

d) ez dago unibertsala den kulturarik, baizik eta kultura nazionaletako elementu unibertsalduak, hedatzearen hedatzeaz. Elementu hauek, gainera, beren kultura zehatzaren koordinada espaziotenporalekin lotura estua izaten dute, eta beraien kultura nazionalen adierazgarri hoberenak izaten dira.

e) eta azkenik, kultura oro dinamikoa da, bizia, aldakorra eta dialektikoa. Aldaketok kolektibitateak onartzen ditu, beti ere gutxiengo batek proposatuta. Batzu eta besteen artean erabaki egiten dute zein diren beraien kulturaren elementuak, propioak izan zein maileguan hartutakoak.

Laura Mintegi Lakarra

Unibertsitatea

“*Ertza* kandidaturako erretore-hautagaia” in **Dossier: Euskal Herriko Unibertsitateak, (*HERRIA 2000 ELIZA* 133, 1994/12:15-16)**

-1-

Unibertsitatea, bai Euskal Herrian eta bai beste edozein naziotan ere, irakaskuntza prozesuaren azken maila da, gorengoa, eta beraz, gaztedia kulturaz hornitzea eta teknikoki prestatzea du xede. Bestaldetik, erakundea den aldetik, nazio bakoitzak gizarte-antolakuntzarako behar dituen profesionalak eta teknikariak sortzea da bere zeregina.

Hau guztiau kontutan harturik, Euskal Herriango Unibertsitateak pentsatu beharko lukeen lehen gauza zera dugu, zenolako gizartetik sortu den eta zenolako gizarteari erantzun behar dion. Hau da, zein diren gizarte honen beharrizanak bai hizkuntzari eta bai antolakuntzari eta egiturari dagokiela.

Adibide bat ipintzearren har dezagun hizkuntzaren arloa, Euskal Herrian berezkoa eta berezia den arloa hain zuzen, bi hizkuntza oso desberdinak elkarren ondoan bizi direlako. Honela bada, unibertsitateari gorputz teorikoa buru dezala eska genezaioke, elebitasunari buruzkoa, hizkuntzaren garapena, diglosiaren arazoak, hizkuntzekiko konbibentzia eta oreka, eskolan sortuko diren arazoak.

Ekonomiari dagokiola, unibertsitateak landu eta ikertu beharko lituzke, batez ere, herri honetan garrantzitsuen diren sailak, beren akats eta gabeziak, eta eskasian egonik, bultzatu behar diren arloak ere bai, garapen osoa nola gauzatu ikastearren. Arrantza, abelzaintza, nekazaritza, eta industrigintza (ontzigintza, altzairuak, tresna-makinaria, mehatzategiak...) funtsezko ikasgaiak eta langaiak izan beharko lirateke gure unibertsitatean, historia, antropologia, pedagogia eta magisteritzarekin batera, hau da, gure ekonomiaren zutabeak batetik, eta nazio identitatea ezagutzeko funtsezkoak diren ikasgaiak bestetik. Gaur egun, ordea, arlo hauen kaltetan, zuzenbidea (lege espainiarra), enpresa,

kazetaritza, medikuntza eta injeniaritza ditugu indartzen diren arloak, ikuspuntu propiorik gabe beti ere, eta bertorako ikusmira alde batera utzita.

Hitz batez esateko, Euskal Herrian dauden unibertsitate publikoak ez dira ez Euskal Herrikoak, ezta Euskal Herriaren beharrizanetatik sortuak. EHU eta UPNA kolonialismo kultural eta politikoaren erakusgarri nabarienetarikoak ditugu, tamalez.

-2-

Izenari lotzen bagatzaizkio, Euskal Unibertsitatea euskara hizkuntzaz diharduena da. Edonola ere, hizkuntza tresna hutsa baino gehiago dela pentsatu nahi nuke. Hizkuntzarekin batera kultura, eta kulturarekin batera nazioa irakurri nahi nuke EUSKAL hitzaren gibelean. Hau da, nire ustez, aurreko puntuan marrazturiko unibertsitate nazionala eta euskaradunak beregana lezake EUSKAL UNIBERTSITATE izena. Hori ez den beste edozer, unibertsitate atzerritarra da. EHU/UPV. esaterako, Baskongadetan kokaturik dagoen unibertsitate espainiarra da, eta UPNA gauza bera da, baina Nafarroan kokatuta.

Zein dira Euskal Unibertsitatea lortzeko pau-suak? Galdera ona da, erantzuna zaila. Lehenengo eta behin zera esan behar dugu esperientziaz, EHUtik eta UPNAtik ez dela sortuko EU, mila ahalegin eginda eta mila urte igarota ere. Ezinezkoa da. Aipatu bi unibertsitateak gaztelaniaz sortuak izateaz gain, pentsmolde espaniarraz eratu dira, eta euskalduntze hutsak ez ditu naziozale bihurtuko. Larria litzateke, benetan, pentsamendu atzerritarraren itzulpen automatikoa egitea, zapalketa kulturala zotilagoa litzatekeelako.

Euskal Unibertsitatea zerotik sortu behar da, baina ez hutsetik, oinarriak egon badaudelako: ikastolak eta berauek sortarazi zuten filosofia eta indarra. Azken 30 urtetan Euskal Herrian irakaskuntza propioaren alde egin izan da borroka, borroka luzea eta neketsua gehienetan. Batzutan "euskal eskola publikoa" erreibindikatuz, bestetan "irakaslego propioa" aldarrikatuz, ugari eta zabalak dira proiektu nazional horretan parte hartu izan duten kolektiboak. UBIrainoko bidea eginda dago, egon, orain hurrengo faseari eman behar zaio hasiera, unibertsitatea eratuz. Nola? Astiro eta pausuz pausu, fakultate bat orain, beste bat gero; lehen zikloa hemen, bigarren zikloa geroago. Dakiguna jakinda, ezer gutxi espero daiteke erakunde publikoetatik, instituzioek ez dutelako, oraindik orain, nazio eraikuntzarako proiektu nazionalik ez burutu ezta diseinatu ere. Gelditzen den irtenbide bakarra iniziatiba pribatua da, AEK, Egunkaria, Ikastolak eta beste batzurekin gertatu den bezalaxe. Hala ere, ez gaitezen publiko-pribatu binomioan jausi, publikoa guztiona eta pribatua bakar batzurena dela pentsatuz.

Ez. Publikoa, gaur egun, espainiara da, pribatua herritarra. Guk honen alde apostua egiten dugu: guztiontzakoa izango den unibertsitatea, eta herritik sortua. Unibertsitate euskalduna, Euskal Herriak sortua Euskal Herriarentzat.

-3-

Intelektual batek, edozein intelektualek, jakin behar duen lehen gauza zera da, nor den bera, non bizi den, nondik datorren, nora doan, bere izena zein den. Paradoxa ematen badu ere, intelektual askok engainaturik dute beren burua, ez dakite nor diren.

Beste edozein arlotan garrantzitsua bada ere, ideien arloan are garrantzitsuagoa da jakitea nondik mintzatzen garen, zein den abiapuntua. Horren ezean, nola heldu inora ere? Intelektualak, gainera, partikularraz eta orokorraz egin behar du hausnarketa, bai eta bien arteko elkarrerlazioaz ere. Intelektualak aurreikusi egin behar du, baloratu, neurtu, gonbaratu, eta azkenik, hausnarketak azaldu, ahozgoran.

Aurrekoa argiturik, ikus dezagun, bada, zein den beronen egiteko soziala Euskal Herrian, herri hau, lehenengo eta behin, gatazka egoeran bizi da, bizi, ia betidanik, bere erabakien jabe ez delako, politikoki. Intelektualaren lehen funtzioa egoera hori salatzea da, agerian jartzea, kritikari lana egitea, batez ere mendetako gatazka horren ondorioz iskanbila puntualak sortzen direnean (Guggenhein proiektua ezarri nahia bertoko kulturaren kaltetan; ikastolak sare espainiarrean sartzeko ahalegina; irakaslego propioa ukatzea unibertsitatean, Egunkaria era AEK ekonomikoki itotzea...)

Intelektualak, botere guztiekiko intsumiso, ahulen alde altxatu behar luke ahotsa, eta komunikabideek ematen dioten aukera, ahotsik gabekoen mesedetan erabili: gazte intsumisoekin bat eginez, presoekein egiten diren bidegabekeriak salatuz, euskararekiko axolagabekeria agerian jarriz, emakumeen protagonismo soziala exijituz.

Guzti honez gain, eta batez ere, intelektualak pentsamendu propioa burutu behar du, imitazioa, plagioa eta kolonialismoa alboratuz.
Nork bere arloan, zientzia, artea zein literatura izan, intelektualak aurretik esan gabekoa bilatu behar du, zintzoki jokatu, bide berriak jorratu, arriskatu, bertigoa sentitu. Zaila da, bai. Baina merezi du.

Halako super-gizakia dagoenik ez dut uste, baina intelektuala izan nahi duenak ezin du, ezin, gutxiagorekin konformatu.

Nikolas Xamardo
Xabier Rodriguez

Iritzi Artikuluak - *ARGIA* (2020-24)

“Iruña-Veleia, gaizki ikusia, gaizki esana”

(2020-09-28)

Samuel Beckett irlandar antzerkilari ospetsuak dioenez, “berria beti dago gaizki ikusia eta gaizki esana”. Hots, berria beti irudi berriekin adieraziko da, hitz berriekin. Einsteinek zioenez, aurkikuntza oro hizkera-modu berrian metaforikoki adierazten da, era poetikoan.

Barne-lotura estuan, gaizki ikusia imajinarioaren (irudiaren) erregistroari dagokio eta gaizki esana sinbolikoaren (hitzaren) erregistroari.“Gaizki ikusia-gaizki esana” esapideak bi esangura dauzka. Kontzeptuala eta morala.

Aurkikuntza oro, jakintzaren edozein alorretan, berria da, berritzailea; sortzailea. Horregatik, lehen une batean, beti izan ohi da gaizki ikusia: berria aditzera ematen duten irudiek gure imajinarioa osatzen duten errepresentazio-multzoa desegiten dute. Eta horrek dakar berriaren alde jartzea ere gaizki ikusia izatea; hor sortzen da hasierako errefusa.

Era berean, aurkikuntza oro gaizki esana egon ohi da, berria azaltzen duten kontzeptuek hitz arruntekin, ohiko terminoekin hausten baitute; jakintza entziklopedikoko terminoekin.

Horregatik, gaizki esanak ere konnotazio moral negatiboa dauka; gaizki esana madarikatua izango da beti.

Eta hori beti izango da horrela, hasiera batean berria beti zaharretik interpretatzen saiatzen garelako; ohartu gabe berria ulertzeak ahalegina eskatzen digula. Hots, berria ulertzeak jauzi kualitatiboa eskatzen digu, erabaki bat, zaharra baztertzea, beti mingarria dena.

Beste era batera esanda, berriak beti hausten du ezarritako kontsentsua; hots, desakordioa sartzen du iritzi eta jakintza ezagunetan. Hori bai, gizateriaren une batean desakordiorik handiena sortzen duenak kontsentsurik handiena bilduko du aurrerago.

Ikus ditzagun adibide batzuk: XVII. mendean Galileok Heliozentrismoa aurkitu zuen (lurra eguzkiaren inguruan dabil biraka: gaizki esana, gaizki ikusia), Geozentrismoaren aldekoek, eliza katolikoa buru, egoskor kontra egin ziotelarik (eguzkia dabil biraka lurraren inguruan: ongi ikusia, ongi esana). Inkisizioak garbitzeko zorian egon zen Galileo.

Darwinek, XIX. mendean, eboluzionismoa formulatu zuen (gaizki esana, gaizki ikusia), eta basatiki kontra izan zituen Biblian, Hasieraren Liburuan, kontatutako Kreazionismoaren aldekoek (ongi ikusia, ongi esana).

Grezia klasikotik XIX. mendera arte, infinitua-Jainkoa pentsaezina zela (ongi ikusia, ongi esana); Cantorrek Zenbaki Transfinituen teoria postulatu zuen arte (gaizki ikusia, gaizki esana). Haren ekarpenak erabateko errefusa izan zuen. Kronecker bere maisuak ere “gazteriaren galtzailetzat” hartu zuen. Gaur egun, Multzoen Teoria munduko hezkuntza-zentro guztietan irakasten da, Lehen Hezkuntzatik hasita.

XIX. mendean Marcelino Sanz de Sautuolak Altamirako labar-margoak aurkitu zituen (gaizki ikusia, gaizki esana). Hogeita hamalau urtetan jardun zuten esaten margo faltsutuak izan zirela). Eliza Katolikoak uste zuen gizaki prehistorikoak ez zeukala gaitasun artistikorik. 1985az geroztik, Unescoren Mundu Ondasuna da aurkikuntza.

XX. mendean Kandinskyk Arte Abstraktuaren printzipioak formulatu eta gauzatu zituen (gaizki esana, gaizki ikusia), eta Pintura Figuratiboaren aldekoen erabateko errefusa jaso zuen (ongi esana, ongi ikusia). Haren koadroak hautsi eta bertan tu egitera iritsi ziren aurkariak.

XX. mendean Schöenbergek Musika Atonala (gaizki ikusia, gaizki esana) sortu zuen eta Musika Tonalaren (ongi ikusia, ongi esana) aldekoek gehien gorrotatutako musikaria izan zen.

Albert Einstein, XX. mendeko zientzialari garrantzitsuena, Erlatibitatearen Teoriaren aita da (gaizki ikusia, gaizki esana). Komunitate zientifikoak, Fisika Klasikoan oinarriturik, (ongi ikusia, ongi esana) haren teoriak zalantzan jarri zituenean, honela erantzun zuen Einsteinek: “Oker banago, nahikoa zen bakar batek demostratzea”. Gaur egun esan dezakegu gaur egungo aurrerakuntza teknologiko gehienek Einsteinen teorian daukatela jatorria. Haren aurkikuntzen hedadura hainbesterainokoa da ezen haren printzipioetako batzuk oraindik demostratu gabe jarraitzen duten. Haren teoriak “ongi ikusiak eta ongi esanak” izatera iritsi zirenean, Chaplinek esan zuen: “Txalo egiten didate niri mundu guztiak ulertzen nauelako, baina harena askoz errespetagarriagoa da; mundu guztiak miresten du eta ia inork ez du ulertzen…”.

XX. mendearen bukaera aldera, Marshall mediku australiarrak ultzera gastriko gehienen jatorria aurkitu zuen, helikobakter pilori delakoa (gaizki ikusia, gaizki esana). Hainbesterakoa izan zen komunitate medikoak erakutsi zion errefusa (uste baitzuen ultzera gastrikoa azidotasun gastrikoaren ondorioa zela: ongi esana, ongi ikusia), berak inokulatu behar izan zuen helikobaktera, ultzera eragin eta antibiotikoekin sendatu. 2005ean Nobel Saria eman zioten Medikuntzan eta Fisiologian.

Gizateriak era horretara hartuko baitu beti berritasun oro. Hori dela-eta konbentzituta gaude, laster egia sortuko dela Iruña-Veleiako grafitoen faltsutasuna defendatzen dutenen aurrean, nazioarteko adituen batzorde baten esku jarri ondoren. Soilik horrela izango dira “ongi ikusiak eta ongi esanak” hiri erromatar horretan, harribitxi arkeologiko horretan, egindako, eta egingo diren, aurkikuntzak. Beren bizia arrisku larrian ipiniz borrokan ari diren pertsonei esker, batik bat.

“Teoria konspiranoikoak”

(2021-04-09)

Neologismo hau, azken lau urteotan komunikabideetan eta sare sozialetan ugari erabilia (eta pandemiaren agerkuntzak areagotua), ulertzeko, azter ditzagun termino osagarriak: konspirazioa eta paranoia.

Konspirazioa: Konspirazioa da, beren interesen arabera, zerbait irrikaz lortu nahi duen eta, beraz, sistema ezarrian ekintza bat antolatzen duen pertsona eta/edo organizazioen batasuna.

Paranoia: Paranoia gaitz mental bat da. Pazientea, itxuraz pertsona normal bat bezala azaltzen duen bakarra. Garai klasikotik ezaguna da, eta sikoanalistek, bereziki Freudek eta Lacanek, sakonki aztertua izan da.

Paranoia, eskuarki, onartu ez eta autoerreprimitzen den homosexualitatearen ondorioa da. Pertsona paranoikoak, berak bekatu sozialtzat daukana onartzen ez duenez, gizarteak ezagutuko balu jasango lukeen arbuioaz babestea bilatzen du.

Egoera pertsonal larrigarri hori gainditzeko irtenbide bat bilatu nahian, pertsona paranoikoaren subkonszienteak indarrean dagoen sistema sozialaren edozein barne-krisiaz baliatzen da, holako egoerak detektatzeko daukan sentiberatasun berezia erabiliz.

Bera ere krisian dagoenez, haren pemia dauka gizarte larrituaren salbatzaile gisa aurkezteko. Gainerakoak salbatzeko desio indartsu hori bere

burua salbatzeko premia larria besterik ez da. Eta, aldi berean, gaixotasuna azalerazteko sintoma bezala balio digu.

Ez dira planteamendu altruistak, sakonki egoistak baizik. Pertsona paranoikoak besteak erabiltzen ditu, zeinek haren premia daukaten salbaitzaile gisa, gainean daramaten erruduntasun-zama astintzeko. Uste du horrela, balentria horrekin, gizarteak barka dezakeela.

Ze efektu dauzkate gizartean teoria konspiranoiko horiek? Pertsona konspiranoiko gehienek salbatzaile izaterik ez daukatenez, haien hedatzaileek, paranoikoa ez den gizartean larritasun sakoneko egoera subjektiboa sortu nahi dute, eta sakonean bilatzen duena da, salbatzailearen figura baten bitartez (Hitler, Musolini, Franco, Trump, Bolsonaro, etb.) salbaziozko alternatiba faszista bat ezinbestekotzat onartua izatea eta irtenbide bakartzat eskatzea. Gizarte justuagoa bilatu ordez (angustia mugimendu politiko baten biartez errealitate sozial injustua eraldatzeko kuraia bihurtuz), behar duten salbatzailea super-egoa da, armen bitartez inposatutako lege basatiaren gizona. Gero, herria maskratuko duena, politika errepresibo, ekonomiko eta sozial erreakzioarioenen bitartez, esplotatzaileen esku uzteko.

Hitz batez, teoria konspiranoiko oro sortu eta garatzen da pertsona paranoikoek, batere oinarri eta funtsik gabe –baina konbikzio obsesiboz– krisi nazional eta internazional bat (soziala, politikoa, epidemiologikoa, nortasunezkoa, etab.) ezkutuko botereei egozten dietenean.

Trump sintoma: Sintoma orok gure subjektibitateari deitzen dio, eta interpretatu beharra dago. Horregatik diogu ezen Trump, sintoma bezala, ez dela kausala. Zein da fenomeno horren atzean ezkutatzen den egia? Salbatzaile gisa aurkezteko Trumpek sentitzen duen AEBren egoera berezia, Txina munduko superpotentzia kapitalistaren aurrean orain arte munduko lehen potentzia ekonomikoaren gainbeheraren hasiera besterik ez da. Hots, AEBko eta mendebaldeko sistema kapitalistaren krisi sakon eta itzulezina.

Krisi hori, zehazki, AEBko supremazista zurien botere ekonomikoaren eta sinbolikoaren galeran adierazten da. Bi faktore horien konbinazioak, krisia/Salbatzaile baten premiak, eraman zuen AEBko presidentziara, aurreikuspen guztien kontra.

Nork eman zion botoa? Amerika erreakzionario eta supremazista zuriak (angustia-sortzaile gisara, QAnon eta beste mugimendu batzuen laguntza estimagarriarekin), zeinari gehitu behar zaion bezeria berria: deslekutzeak desindustrializatutako estatuen proletargoa).

Zein da Trumpen mezua holako jendeak botoa emateko? Hauxe izan da ardatz nagusia: AEBren handitasuna eta gailentasun ekonomiko eta kulturala

(America First, AEBko nazien goiburu historikoa) berrezarri behar da, izan ere elite amerikarrek berek bertan behera utzi baitute, urruneko txinatarren hobe beharrez, eta taxinatarrek deslekutze amerikarreko enpresa transfugei teknologia-transferentzia exigitzen baitzien.

Trumpek, paranoiko ona izaki, edonon ikusten ditu etsaiak: Txinaren aurkako eraso etengabeak (koronabirus txinatarra, muga-zergen inposaketa, espiotzagatiko salaketak, etab.); MOEtik irtetea, kritikak NATOri, tasak EBri, migrazioaren kontrola AEBko enplegua babesteko, etab.

Ez du aldamenean bere jokabidea kritikatuko duen inor nahi (destituzio anitz, zakarki). Era berean, sare sozialen bitartez (Twiter...) dena kontrolatzeko obsesioak informazioaren ekoizpena eta hedapena metatzera darama. Haren paranoia seinalatzen inor ausartu ez den arren, hauteskundeetako emaitzak, haren ustez bere etsaiek manipulatuak, ez onartzeak eta koronabirusari buruzko negazionismoak eraman zuen Kongresua eta iritzi publikoa haren osasun mentala zalantzan jartzera.

Hau da, Trumpek, krisian dagoen bere herriaren salbazioa predikatuz, era horretara AEBren onarpen soziala lortzeko, bere gaixotasuna sendatzea bilatzen zuen.

Paranoiko amerikar guztiak azaleratu zituen krisiak irauten du eta, horren frogak dira Bidenen Txinarekiko politika kontinuistak. Aitzitik, AEBren aislazionismoan zentraturiko ustezko salbazio-lerroaren ordez, Trumpek bazterrean lagatako bere aliatu historikoen laguntzarekin flotarazi nahi ditu AEBak Bidenek. Egia esan, jokaera horrek gainbehera-prozesua atzeratu ahal du, baina ezin izango du gelditu. Lege historiko bat da.

“Indultuek ezkutatzen dutena”

(2021-07-07)

Independentzia zaleen alorrean ERC garaile, PSOEk 155eko logika baztertu eta Urriaren 1eko buruzagi atxilotuentzako indultu-proposamenarekin agertu da. Erabaki horrek gizarte espainiarrean haustura sortu eta erreakzio ugari sorrarazi ditu: batzuk (PP, VOX, Ciudadanos), lehen unean, indultuek ezkutatzen duten operazio politikoa ikusteko ez gai, erabat kontra jartzen dira; beste batzuek (enpresariek, elizak, sindikatuek), Espainiari dagokionez ikuspegi pragmatikoarekin, erabat babesten dute.

Ziur gaude, lehenek, bigarrenekoen jarrera ikusirik, ondo ulertu dutela Espainia pragmatikoaren maniobraren transzendentzia; ordea, berean tematuta jarraitzen dute, zeren, itun horrek fruituak ematen baditu, badakite PSOEk

luzaroan iraungo duela. Politikan badago kudeatzaile guztiek ezagutu beharko luketen lege bat: aberria agertzen denean (Catalunyaren independentziaren aldeko borroka), haren baitan banaketa sortzen da. Zati bat mugimenduaren xedearekiko fidela da, eta bestea, Estatua agertu eta erreprimitzen duenean, ahultasuna aitortu eta albo batera egin ordez, zapaltzailearen logikan sartzen da. Ikus dezagun zer dagoen operazio horren atzean: gure iritziz, independentziaren exijentzia herritarraren alternatiba gisa, PSOEren eta ERCren arteko itun ongi xehatua dago; hau da, Catalunyarentzako Estatutu bat, erreferendumean bozkatua, gutxienez zepillatua, zaharrak zeukan berritasuna barnebilduko duena.

Azter dezagun beste toki batean jada idatzitako obraren taularatzea. ERCren diskurtso zaharrak, orain gobernuan egonik ezkutatzen duena, zera zioen: independentziazaleak gara; baina, une honetan, independentzia ez da posible soilik botoen %50arekin. Katalanen bi herenak haren alde egon daitezen landu behar dugu. Bitartean, posiblearen alde egiten dugu: Estutu Berria erreferendumarekin.

Egoera berrian PSOE da, sintoma batzuen bitartez, ituna argitara ekartzeko ardura daukana. Iceta estatutu onetsiaz mintzo da. Zapatero eta Almunia bat datoz ideia horrekin. Aldiz, ERC ezkutaketan jolasten dabil, itxuraz aurpegi independentziazalea erakutsiz (amnistia, autodeterminazio erreferenduma eta bisitak Puigdemonti). Kamuflaje-taktika luzagarri hau tarte batean koalizio gobernua mantentzeko premiak behartuta dator, herri-presioa desaktibatu eta proiektu horren aldeko babes bihurtzeko. ERCk konfiantza du, ezen, Estatuaren egoskorkeria negoziazio-mailan, jendea konbentzituko duela, une honetan, Estatutu berri bat besterik ezin dela lortu.

Itunak ezkutatzen duenaren gainetik (politika posiblearen eskulana), esan beharra dago, ezen, politika ezinezkoaren artea baldin bada, Catalunyaren autodeterminazioaren eta independentziaren aldeko borrokaz fidatzen garela, eta ez herriaren bizkar egindako itunez.

“Alfonso Sastre, erreferente etiko unibertsala”

(2021-09-08)

Aktibitate sortzaileak eta konpromiso politikoak bere bizitza luzea eta emankorra definitzen duen pare dialektikoa osatzen du Alfonso Sastrerengan. Optika honetatik begiratuta, esan genezake benetako subjektua mamitu eta mamitzen dela beregan, logika lakanianoari dagokionez.

Gure antzerkigilearen bizitzak Sofoklesen Antigonaren eta Eskiloren Orestiadaren artean baskulatu du. Alfonsoren bizitza Superegoaren aurka (Kreonte, botere despota eta injusturen arketipoa), Espainiako Estatuan mamitua, Euskal Herriaren zapaltzailea berau, Angustiak gurutzatuta dago (Antigonak nahiago du heriotza tiranoaren legeari men egin baino). Espainiako estatuaren errepresaliekiko beldur oinarrituari doakion Angustia, hain justu. Hala ere, gure dramaturgoak ez du etsi, eta Orestesek egin bezala, Kemenez jantzi da: Euskal Herriaren askapen borrokaren aldeko konpromisoa.

Justiziaren bilaketak (Atenearen kasuan bezala) bere bizitza osoa gurutzatu du: Euskal Herriaren independentzia eta sozialismoa.
Agur eta ohore, Alfonso.

“Ignacio Sánchez Galán arratoia”

(2021-10-14)

Ikus dezagun Iberdrolako patroi Ignacio Sánchez Galánen operazioaren atzean dagoen logika; kudeaketa eta arrakasta enpresarialaren adibide eta EAJk saldu nahi digun Euskadiren eredua da berau.

Operazio politiko makiabelikoa egin berri du, terminoaren adiera zabalean, PSOEko buruzagi ezagun bat, Antonio Miguel Carmona, entitatearen presidenteorde izendatuz.

Argiaren prezio-igoera eskandalagarriaren aurrean eginiko politika dela-eta POSEri eginiko eraso zuzena eta, aldi berean, PPren aldeko babes lotsagabea da. Formak ere gorde gabe jokatu du Galán jaunak. Horrela erakusten du argi asko hemen zeinek agintzen duen, aukeratua izan gabe.
Zer logikan jokatzen du Iberdrolako presidenteak? Galánek badaki zein den Carmonaren aldartea. Ibilbide politikorik ez daukala jakitun, irteera bat eskaini dio aurkitzen den atakan.

Denok dakigu ataka batek eragindako angustia-egoeran amore ematen duenak subjektu zein pertsona bezala desagertzen dela. Badakigu baita ere beti interes interesatuagatik saltzen duela batek bere burua, eta soilik ideial baten alde eusten diogula.

Amore ematen duen pertsona (traidorea, zeinari guk, destainaz, arratoi deitzen diogun) besteak markatzen dion denboran erortzen da, jada ez baitago ezer propiorik sortzeko, ez POSEren barruan ez kanpoan.
Tira, karraskariei buruz Galánek hainbeste baldin badaki, ez ote da bera ere inoiz arratoi izan delako?

“ETA edo hiltzeko plazera”

(2021-11-08)

ETAren borroka armatuaren bukaerako hamargarren urteurrena dela-eta, media estatal eta baskongadoen bonbardaketa desinformatua jasan dugu, VOX, PP, Ciudadanos eta PNVk txalotua berau. Haiek denak, salbuespenik gabe, ETAk hiltzeagatik hiltzen zuen ideiarekin gu zanpatzen saiatu dira; alegia asesinatzeko plazer hutsagatik hiltzen zuela esan nahi baita.

Haietako inork ez du ETAk bere jarduera armatua arrazoitzeko seinalatzen zituen motiboak aipatu. Ulergarria egiten zaigu media horiek ETAren jarduera armatuaren kontra egon izana eta egotea, baina informazioari dagokionez, onargarria ez dena da, ETAk bere jarduera armatua justifikatzeko emandako motiborik ez aipatzea, ez eta deslegitimatzeko ere.

Beti bezala, Espainia inkisitorialak, eta bereziki PNVk, zeinak bere prebendak ENAMen borrokari zor dizkion eta ez bere dohain negoziatzaileei, Euskal Herriaren helburu nazionalekiko erabat deslotutako ETA aurkeztu digute. Zergatik jokatzen du horrela PNVk? Saldukeria egiten duenak (PNVk faszistei men egitea Santoñan) aukera dagoen guztietan jarraitzen du egiten. Eta egia egiten den uneetan, saldukerian ibilitakoak ez du kontsekuentea dena jasaten. Aitzitik, estatu sakon hori, zeinaren zati den PNV, ez da jabetzen, portaera baztertzaile eta inkisitorial horrekin, nahi duen efektu kontrarioa lortzen ari dela euskal herriaren zati garrantzitsu batean.

Oso argigarria izan da konstatatzea Zapaterok PNVk eta haren propaganda-medioek (EITB) baino hobeto ezagutzen duela Euskal Herria. Hauxek izan ziren haren hitzak: “ETA oso ahuldua?... Beno... 3.000 atentatu egin zituzten eta 150.-200.000 boto zeuzkaten”

Tira, lehen esandakoa berresteko, PPk eta VOXek PNVri Gasteizko Parlamentuan emandako zorionak eta PSOeri eginiko kritikak.

“Pablo Torquemada”

(2021-11-19)

Beste behin konprobatzen dugu nola, momentu berezietan inkontzientea mintzo den, pertsonaren sakoneko egia errebelatuz, eta erakutsiz, iruditeria inkisitoriala inoiz baino biziago dagoela eskuin espainiarrean.

Horixe gertatu zaio Pablo Casado PPko militanteari eszena publikoan bost emakume horiek ikustean. Haien izaera femeninoak sorrarazten dio bere

inkontzientearen sakon-sakonetik barruan daraman Espainia beltza, Espainia inkisitoriala, zeinaren ordezkari kualifikatua den.

Halakoa da irudi horrek sorrarazten dion interpelazioa, ez du zalantzarik aurkezpena “akelarretzat “ jotzeko eta, ondorioz, haien partaideak sorgintzat –“sorginak” euskaraz–. Esan ez zuena, baina haren nominazio erruztagarrian inplizitu doana, da, sorginak, Espainiako Inkisizioak jazarri eta erreak, beren batzarrak akerraren larrean –“akelarrean”, euskaraz– ospatzen zutenak zirela. Bere izaera inkistorialean, ematen du ez dela kontziente balorazio horrek bere buruaz eta bere partiduaz adierazten duena.

Harrigarria da Torquemada berri hori inork bere tokian jarri ez izana, bere deklarazioen larritasuna kontuan hartuz, zeinak, une honetan esan nahi duen emakume horiek Espainia beltzean ugaritzen ari diren inkisidoreen eskuetan uztea.

Euskal Herrian, ondo ezagutzen dugu mentalitate inkisitorial espainiar hori, garai batean sufritu eta une honetan ere sufritzen duguna.

“Amaiur, haren adoreak interpelatzen gaitu” (2022-08-04)

Amaiurko gaztelua (1522), Baztanen, erresistentziaren azken gotorlekua izan zen Nafarroako Erresumaren konkista espainiarraren aurrean. Matxinatuek, beren adorearekin, Espainiako erresumari menderatuak ere, haien adoreak interpelatuta, konkistatzaileen aurka altxatzea bilatzen zuten.

Hara hemen Amaiurrek eman digun irakaspen ahaztezina: Gu gai izan bagara Nafarroako Erresumaren konkistatzaileei aurre egiteko, gure herriak ere edozein unetan egin dezake, beti baitago arrazoia zapaltzailearen aurka egiteko.

Zergatik Amaiurrek irauten du gure memoria kolektiboan, gertakizun hartatik 500 urtera? Zergatik bilakatu da porrot...garailea? Azter dezagun hemen dagoen prozesu subjektiboa. Amaiur defendatu zutenen adorea gure subjektibitateari deika ari da konkistatzailearen arauarekin apurtzeko, hots, superego hispano-galoarekiko menderakuntzatik atera, angustia-egoeratik atera (estatu espainiar eta frantsesaren errepresaliak sortzen duen beldurretik libratzea) eta adorera pasatzea justizia lortzeko (bi estatuekiko EH independentea). Gure kontzientzia nazionalari deika ari den eta arituko den interpelazio baten aurrean gaude.

Horregatik izan dira eta izango dira erreferente Euskal Herriaren independentziaren alde borrokatu diren eta borrokan ari diren guztientzat.

Menderatzen duen zapalkuntzaren aurka Euskal Herria altxatu ahal izatea historiako hainbat gertakizunetan loratzen den egitatea da: matxinadak, karlistadak, ENAM, etab. Izan ere, Lacanek dioen bezala, ez dago alferrikako adorerik.

Adierazgarria denez, Nafarroako erresumaren lehenaldia eta orainaldia lotzen duen neurrian, aipa dezagun Jorge Oteizak kontatzen duena (Eskerrona Nafarroako Urrezko dominagatik, Egin, 1992/12/3), adibidez adierazten baitu aurreko guztia.

Gure eskultore unibertsalak dio pairatzen dugun identitate-krisia memoria historikorik ez izatean datzala; eta tesi hori argitzen du bi pertsonaien bidez, bat nafarra eta bestea gipuzkoarra, zeinek, elkar ezagutu gabe, bi erabaki berdinak haratu zituzten.

Oteizak, zeinaren familiak Gipuzkoara emigratu behar izan zuen Nafarroako erresumaren konkistaren ondoren, historiako bi une identifikatzen ditu, elkarren artean hainbat mende tarteko: Vatikanoaren itsuskeria Jose Antonio de Agirre katolikoaren aurrean Espainiako Gerra Zibilean eta Julio II.a aita santuaren bula-salmenta Errege Katolikoei, Nafarroa Albako Dukearen aurka altxa ez zedin eta hola Nafarroa exkomunikatu berriaren konkista legitimatzeko.

Julio II.a aita santuak, aipatutako buletako diruarekin, Miguel Angelen obrak Kapera Sixtinoan bere ohore pertsonalerako ordaintzen dituen unea azaltzen du eskultoreak.

Nafarrak, Gerra Zibilaren ondoren Buenos Airesetik, Vatikanoarekin justizia historikoa egitea erabakitzen du. Han egonda Oteizak Caparrosoko beste nafar batekin konektatzen du, Pablo de Radarekin, Plus Ultra (1927) espedizio aeronautiko trasatlantikoko mekaniko heroikoarekin alegia, Vaticanoa bonbardatzeko prest, haren ondorioak ondorio. Argi dago bai bata bai bestea beste Amaiur bat direla.

Hara hemen Amaiurren interpelazioari buruzko inkesta kualitatibo honen une batzuk, zeinek gure imajinario kolektiboan irauten duten eta erabaki historiko honen gaurkotasun betikoari buruz, adore-ekintza iraunkor honi buruz, hitz egiten duten.

“Irulegik gure identitatea argitzen du” (2023-01-10).

Irulegiko eskua, 2.000 urte baino antzinakotasun handiagoarekin, aurrekaririk gabeko pizgarria izaten ari da Euskal Herriaren kontzientzia nazionalean. Haren

inpaktuak, euskal herritarrak hain indartsu eta emotiboki interpelatuta sentitzeko, aurkikuntza horren atzean benetan zer dagoen pentsatzera gonbidatzen gaitu.

Ez da albiste huts bat, jazoera bat, epe laburrean iragankorra; baizik gertakizun bat, gure identitatearen mamitzean oinarrizkoa.

Gertakizuna irispen unibertsaleko (nazioarteko hedapena duten aldizkari zientifikoak aipatu egiten dute) sorkuntza singular oro da (bakana), beti toki zehatz batean sortzen dena (gure kasuan Nafarroan).
Identitate oro imajinario batek (irudi baloratuak) eta sinboliko batek (zeinu-kontzeptu artikulatu eta partekatuak) osatzen dute. Kasu honetan, eskua xafla moduan eta bertan idatzitako zeinuak.

Zer harreman dago identitatearen eta gertakizunaren artean? Identitate oro errealak, gertakizunak (berriaren sortzaile dena), osatzen du. Zein eremutan agertzen dira gertakizunak? Zientzian, artean, politikan eta maitasunean. Irulegi deituriko gertakizuna eremu sinboliko-artistikoan kokatzen dugu.
Identitate oro dinamikoa ala estatikoa da. Identitate estatikoak lehenaldiko gertakarietan du oinarria. Gertakizun berrien sorkuntzarekin bihurtzen da identitatea dinamiko, biziberritzen da.

Gertakizunak gure imajinario eta sinboliko zaharrak hausten dituenez, hasieran, halako arbuio bat eragiten du gugan; baina, aldi berean, gure subjektibitateak argitzen ditu. Horregatik kokatzen du pertsona bakoitza Euskal Herriaren errealitate sozio-politikoan: identitate euskaldunean ala espainiarrean. Aurkikuntza publiko egin zenez geroztik, balizko baskismoaren azpian ezkutaturik zeuden identitate espainiarrak azaleratu ditu Irulegik. Aipatzen ari gara Pirinioen alde bietan kobazuloetan bizi ziren euskaldunek gurearen antzeko sinbolikotasun bat (prozesu kreatibo-artistiko guztietan erabiltzen den hizkuntza eta idazkuntza) eta imajinario bat (margoketa gaitasun artistiko gisa arte errupestrean), euskararen jatorriaren oinarria, edukitzeko gaitasuna ukatzen dutenak, iberismoz blai. Oteizak bere terminologiarekin zioen, ezen gure arbasoak margozteko gai baziren, euskaraz mintzo zirelako zela. Eta hitz egiten bazuten, idatzi ere egiten zuten.

Ezin dugu ahaztu gure identitate- eta pertenentzia-sentimenduak nolabait “ukituta” geratu zirela Iruña Veleiaren balizko iruzurrarekin. Irulegiren agertzeak bere indar osoz berreguneratu eta identitate espainiarraren aldeko maniobra difamatorio oro deuseztatzen ditu.

Izan ere, gertakizun orok denbora zatitu eta aurreko eta ondorengo bat markatzen ditu gertatzen diren eremu bakoitzean. Horregatik esan dezakegu Euskal Herrian Irulegi aurreko eta ondorengo bat dagoela, eta egongo dela.

“Identitatearen dilatazioa eta purifikazioa”

(2024-02-23)

Inmigrazioaren arazoa (proletario nomadak) ez da landu behar iristen diren nazioetako hizkuntza eta kulturen integrazio-asimilazioa inposatzen duten politikekin, mundu kapitalista globalizatuko estatuetan egin ohi den bezala. Estatu horietako askotan nazio zapalduak daude, Espainian, adibidez (Galizia, Katalunia, Euskal Herria). Eta nazio horietan, batik bat Euskal Herrian eta Katalunian, proletario nomada ugari daude.

Horietan guztietan, ez dago politika propioa gai horren inguruan. Eta, ez badago, Espainiako Estatuak, beste herrietatik datorren jendearekin, Katalunian, Galizian eta Euskal Herrian, gurekin, integratzeko eta asimilatzeko, aplikatzen duen politika berbera egiten amaitzen da. Gure identitateari uko egin eta espainiar sentitu gaitezen.

Eskuduntzak nazionalitate historikoetara eskualdatzearekin, hainbat pasarte xenofobo agertu dira Katalunian, bereziki Ripolleko udaletxeak erakutsitakoa.

Hori dela eta, argi eduki behar duguna da, nahita ere, guk ez daukagula behar beste botere inor indarrez integratzeko: euren identitateari uko eginarazi eta gurea onar dezaten.

Argi dago Espainiako Estatuak eduki badaukala indar hori. Eta proletalgo nomadak antzematen du. Beraz, integratzera behartuta sentitzearen aurrean, nabarmena da nazio espainiarraren hizkuntzan eta kulturan integratuko dela, eta ez katalan, galiziar edo euskaldunean. Eta, gainera, Espainiako Estatuaren aliatu bihurtuko da herri galiziar, euskaldun eta katalanaren aurka, ez baitira gai izan alternatiba propio eta desberdina eskaini ahal izateko. Horregatik ekidin behar dugu kosta ahala kosta, proletario nomada erabilia izan dadin, Espainia, berak zapaltzen duen herrietan, eraiki ahal izateko.

Zergatik da hain gai garrantzitsu eta delikatua? Jokoan dagoena funtsezkoa delako gizakiarengan: identitatearen arazoa, alajaina!

Horregatik, proletario nomadak integratzea eta asimilatzea bilatzen duen estatu zapaltzailearen aurrean, errespetuan eta elkar-ezagutzan oinarrituriko politika eratu behar dugu estaturik gabeko nazioetan, haiei herri berrian elkarbizitza eta errotzea ahalbideko diena. Modu berezian, harrerako herriaren hizkuntzaren eta kulturaren ezagutza erraztu behar diegu, estatu zapaltzailean integratzera behartuta izan ez daitezen. Hots, gurean parte

hartzea erraztu behar diegu, euren identitatea dilatatzea dakarrena, ez hari uko egitea. Kontuan harturik identitatea ez dela mugiezinezko zerbait estatikoa; identitatearen dilatazioak identitate dinamikoa, berrira irekia, ematen digu aditzera.

Era berean, alderantziz, harrerako herriko herritar gisara, beste herri eta kulturetatik dakarkiguten berrira irekita eta harbera egon behar gara, gure identitate propioa ere dilatatzen joateko.

Modu bakarra proletario nomadak gure kulturan parte har dezan, beraren dilatazioa, identitate dinamikoa, erraztea da. Aldiz, integrazio behartuarekin, berearen purifikaziora bultzatzen ditugu (integrismoa); horrela, gu xenofobo bilakatuz, kapitalismo globalizatuari jokoa egiten dioten arrazisten pare, hark behar ez dituen proletario nomadak kanporatuz, zeinak delinkuentetzat baitauzka.

Identitatearen dilatazioaz mintzo gara, ez ikuspuntu teoriko hutsetik; ikastolen mugimenduan bizi izan ditugun esperientzia pertsonaletatik baizik. Eta guk geuk, Toki Eder ikastolan, hain zuzen. Han, Espainiako Estatuko beste nazionalitate eta eskualdeetatik etorritako gurasoak gure seme-alaben euskalduntzearen borrokan batu ginen, era horretara, gure identitateak zabalduz: euskara ikasiz, euskal kultura ezagutuz; gureak ezagutarazi eta Euskal Herriko jendeekin partekatuz. Hots, gure identitateen dimentsio dinamikoa garatuz.

Inork ez gintuen integratzera behartu, gogo eta nahien bategitea izan zen, Euskal Herria justuagoa, solidarioagoa eta euskaldunagoa eraiki eta partekatzeko xedez.

Gure iritziz, horixe izan behar du gure politika gidatu behar duena, proletario nomadei dagokienean.

Denen artean eraiki behar dugu herria: jatorrizkoen eta etorritakoen artean.

Herri zapalduok politika berria, ezberdina eta iraultzailea egin behar dugu, errespetuan eta justizian oinarritua.

“EH Bildu, Lehen indarra Araban”

(2024-05-09)

40 urte atzerago, Araba feudo espainiarra zen. Zer gertatu da orduz geroztik tamaina horretako aldaketa izateko, EH Biduren garaipen ukaezina azken hauteskundeetan?

Egitate singular hau ezin da ulertu prozesu ebolutibo batetik abiatuta, zeinaren bidez kontzientzia espainiarra euskal kontzientzia bihurtu den.

Guk postulatzen dugu tamaina honetako aldaketa soilik gertakizun baten sorreratik uler daitekeela: egitate singular bat, lehena (Alava, España) eta geroa (Araba, Euskal Herria) markatzen duena gertatzen den tokian. Hau da, ustekabeko zerbait, zaharra utzi (identitate espainiarra) eta berria sortzen duena, euskal hizkuntzan eta kulturan oinarri duena.

Ikus dezagun zertan datzan kontzientzia berri honen gertakizun fundatzailea.

Ez dezagun ahaztu 40 urte atzerago Araban ezinezkoa zela euskalduntzea. PSOEk eta EAJk A et B ereduak inposatzen zizkiguten, esanez hezkuntza euskaraz bideraezina zela gure herrialdean.

Tokieder ikastolaren borroka luzeak gure gazteriaren eta gure lurraldearen euskalduntzearen oinarriak ipini zituen.

Gogoratu dezagun prozesu hori interpelazioari esker mamitu ahal izan zela, ENAMek, herri honen gaur egungo askatasun-borrokarren gertakizun fundatzaileak, gure kontzientziari eginiko deiari esker gertatu ere, EAJk erakutsitako pasibotasunaren aurrean.

Egitate singular honek, zuzenean edo zeharka, gure gazteria osoa, euskaldunak zein ez euskaldun, gure herriaren deiari sentikor, markatu du eta markatzen du, gaur arte.

Gogoratu dezagun gertakizun oro beti subjektu singular batean gauzatzen dela (ENAM, Tokieder, kasu honetan), berria aldarrikatzeko gai dena, zabaltze-gaitasun handiaren jabe, eta efektu iragarriezin eta sumaezinak dituena, harekiko errefraktario direnentzat ikusezinak. Horri dagokionez, analista espainiar gehienak ez dira gai izan EH Bilduk Araban izan duen garaipen ukaezinaren benetako arrazoiak ikusteko. Gehien-gehienek (euren artean Ortuzar jaunak) zioten hazkunde hori Podemosen boto-emaile zaharretatik zetorrela. Gogoratu dezagun Podemosi masiboki eman zitzaiola botoa, ustez, Madrilen, gure herriaren eskubide nazionalak, eta gure presoenak, defendituko zituela. Behaturik hori ez dela horrela izan, emeki-emeki desagertzen joan dira. Aldiz, aitortu beharra dago, kazetari gazte batek, kate espainiar ezagun bateko tertuliakide berau, esan zuela Arabako gazte gehienek EH Bilduri eman ziotela botoa, euskaraz mintzatzen zitzaielako. Bere erara, esaten ari zen euskal identitatea (euskara eta kultura), zeinaren prozesua aipatu dugun, EH Bilduk Araban izan duen garaipenaren oinarrian zegoela.

Konbentziturik gaude prozesu horren jakitun dela EH Bildu, eta orain arte jarraitutako bidea berretsiko duela.

Nikolas Xamardo

Iritzi Artikulua

“‘Guernica’, Gernikara” (*NAIZ*– 2026-04-08)

Duela egun batzu lehendakariak eskatu du "Guernica" Euskadira ekarria izan dadila, Guggenheim museoan erakusteko. Espainiako Gobernua aurka dago, kontserbazio-arrazoiak direla-eta. Gai errepikakor baten aurrean gaude: PNVren eskariak Espainiako Gobernuari, koadroa aldi baterako Euskadira ekartzea baimendu dezan (1981, 1998, 2006, 2010, 2017 eta 2026an) eta Espainiako Erreinuaren ukokak. Koadroa, New Yorken zegoela, Espainiara ekarria izan zen Calvo-Soteloren gobernuaren garaian.

Espainiako hedabideak eta Euskal Herriko gehienak koadroaren kontserbazio-arazotan zentratzen dira, ekartzearen ukoa zuritzeko. Aldiz, aipamen berezia merezi dute «Las seis razones de La Razón». Hedabide honi soilik falta zitzaion esatea Gernikako bonbardaketa euskaldunon asmakizuna izan zela.

Horixe da, gaingiroki, iritzi publikoak izan duen egitateen bertsioa. Alabaina, euskal herriak Picassoren koadroarekin gertatutakoari buruzko egia osoa ezagutu behar du, eta behingoz errelato faltsuekin amaitu: Uzelay marrazkilariak, kontseilari eta Arte Ederretako zuzendaria delarik, uste du Euskal Gobernuarentzat "Guernica" narraskeria hutsa dela, adar-jotze bat. Uzelayk, Madrilen 52an egin zidan bisita batean, kontatzen zidan… 1937an, Parisen, Picassorekin batera zihoala Errepublika Espainiarraren aldeko manifestazio batean, eta galdetu omen zion ea "Guernica"-n agertzen diren eskuen atzamarrak pitilinak bezala margotu ote zituen, eta erantzun ziola baietz benetan. Baina arazoa zen Picassok ez zuela denbora galtzen ergelekin eztabaidatzen. Picasso konturatu zen zein larria zen pertsona hura Euskal Gobernuaren kontseilari izatea, eta mezua bidali zion Aguirre lehendakariari koadroa idatziz eskatu ziezaion, uste zuelako euskaldunei zegokiela. Eskari hura ez zitzaion Picassori iritisi… 1962an, 25. urteurrenean, Joseba Rezolak, Defentsako idazkari eta Aguirreren laguntzaile izanak, Basterretxeari eta bioi deitu zigun Donibane Lohitzunera. Batzuetan «Gernika» zeritzan aldizkari txiki bat argitaratzen zuten, eta zenbaki berezi bat prestatzen ari ziren 25. urteurrenerako. Marrazki bat nahi zuten, adierazgarria, sinbolikoa. Nik esan nion "Guernica"-n zeukatela: lorea ezpata hautsiaren ondoan, heriotzaren eta esperantzaren sinbolo. Erantzun zigun "Guernica" ez zela interesgarria.

Guernicak interesik gabe jarraitzen zuen. Esan genion politikoki ongi jokatu zuela guri kontsulta egitean, baino oso gaizki guri kasurik egin nahi ez izatean. Eta joan egin ginen. (Jorge Oteiza: "No aguanto oir hablar aquí del 'Guernica" de Picasso'. "El Correo español", 1988).

Ikusiak ikusita, PNVk egin behar duen lehenengo gauza da egitateak aitortu eta euskal herriari barkamena eskatu. Eta ez jarraitu Espainiako Gobernuari koadroa behin-behinekoz eskatzen ibili.

Gertatukoaren egia ezagututa, uste dut Euskal Herriak Espainiako Estatuari gurea dena itzultzea eskatu behar diola. Eta Picassoren "Guernica"-k Gernikan geratu behar duela, Euskal Herriaren Askatasunaren, Demokraziaren eta Bakearen ikur den foru-hirian.

Nikolas Xamardo Gonzalez

Elkarrizketa
“J. Agirre Kolektiboa Euskal Herriko egoera politikoa eta ENAM interpretatzeko modu berri bat izan zen” (*BADIOU eta GU*–Abendua, 2025)

Badiou eta Gu (BeG) agerkarian https://badiouetagu.eus aurkeztutako “Artxiboa, Enziklopedia eta J Agirre Kolektiboa” *artikulu laburrean legendazko J Agirre Kolektiboko zenbait kideen izenak aipatu genituen. Hauen artean Nikolas Xamardo Gonzalez (NXG) agertzen zen eta oraingoan berarekin zuzenean hitzegiteko aukera dugu.*

BeG: J. Agirre Kokektiboa izan zenaz hitzegin aurretik, zu Alain Badiouren ikaslea izan zinen, Parisen 1968ko matxinadaren ostean eta geroztik adiskidetasuna mantendu duzue. Zein izan zen zure ibilbidea Alain Badiou ezagutzeraino?

NXG: Ni herrixka pobre batean, Vilar de Mouros, (Monforte de Lemos, Lugon) jaio nintzen, 1946ean. Aita eta ama Caldas de Reiesekoak (Pontevedrakoak) ziren. Aita maisua Vilar de Mourosen.

20 urterekin (1966 urtean) Santiagon, Filologia Erromanikoa ikasten hasi nintzen eta 1971 urtean amaitu nuen, 25 urterekin. Karrera Espediente on batekin amaitu nuen.

Santiagon (1966-71) egin nituen ikasketetatik gertakari bat nabarmenduko nuke: Parisen 1968 urtean egon zen mugimendu politikoa.

Paristar mugimendu politiko eta kulturalari buruzko berriak iristen zitzaizkigun handik. Modako hitza ESTRUKTURALISMOA zen. Fakultatean inork ez zekien estrukturalismoa zer zen.

Frantziako mugimendu politiko eta kulturala ezagutzeko gogoak nire jakin-mina piztu zidan eta Parisen ikasketak jarraitzeko erabakia hartzera bultzatu ninduen.

Soldadutza amaituta, Parisera joan nintzen ikasketak egitera (1973-74). Linguistika Orokorrean matrikulatu nintzen Paris VIII unibertsitatean eta Linguistika Orokorrean lizentziatuko nintzen. Lehen klasean (hau kasualitatea!), Alain Badiou estrukturalismoa azaltzen ari zen: dialektika estrukturala. Ferdinand de Saussure-ren Cours de *Linguistique Générale* obran agertzen den teoria. Parisera ikastera bultzatu ninduen hasierako arrazoia.

Gero, urte berean, Alain Badiouren Filosofiako seminarioetara joan nintzen, eta Jacques Lacanen Sikoanalisiko seminarioetara. Badiouren mintegietan politika eta bere legeak ulertu nituen.

Nire harreman akademiko eta pertsonala Badiourekin horrela hasten da Parisen egon nintzen bitartean. Ondoren, Laura Mintegi eta Antton Azkargortarekin Parisen egon ginen Badiou, Natacha Michel eta Sylvain Lazarus-ekin. Eta gero, Frantziako hiriburura joaten nintzenean (hainbat arrazoirengatik) Badiouri bisita egiten nion. Ahal nuen guztietan, Collège de Philosophie-n egiten zituen seminarioetara joaten nintzen, eta, ondoren, *Téâtre de la Commune*-ra, erretiroa hartu zuen arte. 2006an Santiago de Compostelako Unibertsitatean eman zuen hitzaldian ere berarekin egon ginen.

Paris ostean, 1975 urtean Gasteizera etorri ginen bizitzera. Bertan, segituan, ETAk eta ENAMek interpelatu egin ninduten. Nire kontzientzia politikoa eta soziala erabat aldatu zen, eta nire jarduera politiko eta akademiko guztia markatu zuen.

Nire kontzientzia politikoa eta nire kontzientzia nazionala (euskalduna eta galiziarra) piztu ziren Euskal Herrian. Geroztik, nortasun (edo identitate) bikoitza dut: euskalduna eta galiziarra.

BeG: Beraz, Galizian ikasketak hasi eta Maiatzak 68 ondoko Parisen Alain Badiouren eta Jacques Lacanen eskoletan ikaslea izanda gero, 1975an Euskal Herrira etorri berri ETAk eta ENAMek interpelatu zizutela diozu. Nola lotzen duzu interpelazio hori Pariseko esperientzia intelektual eta politikoarekin?

ETA-ENAMeren interpelazioak gizartean eta politikan jardutera bultzatu ninduen. Eta jarduera politikoan eta sozialean ere sartu nintzen.

Lotura argitzeko militantzia/subjektua, politika/politikoa eta gertakizunari buruz aldez aurreko gogoeta labur batzuk behar dira.

Militantzia edo ibilbide militantea dela-eta, militantea eta subjektua bereiztu behar dira: **Militantea** alderdi edo erakunde politiko bateko kidea da. **Subjektua** gertakizun bat sortzen duena edo/eta gertakizun batean parte hartzen duena da.

Gero politika eta politikoa bereiztu behar dira: **Politika** dago (berria, gertakizun bati lotua) eta **politikoa** (dagoena kudeatzea). Nola transmititzen dira? Politikoa dena, jakina denez, komunikatu egiten da. Dauden komunikabideak (pertsonalak eta sozialak) erabiltzen ditugu. Eta politika? Politikak ez du komunikatzen, interpelatu egiten du. Dei bat egiten dio gure kontzientziari.

Gertakizunak, hasiera batean, inkomunikatu egiten gaitu, interpelatu egiten gaitu. Dei bat egiten dio gure kontzientziari. Gure justiziaren zentzuari. Gure iruditeria eta sinbolikoa hausten ditu. Eraldatu egiten gaitu. Pertsona berri batean bihurtzen gaitu.

Gertakizun batetik sortutako mugimendu politiko orok norabide bat behar du. Zuzendaritzaren funtzioa mugimendu asanbleariotik sortzen diren ideiak biltzea eta jarraitu beharreko direktibak markatzea da.

Zuzendaritzak ez ditu ideia berriak sortzen. **Ideiak herritik datoz**, Maok zioen bezala. Mugimenduaren zuzendaritzak ideia horiek interpretatzen eta ekintzarako gidari bihurtzen jakin behar du.

Lekuko izan nintzen bi borroka (**Toki Eder ikastolakoa** eta **Martxoaren 3koak**) adibide argigarriak dira.

Martxoaren 3ko borrokan (1976) parte-hartze aktiboa izan nuen: manifestazioetan, batzarretan, grebalariei elkartasuna eta laguntza emateko kutxan… Sarraskiaren egunean elizan nengoen.

Martxoaren 3ko gertakarien ondoren, politikan parte hartzeko erabakia hartu nuen.

Abertzale eta ezkertiar sentitzen nintzen. EE eta HB ziren bi aukerak. Mario Onaindiarekin elkarrizketatu nintzen eta konturatu nintzen ez zela nik bilatzen nuena.

Xabier Sanchez Erauskinekin elkarrizketatu nintzen eta independente gisa sartu nintzen HBn.

Hauteskunde-kanpainan parte hartu nuen. Mitinetan Galiziera ere erabiltzen nuen. Zinegotzi lortzetik boto gutxira geratu nintzen. Saturnino Las Herasek, dimisioa aurkeztu zuenean, Gasteizko Udaleko zinegotzi kargua hartu nuen, HBtik independentea, **1979**an.

Toki Eder ikastolaren aldeko borroka (1978-83) eredugarria izan zen. Gasteizko Armen Museoan izan genuen itxialdi luzean, arratsalde batean, museora iritsi nintzenean, ama batzuk elkarren artean hizketan ari ziren. Batek, Unai Romanoren amak, esan zigun kezkatuta zeudela ikasturtea aurrera zihoalako eta seme-alabek ikasturtea galtzeko arriskua zutelako, eta guraso batzuek entzierroa utzi eta seme-alabak B ereduko ikastetxeetan matrikulatzeaz hitz egiten zutela.

Mugimenduaren zuzendaritza bildu zen eta, egoera aztertu ondoren, erabaki hau hartu genuen: **Armen Museoan klaseak antolatzea**.

Armen Museoan eskolak emateko irakasle euskaldunei laguntza eskatu genien. Hiru irakasle etorri ziren. Haiekin eta zenbait ama euskaldunekin eta lagun euskaldun batekin (Jon Mari Otegi), armak beheko lehen solairura jaitsi genituen, espazioa maindireekin banatu genuen eta eskolak ematen hasi ginen. **Erabaki** hori erabakigarria izan zen **prozesuan**: inork ez zuen mugimendua utzi. Aldundiak, erabaki horren aurrean, elkarrizketarako eta gatazkari irtenbidea bilatzeko deia egin zigun. Horrela, ikastola berri bat eraikitzea lortu genuen: **Toki Eder**. Gainera, lagundu ziguten irakasleak irakasle sartu ziren ikastola berrian.

Toki Eder Ikastola abangoardia izan zen Gasteizen eta Araban euskarazko irakaskuntza sistema publikoaren aldeko borrokan. D eredua debekatuta zegoen Araban.

Toki Ederreko borrokak Arabako panorama linguistikoa aldatu eta kontzientzia nazionala esnatu (piztu) zuen. Gaur egun, EHBildu da indar nagusia Gasteizen eta Araban.

Hala ere, Toki Eder ikastolaren inguruan izan ziren desadostasunak. HBek esaten zuen ikastola eurena zela. Eta guk: Guraso batzuk, bai; baina Tokieder ez da egitura bat, heri mugimendu bat baizik.

LABekin desadostusunak izan ziren kontratu administratiboa sinatu zutelako.

Ezker Abertzaletik urrundu egin ninduten eta, ondoren, dedikazio osoa irakaslego propioaren aldeko borrokari eman nion, batik bat.

Gero, LABekin eta Ezker Abertzalearekin, berriz hasi nintzen harremanetan. Erretiroa hartu nuenean, **2016**an, Zigoitiko udal-politikan aktiboki parte hartzen hasi nintzen EHBilduko udal-taldean. 2018an, aktiboki parte hartu nuen Gure Esku Dagok Zigoitian deitutako erreferendumean. Joan den udal hauteskundeetako zerrendan ere izan nintzen, **2023**an. Eta berdin jarraitzen dut.

Aipatzen dituzun adibideen harira Badiou zuzen dabil: gertakizunaren "egia ez da lorategian sortzen den arrosa". Zuk zeuk aipatzen duzun irakaslego propioen aldeko borroka ezagun eta luzeari buruz hitzegin aurretik hitz egin dezagun J. Agirre Kokektiboa eta kolektiboarekin izan zenuen harremanaz. Zer izan zen J. Agirre Kokektiboa eta eta zein izan zen zure zeregina kolektiboan?

Nik uste, irakaslego propioaren aldeko borroka eta J. Agirre Kolektiboa lotuta daude garaiko UPV/EHU-ko testuinguruan.

1983an, Komunikazio Zientzien Fakultateko Kazetaritza Sailean sartu nintzen. Han ezagutu nituen hiru irakasle: Antton Azkargorta, Doktorego-Tesia zuzendu nionari, Jose Luis Herrero (Pepelu) eta Laura Mintegi, Doktorego - Tesia ere zuzendu nionari; bide batez, J. Agirre Kolektiboa izena Laura Mintegik asmatu zuen.

Badiou eta Lacan aipatu nizkien eta horrela hasi ziren pentsalari hauen teoriak UPV/EHUn ezagutzen. Euren kontzeptuak funtsezkoak izan ziren nik zuzendu nituen bost Doktorego-Tesietan, J. Agirre kolektiboaren sorreran eta, bereziki, Irakaslego Propioaren aldeko borrokan, hogei urtez, **1987-2007**.

J. Agirre kolektiboaren pentsamendua, funtsean, Alain Badiouren (*Gertakizunaren Teoria*) eta Jacques Lacanen (*Subjektuaren Teoria*) lanetan oinarritzen zen, eta Louis Althusser-renean (*Interpelazioaren teoria*). J. Agirre Kolektiboaren artikuluek hauen pentsamendua Euskal Herrian eta Espainiako Estatuan gehiago ezagutzera emateko balio izan zuten.

J. Agirre kolektiboak zenbait artikulurekin prentsan (Egin, Herria 2000 Eliza, Uztaro) egingo zituen agerraldiak Euskal Herriko egoera politikoa eta ENAM interpretatzeko, pentsatzeko eta ezagutarazteko modu berri bat ziren, aipatutako bizpahiru pentsalarien postulatuetatik abiatuta.

J. Agirre kolektiboaren esku-hartze mediatikoei buruz azterketa eta iruzkin inkriminatorioak ere egin ziren Espainiako eta Euskal Herriko hedabideetan. Unibertsitateko zenbait irakasleez gain infanteriako teniente-koronel bat ere egon zen kolektiboaren artikuluak aztertu zituztenen artean.

Taldekideen identitatea, orduan, enigma bat zen aipatutako analistentzat. Horren ondorioz, hedabide batzuek esan zuten zenbait pertsona, kolektiboarekin zerikusirik ez zutenak, kolektibokoak zirela.

Dena den, pentsamendu hori guzia erabakigarria izan zen, nire ustez, irakaslego propioaren aldeko borrokan. Unibertsitatean inoiz ikusi gabeko borroka aipatutako postulatuetatik pentsatua eta zuzendua zegoen, bereziki Subjektuaren Teoriatik.

15 urtez eutsi genion pankarta baten atzean (1992-2007) Badiou eta Lacanen pentsamenduari esker. Irakasleria propioaren alde borrokatzeko erabakia hartuta (eta gertakari txiki horren subjektu bihurtuz), bagenekien ezin genuela amore eman.

Lagapenak, traizioak, subjektua suntsitzen du. Koldar bihurtzen zaitu. Justizia lortzeko (Irakaslego Propioa) larritasuna gainditu behar genuen (Legearena, Errektoregoa, Hezkuntza Ministerioa, zigorraren beldurra), adorez armaturik.

Gainera, Lacanek dio traizioa egiten duen pertsonak ezingo duela inoiz berriro subjektu izan. LAB sindikatuko lankideek, mugimenduari traizio egin ziotenek, Errektoretzaren eta Hezkuntza Ministerioaren presioei amore eman zietenek, oso gaizki pasatu zutela esan ziguten.

Nire ustez, J. Agirre kolektiboak existitzeari utziko dio UPV/EHUn sartzen garen unean. **2007**. urtean Jose Ramon Etxebarria, Jexusmari Zalakain eta neuk, behin Irakaslego Propioa lortuta, gure itzulera negoziatu genuen errektoretzarekin.

José Luis Herrerok eta Antton Azkargortak errektoretzak “beste asmo batzuk zituzte”la ustez, ez zuten onartu eta kaleratuta jarraitzen dute.

Argi geratzen da gertakizunaren, subjektuaren eta interpelazioaren teoriak erdi-erdikoak direla zure ibilbide militante eta intelektual luzean. Hau esanda, zure esperientzia militantean borroka politikoa eta borroka akademikoa bat datoz, edo, hobe esanda, agian, zure borroka politikoa akademian irakaslego propioaren aldeko borrokarekin lotuta egon da hein handi batean. Baina gehiago ere badago, ez da hala?

Bai, nire ibilbide akademikoa eta politikoa txanpon beraren bi aldeak dira. Bata ez da ulertzen bestea gabe. Horregatik errepikatzen naiz militantzia eta lan profesionala banatzen saiatzen naizenean ere.

Hemen aktiboki parte hartu nuen Unibertsitateko fronte eta borroka akademikoen zerrenda:

1968ko bizipenak, Santiagon, Alain Badiourekin Parisen izandako prestakuntza politikoa eta ENAMek Euskal Herrian egindako interpelazioak nire jarduera akademikoaren adierazle dira.

1975an Gasteizera itzuli eta Arabako Unibertsitate Ikastetxeko Filologia Espainoleko plaza batera aurkeztu nintzen eta irakasle laguntzaile postua lortu nuen Filologia Sailean. Lan-esperientzia interesgarria izan zen. Esparru akademikoan eta politikoan. 5 urte oso interesgarri eta biziak izan ziren, kaleratu

arte, **1980**an. UPV/EHU-ko Gobernu Batzordeak gure protesta zigortu zuen, UPV/EHUn sartzeko betiko debekatuz.

1980. Filosofia eta Letren Fakultatea sortu zenean, Unibertsitate Ikastetxeko irakasle guztiak pasatu ziren, bost izan ezik eta ni horien artean nengoen. Koldo Mitxelena Filologian eta Emiliano Fernandez de Pinedo komisario dekanoa izan ziren, arrazoi politikoengatik, 5 irakasle kaleratze horren arduradunak.

1980ko ekainean, Arabako Unibertsitate Ikastetxean, itxialdi luzea egin genuen Gasteizko Seminarioan (Filosofia eta Letren Fakultate berriaren egoitza), gure kaleratzeen aurka.

1982an, Unibertsitate-Ikastetxeko Patronatukoek 2 urteko beka eman zidaten eta Filologia Erromanikoko doktore titulua lortu nuen Valladolideko Unibertsitatean, nota gorenarekin: *Sobresaliente cum Laude*.

1983an, Espainiar Filologiako plazen deialdira aurkeztu nintzen Estatu osoan eta Lleidako Unibertsitatean onartu zuten nire eskaera. “Parisko Linguistika Orokorreko lizentziatura erabakigarria izan zela plaza emateko orduan”, esan zidaten.

José Angel Cuerdak, Gasteizko alkate eta José. Manuel Gandarias, Unibertsitate Ikastetxeko zuzendariak egindako gestioei esker, Gregorio Monrealek, UPV/EHUko errektoreak bertan bera utzi zuen UPV/EHUn sartzeko debekua.

1983an, Komunikazio Zientzien Fakultateko plaza batetara aurkeztu nintzen eta lortu egin nuen eta UPV/EHUn sartu nintzen, Kazetaritza Sailean. Horrela ekin nion berriro Unibertsitateko jarduera akademikoari.

1986 urtean, unibertsitateko irakasle titularraren plaza lortu nuen.

1987 urtean, UPV/EHUn Irakasle Propioaren (Lan Kontratuaren) aldeko borrokan parte hartzen hasi nintzen. Bi urteko enplegu soldaten etenaldia ezarri zidaten.

1992 urtean, Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiak amaitutzat eman zituen lan-kontratuak. LAB sindikatua kontratu administratiboa sinatzearen alde agertu zen. 600 irakasle inguruk sinatu zuten kontratu administratiboa.

Azkenean, 5 irakasle geratu ginen. Lagapen horren ondorioz, borrokak 15 urte iraun zuen. UPV/EHUtik kanporatuta, 15 urtez egon ginen UPV/EHUren atarian pankarta baten atzean.

1992an Gose greba egin genuen El Salto del Negroko espetxean gose greban zeuden ETAko presoei elkartasuna adierazteko.

1993an Gose greba, berriz, nik eta Antton Azkargortak. Orain kaleratuta zeuden irakasleek egindako azterketen onarpena eskatzeko.

1995: Beste Gose greba bat, mugagabea, hasi nuen nire bulegoan, irakasle kaleratuen egoera bidegabea (injustua) salatzeko.

2003 urtean, beste 2 urteko enplegu-soldaten galerarekin zigortu ninduen Victor Urrutiak, Errektore Ordeak, eta nire plaza amortizatu zuen. UPV/EHUren sarreran zegoen karabana batean gose-greba egin nuen. Anjeles Iztueta Hezkuntza Sailburuaren bisita jaso nuen. Konfiantza izateko esan zidan. Bera UPV/EHUra itzultzearen aldekoa zela. Espainiako Parlamentuak lan-kontratua onartua zuen. Formula bilatu behar genuela gu berriz lanean hasteko.

Gose grebak UPV/EHUra itzultzeko prozesua erraztu zuen.

2007. urtean, UPV/EHUra itzuli nintzen. Juan Ignacio Pérez Iglesias errektorearekin UPV/EHUra itzultzeko negoziazioak egin genituen eta Jose Ramon Etxebarria, Jexusmari Zalakain eta hirurok UPV/EHUra itzuli ginen. Gure itzulera kolpe latza izan zen gure errepresiogileentzat, eta poz handia gure alde egin zutenentzat.

Denera, bada, 20 urte **(1987-2007)** iraungo zuen borrokak, 15 urte pankarta batekin, Leioako campusaren sarreran.

Hainbeste urte iraun ahal izan genuen Laura Mintegik kudeatutako erresistentzia kutxa bati esker, ezker abertzaleko jendeak finantzatutakoa. Baita ikasle solidarioei esker ere.

2016. urtean, jubilazioa hartu nuen.

Tartean euskal preso politikoen unibertsitate ikasketak ere bultzatu zenituen, ez da hala, Frantziako eta Espaniako estatuko kartzeletan?

Bai, Estatu espainiarrean eta frantsesean preso zeuden ikasleei laguntza akademikoa emateko batzordean aktiboki parte hartu nuen. UPV/EHUn egon nintzen bitartean, 33 urtez **(1983-2016)**.

1996an Jon Anzari azterketa egitera joan nintzen Tenerifera. Ikastetxeko maistrak eta maisuak hartu ninduten. Galiziarrak ziren. Eskolara eraman ninduten. Ahozko azterketa egiten hasi nintzen. Maisua nire atzean eserita zegoen. Handik pixka batera zarata entzuten dut. Itzuli eta ikusten dut maisua magnetofono batekin grabatzen ari zela. Azterketa eten eta legezkoa ote zen galdetu nion. Maisua zuzendariari kontsultatzera joan zen, eta ni bazkaltzera. Itzultzean, maisuak esan zidan azterketarekin jarraitzeko eta ez zuela grabatuko.

Hilabete batzuk geroago, Espetxeetako Zuzendaritzak Espainiako kartzeletan sartzeko debekua jakinarazi zidan. Arartekoarengana eta Herriaren Defendatzailearengana jo nuen. Gil-Roblesek erantzun zidan ez zegoela

legerik, baina kartzelako zuzendariak, segurtasun arrazoiengatik, azterketa grabatzeko eska zezakeela.

Espainiako Espetxe Instituzioen debekuak bultzatu ninduen Frantziako Estatuko kartzeletan zeuden euskal preso politikoak UPV/EHUn matrikulatu ahal izatea lortzen saiatzera.

Euskal preso politikoak, Frantziako espetxeetan, ezin ziren UPV/EHUn matrikulatu, ez zegoelako hitzarmenik Frantziako espetxeekin. Laura Mintegi, Antton Azkargorta eta hirurok Parisera joatea erabaki genuen, Justizia Jauregira, Rivière epaile bereziarekin hitz egitera.

Riviere epaileak hartu gintuen Justizia Jauregiko bere bulegoan. UPV/EHUren eta Espetxe Erakundeen arteko harremanei buruz galdetu zigun. Gure azalpenak entzun ondoren, Frantzia ez zela gutxiago izango esan zigun. Leihora irten zen, fotomatoi bat seinalatu zigun. Argazki batzuk egiteko esan zigun. Bisita egiteko baimenak eman zizkigun eta Santen zeuden presoak bisitatu genitzakeela esan zigun.

Hara joan eta Jose Luis Eziolaza Galanekin egon ginen. Hasieran harrituta zegoen, poliziak ginela uste zuelako… Baina baimena lortuta, urte askoan egon ginen preso politikoak bisitatzen eta laguntzen Frantziako geografia osoan. Azkena Ibon Gogeaskoetxea izan zen. Erretiratuta nengoela, bisitatzen jarraitu nuen, eta akademikoki laguntzen Mont-De Marsanetik atera zen arte, 2020an.

BeG: Bizitza akademiko eta militante luzea eta engaiatua zurea, subjektu politikoa, guztiz! Bukatzeko, nola ikusten duzu egungo egoera politikoa orain erretiroan zaudela. Nola ulertzen dituzu gertakizunarekiko militantzia eta fideltasuna, gaur egun, Euskal Herrian, eta nola ikusten duzu egoera orokorra munduan?

Militantzia dela-eta abertzalea eta komunista naiz, E.H-ren independentziaren aldekoa eta gizaki guztien berdintasunaren aldekoa. Gertakizuna desagertuta (ETA-ENAM), nazio eta gizarte askapenerako **politikak**bide eman dio **politikoari**, posible denaren kudeaketari. Kasu paradigmatikoa Ezker Abertzalearena da, Espainiako sistema parlamentarioko beste alderdi politiko bat bihurtuta.

Panorama etsigarri honen aurrean, zein da dagoen egoerara makurtu nahi ez duen pertsona orok jokatu behar duen papera? Nire iritziz, egoeraren izaerarekin haustura dakarren edozein mugimenduri adi egoteaz gain, ez du

egon behar inongo erakunde politikotan. Erabakiak batzar batean zuzenean hartzen diren mugimenduetan parte hartu behar dugu.

Nik, EHBildu-ri organikoki lotuta egon gabe, Zigoitiko politika munizipalistan eta Berrikanoko Administrazio Batzarrean parte hartzen dut erabakiak beti batzar irekian hartzen direlako.

Hori da, nire ustez, subjektu bihurtu gintuen gertakizunari leial izaten jarraitzeko modua. Egungo egoeran beste gertakizun baten irrupzioa noiz izango ote adi.

Munduko egoerari buruz, AEB burutzat duen sistema kapitalista krisian dago. Txina indarra hartzen ari den potentzia kapitalista da, eta gaur egungo mundu mailako egoera geopolitikoaren arrazoia. AEB-ren inperialismoaren gainbeheraren hasieraren aurrean gaude. Asiako erraldoia izango da hurrengo munduko liderra. Trumpen muga-zergak globalizazioaren amaiera adierazten dute eta protekzionismo ekonomikoaren adibide argia dira Txinaren aurrean. Sistemaren krisi hau arlo politikoan ere agertzen da munduan faxismoaren gorakadarekin: Trump, Bolsonaro, Milei, Meloni, Abascal, Orban, Le Pen, Alemaniarako alternatiba, Suediako Demokratak eta abar eta abar.
Krisi baten aurrean, subjektibotasuna, alternatiba aurrerakoirik gabe, dagoen Araura tolesten da, Superegora, Lacanek esango lukeen bezala. Horrela azaltzen da mundu mailako mugimendu faxistaren gorakada.

Sistema kapitalistaren giza-desberdintasunak nazioartekoak dira Ipar Globala eta Hego Globalaren arteanm batik bat. Hego Globalean 6.000 milioi pertsona baino gehiago bizi dira muturreko pobrezian. Hori dela eta,Ipar Globaleetara emigratu behar dute. **Proletario nomadak** dira.

Proletario nomada edo migratzaileen etorrerak aurrez aurreko arbuioa pizten du eskuin muturreko alderdien artean. Alderdi arrazista hauek proletario nomadek beren identitatea arriskuan jartzen dutela diote.

Sistema kapitalista garapen eta hedapen betean zegoenean, milioika proletario nomada onartzen eta integratzen zituen. AEB da baieztatu berri dudan honen adibiderik onena.

Gertuago, EBko biztanleriaren zahartzeak eta jaiotze-tasa baxuak ezinbesteko egiten du proletario nomaden harrera, baita bizitzen ari garen krisi ekonomiko honetan ere. Nire ustez, harrera ez da zuzendu behar proletario nomadak bertako identitatearekin asimilatze aldera (integrazioa).

Aitzitik, proletario nomaden harrera beren eta gure identitatearen dilatazioan oinarritu behar da. Hau da, gure arteko identitateen dimentsio dinamikoa garatuz.

Antton Azkargorta
Jose Luis Herrero

(UPV/EHUtik irakasle kaleratuak)

Iritzi Artikuluak - *BERRIA/Hiruka* (2013-24)

“Jon Etxeandia eta elkartasuna”

(2010-04-28)

Gure despidoaren hemezortzi urte betetzen diren honetan gogora ekarri nahi ditugu, oraintsu hil delako eta militante eredugarria izan zelako, Jon Etxeandiaren pentsamendua eta gurekin izan zuen jokabidea. Kartzelan eman zituen urteetan, –hemezortzi ere bai– gordinak ikusarazi zizkioten arren, ez zituen inoiz galdu pertsona libre gisa jokatzeko ahalegin eta grina etengabeak. "Pankartako" partaideok zor kitaezina dugu berarekin, gure borrokaren unerik latzenetan beti adorea helarazi zigulako, kartzela barruan bizi zuen egoera objektiboki askoz txarragoa zen arren. Haren gutunak eta artikuluak beti izan ziren eragingarriak guretzat. Argazkian, Antton Azkargorta (bigarrena ezkerretik) eta Jose Luis Herrero (eskuman) irakasle kaleratuak bi laguntzailerekin. Biek eta Enrique Lopez hirugarren kaleratuak aspaldi ez dute batera agerraldirik egiten.

Gure borrokarekin eta azaldu genuen adieraziarekin hartu zuen konpromisoa hain izan zen handia ezen ikasleek osaturiko errektoretzarako kandidatura

baten (modu sinboliko baina garrantzitsuan) parte hartzera iritsi baitzen. Irauli deituriko kandidaturako ikasleek beren herriarekiko konpromisoa berresteaz gain, UPVren barrutik unibertsitate herritar, euskaldun eta demokratikoaren alde borrokatzeko, hautaketa-prozesuan parte hartzea erabaki zuten, eta aldi berean beren ikasle egoeratik unibertsitatearen egoerari buruzko ikuspuntu autonomoa eskaini. Irauliren programak UPV euskal gizartearen arazo nagusiekiko hausnarketa, eztabaida eta erabaki gune gisa kokatzea proposatu zuen, betiere gure herriaren nazio-eraikuntzarekin lotuta dauden subiranotasuna, lurraldetasuna eta independentziaren haritik. Horrek guztiak, haien ustez, halabeharrez irakaskuntzaren zein ikerkuntzaren alorreko eredu propioen sorrera eta garapena eskatzen zuen. Eta baita ere unibertsitarioen komunitate osoaren jarrera aldaketa funtsezkoa: ezinbestekoa da unibertsitateak gure herriaren berezitasunak ezagutzea eta horren balio propioak garatu eta defenda ditzan.

Erraz ikus daiteke beraz, kandidatura hartan parte hartu zutenen eta gure Irakasleri Propioaren aldeko borrokaren artean sintonia handia zegoela.

Bere ziegatik, sarri jaurti zituen Jonek gure erreibindikazioen alde elkartasun-espazioak zabaltzeko laguntza-deiak. Esaterako, "SOS, un destello de luz roja" delakoan asaldatuta agertzen zen jasaten genuen errepresioagatik eta askoren axolagabekeria ikusita. "Egin"-en argitaratu zuen gutunean honela azaldu zuen zeukan kezka: "¿Qué tiene la solidaridad que tanto duele?" ondoren, eskari hau luzatuz: "Que se articule e impulse la solidaridad y sea el pueblo quien lleve a cabo una fiscalización activa y participativa de la Universidad, con el fin de que la UPV sea un campo plural, autónomo, con Profesorado Propio y vocación de servicio a la comunidad de la que nace y no al Estado al que sirve". Era bertsuan, sutsuki defenditu zuen funtzionaritzari egindako intsumisioa, irudi hori estatuaren integrazioaren adierazle delako. Jonentzat intsumisioa ez zen soilik ikuspuntu antimilitaristatik aztertu behar, baizik eta optika zabalago batetik: "La insumisión" –zioen– "más que un grupo identificado es una acción, una filosofía, una praxis fecunda".

Beti animatu gintuen hasitako bideari jarraitzeko, eta gure tresnak arinak eta txikiak izan arren ("una pancarta, una ikurriña y seis enseñantes"), agindu zigun ez ginela inoiz bakarrik egongo, ez borrokaren garapenean, ezta helburuetan ere. Ongi dakigu Jon harro sentitu zela eman zigun elkartasunagatik, eta hori haren esperientzia intelektual eta bizitzarako aberasgarria izan zela.

Bihoakio urtemuga honetan, beraz, gure esker ona elkartasunaren benetako balioa erakutsi zigulako.

Duela hilabete UPVko errektorea izendatzeko hauteskundeak burutu ziren. Ezaguna denez, Iñaki Gorizelaia, aurreko errektorea, berrautatua izan zen. Egia esateko, hautes-kanpainak ez zuen interes handirik piztu, ez unibertsitatean ez gizartean. Hautagaiaren programa oharkabean pasa eta gai izarra Gabonetako ordainsaria ordainduko zuenetz izan zen. Giroa apatikoa, grina gabekoa, eta abstentzioa oso altua izan zen. Zigor gisara interpretatu izan diren zuriz emandako botoak %45era iritsi ziren. Ikasleriak era masiboan paso egin zuen eta soilik eman zuen botoa ehuneko hiruak. Orotara botoa eman zuten unibertsitarien botoak apenas gainditu zuen ehuneko bosta. Aipatu zifrok nahiko deigarriak dira eta hautagaia bakarra izateak ez dizkigu arrazoiak guztiz argitzen.

UPVren historian izan da unibertsitarien, komunikabideen eta gizartearen interesa piztu duen beste hautes-prozesurik. Agian aldaketa politikoen garaiak zirelako, istilu politiko eta ideologikoak tartean zeudelako edo boterea lortzeko borroka gordinak ere present zeudelako. Akaso, baita ere, haietako batzuetan indarrean dagoen eredu unibertsitarioari alternatiba erradikalagoak kontrajarri zitzaizkiolako. Gogora ditzagun esaterako trantsizioa delakoaren garaiko klaustro arauemaileak.

Haietako batzuetan hautagai ofizialei ordezkariek betoa ipini zieten eta lege-baldintzak betetzen ez zituzten beste batzuk izendatu. Edo beste hartan, Emilio Barberaren inguruan bildutako teknokrata liberalak "kontsentsuaren" taldearen kontra aurkeztu zirenean. Talde honek unionistak, estatuaren estrategien menpeko sindikalistak, burokratak eta EA alderdikoak elkartzen zituen. Ezin ahaztu ere Ertza kandidatura apurtzailea, Euskal Unibertsitaterako proiektu batekin zetorrena. Denboran hurbilago, 2000. urteko hauteskunde oso lehiatuetan klaustroren ia %100ak hartu zuen parte. Monterok gidatutako unionisten eta Perez Iglesiasek bildutako nazionalisten arteko borroka duelu

gisa ikusi izan zen. Ekar ditzagun gogora azkenik 2004ko hauteskunde bitxiak: zazpi lehiakide aritu izan ziren errektore-aulkiaren bila. Haien artean, ezker abertzalearen hautagaiak, Iñaki Antiguedadek, bigarren postua eskuratu zuen. Zazpi hautagaiek praktikan unibertsitate publikoko interes-talde eta kolektibo guztiak ordezkatzen zituzten, eta orduan bai, logikoki, parte hartzaileen kopurua hirukoiztu egin zen. Izan ere, esanguratsua da orduko hartan ikasle boto emaileen kopurua azken hauetakoa baino zortzi aldiz handiagoa izan zela.

Goirizelaiaren demarik gabeko «garaipena» ez dugu uste unibertsitarien artean dukeen karismagatik, edo kudeaketa ezin hobea garatu duelako, edo bere meritu politikei esker, edo jendearentzat proiektu erakargarria aurkeztu duelako izan denik. Areago, Goirizelaiaren irudia teknokrata gris batena izan da, ideia neoliberalekiko ongi egokitua eta "bikaintasuna" eta "konpetitibitatearen" aurrean gero eta makurtuago dagoen unibertsitateari aplikatua. Hori bai, maila akademikoan normaltasun kontserbadore batez gozatzeko aukera izan du. Ikasleen mugimendua desagertuta dago, ezker abertzalea oso integratuta, nahiko eroso egungo egitura unibertsitarioan. Ez du proiektu politikorik eta bere agerpenak deklaratibo hutsak dira, ez du inongo konpromisorik agertzen aldarrikatzen duena praktikara eramateko. Ezker abertzalea bestalde 2004tik hona zatituta agertu da. Batzuek beste hautagai bati eman diote botoa ("txarrik onenari"), eta beste batzuek –ikasleek gehienbat, nagusien iritzitik aldenduz– abstentziora jo dute.

Beste aldetik, beste ohiko bloke opositorea, unionistena alegia, denbora aurrera joan ahala, eragin akademikoa, administratiboa eta politikoa galtzen joan da. Bere eredu unibertsitarioa gero eta gehiago joan da "errealitatera" makurtzen, hots beren aurkari teorikoen eredura. Gaur egun ez du ikuspen alternatiborik eskaintzen. Gainera, Patxi Lopez eta Goirizelaiaren arteko sintonia onak alternatiba erreal baten aukera ezerezean utzi du. Nahiz eta ezin ahantz daiteke oraindik administrazio zentralaren instantzia politiko eta juridikoekin duen harreman estua dela eta horrek kontrol eta ahalmen nabarmenak ematen dizkiola unibertsitatean.

Egungo unibertsitatea, gizarte osoa bezala, krisi ekonomiko eta politikoan murgilduta dago. Zibilizazio-krisi sakonagoan ere bai.

Hainbat praktika, balore eta irudi zaharkituta gelditzen ari dira egunetik egunera. Horrekin batera lurralde-krisi batek ere bete-betean jotzen du: gizarteak gero eta

indar handiagoz exijitzen ditu independentziari eta gure arazo hurbilekoei erantzunak ematea. UPVri eta unibertsitateari, abertzaleei batez ere, garai hauek eskatzen dutenaren maila eskatu behar zaie. Egun unibertsitatea mugitzen duen pragmatismo teknokratiko eta merkatuzale arruntetik haratago joateko ordua da. Alternatiba argien, eraldatze unibertsitario, politiko eta sozialen ordua da. Konpromiso, balore berrien eta unibertsitatea beste norabide batean orientatzeko garaia da. Eta hori guztia gure herriak duen askatasun eta justizia sozialaren nahiarekin lotura estuan.

“Lege unibertsitario propioaren proposamena”

(2013-10-24)

UPVko errektore Iñaki Goirizelaiak berriki aldarrikatu du Euskal Sistema Unibertsitarioaren Lege berria elaboratu beharra. Errektoreak esandakoaren arabera, momentu hau egokia da euskal indar politikoen arteko itun handi bat bilatzeko eta guztion artean gai horretan akordio posiblerik handiera lortzeko. Haren ustetan (*Deia*ri emandako elkarrizketan), «bada garaia luzera begira jokatzeko, besteek zer egiten duten erreparatu gabe, gurea eginez, inorena kopiatu gabe. Uste dugu badela garaia hori egiteko». Eta aipatutako helburua lortzeko erkidego autonomoaren zenbait berezitasunen existentzia aipatzen du: hala nola «eskumena gurea da; eremu sozial oso konkretua dugu, eta Eusko Jaurlaritzak hezkuntzaren %100 ordaintzen du». Adierazpen horiek, bitxiki, nahiko bat datoz Urkulluk etorkizunean aurkeztuko duen Baskongadetarako «estatus» politiko berriaz emandako diskurtsoarekin. Gure ustez, Kataluniako gertakizunak eta Estatu espainiarraren norabide erdiratzailea daude bi diskurtso horien atzean. Historian zehar «Lege Propioa» kontzeptua komunitate batek—beste espazio sozio-politikoekin desberdinduz— bere marko juridiko propioa eta bakana ezartzeko eskumenari lotuta etorri izan da. Beraz, komunitate horren erabakitzeko eskumenari eta burujabetza politikoari erabat lotuta. Hain zuzen ere, hori izan da Euskal Unibertsitatea urteetan defenditu izan dutenen azpigeruza. Nolanahi ere, uste dugu errektoreak egindako aldarrikapena ez doala bide horretatik. Bere ideia gehiago ulertzen da indarrean dagoen marko

juridikoa errespetatuz baina, nolabait esan, modu irekiagoan interpretatuz. Horretarako gogora ekarriko omen ditu Erkidego autonomoak lituzkeen —eta Estatu espainolak bortxatuta dauzkan— alor horretako eskumenak. Baina errealitate egoskorrak —UPVren existentziaren urte luzeetan zehar baieztatuak —Administrazio zentralaren jarrera beti nagusitu dela diosku. Eskumenen interpretazioa beti egin izan du Madrilgo Gobernuak, toki bereko Legebiltzarrak eta, azken batean, Epaitegi Konstituzionalak. Goirizelaia bera garrazki kexu zen aspaldion mozketek eta lege-dekretuek UPVren kudeaketa arruntean izan duten eragina dela eta. Eta hori guztia horrela izan da gobernu autonomikoek, UPVk berak eta euskal talde sozial zein politikoek historikoki eskumen horien aldarrikapena egin duten arren.

Bestaldetik, uste dugu guztiz injustua dela errektorearen baieztapena LOU *(Ley Orgánica de Universidades)* Madrilen ontzat eman zenean ez zela hemen inolako erantzunik eman dioenean. Justu alderantziz, une hartan herri-erantzun ugari izan zen: manifestazioak, itxialdiak, grebak eta beste zenbait ekintza. Halaber, garai hartan Euskal Unibertsitateari buruz inoiz izan den eztabaidarik interesgarrienetakoa suertatu zen. Beste ekimen interesgarririk ere izan zen. Horien artean Uniekimena izenekoak Euskal Unibertsitate proiektu artikulatu bat aurkeztu zuen Gasteizko Legebiltzarrean hainbat euskal erakunde, partidu eta sindikatuk sustatzen zutelarik.

Irakidura handiko garaia izan zen eta manifestaldi ugari antolatu ziren, non euskaltzaleen ia espektroa osoa islatu baitzen. Bidezkoa da ere onartzea marea alternatiba eta erreibindikatzaile honen lagungarri garrantzitsua une hartan Anjeles Iztuetak zuzentzen zuen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila izan zela. Haren jarrera Unibertsitate-lege propio baten aldekoa izan zen, eta Madrildik inposatu nahi zen arautegitik haratago joateko ahalegina egin zuen. Horretarako, orain Goirizelaiak iradokitzen duen eskumenen interpretazio irekiagoa egiten ahalegindu zen. Zer esanik ez, orduan ere, azkenean, «Iztueta Legeak» LOUk agintzen zioten aginduak onartu behar izan zituen. Eta horrela izanik ere, sozialistek legearen artikulu batzuk Konstituzionalaren aurrean (nola ez!) «Iztueta Legearen» artikulu batzuen kontrako helegitea aurkeztu zuten.

Porrot egindako esperientzia guztiak ahaztu gabe, uste dugu errektorearen proposamenaren alde egon behar dugula. Beti errespetatu izan dugu herriaren borondatea islatzen duen eta erabaki-ahalmena handitzen duen edozein lege-aldaketa, nahiz eta iniziatiba oso mugatua izan. Baina horretarako behar-

beharrezkoa da aldezten diren eztabaida eta hausnarketa ez dadila Legebiltzarrera eta Unibertsitateko aginte-organoetara murriztu. Funtsezkoa deritzogu hori gizarte osora zabaldu eta bertan dauden hainbat talde interesatuei boza ematea hain gai garrantzitsuan.

Ez gara hutsetik hasiko zeren, esan dugunez, dokumentazio ugari dago gai honi buruz. Gizartearen eta herriaren parte hartzerik gabe ez litzateke inolako proiekturik aurrera atera beharko. Ez bada nahi, behintzat, teknikariek, juristek eta politikari profesionalek egindako laborategi-esperimentu bat, oraingo egoera funtsezko ezertan aldatuko ez duena. Present dauden sentsibilitate guztien arteko kontsentsu zabal lortzeko deialdiari buruz, guztiz boluntarista gera daiteke, helburua propiotzat har daiteken legea lortzea bada.

Estatuaren esanetara dauden partiduek beti errefusatu dute posibilitate hori, proposamena oso laburra zenean ere bai. Beti sustatu dituzte, txandako gobernuaren arabera, Madrildik zetozen Unibertsitate legeak (LRU eta LOU) eta «Iztueta Legearen» aurka agertu izan dira.

Edozein errektore akordio ahalik eta zabalenak bilatzera behartuta dago, noski. Baina burujabetzaren alde dauden abertzaleak behartuta daude «benetan» nazionalak diren proiektuen alde apustu egitera.

“Gure kaleratzearen XXII. Urteurrenean”

(2014-04-09)

Hogeita bi urte beteko dira unibertsitatetik despeditu gintuztenetik. Oraindik hiru gara UPVko Leioako atarian egunero gu berriz onartzeko eskatzen aritzen garen irakasleak. Gure borrokak unibertsitaterako Irakaslego Propioa lortzea zuen helburu: lan-kontratuaren bitartez gauzatua eta –eskubide zein betebeharretan– funtzionarioekin parekatua. Funtzionarioa baitzen irakasle iraunkorra izateko modu bakarra, borroka hasi genuenean. Hainbat gorabehera eta zenbait ezbeharren ondoren: kaleratzeak, desterruak, isunak, atxiloketak, epaiketak eta kartzela... gure eskariak gauzatu egin ziren. Lehenbizi, Estatuko legedian agertu ziren. Eta, gero, Euskal Unibertsitate Legearen onarpen eta

garapenarekin. Gaur egun, lege-aldaketa horiei esker, lan-kontratudun irakasle egonkorrak ditugu, lege propioek araututa. [...]

Nolanahi ere, UPVko arduradunek ez gaituzte unibertsitatean berronartu nahi, ez gure egoera berezia eta funtsezko eskubideak onartuko dizkigun negoziazio baten bidez behintzat. Horren ondorioz, gure egoerak printzipio eta eskubideen urraketa etengabean dirau.

DDT argitaletxeak berriki kaleratu du lan-kontratuaren aldeko azken 40 urteotako borrokaren kontaketa, gure ikuspuntutik: *"Diálogos sobre el Profesorado Propio y la Universidad"*. Gehienak UPV dauka agertoki gisa, baita Euskal Herriko borroka testuinguru sakon bezala ere. Seguru gaude liburuak ez duela inor hotz utziko.

“Gure kaleratzearen 30. urteurrenean”

(2022 – 03- 31)

Gaurko egunez beteko dira, martxoaren 31n, EHUtik despeditu gintuztenetik 30 urte borobil. Bete da, beraz, lan kontratu bitarteko irakasle propioaren aldeko borrokaren atal bat gehiago, eta ez edozelakoa. Borroka luze horren parte handi bat bi liburutan jasota dago: *Historia de una pancarta* (Arabera Kultur Taldea) eta *Diálogos sobre el profesorado propio y la Universidad* (DDT edizioak), beraz ez gara oraingoan atal horretan sartuko. Bakarrik aipatuko dugu, bide batez, gure erreibindikazioa 2007an errealitate bihurtu zela: gaur egun indarrean segitzen duen Iztueta legearen bilakaerarekin sortu ziren lan kontratudun irakasle propioak.

Harro gaude lorpen horretaz, zeren prozesuan horrenbeste borroka egin duen irakasle despedituen kolektiboaren parte bati behintzat, lorpen historiko horren zati bat doi-doi baitagokio. Tamalez, kolektibo horretako hiru partaideri ez zitzaigun eskaini negoziazioaren aukera, eta, ondorioz, pankarta ezagunari eutsiz segitu behar izan dugu Leioako campuseko atarian, gure egoeraren soluzio duin eta behin betikoa eskatuz. Konponbide horren zain gaudela, saiatzen gara gure borroka luzeak adierazi zuen guztia ahaztu ez dadin,

memoria unibertsitarioaren barruan txertatzeko ahaleginean.

Urteurren honetan, hortaz, 2007tik hona agintari unibertsitarioen aurrean gure egoerari irtenbidea aurkitzeko burutu ditugun ahaleginak laburki azaltzera mugatuko gara.

2009. urtean, orduan errektore zen Iñaki Goirizelaiak ordezkari bat bidali zigun gatazkari amaiera ipintzeko elkarrizketak prestatzeko asmoarekin. Halere, kontaktu batzuk izan ostean, bertan behera geratu zen iniziatiba hura, inongo azalpenik eman ez zitzaigularik. Hori dela eta,EHUko irakasle multzo batek —aurrez errektore izandako Juan Jose Goiriena de Gandarias tartean zela—, kontaktuak berriro martxan jartzeko eskatu zioten Goirizelaiari, baina alferrik, arazo legalak omen ziren aurrera segitzeko ezintasunaren aitzakia. Gauza bertsua erantzun zuen Patxi Lopez lehendakari izendatu berriak, kazetari batek gai horretaz galdetu zionean. Ez Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko 60 irakaslek sinatutako zentzu bereko eskaerak eta ez Fakultate eta Eskola batzuetako zuzendaritza batzordeek, ia aho batez despedituekin akordio batera heltzeko eskatzen zutenek, ez zuten inolako erantzunik jaso.

Goirizelaiaren bigarren agintaldian, EHUko aldezlea zen Itziar Etxebarriarekin jarri ginen kontaktuan, ea berak errektore jaunaren erantzun positiborik lortzen zuen. Aldezle andereari bidezkoak eta arrazoizkoak iruditu zitzaizkion gure eskariak, eta ondorioz errektoreari helarazi zizkion. Baina, berak ere, ez zuen erantzunik jaso.

2018. urtean, orduko errektorea zen Nekane Balluerkak negoziazio prozesu ofizial bat martxan jartzea erabaki zuen. Horretan parte hartu genuen Iñigo Urrutia aldezle berriak, Inma Gerrikagoitia errektoreordeak, EHUko irakasle batek, begirale modura, eta artikulu hau sinatzen dugun biok. Bi urtean zehar hainbat bilera eta kontaktu izan ziren, eta, gauza bideratuta zegoela zirudienean, unibertsitateko agintariek arazoa konpontzeko dirurik ez zegoela argudiatu zuten. Beraz, ordura arte trabak, arazo legalak zirenak, oraingoan arazo ekonomiko bihurtu ziren. Egia esateko, gure ustez, ez dira ez batzuk ez besteak, beti pentsatu izan dugu benetako oztopoa politiko-ideologikoa izan dela, eta horren arrazoiak aitorrezinak direnez, inork ez dizkigu oraino azaldu.

2021. urtean Eva Ferreira errektoretzara heldu zenean, irakasle talde batek sinatutako eskaria bidali zitzaion, Balluerkarekin izandako elkarrizketak berriro

martxan jar zitzan eskatuz. Oraingo honetan ez da inongo erantzunik jaso, ez Ferreiraren eta ezta aldezlearen aldetik ere. Gauzak horrela, Arartekoarengana jo, eta horren erantzuna ezintasunarena izan da: zeren eta gure erreklamazioa, legearen arabera, urtebetekoa baita, eta arazoa 2007koa denez, epez kanpo omen dago.

Ezin dugu ukatu bide instituzionalei jarraituz egin ditugun ahalegin guztiek kale egin dutela, eta hemen laburpen xume bat baino ez dugu aurkeztu. Unibertsitateko agintarien portaerak, aldakorrak izanik ere, beti izan dira negatiboak. Hala eta guztiz ere, irtenbide justu eta adostutako baten alde borrokan segituko dugu. Eta hori justiziagatik eta duintasunagatik egiten dugu batik bat, bere garaian bultzatu gintuen mugimenduak izan zuen dimentsioagatik eta, prozesu horretan, baldintza zailetan ere, parte hartu eta lagundu diguten pertsona guztiengatik.

“UPVk gure kaleratzearen 33. urteurrenean”

Naiz: (2025-04-08)

Ez dugu nahi Justizia handia, bere distiraz txunditzen duena, Justizia “Totala”.

Nahiago dugu ibiltariaren justizia, ibiltzean egiten duena justizia. Txoko txiki batetik, pankarta batekin, hiru aldarrikapenekin, eta aurrera egiteko aukera ematen duen erresistentzia ideiarekin.

Ez dugu asmorik mundua aldatzeko, ihes egiteko edo munduaz zerbitzatzeko.

Leku kuttun honetan loratzen den justizia txiki-txikiak bere baitan maitasun, egia eta gizatasun zati bat artatzeko balio izatea baino ez dugu espero.